

Eusebio Erkiaga

IRRIBARREA

GALTZEN DANEAN

Nobela

BIZKAIKO
FORU
ALDUNDIA



DIPUTACION
FORAL
DE BIZKAIA

12581

Donat. Diputación
Foral Bizkaia.



Euskal Biblioteka Labayru



1011622
LITERATURA / N. 1203

Eusebio Erkiaga

Iribarrea galtzen danean

(Elebarria)

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

ISBN: 84-505-4997-3
Depósito Legal: BI-248-1987
Imprime: SALINGRAF, S.A.L.
Andrés Isasi, 11 - 48012 Bilbao

Iribarrea galtzen danean
gizartea da galtzaile;
begiek euken ditzira ona
gero, graziarik bage.

SARRERA TA AGURRA

Antxiñatik dator eta ezagutzen dogu Eusebio Erkiaga euskal idazle. Gure azken gerra aurretxoan, «Endaitz» batek entzutea lortu eban egunkari eta aldizkarietan, bai eta Antzerti eta Olerti sailletako lanetan. Eta «Endaitz» ori Eusebio Erkiaga zan, orduan, esateko, oraindik kozkondu bagako lekeitiar mutil gazte argi eta zurra.

Ordurako, garai aretan Donostitik sortzen ziran Antzerti leiaketetan, IIIgarrenean ain zuzen, bere «Antzerki jaietan izan naiz» saritua izan zan. «Gaiez atsegiña, poliki josia eta bizitasunez igurtzia» esan eben Donostitik.

Geroago, 1936ko Olerti Sariketan, VIgarrenean, aipamen berezia emon eutsen bere «Lora gorriak» lanari.

Asierak baino ez ziran.

Gerratean, «Eguna» euskera utsezko egunkaria sortu zanetik, Bilbo jausieran galdu zanarte, ango kazetari izan zan. Kazetaritza barruan egoten dira ardura berezia eukiten dabenak eta bera zan arlo onetan «kaja»ko agerbide eta esanik urtenenak batu, josi eta taiutzen zituana.

Gero, gerrateko ondoren latzak gainduta, barru eta kanpo, egunargi eta illunpe, gogo eta biotz, euskerari lotu zan. Eta saiakera zabalagoetan alegindu eta sartu, bere bizibideko zereginari ezer kendu barik.

Berez eukan Kantauriko gatz lodia neurritz erabilten ikasi eban lez, eta esanbidetako zorrotasunei zeaztasuna ataratea lortu, sortu eta kaleratzen zitun lanak olerkiak izan edo ta elebarriak, abestien itzak edo bestelako agergerriak, gure izateari eta gure muiñari ikututen eutsen, eta erri kezka eta bizitasuna azkortu.

Orrela kaleratu zan «Arranegi» elebarria, erritar batek bere sorterriri eskiñi leikion erri-ezaupideko kontakizun txukuna. Txomin Agirrek «Arranondo» (Ondarroa) ezagutu erazi eban antzera, kresal usaiñez beteta, Erkiagak Lekeitio «Arranegi»tik artu, landu, mazitu eta eskamaz betea azaldu eban, arraiñik freskuenen antzerako.

Izan be Arranegi Lekeitioren biotz eta arima izan da beti, eta Erkiaga Lekeitioko kaletako mutil urduri eta arduratsua, ango molla egaletako kirrixka baltzak lez, zulo guztietan sartu eta urten ibiliaz.

Origaitik lortu eban oraingo eta ondorengo oroitzarako, Lekeitioren mendealdi bateko bizitza oartu, artu, egokitu eta zeaztasun egituz iruditu eta jasotea, Arranegi bertan ikusi eta entzunda lez, bizi-bizi, gordin-gordin eta gatz-puntu atsegin eta ao betekoan.

Gero «Araibar zalduna» eta «Batetik bestera», azken bi oneik «Txomin Agirre» deiturako leiaketetako sariak. Guipuzkeraz bata, bizkaieraz bestea.

Bere errikide zan Azkue jakintsu gurenaren bidetik jarraitu naian? Esan daigun ba eukala ortarako beste duintasun berezi bat. Euskaltzaindiak lenengotan euskaltzain urgazle aukeratu eban eta gero deduzko autu. Ori berori naiko, alako nortasun bat euskal saillean erakutsi al izateko, alako «maisu» bat lez kalera urteteko.

Geroagokoa da «Jaioko dira», Labayru'ren aitatasunagaz argitaratua. Eta emen dator orain Bizkaiko Aldundiak oraiñarteko bere diru saririk oparoenagaz saritua.

Zelakoa dan?

Nik Erkiagari buruzko Mitxelenaren irizpide bat gogoratu nai dot: «Denbora joanago, Erkiagaren emaitzak aberatsago».

Edo ta Lino Akesolok esan izan dauana: «Erkiagaren euskera aberats eta etorri onekoaren aurrean txapela erantsi bear dala uste dot».

Kritikalari ba nitz, edo ta ardura ori bete naian etorri, zerbait esan bearko neuke. Nire irizpide zeatz eta egitsu bat emoten alegindu, besterik ezean.

Baina gogoan daukat euskal esaera zaar bat: «Ez egin ezer, endorea, entzun arte bestea».

Endore (alkate) bateri dagokion kate berean sartu bearko, nire antzera, erriak aukeratutako Batzar Nagusien autapidez aldun nausi izatea, ez?


Orrela zuen eskuetara liburu onen agerpena egin eta bere argitaratzea agurtuaz, beste barik, zuen iritzi, kritika, esan eta idatziak artu, entzun, jaso eta irakurteko garretan geratzen naiz.

Nire aldetik ziur nago, egillearen gaitasuna ezagututa, goralgarri izango dirala eta ala gertatzeak Foru Aldundiari poz eta adorea emongo dautsoz gure izkuntza eta erriaren mesedean bide au zabaldu eta nasaitzen alegiñak egiteko.

Orra zuen eskuetan Erkiagaren IRRIBARREA GALTZEN DANEAN eta esan bearrak zuek bete.

Gaur Foru Aldundiaren izenean, erakunde onek atsegiñez eta arrotasunez argitaratzen dauan elebarri au agertu eta kaleratzean, bere Sarrerako Agur au nik egin bearrak arrotu egiten nau.

Orretan nator eta ez bestetan, IRRIBARREA GALTZEN DANEAN aurkeztutean. Eskerrak eta agur ta erdi.



HELDU nintzan urian, Izar Hotelean niretzako izentatu eusten gelako gau-mahaitxuaren kajoian paper batzuk aurkitu nituan. Esku-
eskribuak.

Gau berandua zan eta paperei ez neutsen jaramonik egin. Kajoitik atara be ez. Erantzi eta behingoan lotara nintzan. Ohe biguna. Ez jatan arrotz gertatu.

Biharamon goizean, oster, paperak kajoitik atara eta irakurten hasi nintzan. Ez zan gutun edo karta adiskidetsua. Hasierakoa eleder atalen bat, baina besteak...

Baruhausteko, behean egoan jatelekura jatsi nintzanean. hotelera-ko sarrera nagusiaren barruko aldean hoteleko hartzaile arduraduna egoan, errezepzionistea, neskabila dotore samarra. Ni neu jakinguratxua izan, eta nirea zan gelan ni baino lehenago nor egon zan jakin gura izango neukeala adierazo neutsan; 216 gelan, hain zuzen. Nor izan zan, zetan ziharduan, eta abar.

Liburuetara geroago begiratuko ebala erantzun eustan, eta azterre-
nik lortutea bazan, esango eustala. Erregu egin neutsan, arean, nire arazo txiker hori gomutan izan egian.

Gosaritan nahikoa lagun batu ginan.

Ez horraitino, hotelean bizilagun gengoan guztiak. Entzun neba-
nez, batzuk, eta batez be, zaharrago ziralako edo eragozpena ebelako edo makal samar ebiltzalako, gosaria euren geletara eroatea eskatu ohi ebela.

Batez be, dinot, jentea dagoan lekura agertzeko iguin eta itotasuna sentiduten daben pertsonak be, gure artean ba diralako.

Ni neu be, ez nengoan unada haretan osasunez ganezka, eta honen gehigarri, tamalezko beste zerbaite be, neure bizkarrean nebala nenbilen.

Lehenengo gosari aldi haretan, etxe haretan ostatuz gengoanon lagun mordo gehiengo begiz ikusteko zoria izan neban.

BAKANA zan nire logelan aurkitu neban idatziaren gaia eta garapena. Hiru atalok azalduko ditut.

A.I

Eguzkiak bere azkonak zorrotzu zituan eta gariburuak hori-hori jarteari ekin eutsan. (Ai, harrezkero, Bizkaiko soloetatik aldegin dabe galburu urretsu hareek!...).

Goiko larra urdin zabalean hodei zurizkak dantzari. Perkox artzain zahar zuhurraren ardiak nagi nagi baina baketsu egozan abaroan, begi bat edegita, bestea lo. Bapatean, iluntzearen susmoan, ardiak barriren barri ekin eutsoen urduri, gosekil antzean, bedar jateari. Gaueruntzeko hozkirriak jateko gogoia ernatu nunbait, gauaren erreinua labur ala luzeagoa, hareentzat beti be lar luzea izaten zala ekielako.

Mendia laga eta etxera nintzanez batera, telefono hariaren muturraldeko turrina, garra garraka hasi zan, astoa landan hasi ohi dan antzera.

BIGARREN orrian mezu zehatzagoa egoan.

A.II

Bakotxak bere eguneroko arduetan eta lanetan jardun beharra. TIL. Arerioa ez dago lo. TIL. Gure gure ditugunakaz nahaste, arrotz eta arrotz izpirituzko ugari dogu eusk-aroan, eta barrutian. TIL. Erbestetikoak ez da harritzeko, baina etxeak eta aterpe berberetako diranetarik be, auzoko eremu zelai nabarra eta hangoek gure ganetik aginpidea izatea gurago dabenak. TIL. Ba dirudi... ba dirudi... Hartzuloeta bedekatu eta askorentzako guragarri dan honetan, orainarte tentelak besterik ez dirala egon eta bizi izan. TIL. Esanak esan, eta idatziak idatzi, ezina da gure barruarentzat buztarri barririk gure buruganean jartea; arean be, daukagun buztarria, inork ezarria, kentzen ahalegin egin behar dogu. TIL. Horretarako eta horrek ekarri deusku beti bakeruntzeko burrukea, soilik; eta burrukarik gura ez dogunokana, kanpotik jatorkun menperatze zemaiaren aurkako burrukan jardute hau. TIL. Ez dogulako, ziur asko, Gandhiren pairuzko egonarririk. TIL. Itsaso zangarraren ondoan jaiok eta haziak, haren antzean ezin beheratuak izan gara. TIL. Egia gordina da; ez da harrokeria. TIL. Ez gaitez gure Herriaren, gure buruaren kaltezko diran anai arteko burruka barrietan hasi, sartu, jarraitu. TIL. Gure bularrak alkarri laztandu; arerioari bizkarra berotu. Zintzoari zintzo erantzun; arerioaren joko bigun maltzurri edo indarrezkoari, oster, lazkiro erantzun, gogor erantzun. Eutsi beti gureari. TIL. Kaltegarri daitekean txertoa, arduraz ikertu, urratu eta sutara... TIL. Halan be, arerioaren aurrez aurre arpegi latza, burua hotz, oinak eta eskuak bero. Baina gureak, gureok bihotza garbi. ASMOA zintzo, alkarmin sendoa

eta irribarrea ezpanetan, zintzoaren irribarrea, ez maltzurrena. TIL. Irribarrea galtzen danean, gizartea da galtzaile. TIL. Gizarteak, eta berariz gure gizarteak sendo, argi, garbi, indartsu iraun dagian, jardun, ekin. TIL. Iraupena osasuntsuak izango dau. Garaipena, zintzoak lortuko.

Azalpen motz: Arerioa gure soloan gaez, egunsentian, goizean eguna argitu orduko bedar txarra ereiten dabilela sinistuerazo deust testu astun honek. Zalge zitala, bedar zatarrak zart! ebagi, moztu eta sutara. Arriskua dakarsku bedar txarrak; gure Herriak behar ez dauana. Arerioa ez dago lo. Daitekena da.

Hoteleko hartzaile arduradun lirainak ez deust oraindino argitasunik emon. Ahaztu egin jako edo. Gogoratuerazoko deustat, neskatila dotore horri.

ELISABETE jesarrita dago. Alboko mahaitxu ganean, zokondo baten, heliotropo txanbil txikertxuak inguruan berezko bere usain atsegina zabaltzen dau. Gogoko jako Elisabeteri.

— Alabatxi, emoidazu abanikua. Bero lar dago.

Elisabete, amaren berba honeek ziri eginda, dagoan jesarlektik jagi da eta leihoaren estal-atal bati zirkin eragin deustanean, gelan kaleko argi dirdaiak makalagotu egin dira.

— Bai, eguzkia bego asago -dirautso amak.

Haizegile arina dakartso amari. Amak abanikuari begiratu eta,

— Hau berau astuna da. Astunena, Elisabete. Bestea ekarri egidazu.

— Osaba Bonik emon eutsuna?

— Berbera. Honelan gauza bi egingo ditut.

— Bi?

— Bai. Haizea hotzitu eta Boni...

— Ai!... —hasperen egin dau Elisabetek.

— Zeri dira hasperenok, Eli?

— Ama, zuk... osaba Boni aita baino maiteago ez ete zenduan?

— Eli! Esatea be!

Amak abaniku finenagaz plisti-plasta! haizea sortzen dau. Haize hori iruntsi egin behar dauala dirudi, aho zabal dagoan amak.

— Horreek dira eraginak eta zapladak, ama! Oiloak hegan dabiltzala esango neuke.

— Gura dozuna esan zineist.

— Gura dodana? Tirrit!

— Alaba lotsabakoa.

— Lotsabakoa, e? Zeinek zainduten zaitu, ama? Nor dozu ondoan beti bai beti? Esan.

Amak arnasa sakon eta luzea hartu dau, arnasestua gaindu bai-leuan.

— Osaba Boni aintzinatik ezagutzen neban, ene alabatxu hori.

— Ama, zergaitik ez zinan beragaz ezkondu?

— Ez daukagu ezer esateko! —ganeratu deutsa andra Fabik bere alabeari.

Abanikuaren plisti-plastea besterik ez da entzungarri, une luze samarrean.

AMAK buruko mina udan sarri izaten dau, jakeka ospatsua. Holakoetan tila edaria eskatzen daki. Beste batzuetan malenkoniak joten dau, bizkoilarako minak, nekeak; eta edari generosuen eskaria egiten daki. Gogaitaldiak minik ez deutso ekarten, baina arrauzi eten bakoetan jarduten dau.

— Patxaran tintila ekarriko deusut, ama.

— Ez, alaba. Ur irakin barria kamomilaz horitu egizu.

Alabea behingoan ixildu eta sukalderuntz doa.

Harik lasterrean iragangoan zehar usain zehe eta ezaguna susmatu dau amak.

Zurezko azpil zabalean txikarea bete beterik dakartso. Mantzanila urretsua. Lurruna dario beroaren berroz.

— Noiz jakin nei, ama, harako Boni...

— Ixilik, Elisabete, Kendu egizuz buruera txarrok zeure kaskar txolin horretatik. Alargundu nintzan eta hemen naukazu.

— Ama, aintzina ikasi neban kanta arin baten atala gomuterazoko deusut. «Lehenengo maitetasuna...

— Ez ahaztua, ez urrundua.

— Eta urrundu arren be...

— Agur sekulako, esango ez dau.

— Hori egia bada, ama... Riau, riau!

— Ume kazkarroa! Zer darabiltzu gaur, amari zoratu eragiten?

— Ixilekoa adierazoko deusut. Saiakera bat egin gura neuke, eta hortxe... zeure maitetasun gorde horren azi-orraziaz elebarritxua zertu edo.

Ama, begiak zabalik eta ahoa zabalago jarri jako Elisabeteri.

— Ez dozu horrelakorik egingo. Ezer behar ete dozu, nire ezer hain zuzen be, zeuk nobela koxkorren bat burututeko? Horraitinoko... Ez. Ezin egin zinei. Zer esango leukee ezagunek, eta adiskideek, eta batez be, senideek?

— Ez horrezazko kezkarik batu, ama. Jazoera hori, hemendik urrunean jazoko litzateke, eta leku eta pertsonak erabat beste lurreko eta haragiko izango litzatekez. Zeharo ezagungatx eta exotiko ipiniko neukez.

— A! hori horrelan bada...

— Neuri esango?

— A-! Ez, ez. Gauza minberea da, eta ez da inori esatekoa. Hainbat ezago neure alabeari.

— Ni be, emakumea ez al naz?

— Bai, baina zu ez zara ni, eta ez zeunke inoiz ez inoiz ulertuko. Elisabetek barre karkaixa zabala ta zaratatsua egin dau.

- Hona hemen andra Misteri...
- Zer dinozu?
- Egon. Frantzian egon nintzala gogoratu dot, eta han andra Mysterieuse ezagutu nebala. Misteri eta Boni... Boni misteri.
- Boniri baketan laga egiozu.
- Hil al zan, ba?
- Ez dakit. Ostera, honezkero, hil izango zan.
- Hil izango zan... hil izango zan. Itxaroaren bizkarrez, itxaro.
- Zagoz ixilik, alaba zirin hori.

HIRUGARREN orriak hauxe inoan:

A. III

Zoritarrez holakorik balitz, soloa zalgez, bedar txarrez beteko da. Eta garia itoko da. Eta ez dogu ogirik izango. Ez ogirik, ez galtzorik. Ez artorik, ez lastorik. Orduan goseak gogortuko gaitu. (Ai, Irlanda maitea, luzaroan gosez euki ebena!...)

Atxur, pala, laia, kodain eta lauhortzak hartu behar izango, eta auzolanean eskualdeetako seme guztiak alkarrengaturik, batean, sailean ekingo.

Urietako txankameak ez jakuz gure landarak igartuten, gure bedartzak zapalduten, gure ira gizenak lorrintzen, gure gari-tzak erreten etorriko. Eta bila baletoz... Bila, eske eta kentzen jatorkuzan mefistokumeen aurrean, gu geu be, sardak eskue-tan, txerrentxu bihurtuko ginatekez.

Bat, bi, hiru, lau, hamar, hogei...

Hogei, hamar, lau, hiru, bi, bat...

Bizkargi inguruan bizkar eta bular, eta beso eta esku sendoak batu behar izango ditugu. Ez bitu, ez hirutu; ez ezabatu, bai iraun eta iruin. Lurraldeetako semeak batzandu, arerioen artaburuak garandu.

Dei-bide, bost tontorretan, eta zazpi tontorretan suak bizturik. Zaharren esana, arnasea, gogoa, itzali ezina da. Ezina. Ulerte-zinezko gaua ekarri gura deuskue. Nundik dator kaltearen arriskua, Ipar, Hegoe, Sort ala Sart?

Zirt edo zart jardun beharko guk.

Osoaren txutxuan gurea baztertzea.

Betearen izenean, hutsak sortzea.

Buru, bihotz, hortz eta hagin. Esku eta atzapar.

Izali ezina da aurretikoen gogo-ilintia.

ASMOA.

Beti ASMOA.

TXAKURRAK jabe barik hemen sartzea debekaturik.
Bizikletak hemen ibiltea debekaturik.
Loleku txoznarik hemen ipintea debekaturik.
Bedarganeak zapaldutea dekebatuta.
Lorak ostutea debekatuta.
Bazterretan zikinak lagatea debekatuta.
Inor hiltea...?

IBILTELEKUAN ezkiak eta leizarrondoak dagoz.

Txopo lerdan luze luze bi, bikiak ziranak, ei egozan. Gaur, ez. Goragoko lerroan magnolia zuhaitzak, eder eta panpots, uri honetako neskatilak ainako. Orri berde ilunen artean kokaturik, magnolia lora zuriak apaingarri. Batzuk dagoaneko horizta samarrak, baina atseginak begientzat. Banakak lurrera dira.

Lurrean lora bi hartu ditut, gaztaina kolorekoak. Eskuagaz igurtzia egin eta laztan biguna egiten deustela dirudi. Usain ez usain, sudurrak gustoa hartzen.

Magnolia lora honeek leun, samur, bigunak dira, gamuza antze-koak, garia joteko garaian. Geroago lorok gogortu egiten dira, zaldu. Aurkituriko orrietarik batek diraust.

Horraitino, Bizkaian orain ez da garirik ereiten, ez ebaten, ez garbitzen, ez garigaraurik ganbararutzen, ez galtzurik sabaieratzen.

Algotzak ez deutsa inori azkurarik ez zitzadarik egingo, ez bizka-rran, ez kolkoan, ez atzean, ez aurrean. Gorputzak garbi dagoz, gariaren elementu zakarretarik garbi.

MAGNOLIA toki lauan bakea dago une honetan. Kalegintza amurruak, osterak, kalte egiten deutse magnolia ederrei. Susterreko zain lodi batzuk ebagi deutsez gizonek, eta lurretiko ura edateko bideak, biderik erdiak kendu. Gizona da basatia, ez arbolea; ez basoa.

Alderdi eder honek lehengo antza dauko. Jaun aberats batek bere diruz eratu eban leku atsegin hau. Urteak urte, uriarena da orain. Gizartearen jabekuntzeak hemen emon dau bere frutua.

Edonor da jabe. Sarritan, inor be ez.

Aginduak idatzi ditue sarrerako oholezko letra-altaran. Debekatu-rik, debekatuta.

Haizea saltoka dabil orririk orri. Ezkien orriek euren azpialde zurizteagoa erakusten deutsoe ikusi gura dauanari. Niri be bai, irribarre mazala egingo baileusten.

Jesarleku luze baten atsen egin dot; hutsik dagoan jesarlekuan, gehienak lagunez beterik dagoz eta. Eritxi baten, lau lagun errez hartuko leukez zizailu honek.

Bakartadea maitagarri da, baina ez beti.

Gizona ez ba basoko arbolea, ez itsasoko atxa.

PARKERA heldu baino lehen, basilika ederraren aurretik igaro

naz. Ezkerraldeko eleizape hedatsuko horma zabal baten idatzibarrri dagoana ezabatzen dihardu gizon batek. Dagoaneko letra batzuk borra-
tu ditu.

— Bart ipini ditue pintura baltzez letra honeek -diraust gizon langile honek.

— Eta zer dinoe letrok? Euskeraz dagoanik ez dirudi.

— Ez, ez dagoz egon be. Berbok gaztelaniazkoak dira. Batzuk kendu ditut.

— Eta zer... ?

— Egon. Osorik egon danean, hauxe inoan: «Me cagüen Dios».

— Guen, dinozu.

— Bai, uren ganean puntu bi ipini ditu ahaztu barik Cervantes argi horrek. Ba daki.

— Ikusten? Ba, dinoan hori, ez dau errez izango. Estura handian egon eta da, zera egiteko tokirik bapatean aurkitu ezinik?

— Ez, astiro ibili dala uste dot. Ba dinotsut, puntu biak ezartea be, ez jako ahaztu.

Barre gaizto egin dau horma garbitzaileak.

— Beste lotsabagakeria batzuk be, ikusi ditugu egonokaz.

— Bai, e?

— Berbarako: lehengo baten mutil gazte batek altara nagusirako marmolezko harmaila gorriak igon, mikrofonuaren aurrean jarri, eta errosariotarako etorrira egozanei, honexek berbok esan eutsezan; honeek be Andra Mari santisimaren lurraldeko hizkeraz: «Jaunok eta andreok, hauxe esatea otu jat eta esan egingo deusuet: Zoaze pop... hartzen». Horixe esan eta bertatik ihesari emon eutsan. Kalean harrapatu eben, baina zer...!

— Sermoe ederra.

— Itzela. Lauaxetaren osaba don Patxi abadeak esana jatort gomutara. «Ba dakizue gizona zer dan? —itandu eutsen behin hemen sakristian aldran egozan abade lagunei—. «Gizona, kaka dok». Eta orduan, beste abade jakintsu batek zerau erantzun: «Sekula ez joat gizonagazko definizino hobarik entzun».

— Horraitino!

— Ba dirudi orain larogetaz urte eleiza honetan aitaturiko berbea erdaldun bi horreen arimetan erne ta mardotu egin dala. Gizajo handi bi horreek be, kakaren semeak dituzu.

Gizon horma garbitzailearen esan modu sendo horrek barruan zauzkada ikaragarria egin deust.

— Demokrataren batzuk ziur asko —gehitu dot, mingostasunez.

— Hyde Parken sarri ibiliak, antza. Ai, gure asaben demokrazi miragarria! Birrindu egingo ete dogu? Horrelan, zai eta birrin bihurtuko geunke.

Nagoan jesarlekuaren aurretik eta atzetik jentea haruntz honuntz dabil, geratu barik. Magnoliaren usainez, logurea jatort.

Berezko nagia, ahuldurea, osasun betean ez gagozanean.

DEBEKATURIK...

Mutikoak bizikleta ganean doaz eta datoz.

Txakurrak hara horra, aske dabiltz.

Bedarrak zapaltzeko errukirik ez da, nunbait; han urrunago neska-toak eta mutikoak erdi etzunda dakustazalako.

Lora lapurretan susmatu dot andra sasoiko bat.

Eta beste sasoikoago batek, metalezko eta lonazko jesarleku bakar-tia bedar ganean dauko, eta bere oinak bedarra zapaltzen dabe. Han, letrero galanta dagoala esan arren, andra ondo jantzi horrek ez deust jaramonik egin.

«Errotulo zuri zutun hori, zure letrok ez ditue irakurgarri».

Uriko berbeta antzekoan dagoz, ez zehatzean. Debekatuta...

Ohiturazko debekatzeak. Irakurteko gogo handirik ez inork. Irakurri arren be, gomuta makala. Hizkiok edergarri huts ete dira? Erbestetik datozeanek ez dakie, arean, urikoen berbetarik.

Orain, alkarren besondotik hiru emakume datoz. Lagungarrizko edo maitasunezko loturan.

Honeetarik bata ez da atzo goizekoa. Andra bizkar zabal samarra, buruko uleak zuri, makilatxua eskuan. Soineko grisa. Petunia koloreko jersei arin antzekoa ganetik.

Albotikako lagunak gazteagoak dira, lora irudiak euren jantzietan. Uleak motx. Taiuz koipe handirik ez daben neskatilak.

Nire parera heldu diranean, erdi gelditu egin dira, eta andra urtetsuagoa, behin sasoi batera ezkerro, gizon zein emakumek ohi dauan patxada lotsagaldu samarrez, begira begira egon jat. Gazteak ez, ostera; hara asagora begira egon dira, urrunak zorabiatu edo.

Ni be, urrunera begira jarri naz. Andrak aurreruntz joan dira. Horraitino, urruntxuagotik batak eta besteek begirakunak egin deustez. Eurek euretara barriketan jardun dabela esango neuke. Susmoa, beste-rik ez.

Urrunago dagoan banko bigarreanean jesarri dira. Zutundu egin naz une baten, eta bestela baitakoan hareei so egin deutset; ez dalakoan, bai delakoan, nik be, begiratu. Eskuetan ekarrezan emepoltsatuak jesarleku ganean ipini ditue. Orain neu nago hareei begira, baina ez haren begira. Jezarri-naz barriro. Patrikeratik liburu estua atara dot. Gura izan dodan une ixil eta baketsua lortu dodalakon nago. Bakartadean irakurri behar dodan liburua da. Olerkari handi batek idatzia. Bizkailurrak ez dakit hau ainakorik emon ete deuskunik, bere berbeta jatorrean.

AZALEKO letra berdeetan gure mendien esmeralda ikutua dauko. Bedar mehe lirainak goruntz goruntz datoz. Azal horretan lurra ez dago antzu, ez dago lehor. Bedarrok ez dira igartu. Hori ondo!

«Denbora

galdu alde».

Hiru berbako izen misterioduna.

Ez dakar atsegin soila, hurrean. Mezua be, ez ete dakartso irakurle

arduratuari? Idazlearen entzuteak gizasemea liburua eroatera bultzatu ohi dau. Eta geroago, egilea ezagutzeko aukerea, bai lanez, bai arpegiz be, ahal izanean. Egilea arpegiz ezaguna danean be, batzuetan haren gogoia zeharo ez dau beste inork ezagutzen, berak baino.

Poesiaren zelai zoragarrian baturiko lora txortak eskeini eutsazan behinola elederrari. Oraingo hau berezia da, ausaz. Lotsatiak azalak urratu, haragia ebagi eta erraiak agiri jartea egin dauala susmatuten da, lehenengo orrialde trinkoan bertan. Ikusi.

«BEHIN BATEAN bazen gizon bat... (...)

... eta horixe da behin bateko gizon haren ipuin guztia. Ez da besterik».

Besterik ez dala? Asistar ospatsuaren arima-kantu apalaren intziri biguna, arean be.

Gizon bat, gizon gardena.

— PARKATU, jauna —entzun dot. Emakume batek hain zuzen esana, liburuaren lehenengo orrialdekoa irakurri barri dodanean.

Irakatsi euskuen adei legeari jaramon eginez, dart! zutundu egin naz.

— Esan, esan egidazu ezetariko atzerakuntzarik bage.

— Zera... lehentxuago hemen zehar iragan gara, zeure aurretik iragan be, eta...

— Gara, diraustazu. Nortzuk, ostera?

— Parkatu; han jesarleku haretan dagozanak eta neure burua. Bestea, izekoa dogu.

— Urte on askotan. Ezer behar ete dozue?

— ... Ez. Izekok zure irudia, zure arpegia ezaguntzat daukala dinosku.

— Ezaguna... zetatik edo nundik?

— Istorio luze samarra litzateke baina... Zu Elisabeteren...

— Elisabeteren ezer ni? Nor da Elisabete?

— A!... Horretara ezkerro, ezer be ez. Kendu egizu burutik nik esana. Parkatu; arren, eta agindu. Dana dala... eskerrik asko. Esango deuts izekori.

Joan doa emakumea. Joan doa. Hari begira geratu naz. Emakumeen sikologia zorrotza eta indartsua ei da. Bare ta nare egon nazan hau, kezka usainez jarri nabe izeko-lobok. Nor da izeko hori? Nor Elisabete?

LIBURUAREN orrialde bi irauli eta bertso lehengora heldu naz.

«Euskararen etorkizunaz baino

naiz euskararen orainaz

arduratenago...»

dino egileak mingostasunez, barruko esturaz.

Geroago, maisutasunez darabilen idaztortzak, haxe esan dau:
«POESIA hau zaharra da,
egunsentia bezain zaharra.
Noiztikoa da egunsentia?
Noiztikoa da poesia?

... ..

Gizona zaharra da,
historia baino zaharragoa.
Mugimendurako da sortzen gizona».

Eta ni hemen geldi, jesarrita, urrunera begiraka, hurreragokoa ikusi guran; liburuaren izpirituzko edaria edan nahirik.

Izan be, ederra da urruneko lerro urdina. Ederra, aurrean eta alboan dodana, magnolia ondoaren inguruan, eguzkiak izpi sastaiak bialtzen deuskuzan bitartean. Ederra ez ete, ganean bedar berdea daukon liburuaren guna?

«... nahiaren sutan bizirik erretzen garen
geure buruon saskara
ernegu ta ero
ia besterik ez gara».

Liburua sarratu dot eta begiak itxi. Olerkariaren erostea... Hiru emakumeen jakingurea.

«Saskara, ernegu eta ero, ia besterik ez»? Ezina. Horraitino, ez! Zerbait gehiago bai, bizi gareno behintzat, gu geu, nahaiaren sutan erre barik bizi behar dogunok gara.

Ibilelekutik urrun barik, autobus luze popa zabala pasatu da jentez beterik. Txistu soinua eta txaloak. Biziak bizirik, eta asko ernegatu barik.

BAKARRIK nagoan jesarlekura auzoak heldu jataz. Atso-agurak dira. Alboan ditut orain.

— Egunon! —esan deuste, maratz.

— Halan ekarri.

Gizonezkoak, jesarri-ala, eskuan erdi tximurtuta ekarri dauan egunkaria zabaldu dau. Irakurle bi izango gara, aurki. Ostera, betaurrekoen bila hasi da. Hurrengorik hurrengo, aldean daukazan patrikara guztiak arakatu ditu.

— Andrea —dirautso beragaz etorri dan emakumeari—. Nire ba-teaurrekoak ikusi...

— Ikusi? Bai gorde be. Zeuk laga deustazuz eta hementxe daukadaz, esku-kartera honetan. Ahaztu, ala? Eutsizuz, gizona!

Senarrak —uste dot— betaurrekoak eskuetan hartu, garbi ete dagozan goruntz zertu, eta sudur kako ganean polito ipini ditu.

Andreak trikotari ekin deutso. Paixea hasita daukala ohartu natxako. Aulki luze berean jesarritako hirurok ixiltasunez lotu gara.

Liburua barriren barri 17 garren orrialdean edegi eta... «nahiaren sutan bizirik erretzen...»

Gehiago irakurteko betarik ez dot. Pentsamentuen larra otatsura, sasitsura naroa nahiaren su horrek.

Bapatean ibilteko gogo sortu jat. Oinetan egonezina susmatzen dot. Eta jagi, eta ba noa. Ez dakit noruntz. Jesarlekuko lagunei agur egin deutset eta ingurubiran urrundu naz. Beste alderdi haretaruntz joango naz, ez magnolia ez ezki. Zumarrak eta leizarrak dira han nagusi. Eta askaziren batzuk.

Jente gaztea dago eta dabil alde honetan. Mutil aldrak, neskato txortak. Bikoteren batzuk be bai, maitaketan ixil ixilik, goizean hasita.

Gazteok jantzi arinak ditue soinean. Mutikoen amerikano praka estu urdinak, maiztuak, zuriztak, kolorgak; alkondara hutsik dagoz. Neskatoak gona motx, iztar mamintsuak eta belaunburuak eguzkiak ilundurikoak. Goiko jantziak besorik bakoak, paparretan sarrera zabalak, gaztetasuneko edertasuna agiri agirian dabela.

HOTELERA nazanean, ordu bi ta erdiak.

Ordurako, kaleetan lagunak gitxitzen hasi dira. Horraitino, beribilez josita plazak eta kaleak. Mila koloretako beribil dirdizariak.

Neure gelara igon dot. Arpegia busti, uleak orraztu, eskuak garbitu. liburua laga. Eta ba noa polito polito beheko jantokira. Komedora luze aina zabala da. Leiho handiak ditu. Areto argia benetan. Hegoaldean, leiho kristaletan zehar, eguzkiak urrezko izpiak mehe mehe, lerroan, inork atxiki ezinak, sartzen ditu. Kortina finak eta alboetan lodiagoak, ilunagoak, erdi baturik dagoz, alde batera eta bestera.

Sarreratik hurren hutsik dagoan mahaiaren inguru jesarri naz. Neskatala zerbitzari gaztea dator eta itandu deusat:

— Mahai honetan ni...

— Barria al da?

— Bai, ba.

— Jesarri leiteke. Mahai hau hutsik dago, orain behineon. Beste inor ba al dau lagun, jauna?

— Ez, ba. Bart beranduan heldu nintzan, afariak amaituta gero. Hotelean, bakarrik nago.

Ez deust zerbitzariak une haretan gehiago barbarik egin, baina goitik behera begiratu deust.

— Ardaorik edango al dau berorrek?

— Berorrek?

Irribarre egin dau. Neuk be bai.

— Bai, ardaoa be, ekarri egidazu.

Komedoreko mahairik gehienak lagunez beterik dagoz. Zahar, gazte, emakume, gizeozko, umeak be han hor agiri dira.

Aurreko horman bodegoi handi samarra dago. Urrunago, itsas ikuspegiko kuadroa, urdinez blai, zuri-ikutuak ertzetan, barku txikerra uhin ganean, txirriak eta kaiok hegan.

Ardaoa, ogia eta behingoan salda beroa. Platereko saldeari gozo eretxi deusat. Gatza bere zer-zerean ezarria.

Hemen dabiltz zerbitzariak. Aide darabile, soineko baltzak, amantal zuriak. Nire zerbitzariak arrain zati bi laga deustaz platerean. Eta limoi zatia.

—Izena? —diraustsat.

—Lebatza.

— Ez. Zeurea.

Ostera be, irribarre egin eta joan doa, mahairik mahai. Jankar eta nakar heldu nazan arren, gozoa deritxat orainarteko jateko guztiari, haragia be jan ostean. Mahai azkenekoak gaur igaliak izan dira; aldi-koak.

Bazkaltiar batzuk ba doaz, astiro gehienak.

— Areto horretara joan leiteke —diraust zerbitzariak—. Te, kafe eta edariak hor banatzen ditugu. Zerbitzari gazteak nire gelako zenbakia adierazo degiodan, mesedez, eskatu deust.

—216.

— Jakitearren. Gero arte, ba, jauna.

Goian neure logelan nasai nasai jesarri naz. Leiho edegitik haize epelaren, are beroaren bafadak datoz. Bero lar, behar bada.

Eskuturreko erlojuari begiratu deusadanean bost eta erdiak dira. Barrero leihoratu nazanean, zerualdea hodeiz bete eta ilundu egin dala dakust. Are gehiago; trumon haizearen ondorenak ganean ete ditugun pentsatu dot.

Ez naz oker ibili. Hegoaldetik izan dira harik lasterrean lehenengo trumon burrunbadak, urrunean antza. Baina harik lasterrean bunburrunak ugari eta gero ta hurrerago, tximisten eta oinestuen zitzada itsugarriak datoz, burrunbada barrien mezulari.

Pasilora urten dodanean, ostatuko amama zaharra dakust, kortxoak kendurik daukan botela iluna ezkerreko eskuan, noizean behin etzunda jarri, eskumako eskura ur txorrotadea bota, eta gero baztar guztiak zipriztinez beteten dituala; isurketa horretan zipriztinok horra ta hara doaz, salmodia antzean diharduan bitartean:

«Santa Barbara, Santa Kruz,

Jauna, erruki zakiguz.

Inusenteen ogia,

Jauna, miserikordia...»

— Eutsi zuri be zipriztinok —esan deust, eta buruan, arpegian eta eskuetan sentidu dot ur bedeinkatuaren hezoa.

Besoak antxumatz begira geratu natxako.

— Ekandu onak ez dira galdu behar, ene semea.

Neure gelara bihurtu naz. Trumoi ikaragarri baten ostean, lehenengo euri tanta lodiak jausi dira. Leihora ni hurreratu eta lur hezobarriaren usain berezia sartu jat surtziloetan barruna.

Berehalakoan euri zaparradea, haize ta nahaste. Udako ekatxa. Ausaz, hoberantza egingo dau, eta iluntzean aro egoki atsegina gertatuko.

Bizkor doa kalean ura; aldaparik txikienean beheruntz eta behe-

runtz. Potxingoak eratzten ditu. Isolda zulo biribilak eta luzangak be, hautsez eta zikinez beterik, hainbeste euriren ura behingoan edan ezinez, aintzira ziztrin bihurtuko dira.

Oinestuak aldendu dirala susmatu nik, eta leihoruntz noa, liburua eskuan.

«Ez gara hain beharrezko...»

Sei lerro beherago, esaldi sendoa agertzen dau:

«heriotza ezezik, egitea ere zor bait dugu».

Euriak botala jardun dau. Kale erdian zehar lehenengo, espaloi muga lerroetan zehar geroago, zeru aldetik jatsiriko euria urtika, saltari doa, ertz bat jo, harri koskorren bizkarretan gora, kiribilean doa, hare, saskara eta abarrak batuz eta norabaitera eroanez.

Lagunen bat edo beste arinetan doa, etxeen hornei deutsela, busti gura ezta, katuak uraren ihesi joan ohi diran lez.

TXAKA txaka, ate hoska norbait.

— Aurrera! —esan deusat.

Ez deust entzun, hurrean. Jagi eta atearen kisketari glask eragin eta atea edegi dot.

— Parkatu, Uranga jauna —diraust arduradun neskatilea jasekoak—

Ezin orainarte ziur jakin... Gela honetan egon zanaren izena ezabaturik dago. Egun hareetan sartu-urten handia gerta, eta aldakuntzak egin ziran. Behar bada, gelariak gogoan izango leuke...

— Eskerrik asko. Laga, zera... izenak jakitea gustatzen jat. Zeurea...

Neskatilea niri begira jarri da, unetxuan ixilik, baina geroago:

— Miren Oibar.

— Bikotxa.

— Gehienek Oibar soil soilik esaten deuste.

— Oibar... «Oi, bart...», kantu samurraren hasieraa.

Nire gelako atea edegita dodala nagoanean, han doa bizkor pasiloan zehar eta zurubian zehar gero Miren Oibar.

— Gero arte —diraustat aldarriz. Ez deust erantzun. Liburua edegita daukat eta lerroak behingoan irakurri gura nik.

«Utopia, kimera?

Gure maitasunak aukeratu zuen

maitakizun maitagarria

bera da ta,

aurrera...»

Eta neure buruari itandu deusat: Maitetasuna... zenbat eratako, zer modutako maitetasuna aukeratu behar ete neban?

GOIZEAN kaleak huts hutsik dagozala, ibiltaldia egitea otu jat. Basilikearen torre luzearen gerizpeak —gerizpe goiztarra, luzeran iluntzekoaren antzekoa—, aurreko plaza eroso zeharkatu dau, eta jarrai-

tuz, plazearen beste aldeko etxe ederraren goitik beherako guztira daroa bere lerro iluna, lerro txit zuzena. Egun epela, atsegina, hor noa kaleetan zehar.

Urduri eta gosez, torratxoriak gora eta behera, hegada lasterrean, usoen ibilera baldar samarren tartean dabiltz erne, zoli, lurrean legokezan ogi apurrak, jaki brintzak, hazizatiak ahoratu guran, usoak urrats bakotxean buruari atzera ta aurrera eraginez, torratxoriak jauzika, saltoka. Usoek kauskadea egin baino lehen, torratxoriak lurrean dagoan ogi zati gogorrari hiru- lau pikokada egingo deutsoz. Inor datorrenean, hurreratzen danean, uso astunak lur ganean jarraitu arren, torratxori buruhandiak, pirrist, itsumustuko hegazkadea egingo dau, baina barriri behingoan lurrera jatsita, usoari jatekoa azkarrago ostu. Tximistea lez datoz, tximistea lez doaz, doaz buruhandiok.

Gizon bik topez egin dabe kalean. Bakotxak bere bideari jarraituz, ezagupidezko agurra, geratzeke.

— Goizetik.

— Bai zeu be.

Zidarrezko jantziz apaintzen hasi da ortze urdina, zeruaren azpia. Kale arte estuetatik urten guraz nabil, mendien esmeralda atsegina ikusteko.

Kaleetan lagunak ugarituz, eta batez be, beribilak.

Inarrezko ipizki lodiak eskuetan, gaueko zarama kamioek eroan ez dituen zaborreriak eta zikinak batuko ditue kalegarbitzaileok. Batzen dituen zarama eta saskarok eskuburdixura sartzen ditue. Astiro egiteko lana da, nunbait. Gero burdiska hori gizon bakarrak daroa, nagi antzean bultzeraginez.

Tabernetan, kanpo aldeko mahaietan neska mutil gazteak, batzuk apain eta garbi, enparauak ule zapazto, soineko ilun koipetsuz, ganora handi barik. Jaseko izatearen sena galdurikoak, tamalez esan beharko.

Kalegarbitzaileari goizak egarria dakartso. Kaleko lehenengo iturrian —urietan orain iturriak gitxi eta mehaztuak —zanga zanga edaten hasi da, gerria okerturik, ahoa eta begiak goruntz. Eskuganeagaz musturrak sikatu eta ekin lanari, ekite astirotsu hori ekitea baldin bada. Edozer ez dago oraindino mekanizaturik. Jardin txiki baten egon naz luzaroan, erosi dodan egunkariari irakurtaldiak egin, inguruan dabiltzan lagunei begiratu.

Gizonezkoek ez hainbestean, baina emakumeek euren narru erdia agirian dauke. Berotasunak dakarren asazkaldia. Goiak eta barrenak baltzitu beharra, eguzkiaren igurtziz.

ILUNTZERAGO, etxeko atea brastadan edegi eta andra Fabiren seme Balbi etxera sartu da.

— Zelan, ama? —itandu deutso heldubarriak.

— Ba... tira! Sargoriak narabil nahastaturik. Eta zuk, zer barri?

— Ezin neizu ezer esan. Eguneke gorabehera eskas. Gauzak ezarian datoz.

— Ogia merkatuko al da?

Balbik irribarre murrizta egin dau eta amari mosu egin deutso bekokian.

— Bekoki beroa —esan dau agin artean lez.

— Baina ameslaria —gehitu deutso Elisabetek. Kixotek haizerroten hegadak ainean, amak abanikuak darabiltz aidean.

— Ai! Balbi... zure arreba Eli bai dala hegazkaria. Orain be, beste kontakizunen bat atondu gura ei dau.

— Bai? Ederto. Eta gaia?

— Bene, emakume baten izar buztanduna.

— Zein Bene?

— Ez egiozu jaramonik egin neska zoranga honi. Bene edo Boni esan gura ei dau.

— A...! Izen hori ba zan gure senitartean.

— Ba zan bakarrik, Balbi? —ganeratu deutso Elisabetek. Balbik sorbaldak jaso ditu. Amak eta seme-alabek barre gangarrak egin ditue, hurrengorik hurrengo. Lehenengoa jakitun da. Bigarrenok zerbait gehiago jakin guran.

Balbi bere despatxura doa. Eli, haren atzetik.

—Balbi, zuk zer dakizu Boni gure osabeaz?

— Nik i... Hor, etxeko erretratuen kutxan ba zan aldi baten edo ba ziran argazki bi. Bietan egoana pertsona berbera zan. Gizonezkoa. Behinola nik ikusi ta ikusi niharduenean, ama neure ondora etorri, eskutik kendu eta harrezkero horreek erretratu biok... porrot! ez ditut inun ez inoiz susmatu. Azterrenik be ez.

— Argazki bi horreek amak eskutik kendu eutsuzala... ziur ete zagoz?

— Baietz esango neuke. Bai, bi ziran.

— Zelakoak edo... zer agiri zan haretarik baktotxean?

— Gizon bat bakarra. Berbera bietan. Baten, zutunik egoan Boni edo zana zalakoa. Bestean be, Boni, jesarrita; eskuetan beste erretratu bat eukalakoan nago.

— Ta, eskuko argazki horretan...

— Emakumearen arpegia eta bularraldea.

— Inoren antzik?

Balbik atzamarra aho aurrean ipini, eta beste eskuko atzamar lodiagaz, han beste lekuan egoan ama izentatu eban.

— Eta, besterik ezer?

— Eskuz idatziriko letrak. Letra gorriak zirala esango neuke.

— Eta zer inoen?

— Zer... Orduan txikina nintzan eta, letrak be bihurriak edo txinurri antzekoak eta... Horraitino...

— Ea gomutatzen dituzun. Berbaren bat, besterik ezean.

— Berbaren bat... Ez neuke samea jokatuko baina, halako «A mi Fabi...»

— «A mi Fabi»... Ta zer gehiago?

- Zer gehiago... zer gehiago... Egon. E... «cariño» berbea be bai.
- Burua argitzen joiatzu eta, ea ba...
- ... ez ba. Harik geroago, txakur polit bat euki genduan. Zu txikerra orduan, eta ez dakizu. Baina txakur polit horren izena...
- «Cariño» zan.
- Bai. «Cariño» zan. Baina hil egin jakun. Beribil batek zapalduta hil be. Eta orduan amak, sekulako burutik beherakoa izan eban. Asteetan eta asteetan, «Cariño» gora, «Cariño» behera ibili jakun. Atsekabe handia hartu eban.
- Txakur hori nork erosi eban? Aitak...?
- Ez, aitak ez. Ekarri egin eben, ez dakit zeinek, ostera. Barkuren baten ekarri eben.
- Eta aitak...?
- Aitari txakurrak... gustatzen jakozan eta sarri ibilten zan txakurragaz kalean. Behinola, ostera...
- Zer?
- Amari hasarratu egin jakon, txakurra zala ta ez zala. Txakurra neurea da —esan eutsan aitari.
- Eta aitak...?
- Aita, ba dakizu ba, barruz eta osasunez makala zan eta, baietz, erantzun eutsan amari. Horregaitik ez ebela hasarrekuntzarik izango.
- Eta txakurra hil...
- Aita bizi zala hil zan.
- Eta aitak, amaren pariztak eta putzaldiak eta erostak zirala ta...?
- Aitak... halako zaparrada aldietan zeozer esaten eban ahopean, baina hari batzuetan alkondara idunak be ez eutsan berbarik entzuten.
- «Cariño»-ren istorio zatia ba dakit. Amari ea apurka apurka...
- Jaungoikoarren, Eli: ez deutzazu nik ezer esan deutzudanik agertuko!
- ... Ez! Nekasia kriada zaharrari entzunik nekiala esango deutzat, baldin arriskuko egoerarik suertatzen bada. Amak niri egia esan gura ez? Ba, neuk be, sikili mikili, ipuinari luma bakarriak ipini.
- Horrelantxe lotu zan egun haretan Balbi eta Elisabete neba —arrebena arteko tratua, itunbena. Amak artezean egundo jakingo ez ebana.

SUKARREZ nagoala susmatu dot.

Jagi baino lehen, ohean bertan igarri dot, itzartu nazanean izerditan egon nazalako. Eta ohean ganekorik izarea eta manta arina besterik ez ditut euki.

Baruhaustea gelan bertan egitea erabagi dot. Eskatu, eta zerbitzari neskatile gazte batek esnea ta kafea ekarri deustaz, azukarea eta gailetak. Gaur goizean ez dot besterik ezer gura izan.

Geroago, nik neure garbitasunak zertu bitartean, ohea egin deuste. Goiz osoa ohean emon dot. Sukarra apurren bat jatsi jat, baina ez zeharo kendu. Ura eta limoia ditut gaumahari ganean.

Bazkaltzeko orduan jantokira jatsi naz. Ez dakit egokiro jokatu

dodan. Bazkal ostean ohera, eta lo egin dot. Pare bat ordu. Burua lar astuna dot eta ezer irakurteko gogorik ez dot izan. Egonean egon, horixe egin dot.

Unadetan urian emoniko egunetako gorabehera eskasak zertu. Arratsalde erdian, ura ta limoia ostera be. Iluntzerago, eta astuntasuna gehituz. Termometrua be eskatu dot, atzera aurrerak ziurrago jakiteko. Galtzarpean ipini, itxaron, begiratu eta... Ez da harritzeko. Ilunabarran sukarrak ereti. Hogeitamazortzi ta sei.

Afari arina gelan berton, aspirinea eta loaren eskaria. Lehenengo lotaldiaren ostean izerditan nago barrero. Izerdi gozoa dala deritxat.

Barrukoak aldatu ditut eta loaren eske, ostera be. Bitartean, uriko harako hiru emakumeen gomutea, eta Elisabete berbea.

GOIZAREN argitasuna susmatzen dot leihoko irrikietan zehar. Izerdirik eskas. Baina berotasuna garunetan. Horraitino, ez bartko beste. Zetarako dot bero neurkina? Ea, ba. Ipin dagidan. Ipin eta geroago, 38.º doi doi. Kanean kotxeen eta kamioien zirriparra durunditsuak. Harik laster, zorionez, ixildu dira eta...

Atean hots egin dabenean itxartu naz. Goizeko bederatziak.

— Zelan dago, jauna? —diraust gelariak.

— Bart baino zeren bat azkorrago, uste dot. Egun bi edo hiru iraungo deust. Gaur da bigarrena. Ohitureari badarraio...

— Uuummm... —erdi esan dau haginartean gelariak—. Gosaririk gura? Ur barririk...? Amaitu dau ta.

— Bai, bai. Afari arina eta gero gosaririk ez, ezin honelan jarrai. Baruhaustea atzoko antzekoa. Gero, apurren baten jagi egingo naz, eta ohea...

— Bai, horixe!

Gosaldu ondoren jagi naz une baterako. Barrero barrura. Egunkari bi ekarri deustez ohera eta goizak igarri barik ihes egin deust. Atzo baino argiago daukat burua. Gorputza, barriz, nekatuago. Sukarrak erre egiten nau, ni neu behintzat.

Bazkaltzeko ez naz jagi. Bazkaria be, arina esan deustat neskatoari. Saldea eta arraina. Ura ta limoia ugari. Izerditan galtzen dana, ura edanez kitutu beharko.

Iribarre egin deust neskatoak eta ohe ganean, oholezko mahaitxua dodala bazkaldu dot, gozaro egin be. Azkenean madari urtsu bi, ondo heldurikoak.

Bigarren madaria jaten hasi nazanean, gelariak bisitarik gura dodan itandu deust.

— Norena da? —erantzun deustat, irri gaizto samarrez.

— Arduraduna, zera... Miren Oibarrek galde egin deust ea hona etorri daiteken. Nik i, kafesnea ekarriko, ezta?

— A! Bai, bai. Eskerrik asko. Eta arduradunari zelan inork ezetzik esan?

Azaletiko berba honeek zertu deustadaz gelariari. Poza loratu jat

barruan horrelako bisita atsegina izango dodala jakinala. Ni ikusten datorrela eta, harro harro jarri naz, gelariari honelako sekreturik adierazo ez deustadan arren.

Minutu bi baino lehen atea jo dau norbaitek. Eupada baketsu horri betiko deustadarrez erantzun deustat:

— Aurrera!

Ateko zerak grask egin dau eta... bera da, Miren Oibar. Ikusita batera, aurreko egunetan baino dotoreagoa begitandu jat. Izan be, erdi ilunetan dagoan errezezinoko kaiola horretan dagoanaren arpegia eta abar aukeran ikustea errez ez dalako.

Jantzi argia soinean, mehea, estua, haragiari atxikia. Uleak beste modu batera orraztuta. Begi berde politak, ezpan gorrietan irribarre berarizkoa edo.

— On egin, Uranga jauna! —diraust, errespetu antzarenak egiten ahaleginduz—. Zetan gara, ba?

— Hobeto, Miren. Eskerrik asko zeure bisita honegaitik eta ager-tzen dozun gogo onagaitik.

— Etxean egon, eta egun bitan ostataria ikusi ez eta...

— Neuk be ez zeu. Adiguritsua zara agure honegaz.

— Agurea...? Hamaikak gura izango leukee...

— Esanak.

— Eta izanak. Zera, Jon, atzo ez baina gaur igotekotan egon naz, ostatu lagunei, batez be barriei, txera berezia egiten deustegu ta. Honez ganera, zuretzako karteia heldu danean...

— Karteia? Norena? Nork daki ni hemen...

— Hau idatzi dauanak, bai behin!

ALKARRI begiratu deustagu.

Emakume gaztea ostatuko gelan beti da gurari-deia gizonarentzat.

— Ez dot bizarrrik moztu gaur, eta ez nago erakusgarri, Miren.

— Bizarra gorabehera...

— Ez deustut ulertu.

— Makalik dagoanak bizarra ez moztutea, esan gura izan dot.

Barre gozoa egin dot.

Baita berak be. Karteia hurreratu deustanean, karteari ezeze Mirenen eskuari be oratu deustat.

— Geldi!... sukarrez zagoz eta.

Ezpanak estutuz esan deust, barre antzekoa bihortu gura bai leuan.

Gutunaren azalera begiratu eta letrak makinaz idatziak dirala ikusi dodanean,

— Berotasunik bako letrak —ahotik urten deust.

— Ez jakin hori —neskatileak, ausaz, zerbait jakin guran.

Gutun-azalaren atzekaldeari begira jarri nazanean, Samuk bialtzen deustala irakurri dot.

— Laguntzar baten karteia dot. Samu... Samuel deritxadanarena.

Esturarik бага irakurtekoa, nunbait be. Zer jolas ete dakar honek?

Ederto, ba, Miren. Gozaro jan dot ohera ekarri deustazuen bazkari gustagarria. Orain, zu joan zaitezanean —eta ez dozu nigaitik ezetariko priesarik—, sukarrak beti be nekea dakarren ezkerro, lo sumea egingo dot, atzoko antzera, Zu hemen ikusita, ames be, egin nei.

— Ames... eta nigaz?

— Ez al dozu uste?

— Ez nik... hain mihin labana zeunkanik.

— Horraitino ez zara nirea, eta ezin besterik ezer esan.

— Ez dot jakin hain ligantea...

— Ez edonogaz, Oibar. Nire aho-sabaia fina dala jakin egizu. Aukeraketea egin daroat; selezino aparta.

Gelaria gelara sartu da, atea edegita egon da ta. Barriketea bestela baitakoan zertu guran, ekin nik:

— Aho finak kafe ona gustagarri dau. Eta hona hemen niretzako kafesne beroa.

Gelariak kafesnea laga orduko,

— Agur jauna —esan deust Oibarrek—. Karta horrek kontu onak ekarri degizuzala. Eta besterik barik alde egin dau Mirenek.

— Eskerrik asko. Bihar arte.

Gelariak apur bat itxaron dau eta jateko tresnak eta abarrak eroan deustaz, dana amaitu dodanean.

— Agur, gero arte.

Kartazala urratu dot.

«Aspaldiko:

Gizon bat zeu zagozan urira helduko da ganeko egunen baten. Nire ezaguna da orain. Ez dozu zuk artean ezagutzen. Hor, pare bat aste emongo ditu, oraingoz. Hor egona eta ibilia da, baina aintzina. Bere zeregintxuak daukaz. Lagun egiozu eta zeure adiskidetasuna eskeini. Gizon jatorra da. Honeganako hartuemonak kalterik ez zuri. Dobaran jauna dozu. Ba daki nun zagozan, eta helduko jatzu.

Jakitun zagoz, beraz. Lagun zakioz. Besarkadea eta hurrengorarte. Eutsi osasunari. Agur.

SAMU.»

SAMU zirina! Norbait nire galde etorri daitekela, eta ez zegaitik, eta ez zetara.

Samu Samuel, misterioen Babel.

Horra ba! Adurak kilikili egin eustan, atsedean une motz honetan, atsedean osorik, benetakorik izango ete neban. Nekearen ihesi ni, eta orduan be, arazoa bizkarrera. Hamaika bizkar ba dagoz ba, beti karga barik, beti seinorito, beti jolasean eta ez beste ezean dabiltzanak.

«Ez gara hain beharrezko» ... baina sarriegitan, bai.

DOBARAN jaunarena izango dot, antza, ezagupide barriena. Samu aintzina ezagutu neban, halan behar eta. Soldautzea alkarregaz egin

genduan. Arpegiz ez da nire antzekoa; pekak matrailetan, sudurraren albo bietan, begiean. Menduz torratxoria baizen geraka ta urduria.

Kuarteleko zeren maratilak topatzen mutil abila. Ihesteko atxakiak eta urtepedeak susmatuteko, ehiza txakurra. Aldi haretan hogeta bat urte oinetan eta mila buruera garunetan.

Ilunetan egoteko egun zazkarrak be izan zituan, ostera.

Soldautzako denpora erdia eginda geunkanean, neska lagunak aukeratu genduzan, zoro zoro. Harek beragandu gura ebana Deine zan. Dendariaren alaba bakarra ha bera. Aita dendaria izan arren, amak be jatetxea eukan, primerako jatetxea.

Gure soldautzako lehen aldian jateko gogoa zuritu ezinez ibili izan ginan arren, gerogarrenean, Deineri eskerrak, bai denda bai ostatu, gure gosea polito arinduten genduan.

Arratsaldero, zerbizioko legez loturik barruan geldierazoten ez ginduezanetan, Deineren dendara bidean jarten ginan. Igarri be egin barik jarri be; txakurra jabearen etxera doan antzean. Umeak gozategira joan ohi diran lez.

— Zuok soldautxuok, itsastarren antzekoak zaree —esaten ekian Deinek, bere amaren berbak zirala ta.

— Ez, guk ez dakigu igarian.

— Zuok be, neskatilei igurtziak eta ikutuak egin, eta geroago... ospa.

— Zeinek esan dau horrelako nabarmenkeriarik? Ez, ez. Ni... Samu naz, eta izango be.

— Izango be, baina norentzat?

— Samu nazala, ez Samura japonesa.

— Samura be ezagutu izan dogu. Dendara etorten zan, baina aspaldion ez da agertzen.

— Behar be, ez —gehitu eban Samuk.

Deine nire adiskide Samuz zaletzen hasi zan, harek berak ukapezko berbak-eta barriketan aitatu arren.

JAI egun berezi bateko eguerdi aurrea zan. Soldauok paseoa egiten urten genduan, Soinekoak ahalik txukunen, zapatak lustre aldi luze ondoko distiraz, guante zuriak eskuetan.

Ibiltelekurik zabalenean Samu, beste soldau lagun bat —ezdakit orain ziur zein zan— eta neu hirugarrentzat.

Hantxe, erdiko loredian aurrez aurre etozan lau neskatila. Deine eurakaz. Aldra biok alkarrenganatu ginan eta zazpirok sekulako barriketetan hasi.

— Jon, Samuren adiskiderik hurkoena —esan eutsen neska lagunei Deinek, ni izentatuz.

Hirugarren mutilak, senide baten etxera joan behar ebala, eta han laga ginduzan.

Anartean ixilik egon zan neskatiletarik batek, sekulako barre purrustadak egin zituan.

— Honeek... honeek mariposoi itzelak dituzu, Deine. Ondo ezagutzen ditut. Ez nekian, Deine, hau zanik zure...

Zarataka hasi ginan mutil biok.

— Mihin labaneko neskatilea zara zu. Gu ez gara...

— Ja, ja, ja, ja...! Guzurra esaten diharduzue. Ez dago gure auzoko neska gazteei itandutea baino, zuok zelakoak zareen jakiteko. Samu eta... Jon, apokalisiseko zaldizko bi, horren baten.

Hanka egin genduan, bertatik.

Agur Deine...! Eta haren ogiak eta gaztaiak eta lukainkak.

Egia zan. Neska laguntzen sarri ibiltzen ginan. Aldi haretan erre-
puestozale ginan, izan be. Soldautza denporan zer egingo genduan ba,
etxetik urrun, gorputzak nekatuta —ezer ez egiten nekatuta— zeharo
aspertuko ez baginan? Neska laguntzen. Ordu gozoak. Egitekorik
atseginena zan, hogeta bat urte baino ez gorputzean eta...

HEMEN dabiltz jatelekuko zereginetan hara ta horra, hoteleko
zerbitzari erne ta bizkorrak, gauzak eskuetan.

Darabildan agenda txikia aldean daukadala uste izan dot. Sakelak
arakatu eta arakatu, eta bapez; ezin idoro. Gaur zerbitzari gitxiago
dagoala deritxat.

Miren Oibar jatort. Dobaran jauna hotelera agertu dala bazkal
aurrean, ni kalean egon nazan bitartean. Mimentza ostatuan dagoala.

Neure soinekoei ikutuka nabilela, aztamuka dihardudala susmatu
eta,

— Tabakua, mistoak... falta?

— Ez, Oibar. Liburutxu bat. Ez deustazu zeuk ostu izango?

— Zure ez besteren gelan ez naz ni sartzen, inor gaixorik ez baldin
badago.

Arpegira begira jarri natxako. Oibar benben, urruneruntz dagoz
honen begiak. Arean be, politik ditu; berde ikutua ninien inguruan, zuri
zuriak ganerakoan, betule sendoak, bekain luzanga pospolinak.

— Ez gero, hasarratu! —esan deusat.

— Ezta.

— Erreteari laga egin deusat. Ona ez ei da.

— Egundo ez dot erre.

— Hoba. Ardura gitxiago. Nahikoa heltzen jakuz urteen joanean.

— Zertzuk heltzen jakuzala?

— Ardurak, kezkak, buruhaustek, bilatu bagako arazoak.

— Behar bada, buruhausteren bat daukazu.

— E... huskeria da.

Jakina, aldean neukan zer guztia ez neutsan esango orduan neska-
la ezagunbarriari.

Dobaranen zereginari nik hor konpon esan nengiola emon eustan
buruak. Horraitino, Samuk behin eta barrero arretaz jardun nengiala
eskutzen.

Bazkaria jaten hasi naz. Jantokia lagunez bete da.

Oibar be gaur zerbitzari geratu da eta niganuntzekoan,

— Noiz arte lan egiten dozu, Oibar?

— Egunaren joanean lanarteak eta oporrarteak, zelan dan.

— Eta kalera iluntzean?

— Egunero, ez.

— Zera... zinera nogaz joan ba al dozu?

— ... Bai.

— Zine areto itxurakorik ba al dago hemen?

— Uri hau, eta inori ezer kentzeke, baserriren bat dala uste al dozu?

— Horrelakorik ez dot nik... Kontxo! Zu hemengoa ez izan, eta uri honen alde gogor, e? Hori ondo! Jatorra zara, Miren.

— Hemengoa ez nazana, zelan igarri deustazu?

— Zelan,... zelan... Ez deustut esango. Orain behinibehin.

— Zarboa.

— Milesker.

Bazkal ostean te-aretoa noa. Lapurdiko atsoek inoena egingo dot: akeita edan. Jentea ezagutzea jantokian baino hemen errezago da. Jantokian bananduago gagoz matorduetan. Hemen batuago edo.

Ardurea nigaz nagusitu da eta goruntz noa, nire gelara. Miren ikusi dot, eta Mimentza ostatua non dagoan itandu deustat.

— Ez neuskizu esan behar, baina...

— Ez zaitetz honen gaiztoa izan, begieder— esan deustat.

Ostatu barria dala erantzun deusta, ohi dauan mazaltasunez. Hurren dagoan plazan zehar joan eta kale zabalean, han laster ikusi nengiala.

Nire logelan atsedean egin eta kalera noa. Ez dakit arratsalde ederra alperrik galtzea suertatuko jatan.

Kalera urten eta Mimentza ostaturuntz, Dobaran jaunaren bila. Ezagutzen ez dodan gizon baten atzetik ibili beharra, be!...

KALEAN zaparradea eta iskanbila zerbait. Beribil bik alkar jo dabela. Takarrekoan zaurituren bat gerta, eta hor dabiltz txapelgorriak bide egiten eta eskutresnaz urrunera berbetan.

Lasterrean anbulantzia dator, barri barria, apaina.

Gizon sasoikoa eta emakume gazte bat sartu ditue, eta han doa, bizkor, soinu zolia dariola.

Aldrak aldra erne dira han hor hemen. Ba dauke uriko emekumeek zati baterako gaia, berbabidea. Zorionekoak eurak, euliaren hegadearen zaratarik txikerrenak be, barriketarako gaia emoten deustelako.

MIMENTZA ostatuari begira nago. Kanpoaldea barria dana; barria be barrirastua ei da.

Ate nagusia edegi deustana edadeko andrea da.

- Dobaran jauna ikusi nahi neuke.
- Itxaron, mesedez, apurtxu baten.
- Pozarren.

Barrurago dagoan norbaiti itaundu deutso, eta hauxe niretzako erantzuna:

— Hain zuzen be, ez dago. Urten egin dau, antza. Telefonoz deitu ei deutsoe. Berori, ostera... Uranga jauna ete da? Bai ze, berori baletor, arren, bihar goizean etorri al balitz... Agindu horixe laga ei dau. Dana dala, gero urrutizkinez, berorrek gura izan ezkeru...

— Bihar goizean.

— Bai.

— Zera... Dobaran jauna bakarrik al dago? Senitartekorik bage, esan gura dot.

— Heldu, bakarrik heldu zan.

— Eskerrik asko.

Arratsaldea hondatuko ete jatan, eta horra! Bostak eta libre. Pelotatikira noake. Hoteleko te-aretoan entzun dot, gaur pelota joko politak izango dirala. Baina goizegi da, artean.

Kaleak ikusiko ditut, jentearen jokerak, plazetan umeen jolasak. Pozgarria da beti be, umeen jolasa ta geldi egonezina, ugaritasuna, kirioa, eragina. Umeen bizikletak eurrezean dakustaz. Bizimodu mailea goratu egin dana, begien bistakoa.

Atsoak eta agurak be, ugaritu egin dirala dirudi. Arean, lehen etxezulo ziran asko, orain hobeto jazteko egokitasuna dabela, eta aukera hobeak, kaleratzeko prest dagoz goizean nahiz arratsaldean. Kaleetan eta kafeterietako kanpo-mahaietan lagunteria ikusgarriagoa da.

Ume heldukak eta erdi erbalduak be, zoribako umeak, kaleetan ugalduz doaz. Eskubidea dabe etxean atxilotuta, ilunetan sartuta beti ez egoteko; oraintsurarte jazoten zana. Eguzkia Jaunak guztientzako egin ebalako.

Ez da lar bete frontoia. Partidu zerak ikusteko aukerea izan dot. Polito jokatu dabe. Eskuz, niri neuri horixe jat gustokoen. Gure aldian, zorionez, pelotaka eskuz edozeinek egin dogulako. Orduak ordu emoten genduzan pelotaka, ikastetxean genbiltzanean. Uri nagusietan be, orduan —eta ez da urte asko— orain baino aukera hobeak genduzan eskuz pelotan jokatzeko.

Baserrietan bolaka egiten eben gure baserritar jatorrek, jai arratsaldetan batez be. Beste askok, kartetan iluntzerarte.

Orain, herritxuetan eta baserrietan be, frontoi jasekoak egin diue, aterpedunak, negu nahiz uda, egunez zein gaez jokatu ahal izateko halahalakoak. Eta probaleku naroak eta itxurazkoak.

Bigarren pelota partidua arin garbitu dabe irabazleek. Arin eta lasterrean.

Kalera nazanean, uriko kalerik estuenetan jentea irakinean dabil, haruntz honuntz, gora ta beheara, txetxuak edan eta edan (ganera

etorkigun siketearen susmoan edo); barriketetan jardun, barrealdi nasaia egin.

AFARITAN ez dot Oibar mahai zerbitzari izan, ez bere harrera kaiolan begiztatu. Beste neskatala bat, ha baino gaztetxuagoa dabil hemen. Dana dala, bila ibili nazan agenda txikerra aurkitu dot. Horixe adierazo gura neutsan Mireni.

Bihar, Dobaran jauna ikustea. Gaur huts emon deustan arren, bihar horrelan izango ez dana, sinesturik nago.

«IDAZTEKO gogo handiagorik ez dut une honetan; hala ere egunen baten...» dino orrialde jakinaren hasieran «Elorri»-ren egileak.

Gogo ala ez gogo, jardun beharra dau idaztearen grina izkutuaren ontzi galdugordekoan nozbait sartu zanak. Eta sartu be, ez hain zuzen idazte hutsagaitik, hain umezurtz ezagutu eban eta hain umezurtz ikusten dauan euskereari osasuna edo indarra edo mesedea eskeini eta emon guran baino.

Eskubidea dau idazleak —are, euskalidazleak— bakartadean sarri edaten dauan edari mingotsaren mingostasunaren barri aberkideei jakinerazoteko.

Mingostasunaren egia hori, ostera, aske ta jarei dagoanak soilik aldarrikatu daike. Mila garatz, joera, adiskidegoaren lokarri, odolaren dei, senitarte lotura eta abarretaz jarei jardutea ia ezina dalako.

Gogo handiagorik batzutan ez, norberak erdi aukeratu baino egin ez dauan ildoan zehar lan eta lan egiteko.

Baina... baina!

GOIZEAN ez naz goizetik jagi.

Mimentza ostaturako bidea ba dakit eta, oinez noa, nire Opelari baketan laga eta kaleko alaitasun barriari gustoa hartuz, beribil artean torerua lez hemen nabil, hemen noa, mokorrean edo bizkarrean, belaunean edo oinetan bultzadaren bat jasateko, zapalketaren bat izateko arriskuan. Ibiltelekuko platanondoan orri zabalak lurrera datoz, bana banaka, orbel bihurtuz.

Oinezkook horrelakoetan beribilen peoiak gara. Hareek erreten dabe energia, ez guk, hareen ikusian. Hor ikusi dot korreoz heldu dan liburua «Energiaren euskal erakundearen argibide urtekoa, 1984».

«hala ere egunen baten...»

Mimentza ostatuko sarrerako aretoa atsegina da, txiker baizen polit, ganera beti be barri usainak emoten dauan kilikili pozgarriz edo. Jesarlekuak alkarri deutsela dagoz, piloan, garbitasunak egin arte, hurrean.

Neskamea jatort. Esatekoa esan deusat, eta neskatoa eta biok gora goaz. Nire bide lagunari usain gozo sarkor samarra dario. Buruko uleak

ondo orraztuta, idunean koilar mehe fina, belarritako luzangak, negarmalko antzekoak.

— Dobaran jauna hirugarren oinean dago.

Ez deust ezer gehiagorik esan. Ez deustat ezer galdetu.

Hirugarren oineko pasiloan zehar ate gorrilun baten aurrera heldu gara. Atea kax kax jo dau. Barrutik berbaren bat, ta ni barrura eta zerbitzaria be bai.

Dobaran jaunak suite dalakoa dauka beretzat.

Urrats bi egin eta zerbitzariak:

— Dobaran jauna, hona hemen Uranga jauna.

Zerbitzariak sarrera aretotxuan erdiko mahaian dagozan gosaritako ontziskak eta tresnak daroaz. Behingoan logelako atean Dobaran jauna agertu da eta geldu lotu.

— Egunon, Uranga jaun horri! Ta... zelan? Zeu ikusiaz beste barik, bitzuen adiskide dan Samuelek jakinerazo deustan gizona ezagutzen dot. Jesarri zaitetz.

— Eskerrik asko, Dobaran jauna.

Biok jesarri gara mahaiaren inguru, besaulki bigunetan.

Bizkarrean urte piloa dauko, kolore nabarmenak matrailetan, odollezko marra gorri estu estuak han hor, agiri agiri.

— Mundu alde askotan ibili naz —diraust—. Batzuetan ames iheskorrek bultzeraginda, beste batzuetan diru-goseak zirikatuturik. Baina bildurrarren ihes egin nebala, argiro esan behar deustut. Horixe da gizon batzuen zoria.

— Zori ona ala zori txarra? —itandu deustat nire adiskideari, arean azi-orraziak matizatu gurariko ete dan jakin nahirik.

— Horixe dozu gauza gatxa. Ona ala txarra zer dan eta noiz dan jakitea. Dana dala, dirubidea munduko biderik onuratsuen ez dala be, inoiz sinestu izan dot.

— Estimagarria bai, ostera.

Dobaran jaunak eztultxua egin dau eta ixilik geratu da une laburrean.

— Haizebideak ez ditut aukeran. Eztul eragiten deuste. Mundua aberri txikerren ganetik dagoan aberri zabala da. Sarritan zabaltasun horren preminea izan ohi dogu gizonok. Horraitino, sasoi batera ezkerero, toki medarragoa, mugatuagoa gustoko izaten jat. Niri, eta edonori. Horregaitik urezandi ibiltari apur baterako laga eta orain bereon hemen naukazu. Eta... ba al dakizu zetarako?

— Jakinminez egon natxatzu.

— Baina ez deustazu aurretiaz galdetu. Haziera oneko dirudizu.

— Haziera onekoek, batzuetan, jarraiera okerrera jotzen dakie.

— Atzo, zu zagozan ostatura joan nintzan. Zu ez egon han, eta mezua itxi neutsun. Kaleratu nintzanean, buruan nik halako hutsa, halako... ez dakit. Barriro ostatura sartu eta zuen hoteleko norbaitek, nik eskatuta, Mimentzaraino lagun egin eustan.

— Kalean galdu...

— Ez, buru barrua galdu. Inoiz izan dot horrelakorik, han tropiko aldean. Iluntasuna edo; oraingo berbetan, lipotimia.

— Laguna, hango mutilen bat...

— Ez, ba. Neskatilea izan neban lagun. Hango jente hartzailea zala esan eustan.

— Ordu haretan han lana izango eben, horraitino.

— Bai, kontixu. Zera, zu hemen atsedean guran zagozala jakin dot. Damu naz batera ta bestera ibilteko arazoa emongo deutsudalako.

— Lan gogorra ez baldin bada...

Dobaran jaunak bere aurretikoetarik bat, inguru honetako basetxe batekoa izan zala adierazo deust. Heraldika zalea azalez baino ez dan arren, senitartekoen armariak eta, ezagutzea, azterrenak batzea gura leukeala. Latako tabakua eskeini deust. Erre, ezetz dirautsat.

— Ba, neuk be, ez dot orain erreko. Hemen ditut abizen batzuk. Ez uste, ostera, guztion azterren sustrai-sustraikorik gura dodanik.

— Abizen eta deitura batzuen jatorri zehatza jakitea, ez da beti zer erreza. Abizen berberaren hasieraa edo, hiru-lau herritan aurkitzea ez da mirari egiteko.

— Bihar joan geintekoz ardurarik gehien jatan basetxeruntz. Argazkiak atarako ditut. Ez dakit paper zaharrik izango dabenentz.

— Bihar joan geintekoz, Dobaran jauna. Gura badozu, neure beribilean.

— Ederto. Eskerrik asko. Bihar goizeko hamaikak aldean honuntz bazentoz...

— Artez deritxat.

— Bai. Abizenen harrokeria lar ei daukagu guk euskaldunok. Askoren aurrean akats haundia dana. Zergaitik ez dakit.

— Behar bada, herri txikerra garealako. Horraitino, herri txikerra izan arren, euskaldunak munduan zehar nahikoa ezagun dira. Ezer ez balitz, ezer be ez. Baina, antza, zioen bat hor izango da. Gure jente baserritarrak eta arrantzaleak zeresanik sortu dau mendeetan zehar. Geroago, beste berezitasun batzukaitik be bai. Gure Herri hau hutsa balitz, orduan bai pozik, asko ta asko.

Bostekoak estutu eta jarraian besarkadea egin deust Dobaran jaunak.

— Bihar, hamaikak aldean.

— Agur.

UDAZKEN epel aurreratuaren zantzuak egon arren, udea bera beroagotu egin dala dirudi.

Atea jo dabe eta Balbi ikusten lagun bi heldu dira. Biak urikoak.

— Egunon.

— Egunon. Jesarri zaitzeze. Zer esan ugari dago. Eta jakina, baita zer erabagi be. Baina kontu luzea da.

— Alderdi askotakoa.

— Bai, poxpolina dirudi, alde ugari dau ta.

- Eta dantzaria.
- Hori; dantzaria. Morroe batzuk jabiltaz atzetik, nire urak euren errotara eroan guran.
- Ordena barria jarri gura dabenak, ez dira banakak. Baina ordena hori zelan egin? Nundik hasi?
- Fitxa batzuk egin doguz.
- Ez dakigu artez ete dagozan.
- Fitxak... —ganeratu deutse Balbik—; fitxak gehiagoko barik beteten hastea, ez da modu egokia.
- Gureak eta arerioenak, edo ezebezeko diranenak.
- Banakuntza hori ez da modu egokia. Ez gaitazan beti arerioen bila eta usainean ibili. Lagunak batu... aldra barriak egin. Aldra barriak egiteko izurria, peste zuria.
- Arimak minbera dagoz.
- Arima asko, behar bada.
- Gureen aldiak iraungo ez dauala uste dabenak ba dira dagoa-neko.
- Makaleria da hori, Zarke.
- Makaleria? —itandu dau Manixek.
- Barruko makaleriak indartzen dau arerioa. Hauxe jakin egizue, bai zuk, Zarke; bai zuk, Manix. Arerioa...
- Beste mutila.
- Beste mutilari laga egiozu baketan. Mutil asko dago, besterikotzat jo daikeguzanak. Eta ez da modu egokia. Gu... zuok...hareek... Ez da modu egokia. Gu, gu, eta beti gu. Geureari geuk eusten ez baldin badeutsagu, akabo artoak. Auzokoak dana eroango deusku, eta orduan, zer da egitea? Negar? Granada galdu eban erregek egin eban antzera, emakume malkoak?...
- Ixilunearen ostean, Balbik esku maleta estu bat edegi eta handik liburua atara dau. Liburu totoloa, nunbait be.
- Modu honetantxe, maletatik liburua atara ta hauxe emon deuste.
- Nork?
- Etxera hiru lagun etorri jataz. Gizonezkoa, emakumea eta umea.
- Hiru hostoko bedarra.
- Horreek ez dabe nagirik.
- Ba dakizu, ala?
- Entzun egin dot.
- Zetarako da?
- Hatarako. Geroko munduko arauak hementxe, liburu honetantxe aurkitu gineizala.
- Zeinek ete daki geroko munduko barri? Urruntxu ez ete dago.
- Urrun Jaungoikoa dago.
- Jaungoikoa urrun?
- Domekako ebangelioan adierazo euskun abadeak.
- Bai, e?
- Horretan nago. Jaungoikoa inork ikusi ez dauala...

- Inork be ez?
- ... inork ikusi ez dauala, Harengandik etorria danak izan ezean.
- Ba nik Jauna edo Jaunaren azterrena edonun ikusten dot.
- Bai, honek be bai, eta zuk eta nik beste hainbeste. Askok... askok, askok... hobeto esan batzuek ez dabe horrelakorik sinesten.
- Hori barriketea da sarritan. Norbere burua besteak baino jagiagoa, jasoagoa edo egitearren.
- ... astaburuagoa egin guran.
- Behintzat, hemen dogu liburua.
- Balbik bestela baitakoan basoak atara ditu eta mahai ganean jarri.
- Gero, boteilea be, agertu dau.
- Skotx.
- Zanak eta odolbideak zabalagotzen ditu.
- Edan egingo dogu.
- Hurrengorik hurrengo, wiskia hiru basoetara isuri dau Balbik.
- Sendoa —ganeratu dau Zarkek.
- Sainete ona —gehitu dau Manixek.
- Gaur hau, bihar ez jakin.
- Bihar... Izan be, aste honetan ez da inor gar...
- Edariari drungadea egin baizen laster, berbatsu jarten zara, Zarke. Guzurra dirudi.
- Egia al da, ba?

«MATXINOAK matxinadea dakar. Gizonak lo dagoz. Emakumeak losorropeanago. Oraingo aititak eta amamak azkenengoak izango dira munduko gizartean. Laster, alkarregaz etxe batean, senide ez diranak izango dira. Etxeko sueteak ostatuko suetearen antzeko suertatuko. Gure alaba gaixoek ez dabe senarrik izango.

Gizon buztandunak txakur-ezkontzea nahikoa dala aldarrikatuko dau, hau da, gorputzak batzea, eta kittu. Emakumeak eskubiderik bagako ama umeginak izango dira.

Eleizetan agure buru zuriak eta baltzez jantziriko andrak besterik ez da agiri izango. Eta denporaz, lupuak jango ditu. (Hau, herriko bateri gaur goizean entzuna).

Ekaldekoen iraultzea, gizon horien matxinadea batetik: begi konerak agertuko jakuz, eurrez agertu be. Eslaboen eta txinatarren eta zapokoloroko gizasemeak etorriko jakuz uriol antzean. Eta beste nunt baitetik gizeli baltzak, askatasun bila, leku beroetatik ihesi. Eta guztion artean iruntsiko eta ezereztuko gaitue.

Seme bakarrak ez dau arrebarik izango.

Ezta alaba bakarrak be, nebarik.

Incesto, lege kutsuko berba hori, lar geratuko da.

Munduan ez da seniderik...

Arean, anai eta aizta berbok be, ezabatu egingo ditue, eta beraz, hiztegiatarik kenduko, diplodokusen senitarteko bailirean.

Arremeen sormen tresnak, hau da, haragizko atalak, arau gogorren

menpe jarriko ditue. Arrei, aintzina barrabilak lehortuten eutsezan antzeko moduz, buztaneko zanak bisturiz joak izango jakez. Gizonaren haziak bankuetan gordeko ditue, beien erroen antzera, eratsita gero. Andren umontziak tratamentu kimiko berezipean jarriko.

Ume barriak, gizazi kontrolatuetarik sorturiko perretxikoak izango dira. Kristalezko tutuetan sorronduko. Geroago, edozein alabaren barruan sartuko eta erlojuaren ordu jakin-jakinean negarrez hasiko.

Sodoma Gomorretako zerak ipuina emongo dau.

Lurpeko harrek protestaka jagiko dira, gizaharagiak arrain —uru-
nez haziriko hegaztien antza daukola ta.

Eta ganera, noiz jaio bai noiz hil, erreglamentaturik geratzean, harrok goseteak jasan behar izango dituelako.

Eta ganera kimika organikaren iraultzan ustelgintza lanak kontrataz zertuko diralako.

Kiratsarria, asufrea aldikadetan azukre bihurtuko dabe, eta probetatiko sein kirrikirritsuek uragaz nahastuta edan behar izango dabe. Lo be, gafa ta guzti egin beharko dabe etorkizuneko giz-sintetikoek, iluntasunak berak, itsutasunerako minbera jarriko ditu ta.

Bitartean... diktaturazaleek hor dihardue buztarrigintzan geratu barik, idiak ugari bai ugari izango dituela sinesturik dagozalako.»

Guzti hori irakurri dau Balbik. Hain zuzen, maletatik atara eta emon eutsen liburu totoloaren barruan egozan paperetako lerroak izan dira.

Bere lagunei begiratu deutse, izaturik ete dagozan jakin guran.

Lo dagoz. Lo, nasai nasai.

— Honeen irudimenek, ziur asko, trogloditen harpeko bizimodua ikusten eta aztertzen dihardue.

Balbik goiko argi nagusia isiotu dauanean, ubiski boteilan azkeneko hondarrak besterik ez. Hiru basuak be, hutsik.

NIRE Opel bizkorrean noa Dobaran jaunagana, Mimentza ostaturuntz.

Dobaranek eta nik alkar ikusi dogunaz batean,

— Nire bazkaltiar izango zara gaur —esan deust amerikanoak—. Ez al deustazu ezetzik esango.

— Uste bakoan sartzen nozu, Dobaran. Irribarre egin dau. Nik besoak eta eskuak zabaldu dodaz.

— Landarte basetxe horren entzuterik bai, Uranga?

— ...

— Laster jakingo.

— Gura dozunean abia geintekiz.

— Ondo da. Horraitino, hirugarren laguna be, izango dogu..

— Abaderen bat? Armarrri arazoak eta, abade batzuek jakin dakiez ta.

— Ez, ba. Gonaduna dan arren, ez da sotanaduna.

— Kontxo!... Baso-bazkaria izango al dogu?

— Burua argitu deustazu. Hori be, egin ginei, baina beste egunen baten.

— Ez da txarto esana.

— Zera, gonadun horregaz uste uste bako ezagupidea egin neban eta. Ez dakit azaldu izan ete deustudan.

Buruagaz ezetz dirautsat munduko ibiltari urduri ta gerakeari.

Bakotxak bere eskuturreko erlojuari begiratu deustagu.

— Ba dakizu —dino Dobaranek— emakumea ordu kontuan... zintzo samarra dana.

— Esperientzi handia al dozu?

— Hainbatekoa.

DOBARAN ixildu egin da. Ez deust ezkondua, ezkongea ala alarguna dan oraindio esan. Mutil zaharra ete dan? Ez jakin. Leitekena da. Beste euskaldun asko lez, kanpuetan ibili ta gero, zahartzaroan emazte apal eta maratzaren bila, jaioterrian edo inguruetan hastea. Istorio luzea izan ohi dabe gure ibiltari arloteok. Hor be, ba legoke kantera ederrik gure elederrerako. Hemendik aldegin izan dabenen jazoerak, nahaste borrateak, galdugordeko ibilerak azaldu ahal izan ezkerok... Gizonezkoen eta emakumeen ibilera... zelakoak? Fraile, abade eta monjenak be, barruan dirala.

Dobaran jaunak egunkaria irakurten diharduan bitartean etorri jataz burura, goiko lerroetan jarririkook.

— Jauna, hirugarren hori urrunetik etortekoa ete dogu?

— Ez hain urrunetik. Mezurik ez deust bialdu ta, laster izango dala hemen, uste dot.

Bare dakust Dobaran.

— Nire aurrean dagoanak lo nasai egin dauala esango neuke -dirautsat.

Ezpanak tximurtuz irribarre antzekoa egin dau.

— Bigungarria hartu dot bart; kalmantea, Uranga.

— Hagineko mina, edo?

— Minik... minik.. esatekorik ez. Batzuetan, horraitino, ezer falta ete dodan, neure buruari galdeka hasten natxako. Eta makalaldia etorten jat sorbaldetara, bularrera, bizkarrera.

— Inor falta ete dozu, ba? Han urrunean...

— Ez, ez. Ez da inor neugaz ez eukitea. Bakarra naz.

— Uuuu... uuu... —esan dot, ahoa edegiteke. Gizon honek zer esanik ba dauala susmatzen dot. Bere barrua ez edegi gura. Ba, neuk be, bardin jokatuko dot.

ZAPALTZEN dogun alfonbrearen margoak eta lerroak eta lorak ikusten hasi naz. Polita da, ikusgarria, oinazpirako egina dan marras dotore hau. Alde guztietan sartu dituen moketa kolore bakarreko aspergarri horreen ikusian, alfonbra honek eta antzerakoek gizonaren burua eta esku eta makinaren trebetasuna erakusten deust.

Eskuak izerdi antzez ditudala ohartu, eta zerbitzuetako gelara noa. Toki garbia, zuritasunez betea.

Dobaran jaunagana bihurtu nazanean, honegaz berbetan emakumea dakust. Niri bizkar dagoz, baina amerikana konturatu danean:

— Joan geintekoz, mutil.

— Eta hirugarrena? —itandu deustat.

Nire ahotsa entzun dauanean emakumeak bira egin dau, eta ha eta ni, biok erdi harritu egin gara.

— Uranga jauna —esan deust gozaro gonadunak.

— Egunon, Oibar. Hirugarren laguna nor izango dan ez dot jakin eta...

— Ezta nik be.

Dobaranek irribarre eskasa egin dau.

— Ahaztu egin jat, ahaztu, aurretiaz adierazotea.

— Horraitino, Dobaran jauna —esan deustat—. Hirugarrena nik gura ez neukean norbait izate ezkerro, zer...? Ez gara umeak, Dobaran.

— Parkatu egidazu, parkatu egidazue. Ez dakit arinkeria hau zelan egin dodan. Buruan gauza asko danean...

Gogortxu berba egin deustadala konturatu naz neu be.

Hirurok kalera urten eta nire Opela martxan jarri dot.

— Dobaran jauna, barrura, gura dozunean. Atzean, ala...

— Bai, ni atzean. Zuok, gazteok, aurrean.

— Eskerrik asko lora horregaitik.

Dobaran sartu da. Atea itxi deustat txeratsu. Gero, Miren Oibar sartu dadin, eskumaldeko aurrekoa edegi. Sartu da neskatilea be. Azkenik, hemen nago, bolanteari helduta.

— Noruntz, jauna?

— Sartalderako bidean zehar —erantzun deuste biok.

Zeruetan eguzkia hodei tartean, bere arpegi urretsua agertu gurarik. Kaleetan lagunak hara horra. Beribilak be, batzuk gure bidean zehar, beste batzuk gure kontrara!

— Gasolina usain handia —dino Oibarrek.

— Oraintxe esan dozu egia. Bidoi batzuk erabili nituan eta barrukoa isuri edo.

Dobaranek berbetarako gogo lar ez daukola susmatzen dot. Goi-zeon izan dodan gogaro ona aldatu egin jat eta Dobaranek errua. Izan be, ez jat bapere atsegin izan hirugarrenik izango dogunik harek aurretiaz ez esana; eta nor, ganera. Hasarratu egin natxako eta nire erdi erremuskadea ez dau errezoiz hartu.

Baina, orain, pozik noa, alboko atsegina suertatu jatalako.

— Dobaran jauna —dirautsat abegitsu—, gure bide zabalak barriro be itxura jasekoan dagozana konturatu al zara?

— Bai ba, begira ta begira nabil. Pozgarri jat gurea gureganatzea eta azkortzea.

— Hainbat urtean egoera negargarria bideona. Nik sarri entzuna: gizaldi honen hasierako bide barri ondo atonduriko hareek!

— Baina orain barrero lehengo antzera, moduren baten.

— Bai. Gogorra izan da hemengo kentzea, hemengo zapalketea, Dobaran. Urrun bizi izan danak ez daki egia osoa. Ezta geuk be. Ez lehen, ez orain. Ai, egia osoa... egiaren zatiak bakarrik jakinik, ezin egia osoaz jabetu, ez ni, ez beste.

— Hobeto azaldu behar deustazu hori, Uranga.

— Historiagile zuhurrak hor jabilkuz aspaldietako azi —orraziak, zehetasunak, nor nun zer zelan noiz... aztertu eta aztertu. Eta gaurko jazoeren barri zehatzik, zeinek daki? Zeinek dino dana dan lez?

— Horraitino, oraingo gazteek...

— Gazteek itxaropena izan ohi dira. Eta halantxe beharko. Belau-naldi bi galdu ditu gure Herriak, katakunba eretxi deutesen aldi ilun honetan. Ameslarien amesak iroltzea, horixe negargarrien.

— Horreek dituzu erretolikak—, eta ukondoagaz jo nau Oibarrek saihetsean.

Joanerako une baktxean Mirenek edo Dobaranek izentatzen deuste ezkerretaruntz ala eskumataruntz joan, bide kurtze askotan.

Dobaran jauna kanporuntz begira dago unean unean, guztia ikusi guran, guztiaz jabetu guran.

Ixildu egin naz.

Nire Opela bizkor doa konpondubarri diran gure bidezabaletan, erregebideetan zehar.

— Inguru honetan gelditu gaitkez —diraust Oibarrek. Motorraren burrundadea makaldu egin dot, eta galgeari eutsi.

— Ba dakit basetxeraino egoan burdibidea konpondu eta zerbait zabaldu dabena —dino Mirenek—. Horraitino, oinez joan gura izan ezkerre, lasterbidean zehar joan eta ixil ixilean besetxera gaitkez. Ala, beribilean joan?

—Horixe egingo dogu —gehitu dau Dobaran jaunak—. Oinez joango gara. Atsegin izango jat neure lurtean oinez ibiltea, eta mendiko haizea hartzea. Eta inguruetako giroaz jabetu, usainak hartu, haize garbien usainak...

Jatsi gara beribiletik. Bidertzean lagako dogu unetxu honetan neure Opel hau.

— Zapata politak —diraust Mireni.

— Ez, ba. Burdibidean zehar joateko egokienak, ostera. Ez dira basobide eta zidorrok zapata takoi handiz ibilteko. Orainartekoa agudo egin dogu ta...

— Bai, bai —dino apalkiro Dobaran jaunak.

— Eta honelantxe beharko, nik lanera behingoan joan behar dot eta.

— Noiz etxeratzeotan zagoz?

— Ordu biak arteko baimena emon deuste. Lagun ugari izango dogu gaur bazkaltzeko. Ohizko bezeruez ganera, bazkari berarizkoa daukagu ta.

— Zeuek?

— Guk? Bai zera! Guk besteei jaten eta edaten emon. Eta onelakoetan lana be, ugaritu.

Dobaran pozik dago bere senitartekoen basetxea ikusteko, abizenekoen armarrria zelakoa dan jakiteko, argazki mordo atarateko. Eta jakina, oraingo biztanleakaz barriketatxua egiteko, gorabeherak jakin eta ea aintzinako paperik, eskriburik ete daben, eta abar.

Burdibidean gora, baina oinez joango gara.

Polito konpondu eta zabaldu daben arren, erregebidean zertu ez ditugun harri koskorrak dagoz hemen, larra eta sasiak bidertzetan. Lautadatxura heldu gara, eta biriak neke gitxiago dabe. Alboan, erreka nahikoa lehortuan ur tintila nagiro beheruntz, zarata handirik bage.

Zeruan zehar txori banakaren bat.

— Dobaran, zuen gazte denporan txoriak ugari ibiliko ziran gura mendi eta basoetan, ziur asko.

— Egia, egia. Txoriak piloka eta patariak be, batzuk egunez, beste batzuk gaeuz, hor ibiltzen ziran.

— Eta orain, txoririk gure basoetan eta mendietan, banakeria besterik ez.

— Gure paraje zoragarri eta maitagarriak! Horraitino hau ez da kaleko behe laua.

Miren Oibarrek barre karkaxa alai egin dau.

— Uriko jentea baserriko bidean hasi orduko, estutu egiten da. Hamaika gora ta behera egin dogu guk mendikook, egun onetan, eguraldi txarretan zein egun lanbrotsuetan.

— Gaztetan ez da ezeren bildurrik —dino Dobaranek.

— Baina gizona beti da gazte, ez ala?

Oibarrek buruagaz ezetz dino.

— Laster izango gara bila gabiltzan etxeagandik hurre.

— Baina dakustanez, beste etxe bi honeek be, ba ditue armarrriak.

— Hori, etxe askotan ikusi zineian zera da. Horraitino, gizaldiak gizaldi, abizen batzuk eta eskudo batzuk ospatsuago gertatu dira beste batzuk baino, Dobaran jauna.

Gero neureari siki egin guran, berbok zertu ditut:

— Pozik zagoze zuok biok. Batori aurretikoen abizenaren jatorriaren tokira heltzeko. Beste hori, txikitan ibiliriko lekuak berriro begien aurrera dakaruzalako. Hauxe da oraindino argitu ezin izan dodana. Gaurko txango honetan lagun bi izango ginala neukan buruan sartuta, eta ordua heldu —ordua eta propinea— eta bi barik hiru lagun batu gareala.

— Zori oneko ordua!

— Emakumeen arerioa...

— Oraintxe jakin zinei. Dobaran jauna zure galde gure hotelera heldu zanean, zu etxean egon ez, eta nigaz hasi eban autua. Bere Euskalerrria, bere umezaroa, senideen jatorria... kontu asko zertu eban ezebezeko denporan. Hemengo bazterrak ikusteko gogo bizia eta abar, eta honetan, Landarte aitatu eban. Orduan nik blast! esan neutsan nik

basetxe horregaz neukan hartuemontxua, ta zetarik eta hortixerik sortu zan gaur lagun bi —zu, hirugarrena— Landarteruntz joango ginanaren zera.

Dobaran inguruetakoa mendi ta muino, zuhasti eta solo, bide eta basetxe... dana ikusguran dator astiro astiro gure atzetik.

— Beraz zuk Dobaranegaz hartuemon arina besterik ez?

— Azal azalekoa.

— Indianua da ta...

— Zaharregia niretzat. Ba... niharduan lez, ni txikia nintzanean Landarten amabitxiren aiztea bizi izan zan aldikada baten, eta hortik izan da ni hemen sarritan ibili izana. Egun gozoak emoten nituan hemen.

— Baina, zure basetxea zein da, nun dago?

— Ni basetxekoa nazana, zeinek esan deutsu?

— Ene! Basetxeko izaten, lotsatu egingo ete zinateke? Nik begi zolia daukat, gero!

Niri hori entzutean irribarrea egin dau Oibarrek. Eta neuk be bai. Dobaranek bazterrak ikusi baina gure autuaren barri be, jakin gura izango leukela hegitanu jat.

— Hori al da...?

— Hortxe bertan dogu Landarte, Dobaran jauna —esan dau neskatileak.

Dobarani berba honeek urten deutsoe:

— Lotuta egongo da txakur hori, osterantzean..

— Dirudianez ez da txakur bakarra. Halan be, ez da zeri estutu, esku hutsean goaz eta. Txakurrek ba dakie ezagutzen gizon batzuen etorrerea eta beste batzuen.

— Ez estutu —adierazo deusku Mirenek—. Neu joango naz aurretik.

— Oraingo txakurrek ez zaitue ezagutzen, osterala!

— Zaunkari horreek ezagutzen nabela uste dot.

GURA genduana hemen dogu. Landarte basetxea, zuria goitik beheraino, ez jaso bai zabal antzekoa. Bekoki aldean armarria. Harharri landua; urteen joanean marrak eta irudiak eta letrak zakartu eta kasik ezereztu jakozana.

Eta Dobaran kodak polita eskuetan argazkiak hartzen hasteko prest, txakurren bildur ez balitz.

Atarte tokitsuan mutikoa eta neskato txiker bi agertu dira. Honeen ondoren emakume zaharra. Guztiok doaz txakurrakana etxaurrera kanpo jentea etorri dala ikusi dabenean.

— Amama al da hori?

— Bai, amama da. Ez nirea baina... Eskuagaz dei egingo deutsat, erdi gor dabil eta —gehitu dau Oibarrek.

Amama txakurrei agiraka hasi jake, ixildu daitezana.

— Oibar, laster ezagutu zaitut. Nobedaderik al da?

— Ez ba, amama. Jaun hau Do-ba-ran da. Honen amaren aldeko amama hemengoa ei zan. Hau berau aspaldiotan kanpotik ibili da, eta bihurtu danean, etxe hau ikusteko gogoia, zuokaz berba egin, erreratuak atara, eta kontuak jakin guran. Aintzinako paperik hemen ete dan be, zertu izan dau.

— Aintzinako paperik hemen... Etxea, hauxe da hemen lehengorik, jaun horrek dinoan aldikorik. Gu be, hemen oraintsuagokoak gara ta. Etxekorik gehienak gaur basoan dira. Ze modu, Do... zelan esan dozu?

— Do-ba-ran jauna.

— A, bai, bai. Oinetakoak hautsez bete dituzue. Urrunetik oinez, ala?

— Ez, zaldun gazte honen beribila erregebidean laga dogu.

— Ikusten dozunez, bertoraino beribilean etorri ezinik ez dozu izan. Egin dogun konpontzeagaz ez dogu hemendik gorakoan basarik ez lokatzik izango, bideon behintzat. Eta dinozun zaldun gazte hori, nor?

— Uranga da.

— Uranga? Hemendik urrun barik ba dira Urangatarrak.

— Ez, amama; hau urrunagokoa da.

— Baina... sartu zaitetze, sartu. Bidean nekatu eta egarritu be...

— Ez, eskerrik asko.

— Ez dago kunplimenturik. Txotxo, ekarri egizu garaitik pitxer bete sagardao. Ala, esnea gurago? Okaran gozoak, hor daukaguz, eta madari urtsuak be bai, gura izan ezkerro.

— Ez, amama; ez gara gosea arintzen hona heldu.

Basetxean edaten daben ura be, guztiz garbi gardena dala, gehitu dau Oibarrek, eta amamak irribarre egin dau.

— Bai, ur metala daukagu, presko preskoa.

Dobaranek guztiei geldi eta nasai egon daitezela dinotse. Lehenengo argazkian amamak eta hiru umeak urtengo dabe. Hurrengoa nik atara dot, beste guztiak aurrean dirala. Jarraian basetxeak daukan armarrria, basetxea bera urrunagotik hartuta, eta albotik eta atzetik.

Geroago sukaldera joan gara guztiok, txakurrak kanpoan itxita. Aurretikoak etxe honetan jaio eta bizi zirala ta, Dobaran sentimentuz beterik dago, zeharo bihozpera.

— Bai, dinozun lez izango da. Baina gu hemen bizi eta hil be hemen egingo gara, nobedaderik ez bada. Ondo dakit nik basetxeak be hutsituten hasiak dirana.

— Hutsitu eta hutsitu tamalaren haundiz —esan dot nik.

— Baserriaz arduratzen al zara? Beste asko, oster, nasai nasai doaz kalera. Baaaai.. Kanean bizimodu hobea, beti dotoreago jantzita, hemen zarpil eta zikin antzean. Alde onak ditu kaleak, baina ez guztiak —dino amamak.

— Horrek aldakuntzaren bat ekarriko dau Euskalerrian, ezta?

— Jakina. Baina kanean ez dago esnerik, hara eroan ezik.

Ez dago ortuaririk ez frutarik, hango plaza ederretan arbola galan-

tak egon arren. Nik sarritan esaten deutset gure umeei, baserriaz zaletu daitezan: ikusten dozue gure behi «Arrio»? Errape galantak bai horrek, baina esnerik urri. Uri handietan, kalean, bedar, lora eta zuhatzak bazter askotan, baina hortik ez jatorke jatekorik ez edatekorik. Baserriak, baserriko lurrak jaten emoten dau, ez kale gorriko harri lauek eta espaloi dotoreek. Baina umeek barrerik egiten ez deusten arren, bai mutilek bai neskatilek irribarre maltzurra egiten dakie.

Amamak berba horreek esan bitartean ez dau geldi egoterik izan. Mutikoak ekarri dauan sagardoa basoetara isuri dau, eta edan guk.

— Oibarrek parkatu degidala —gehitu dot nik—, baina dinoenez, baserri askotarako emazterik aurkitu ezinik ei dabiz maiorazgoek. Etxaguntza sendoa eta ziurra izan arren, neskatilak baserritik kalera joateko prest.

— A, arazo hori latza da —dino Dobaranek—. Baserriari lagundu egin behar jako. Hemen eta edonun. Agintariak ez al dira konturatzen?

— Orain, agintariak be, hemengoak ditugunean inoiz baino arduratsiago dabiltz baserri bizimoduari eta basetxekoei laguntzen.

— Ekonomiari gaur dan egunean jaramon handia egin behar jako. Ni ibili nazan tokietan gauza negargarriak ikusirik nago. Zabarkeria, nahastea, alperreteria, jokoak...

Dobaranek hori esan ostean umeak beragandu eta ba dinotse:

— Eutsi.

Gozo paketea sakeletik atara dau eta umeoi gozoak banatzen hasi da.

— Horraitino...! —dino amamak—. Ekarten etorri zaree, kalekoek baserrira ekarten.

— Beste umerik ba al da?

— Beste hiru be, hazitxuagoak basora joan dira, etxekoei laguntzen. Geroago etorriko dira.

— Datozanentzat beste pakete hau. Eta etxekoentzat... Oibar! Nun dozu...

Oibarrek bere kartera zabaletik paperagaz batuta dagoan zerbait atara eta amamaren altzoan laga dau.

— Holakorik, holakorik... Umeok be, ondo orraztu barik eta... besteak basoan eta... Jakin izan bagendu.

— Ez da ardurarik, amama. Arpegi ikustea besterik ez dogu gaur egingo. Basetxearen irudia eta zuona hemen barruon daroadaz, pozik hatan be. Beste guztiak ondo dagoz. Zu be bai...

— Gorra ta sorra ni.

Gelak be ikusi gura izan ditu Debaranek. Eta kortea, sabaia, kamarea, garaia, labagelea.

— Euskal baserriak jauntzea lakoak dirala esan leiteke.

— Bai, izan be. Hor daukaguz berba ederrak: etxaguntzea, etxe-kojauna, etxekandrea. Gauza handia izan da orain arte guztian gure artean etxekandrea. Janariak, garbitasuna, umeak egin eta hazi, plazara gauzak saltzen eroan, soloko lanetan sendo eta nekatu barik...

— Horreek izan dira lehengo amak eta amamak. Etorkizunean zelan izango ete dira zerok? Ez jakin.

— Aurrerapideak be ba dituzue, amama.

— Bai, ba. Eta zorionen baten. Ura etxeraino jatorku, telefonuak be ugalduz doaz, bide onak orain etxeraino beribilean heldu ahal izateko... Eta halan eta guzti be... baserrira...

— Nire aizta bi baserrira ezkondu dira —esan dau Oibarrek.

— Dobaran, gu alperrak gareala adierazo gura izan ete dau amamak, gu kalekook? —esan dot nik sekulako umore onez.

Amamak ondo ez entzun edo, ez dau ezer ganeratu.

Aldegiteko gertu gara. Etxekoei gure agur eta goraintziak, esan deusagu amamari. Hurrengo baten barriro etorri gura izango leukela Dobaran jaunak, baina ez jakin ba.

Han laga ditugu basetxea, amama, umeak eta txakurrak. Aldegin dogunean ez deuskue zaunkarik egin.

Oinezko unadea halik agudoen egin dogu, baina agudoago, arean, Opelean bihurketako bideak.

Ordubiak baino lehen Oibar Izar hotelera daroat, Dobaran Mimentza ostatuan itxi ondoren. Ni be, honegaz batuko naz, bazkaltzeko.

MIMENTZA ostatuko jantokian nire zain Dobaran jauna.

— Jasean darabiltzu burtarina, Jon?

— Alboan eta atzean horrelako lagunak izanik, gustora be bai, ganera.

Lehenengo ta behin, barrean zuria edango dogula, diraust, eta barrara goaz. Horraitino, kopa biak ardao zuriz bete eta Dobaranek bere ontzia ezpanetara eroan baizen laster,

— Parkatu, baina gelara igongo dot eta Jesus baten jatsiko natxatzu. Kodaka eta abar daroadaz.

Berbaroa dabil barruan. Batzuk edaten nasai, beste batzuk sartu-urtenean. Jente gehiena gazte samarra da. Zaharragoak banakeria. Gizonezkoak emakumeak baino ugariago.

Erakus-mahaiaren aurrez aurre, han sakonean, jantoki orokorra dago. Ateak edegita, mahaiak gertu; zamau, plater, ontzi.

Itxaroan dagoana aspertu egiten da ta, ardo edateari ekin deusat. Ardao ona da. Zerbitzariak botileari gerri gerritik oratu deusanean, ezin ba nik ardaoaren jatorria ez izena irakurri.

Jantokira sartuz doaz lagunak. Nire lagunak laster jatsiko dala esan, baina ez da agiri. Pertsona zaharrek, nik uste, eurek igarri be egin barik, asti luzeagoa behar izaten dabe zeregin batzuk egiteko. Baita batera bestera ibilteko be. Gogoazkar, baina oinak nagi.

Agertu da, horraitino ene Dobaran enea. Jantzia aldatu dau. Daukazan ule apurrak barriro orraztu dituana neure begiok dirauste.

— Aspertu egin zara, ezta?

— Ez ba.

— Zure kopea hutsik dago eta nirea beterik. Bestetxu bat gura izango zeunke?

Buruagaz ezetz dirautsat.

— Goruntz joan nazanean ez dot uste izan honenbesteko luzamenturik izango zanik. Parkatu, ba. Gorputzean berotasun lar susmatu nik bai? eta nasai bazkaltzeko soineko arinagoak zertu ditut.

Bere ontziari drungada motxa egin deutso.

— Goazan jantokira —diraust. Zeu aurretik.

— Ez dakit biderik, ez jat ezagun leku hau. Dakiana lehenengo, ikaslea atzetik.

Iribarrea egin dau atzerrietako euskaldunak.

ZERBITZARIA dator gugana; mutil gaztea, jake zuria, paparra erdi zabalik.

— Entzun. Goizean ostaturik urteieran, lagun birentzako mahai bereizteko agindu deusat... zerari, gelariari.

— Bai. Txoko haretan dagoana da, kalerako leihoaren ondokoa. Betoz neugaz.

Mahai artetik eroan gaitu izentauriko lekura. Mahai gehienak lagunez inguraturik dagoz. Hormeari bizkarra jesarri da Dobaran. Honen aurrez aurre ni.

Narru bigunezko azala dauken liburu estu mehe bana laga deuskuz mahai ganean mutilak.

— Zeuk aukeratu, Ur... Hauxe be, ba da burua!

— Paperean idatzi behar izango dozu —dinotsat zirikari.

— Behin sasoi batera ezkerro, burua... tabula rasa.

— Latin be ba dakizu.

— Gane ganeko berniza, besterik ez. Kanpuetan ibili izan naz baina batez be, gartzelaniaz baliatu izan naz. Buru gogorra ni, frantses ikasteko. Eta ingeles be... Aleman, barriz!... Barre egitekoa da. Han, gero esango deusut nun, eretia izan neban, ez hain zuzen aleman ondo ikasteko baina aleman baten sozio izateko.

— Ta?

— Ez ginan konpondu. Hartuemon zerbait izan genduan. Horraitino, tratua egiteko unea heldu zanean, baldintza barriak asmatzen hasi zala susmatu neban, eta hori ez jatan inundik be, gogarako izan. Txakurraren iperdira bota neban.

— Kondezinoiak zeure onerako izan eitekezan, behar bada.

— Baita zera be! Haren andaparara nirera baino ur ugariago joan izango zan. Ut, ut!...

— Arean be, modu askotako... abereak ezagutu dituzu.

— Lar. Ostera, komeni izaten da batzuk ezagutzea, gero beste batzuekiko halako norbere jokabideak eratu eta gogortzeko. Aleman morroskoa tratularia zan. Emaztea be, aldi baten, erdi lagako ete eustan sinestuta ibili nintzan.

— Andrak trukegitea horreek asmatu eben, ezta?

— Joko hori guztiz lehenagokoa dala uste dot. Dana dala, andrarik ez neukan nik orduan, trukadea egiteko.

— Ezkongai zengozan, beraz.

— O...! Kontu luzeak dira.

Emakume zerbitzaria dator, paper zuriak eskuan. Bularraren paperan daukon sakel estutik boligrafo urdina atara dau. Guganatzean, irribarre fina ahoan.

— Aukeratu al dabe...?

Jangaien liburuari barriren barri begiratu eta bazkaltiar biok bako-txak bere aho milingeari adei eginez, janariak izentatu ditugu.

— Ardaorik?

— Bai, eta baita ura be —dinotso nire lagunak.

Hor doa zerbitzaria.

— Kontuak hurrenengorik hurrenengora gogora ekartea, behar bada, errezago izango jat. Hori dala ta, ezarian ezarian esango deusudaz nire ibilerak eta ganerako zerak.

— Jakingarriak izango dira gazteagoentzako. Magnetofonoa baneu...!

— Ez jat gustatzen nire berbarik inork hartu degidan; batz be, zingilean. Inork jarriko balitu halakoren baten, baina idatzita eta gero neuk aurretiaz, edo eginda batean aztertuta, hori... besterik litzateke. Baina inori ahoz emon zintaratzeko, horrelakorik ez. Eskarmenturik izan dot, eta horra!

— Lotsorra zara, nunbait.

— Ez, hain zuzen.

Zerbitzariak mahai hasierako atseginak dakarskuz. Itxura ona dabe. Berehalakoan ardaoa, ogia eta boteilak.

— Berotasunak kendu ondoren, bazkaria gogotsu jango dodala uste dot —diraust Dobaranek.

— Jan kontuan gorabehera handiak izaten dira.

— Arazo askotan jazoten da hori.

Ardaoa isuri deust eta bere basora be bai. Biok batera edan dogu lehenengo zurrutadea.

Zurrutadea egitean burua eta begiak be, goruntz jaso ditu, eta bertatik diraust:

— Hor dagozenei ez deutset gaur jaramonik egin, eta niri edo guri begira harrapatu ditut.

— Nortzuk, ostera?

— Hiru emakume dira. Bi, gazteak oraindino. Bestea ez hainbeste.

— Ezagunak dituzu, horretara ezker.

— Ezagunak... hementxe ikusi eta ezagutu ditut. Ostatur dagoz. Besterik ezer ez dakit. Han, beste leihoaren ondoan; zuk, zagozan leku horretatik ezin ikusi.

- Eta... artuemonik?
- Berbaldunak dira.
- Emakumerik gehienak lez.
- Horixe. Gure ama be, berbalduna zan. Lar berbalduna, arriskuan.
- Hori euren izakeran dago, ezta?
- Baietz esango neuke.

ESKOLAN lehenengo maila laburretako ikasketak zertuta gero, Dobaranen seme hau lanera zertu ninduen. Lanerako bidean. Lana izan zan nire bidea, bideko lana eta bizitza zati batekoa. Lan nekatsua batzuetan, kezagarria besteetan; menpeko izateak dakarren laztasuna, sarri askotan. Izerdiaren ondoren ugari norberentzat barik inontzat danean gerta ohi dan lez.

— Dobarantxu, errekadu asko batuko jatzu gaur, zeuk bakarrik burututeko.

— Lagunik ez dot izango, antza danez.

— Ez, gaur ez.

Ardao almatzen nahikoa handia eukan ugazabaren menpe egiteko lana zan. Goizean goizetik hasi eta iluntzerarte, bazkalaldiko une laburregia muga erdibitzaile nebala. Ia etenbako lana, gogaikarria.

Hurrengo baten...

— Ez da agertu gaur Dobarantxu, eta goizeko hamarrak dira. Goiz erdia galdu deust —ugazaba iperdierreak.

Hamarrak, hamaikak, hamabiak... bazkal ostea... arratsaldeko laurak, seirak...

Berba honeek gure ugazabarenak izango zirala uste dot.

— Egun osoa joan da, eta Dobarantxu agertu be ez...!

Arrats harek gaua ekarri eban, eta gauak, egunsentia. Egunsenti barria, beti bardina ta beti bardineza.

Eguerdi aurrean gure ugazabari menpeko batek esan eutsan:

— Dobarantxu ikusi dot.

— Nun?

— Nun... nun...

— Alperrierian? Medikuaeren etxeruntz doala? Eskolara barrero hasi ete da?

— Ez bata, ez bestea, ez hirugarrena.

— ...

— Lanean ikusi dot.

— Lanean? Nun? Zetan?

— Lanean, soinean jantzi zuria daukala.

— Mutiko potozorri hori kamareru sartu ete da?

— Potozorria?... Hemen lanean ziharduanean, mutil majoa zala entzuten genduan, gure ugazabak horixe esaten ebalako.

— Bai, halan da. Horraitino gauzak aldatzen diranean...

— Egiak ezin leitekez aldatu, baina...
 — Zu be, ugazabaren aurka, agintarien kaltean? Mundua jente gorritz beteko ete dozue?
 — Zorioneko pipar gorria! Pipar berdeak be, ba dira, ba.
 — Bai. Bai. Gauzak, ostera euren zerean eta neurrian.
 — Ugazabaren neu-rrri-an...
 — Tira, tira! Nun ikusi dozu gure iheslea, desertorea?
 — Lux Totoaren harategian.
 — Karnazeru... gure Dobarantxu? Oraindino horrelakorik!
 — Ba... lehen edaria, orain janaria, ahotik barrurako behar modue-
 tan beti.

UGAZABA ez da nasai geratu. Lanerako erreminta on bat aldendu jako. Mutilaren izaerea —ez neuk esateko baina— atsegin jakolako.

Geroago esan eustenez, honelako erretolikak erabili ei zituan ugazaba zaharrak.

— Dobarantxu daukan adinerako, halako barruko zabaltasunaren eta dendunaren erakutsia jasean emona dogu; bai behin! Lux Totoarenean bide emonkorra aurkitzea, leitekena da. Ostera, mutiko hori barriro erakartea komeni jatala uste dot. Baina.. Arean, beste norbait izan balitz... Lux Totoari nik berbarik egin ez deutsadala urteak dira. Benetan urteak. Uriko gorabeherak zirala ta, behinola estu hartu ninduan. Gogor gero! Eta ni, estuago jarri natxakon. Ez egoan zuzen, eta horregaitik, nik be gogor egin neutsan.

INOREN esanagaz ez zan asetu ugazabaren gogoia. Bere begiz ikustea gurago eban.

Horretarako, Lux Totoaren harategi aurretik pasatu zan, halan be, kaleko beste espaloian zehar. Hurre, baina urruntxutik. Haren betiko azerikeriak!

Karnazeriaruntz begira ta begira igaro zan.

Totoa eta beste lagun bi han egozan, mostradore atzean. Zortzi lagun bai, mostradore aurrean. Dinodan hau, neuk dakit jakin, ba, hain zuzen be, orduantxe ni, ugazabaren berbetatiko ume potozorria bizikle-
 ta ganean heldu nintzalako.

Neure praka grisak neukazan, baina jake zuria, eta amantala be bai. Nik orduan begiak erne, ta ugazaba zaharraren gerizpea susmatu nebanekoxe, txirrinari abiada handiagoa emon, eta tximistea lez pasatu nintzan, urrunera begira baininoian.

Belarrietan durundi egiten deuste harek esan izango ebazan berba erreek.

— Ume soster setatsua. Baina! Horrek noizean behin esana, oraingoan brist! egin. Pixu astunak erabilten aspertuta egoala, eta egunen baten bide barriak aukeratuko ete zituan... Esan eta egin.

Inguruko etxe moltzoari bira handia eta astirotsua egin nik, eta

harik gerotxuago gure harategiruntz joan nintzan. Ez egoan han kale bazterrean gure agurea.

Bizkor bizkor joan nintzan une haretan. Galgari eutsi eta jatsi nintzan. Txirrinaren atzean lotuta neukan otxarea askatu, neure traman-kulua kanpoko hormeari eutsola laga eta harategira agudo sartu nintzan.

Barruan nengoala ugazaba malmutza ikusi neban aurreko etxeko atetatik urteten.

Malmutza halakoa zelatean egon jatan. Zelatean gizon handia, ume koskorak egoten ginan antzean. Lotsatu be ez gizona!

Geroago, almazenean entzun eutsoen:

— Bai, egia da. Neure begiok ikusi. Lux Totoak kendu deust. Ez da hori horrelan amaituko. Ordezko zeren bat egitea buruak emongo deust. Nasai egon, Toto hori, txoria zeure kaiolaratu dozula ta. Ez dago horrelakorik. Dana dala, mutikoagaz berba egin behar dot. Eta geroago, honen amagaz. Sasoi baten nire galde eta eske ibili, eta orain hori egin? Inoren arrautzak berotu, eta gero txitak ihesi jon. Ez, ba!

HARIK egun gitxira Dobarantxu, oinez orduan, ardao dendara joan zan, ez hain zuzen almazen nagusira, lehengo ugazabaren beste denda batera baino.

Boteila bi eroan nituan, hutsik haruntzean, beterik bihurreran.

Bata ardao baltzez beteteko agindu neutsen. Bestean, barriz, ardao zuria sartzeko. Baltza, etxerako zan. Zuria barriz, etxekandrearentzat. Ez nekian sukaldean haragiak onduteko ete zan. Horraitino, eta hau askok ez ekien, baina nik bai. Lux Totoaren emazteari ardao zuria gustatzen jakon. Eta ixil mandatu hori neuk egiten neutsan. Ardao zuria ekarte egunetan, eskupekoa emoten eustan. Eta ni, pozik.

ESANAK ESAN, ugazaba zaharrak ez eban zeharo galtzen urten. Otseina galdu eban arren, bezeru barria irabazi ebalako. Harek esaniko berbak ei ziran.

Ni neu be, gaztea izan arren, neure eskolako nintzan. Hasarrebi-deak sarritan, besterik barik kaltegarri baino ez dirala izaten. Gehiengan, lar kaltegarri.

Lux Totoa, egia esan, ez zan beratza, mazala; zazkar samarra baino. Ez zan berbatsua, ez zan barriketa luzeen zale. Irribarrerik hari igartea, ez zan lan erreza. Urrunera begira egiten zituan autuetako berbak.

Semeek lan gogotik egin behar izaten eben. Aita gogorra zan, lege zaharrekoa edo. Emaztea be, ha andratxu begi baltzerana, berakatz atala baino finagoa, tablan sarri egoten zan, batez be arratsaldetan. Orduan, izan be, Lux Totoa bere beste gauza batzuetan ibilten zalako. Eta joan-etorrietan. Bazkariak etxetik kanpora egiten zalea. Gazteago zanean, jakina, baserririk baserri berbera ibilten zan, ganaduak aukerazten, hurrengorako zekor itxurakoenak begiz joten. Nik dinodan aldi

haretan semerik zaharrena ibiltzen zan hara ta horra, hilgo zituen abereen bila.

Andratxu begi baltzeranaren niganako txera ona atsegin jatan, baina...

GEROAGO...

Mekanika lantegira sarrera eske joan nintzen ilunabar baten. Nire barruan sekulako eztabadak, kezkek, ondo egingo ete neban. Egonezinarren kilikilia sortu jatan, eta aurrera. Gizonak beti aurrera egin behar dau ta.

— Makina konturik ba al dakizu?

Barre egitekoa zan baina, nik makineria kontuan neukan jakituria, ipertargiaren diztirea ainakoa zan.

— Hona... nik egin ditudan lanen barri emongo deusut —esan neutsan makineria eta mekanika lantegi haretako semeari—. Eskolatik urten eta gero, lehenengo ardao zaragiak, botelak eta abarrak hara ta horra banatzen ibili nintzen. Nire lan tresna handiena eskuko karrotxua izan neban. Burpil bi eukazan eta galgarik ez. Behar modu hori laga eta harategira nintzen. Hor ibili naz aspaldi honetan. Batzuetan, harakina- ren semeek edo menpekoek —ni be, menpekoa nintzen, baina menpekoena, arean— mataderiatik harategira haragiz eta hazurrez beterik erabilten eben karruari sakan ibilia naz. Zenbat bidar...! Hurrengo, bezeruei okelea, odolosteak, lukainkak —txarriak be hiltzen genduzan eta—. Tira, hori nik ez; ez nintzen pataririk hotz-hotzean hiltera heldu. Ba, generu horreek bizikleta ganean eroaten ditut, atzean edo aurrean otzara ez sakonegia dodala. Ikusi daikezunez, nire lan modu gztietan, burpil biren bira ta birako jokoa izan dot makineriako ixil ezkutuak ikasten hasteko hasiera.

— Mihinean be, ba daukazu zuk makineriarik —esan eustan burlezar, lantegi barriko jabearen semeak.

Gustau egin jatan mutil haren berbakerea eta izakerea.

Ez neuk esateko baina, harek be, nigan zerbait alde on susmatu ebanarena esan eustan barruak.

Izan be, jakingureak zirikatu ninduan. Makina arloa begiko jatan. Mekanikuak, ona baldin bada, nortasuna eukiten dauala, nortasun nabaria, sarri entzuna neukan. Eta egia da, lehen ainean orain be. Legeen zirriparran abogadua lez, makinen misterioetan, hor dogu mekanikua. Egia ez al da? Bai, ba.

ARGIRO agertu ez eban arren, Lux Totoa kirrimirri geratu ei zan, haren menpetik aldegin nebanean.

Txotxolokeriak dirala esango deustazu; baina bakotxak bere bizi- tzen, eta arean, umetan eta mutikotan eginiko urratsak, gero ta gero be, gogo gogoan izaten ditugu. Zaharrago eta lehenagoetako jazoerak eta gertaliskiak gomutanago. Oraintsukoak errez ahaztu, eta aintzinakoak untzez josita lez, buru buruan.

Bai. Bizia hiltea errezagoa zan, lo edo ibili ezinik dagoan makinea berpiztuta eta martxan ipintea baino,

— Gorritik baltzera aldatu da —esan ei eban Lux Totoak. Odolak alde batera laga, eta koipe zikin baltzetan sartu. Mutilaren barruko grinea horixe bada, beioa. Zeregin gatzagoetara doa.

ARLO barri, jantzi barri.

Harako jake zuria, amantal garbia —zikinduten zan arte— laga, eta han ninduzun, Jon, mahonezko prakak, mahonezko alkondarea, mahonezko jakea soinean. Jantzi argitik jantzi ilunetara jo neban.

Orduan ezagutzen nituan neskatoek barre egiten eusten, olgetan hasarratu eragin guran. Nik ziur dakit, ostera, soinekoagaitik ez ebela hareek ardurarik; soinagaitik baino.

— Bihozlapurra zinan gaztetarik, e!

— Nor ez da izan gaztetan, Jon?

Barreka hasi ginan eta zerbitzariak be, azken berbok entzun eta irribarre egin eban.

Handik gorakoan patrikaran kotoi moltzoa sarri izaten neban. Orio eta koipe artean ibiliko nintzan. Sarri arpegia be baltz, eskuak baltzago.

Lehenengotan engrasadore edo jarri ninduen. Horrelan ardatzak ezagutzen hasi nintzan, burpiltxu bakotxaren jokoa. Beribilak ziran gehienbat, han konpontzen zituenak. Horko eta hemengo motorrak be bai. Ordurarteko automobil banakak gehitzen hasi, eta lana ba egoan toki haretan. Harik lasterrean motor soilaren barruak eta ingurukoak, izenak eta bakoiztasuna ikasi nituan; arean, karterra, magnetua, pis-toiak, zigua...

BAI. Ez neuk esateko baina, izan nituan neskato ezagunak. Ederrak neskatoak. Orain be, hainbat urteren ostean Euskalerrira bihurtu nazanean, egundoko emakume lirainak, sendoak, maitagarriak ikusten ditut. Orain, sasoi eskasa, Uranga. Nitzat esan gura dot.

— Oraindino ez zara horren zaharra!

— Gizonak ez daki, ez dau jakingo zahartzarora zer dan... inoren narruan. Hori, bakotxak berak, bere gorputzean, bere barruan, bere zanetan eta hazur-maminetan susmatzen dauala esango neuke. Ez dago besteren esperientziarik; asago dagoz horrelako barriketak. Alper alpe-rrekoa da gauzak, entzunda edo irakurrita buruz jakitea. Errotea norberak dauko, eta errotea ur murritez geratzen danean... ai, orduan kontuak! Errotarria geldi ta nagi, lor eta sor susmatzen danagaz batera, gorarik ez eta beherantzekoa bai; sasoi bateko hamabiak geroetan sei ta erdietan lotzen diranean... Sinesgatxa da; horraitino, egia garratza.

TXILINOTSAK durundia egin dau eta Elisabete areto nagusiruntz joan da.

Zer gura dauan itandu deutsa Elisabetek amari. Balbi etxean ete

dagoan itandu be. Arrebea gelara joan da, despatxura, etxe osoa arakatu dau eta,

— Ama, ba... ez dago etxean.

— Hauxe da lorra, ene alabea.

— Zeren lorra?

— Arina ez dana, horixe da lorra, astuna. Eta nekea be bai, lorra dozu.

— Doña Nekane etorriko al da?

— Emakume hori ez egidazu horrelako berbakaz izentatu. Nekanetxu entzutea atseginago jakolako.

— Larogei urte laster, eta Nekanetxu...

— Arimea ez da zahartuten.

— Ez, e? Esan egidazu zergaitik, ama. Baina ezin zinei, guzúrra esango zeuskit eta.

— Guzurrik nik?

— Heeemen...!

— Nik guzurrik esan? Lehenago...

— Lehen, orain eta gero. Ondo dakizu, ama, ni gaur hemen egongo ez nintzana, ez atzo ez bihar... harako egun baten norbaiti egia esan zan bazeuntso.

— Nori, gero?

— Nori? Aitari.

— Zer esan neutsan nik zure aitari, Kandi maiteari?

— Boni eta Kandi, tolesik bagako mutilak, gaxik bagako umeak.

— Kandi nigaz maitetasunez ezkondu zan.

— Ha bera bai; zer esan bakoa. Baina zuk, ama, zuk beste bat gurago zenduan.

— Gurago... gurago... Ez egizu ahaztu, Elisabete, urian guraina senargei izan nebala, bata bestearen ondoren; eta horreekaz aldabatera beste hainbeste eta gehiago ipar, hegoe eta alderdi bietako uririk ederrenetan.

— Hona hemen Kleo barria!

— Neure kontra egitea daukazu gaur. Bedar zitalen bat jan dozula dirudi.

— Bai, matxingarratza.

— Matxingarratza dinozu?

— Zure seme Balbiren despatxuan hor ikusi dot liburu lodia edegita. Han daukan paper batek ba al dakizu zer dinoan? Hauxe: «Matxinoak matxinadea dakar. Gizonak lo dagoz. Emakumeak losorropeanago».

— Jesus, bai berba luzea! Zera, Matxin gure paraje ingurukoa zan; Txoriherrikoa. Baina autura jota, Balbik neskabila on bat topatu eta haregaz ezkontzea hoba egingo leuke.

— Ezkondu?

— Bai, behar dan moduan, Eli.

— Bai ala gai?

— Gai dago egon.
— Baita egongo be. Zelan ulertzen dozu, ama...
— Zer? Kordokan eta dilindan jarten nozu.
— Ezkontza berbak baino sarriago beste berba batzuk entzuten doguz orain, zuok gaztetan trigeminoa baino.
— Donostian asmatu eben trigemino hori.
Alabea ixildu egin da eta amagandik aldendu, etxeko beste norabaitera.

NORK esango, eta... kalean arpegira inork jaurti ez deustana, Elisabete gureak niri...! Eta brastadan esan be. Azalkeria latza dabil munduan, hipokresi gordina. Egia zeinek esaten dau gaur dan egunean? Urruneko albistak ordurik ordura dakiguz. Auzokoa eta etxekoa, osterara...

Matxin txoriherritarra baino matxinagoak dabiltz munduan aske. Ai, nire bihotz hau! ito egin behar nau? Ito!

Dei txilina joteko gertatu da. Txilina, osterara, lurrera jausi da. Dingilin hots motel ganorabakoa egin dauan arren, Elisabete harik berandu barik, amaganuntz etorri da.

Ama lo dago. Edo konorta galduta ete dagoan.

Elisabete unetxu nahikoa luzean amaren alboan dago, zer entzungo, zer ikusiko.

Bekokian ikutu deutso, bekokiko zan urtenenetan batez be.

Odolaren tintinak jarraian diharduala etsi dau. Lo dagoalakoa, Eli sukalderuntz doa.

Etxera atepetik norbaitek sarturikoa dakus lurrean.

Makurtu, karteari oratu, zutundu eta leihoruntz doa. Hemen, gutunaren nundik norakoa jakin gurarik, kartazal ganea eta azpia ikertuz dihardu.

Ganean letra baltz txikerrak daukoz. «Balbi jaunarentzat. E.E.».

— Eskuz esku esan gura dabe azken letra bardin biok.

Kartazala mehea da, beste hainbeste barrukoa. Arean, orri baka-rreko mezua.

Elik karteabadeak kopoia jasoten dauan antzera jaso dau, leihoko kristalaren kontra barruko letrak zelan edo halan ikusi eta irakurri nahirik.

— Emakumea izan ni, eta hau honetara laga? Uuuu... Letra hau be, emakumearena dala esango neuke.

Karteruaren bitartekotasunik bage heldu dan karteaa...

Mahai ganeko bandejan itxi arren, Elik karteabigarrenez eskuetaratu eta letren taiua ikasten jardun dau. Alperrik. Ez dago ezetariko susmorik. Azterrenak falta, eta kakazarra.

AKEITA be ostatuon bertan edango ete dogun iradoki deust Dobaranek. Eta baietz, ba.

Zerbitzariari dei egin deusat eta haren begira nagoan bitartean, beste aldetik hiru emakume hurreratu jakuz mahaira.

— On egin, Dobaran jauna... eta laguna.

Harako «hiru marixak» dira; ni uri honetara heldu eta lehenengo goizean lorategi inguruetan ikusi nituanak.

— Eskerrik asko —dinotse Dobaranek—. Baita zuei be.

Hirurak arpegira begira daukazala uste izan dot. Nik neuk ez deutset bapere jaramonik egin. Jente zirina gogaikarri jat. Nire laguna be, gustora ez dagoala susmatu dot. Eta izan be, laster uxatu ditu.

— Orain arazopean nago. Agur, bai, agur. Gero arte —edo bapez— gehitu dau hortzartean emakumeok aldegin baizen laster.

— Udazkeneko euliak dirudie, platerera edo eskura unero datozenak.

Barre egin dot hori entzutean.

— Bai, bai. Eurek egiten dira ezagun, eta astindu ezin. Izatez, nire antzekoak dira honek be.

— Antzekoak?

— Aldako usoak, joan doazanak, esan gura dot. Udazale txikiak. Zera, ezagupidea gura bazendu...

— Zetarako, Dobaran? Ikusten nabean baktxean arpegira begira begira jarten jataz. Irudiren bat ete daukat bekokian ala zenbakiren bat?

Dobaran irribarre egiten hasi da, baina bapatean irribarrea galdu egin dala eretxi deusat. Eskuak igurtzi eta igurtzi hasi da behingoan.

— Ezagupidea gehiagoko barik, Dobaran?

— Ba... zu lako mutil gaztea, gai dagoana... Ala ez zagoz gai? Ba ete dozu loturaren bat? Ez deustazu honezaz ezer esan.

— Zeuk be, ez, Dobaran jauna. Zure egoera zibila, ez dakit. Ez dozu orainarte argitu.

— Gure gaztezaroon beti prest ezagupide barriak egiteko. Aldi baten neskato ederrak ziranak, batzuk ikusi ditut hemen eta hor barriro be. Orain be emakume atseginak dira. Baina... bigarren lorakoak.

Akeita ekarri deuskue. Eta txolak.

— Gaztetako gomutea zuk.

— Unada baten neskato bi izan nituan. Zein aukeratu jakin ezinik ibili nintzan. Neskatoetarik bata, harategian nengoanean zertu neban. Bestea geroago ezagutu neban, mekanikan nenbilenean. Hau, alboko herrikoa zan.

— Beraz, tranpalari be, hasi zinan.

— Gatzik bako tranpak. Gerrate madarikatuak hondatu ginduzan. Urikoa karnazeriara sarri etorten zana zan. Haren begi politak, haren arpegi zurigorria! Haren ondorik ebilen bakarra ez nintzan.

— Bat atzetik hasten danean, beste batzuk be itzartu egiten dira, ezta?

— Ni baino lehenago beste gazte bi hasi jakozan maitakunde eske. Erromeri baten dantzaldi luzea egin neban beragaz, eta etxeraino

lagundu neutsan, formalidade osoz egin be. Neskatoa benetan atsegin jakunean eta maitatzen hasten gareanean, —hori ondotxu dakizula uste dot—, beste konturik ez jatzu bururatu be egiten. Hori, driskili draskili-koakaz, harako susmoa, harako guraria. Baina horreekaz be, ez zan hain errez izaten. Ezta urrik emon be! Ba dakit orain munduan aldakuntza larriak izan dirana. Gaur... uri handiagoetan ikusi dot, eta hementxe be bai aste motx honetan. Hamabost urte inguruko neska-mutil gazteak kalean edozeinen bistan alkarri oraturik, estu estu besarkatuta, gerriak gerri bila. Ikusten ditut bai. Ez dago orain amerikanoetaz barriketarik egiterik.

— Munduan guztiok turistak gara orain, Aldako... zelan esan dozu lehen?

— Aldako usoak, udabarrian eta udazkenean iragaten diranak. Beste neskatoa maiteago izan neban. Hain zoraturia nengoan, hain zoraturia! Lehengoa ahaztu, eta munduan beste emakumerik ez bailegoan, nire Lora barria, ha bera Eba edo; eta ni ... Adan. Ez jakin, ba. Gerrateak, ostera, arbolan dagozan orri sendoak haize gogorak urratu, eten eta narras daroazan antzean, gu be zirimol zital harek erauzi eta aidean sakabanatu ginduzan. Barkuan sartu eta Frantzi aldera joan jatan. Eretia izan neban, horraitino, nire laguntxuari agur egiteko. Laster arte —esan geuntsan alkarri.

— Ta?

— Martxa txarra eroian gerrateak, txarra guretzat, hori jakin dakizu. Gure indarrekoak gero ta tximurtago, eta lurraldea estuago. Zapadoreetan ibili nintzan, gudari mailan beti. Ez neban egunez izarrik neure bularrean ikusi; zeruan bai gauetz, ozkarbi egoanetan. Nagusitzat geunkan uria arerioen eskuetan eta aginpidean jausteko egoanean, azken orduan abagunea izan neban Ibaizabalen amaierako portuan ontziratzeko. Eta halantxe, pilo batek egin genduana beste askok eta askok, zori txarrez, ezin egin izan eben. Eta batzuk gura be ez, geure lurrean, zema eta bildurrik gordinenaren azpian, lurralde gurea inor bago laga gura izan ez ebelako. Euskaldun gehienok aldegin izan bagendu...! Gure soziologoek ba dabe puntu hau ikasi beharra. Gure lurralde hau hutsik laga izan bagendu! Artxandara begira asko, eta horra! Pagasarritik behera etozan sekulako aldretan arerioen tropak eta gehigarriak. Alperrik zan harik lasterrean Kastresanako bidean zehar sartalderuntz joatea. Itsasora nintzan ni be, azkenen urten eban barkuan. Egun bi baino lehen lehorrera ginan hamaika estularri eta tripala jasan ondoren. Han ebiltzan besteen gerra-ontziak, galantak, indardunak. Ibilaldia niri neuri ez jatan aukerakoa izan. Behatzunak atara nituan bost bidar. Larria larriaren genean. Lo nengoanenan egoten nintzan ondoen. Atsekabea, esturea, bildurra, larria... haxe zan letania mingotsa. Etxekoakandik urrundu beharra, gure bizilekuak eta lantegiak eta baserriak bertan behera itxi beharra. Senideen askatasuna, osasuna, ondasunak...

— Gerraterik ezagutu ez dogunok...

— ... ez dakizue gerrateak dakarzan kalte, samin, heriotza eta lorrak. Entzutea da gauza bat, ikustea eta jasatea beste bat; eta hau be, bakotxak bere narruan jasan izan dauana besteakandik ezbardina dala. Hemengo eta atzerrietako gerrateetako hamaika pelikula dabil eta agertzen dabe munduan. Dokumentalen zatiak izan ezean, enparaukoa literatura hutsa da. Pelikula egileak esturarik baga, behar diran neurriak harturik egin ditu pelikula horreek. Baina hoztasuna dakarre sarriegi, hoztasuna tiro artean eta morteru artean eta bonba ta obus artean ibili izan danarentzat. Egileak mintzirudiak nasai egin, eta ikusleak, jesarleku bigun sakonean sartuta nasaiago ikusi. Ai, hori ez da gerrea, txotxo! Uxela sekulan ezagutu ez dagizun.

— Galdumendia...

— Horixe da berba bakarra eta egokiena, gerratearen ondorenak labur eta gordin agertzeko. Hondamendia, galdumendia. Lehengo baten egon naz horixe buruan dodala; arean, zuok, gu baino zatia gazteagook, ez dakizue guk orduan hain estimagarri genduan gauzarik asko galdu genduanik. Gure gauzotarik batzuk ez ziran zeharo goragarriak izango; horraitino, galtzaiak eskergak eta balio handikoak izan dira. Honeen artean...

— ... alkarrenganako...

— Horixe, alkarrenganako begiramena, errespetua; eta auzolanean jarduteko gogorik ez dot ikusi nik orain hemen, gerraldian izan zan ainean.

— Mundua edo mundukoak aldatuz aldatuz doaz eta...

— Mundua orain inoiz baino ustelduago ez dago, aurki. Baina ustelaldi atsitan, bai. Gorrotoa barruan, lotsabagakeria moduetan, zikina gorputzetan... honelakoak agiri dira. Ez dira ostera, guztiak ez gorrotodunak, ez lotsagaldukoak, ez zikin zapaztoak. Amesez beterik etorri nazan hau, makaldu egin naz, erraiak beratu jataz eta sabela tximurtu. Okadaka jarten nabe punkien itxitasunek, gazte batzuen gogorkeriek; zaharren arteko etsipenak atsekabe itzela emon deust. Izan be, gogorkerizko berrogei urte ostean guztiok begiñaturik egon... eta gure-gure artekoen batasunik eza...

— Aitatu izan dan gizaldi biko hutsuneak aldakuntzak eta kalteak ekarriko zituaná, igartekoa ez ete zan?

— Honenbestekoa izango zanik ez genduan uste, ostera. Hau da hau! Kaltea egitea, apurtzea, inor hiltea eta abar, gerratean hasi eta amaituko zala sinesten genduan. Horraitino kalte egitea gauza arrunta bailitzan dihardue batzuek; erre, hausi, apurtu... Haizeagaz biziteko ustea ete dauke? Mundu ia osoan ekonomilarien jakituria gorabehera eta agintarien erabagien ganetik, ba dira beste multi horreen azpijokoak. Ados gagozala uste dot. Esandako zer guztiok gorabehera hainbeste lagun lanik bage, hainbeste herritan gosez eta preminaz egonik, erretea, apurtzea, ezereztutea zorakeria ez ete da? Zuzentasuna danik ezin esan ginei, behintzat.

— Gorrotoa be aitatu dozu.

— Hara, arnasea hartu behar dot lehengo baten ikusi dodana orain gomutatzeko. Egia da esan ezina dan modu zatarrean, kriminal jokabidez garbitu ebena lanean ziharduan gizon jakituna, ongilea. Baina, Jauna, zelakoak dira zure bide ezkutuak? Gizon ongile horren irudia, bere hobi ganean jarri dabenean, ukabila estututa jarri dabe. Ulerkatxa dot hilerrian ukabilak erakustea.

— Bai, horrelakorik be ikusi dogu eta ikusten dogu. Zelan, horraitino, gauzak zuzendu; ganezka egin daberen urak uberkaratu, ibai ongarri eta ur ongile izan daitezaten?

— Aintzina esan eustan gizon jakintsu batek, —eta honelakoak hurrengorik hurrengora esaten doguz gizon guztiok—, aztorea, ikusiarren ganerakoa horixe dala munduko jakituria izateko bideetan sekulako garrantzia daukana. Oraindino tirozale diran gazteek be, egunen baten odol-bide hori, eurentzat be arriskutsu dan bide hori, baztertuko dabe. Ba dakizu zeruari botaten jakon txistua behingoan norbere arpegira datorrena.

— Heldutasuna behar.

— Zera, itsasgizonak izaten ditut sarri gogoan, marinoak nire gomutan. Gazte diranean, eta halantxe izan beharko, munduak ikusten, itsasoak hausten, mila nobia izateko amesetan, mozkorrak be hartzeko amurruz, eta abar. Baina geroago, edade batera ezker, lehorra gurago, itsasoetako ekatzak baino lurganeko bakea, ontzi zanutukaria baino etxe geldia, kamainea baino gelako ohe jakina, hainbeste emakume baino norbere emazte maratza eta begiratua eta zuhurra... Amigo! Esan ohi dan lez, deabrua kakegiten ikusi ondoren... kaskarra beteko jako edonori be, trentina heldu.

— Beranduegi izango ete dan, esan gura ete dozu?

— Hainbesteko berba larririk be, ez dogu erabili behar. Lan egin behar da. Hazia erein. Erein ezean ez dau inork inun alortarik batuko. Oiloen zintzotasunaz be sarri jarduten dot neure artean.

— Zintzotasuna oiloek?

— Bai, ba. Arrautzak erroin eta erroin, egunero arrautzaginean, gau ta egun artezago esateko, gizonari eskeintzen deutsoezan dubako arrautzak txita bihurtu baino lehen gizonak jan eta jan egingo dituala jakin arren. Oilo erroileari, zintzoari noiz egingo deutso gizonak monumentu handi bat? Arrautzak ez ete ditugu jateko gauzarik merkeenak, ugarienak, eskuraerrezanak? Hor dago, ba!

— Ekatz ostean helduko jako gure Herriari be merezi...

— Horixe; merezi izatea da lehenengo mailea. Baina zuzentasuna erabilten ez gara gizonok azkarrenak. Setakeriara dogu jokerea. Labur esateko, ukabila baino esku zabala hoba, ostikadea baino besarkadea, zuloa baino zubia.

— Zuloa eta zubia, hau da, zuloa gainduz zubia jaso.

— Taka egin dozu; aparta, bete. Gorrotoa, amurrua, gatxeriskoa eta ikusiezina baztertu beharko ditugu. Munduan ta hemen. Laga zemaik, laga asperkundeak, gatxez erantzuteak.

— Jakituri bideetan zehar zoaz.

— Berezkoa da zahartzaroan. Ikusi eta ikasi. Eta orain, —erlojuari begiratu deutso Dobaranek—, parkatu baina, bazkal ostean ohi dodan atsedena egin behar dot. Eta gero, gauza batzuk idatzi.

— Zure memoriak? Oraindino zati handia dozu niri kontatzeko.

— Zeren zatia?

— Zeure Ameriketako ibilerena.

Irribarretxua egin dau. Kontu luzeegiak ete diran, aitatu deust. Biharamonean jai egingo dogula eta etzi alkar ikusiko.

— Nik zuri zerak azaldu, baina zuk, Jon, zeureak ixilik gorde. Hori al da joko garbia, hori fair play?

— Gazte danak, istorio labur.

— Ez dago holakorik. Negarrez hasten gareanean hasten dogu bakotxak bere istorioa.

— Zuk bai jakin.

— Beharko.

ENTZUNGARRI gertatu dira anbulantzia baten uuuu zoliak.

Kale nagusian zehar joan dala dirudi.

Han gorago Zaharren Etxea deritxona dago; honen ondoan anbulatorio barria. Hara eroaten ditue bapateko estularrian —gaixotasunez ala takatekoz ala ezbeharrez— aurkitzen diranak.

Aintzinako sokorru gelearn aldakuntzea; aldakuntza hobatua, beti gertatzen ez dana.

Uriko bigarren alkateak edo alkate-ordeak, Isasi jaunak bere denporan egin dan aurrerapen egokitzat jotzen dau.

Arean, artez dago eretxi hori. Lehentxuago edaritegiak eta dantza-lekuak errime ugaritu ei ziran. Paperak atonduten, aztertzen, eskubiderik emon ahal izateko aginduak eta oharrak ikusten eta ikasten orduak ordu ibiliak ziran udaleko agintari eta funtzionari prestuek.

— Nasaipideak gertuteko eta eskatzeko edozein dago begi argi eta eskale —esan eban Damian Isasi alkate— ordeak. Baina geroago «estupideak», horreek udaletxeko gizonek atondu dagiezala.

Erretolikea polito erabilten eban; berbarako, esaldiok txitian potian azaldurik: kaleak zabaltzea, komunak ugaltzea, iturri barriak ipintea, eskolak eta ikastolak, estoldabideak aldikotzea, jolastoki eta horniketak... Barriketan jardutea errezena zala. Egitea, antolatzea, zeinek? Bai, antolatu, antolatu. Antolapenetan hamaika gau galdua ei da Isasi.

Damian gipuz-lurretan denpora apurren baten egona da, orain urteak. Antola hori, bere urikoentzat arrotz suertatzen zan. Antola entzunaren entzunez, lehenagoko kantu arin baten durundia, oihartzuna etorkioen uritarrei. Jazoerarik txikerrena, zeinurik arinena edo berbarik hutsena nahikoa izan daroe, orain be, urikoek norbaiti ezizena ezarteko. Eta gomuta horrek ekarri eutsen uriko askori belarrira eta gero ezterrira kanta erdi ahazturikoa; biribilketa baten doinua ta kantua.

«Artolatauko,
Artolatauko,
Artolatauko
dendea,
sagar ustelez,
sagar ustelez,
sagar ustelez
betea.
Artola begi oker!
tibiri tibiri
tibiri titi,
lanlanan laran laran
tiribiri titi
tiribiri ti...

ANBULATORIORA eroan dabena mutil gaztea izan da. Mutil gaztea.

Mutil gazte hori ez da trenbidean, ez lanean, ez kalean jausi. Ez eben laneko tramankuluak zapaldu.

Joera barriko tresnek eta droga zitalek eratsi dabe. Eta lurreratu. Barruko lasterreko garbiketean egiten ahalegindu dira anbulatorioko zerbitzariak. Mutil hau urikoa da, guztiz ezaguna drogearen indarrak kaltegin dagoana.

Konortik bage aurkitu dabe Udaletxe atzeko aterpe txikerrean. Dirudianez, lehenago ez da bakarrik egon; lagunak izan ditu bere inguru.

Baina mutil honi larria egin jakonean, gauzak estutu diranean, lagunok hanka egin dabe. Lurrean, larrituaren alboan papertxuak, txiringea, anpoila pitinak.

Alkartasuna eta solidaridadea, gorakiro aldarrikatutako doktrinak, aho mihinetan erionean egoniko berba beroak, eginean porrot egin dabe. Makalaldia egin jakona bakartade gorrian dago.

Aldi batean larrialdiak, mozkorrak eta abarrak izaten ziran. Anbulantziarik urrunean be ez zanean, min harturikoa edo gatx egindakoa al bazan oinez, bestela norbaiten kotxean, beribilean, taxisean berbere adiskideek eroaten eben, laguntza lekura, hospitalera edo norbere etxera, oker handia izan ezean. Zabal zan aldi baten nunbaiteko gizon morroskoa, guraina sagardao barrura ondoren, sagardaotegitik etxera eroaten ebela, burdian eta iluntzean. Burdian nasai nasai eta marikuen begiztadetak ezkutuan.

Sagardaoa, osteria, ez izan drogea.

Edan larregiaren biharamona pasatu ezker, osasuna gehienbat leheneratzen zan. Orain, barriz...

Damian arazo horretan behintzat, ez da tentela.

ISASIK jagotea dagokion bere uri hau hondatu dadin baino lehen,

drogazaleak hondatu behar dirala uste dau. Ez hondatu, ez hil edo erre. Osatu, edo behintzat, elementu kaltegarriotarik alden, urrundu.

— Kontuak kontu... Edaria nahikoa ez dala, bedarrez eta hautsez bete ditue mendibazterrak eta itsasertzak. Hauts bihurtzen diran bedarrek. Gorputzaren adorea eta indarra mozten dituenak, odolak zikintzen, bakebideak sasibide bihurtzen, gizonaren osasuna eta are bizia heriotzeagaz truk egiten jarten dituen bedarren hauts horreek! Anbulatorio barria egoki jatorko uriari. Horraitino, ba dira han hor hemen zirkulu batzuk, eurotan droga tratuan ibili daitezak. Nortzuk? A...! behar bada, gitxien uste diranak. Akulua eta beso sendoa behar dira. Politika arloan askatasuna eta joko garbia preminazko eta ongari ditugu; oster, gazteria edariz eta drogaz kutsatuten lagatea, ezin ginei inondik inora jasan. Zazpi ahaleginak egitea jagoku gazteria sano eta zindo ikusi gura badogu. Ez-jakinean dagozanak argitu; okertuten hasita dagozanak osapidean jarri.

Horrelako hitzaldi labur eta gartsua egin ebanean, udaletxean egozanek eta batez be, udalgizon kideek txaloak txalo egin eutsoezan Damian Isasi alkate-ordeari.

Berbaldi horren guna batzen eban idatzia jarri eban mahaiganean, udalgizonen osoko bilera baten.

Erakunde nagusiek zer guztiak egiteko gauza ez badira, edo heldu ezinik badabiltz, uri bakotxean eraketa berarizkoak jarri beharra itarantzun eban. Arlo horrek daukan laztasunagaitik eta garrantziagaitik, ezker, eskoi, erdimerdi jokoetan ibili barik, arlo horretan hain zuzen, alderdi guztietakoek, udalgizon guztiek eta herri osoak egiteko lan mesedegarriak guztien laguntasun sendoa eskatzen eban eta.

GAZTERIK geratu zan umezurtz Damian Isasi. Aitaren umezurtz. Amagaz, osaba Manugaz eta amamagaz bizi izan zan unada baten. Manu igeltserua izan zan, eta horrez ganera moldurak eta irudi errezak egiten zituana. Bere denporan estimazino handikoa izan zan; eta jarraitzailatzat jarri eban bere loba Damianek be, entzute ona izango eban urikoen artean.

Lan eta lan egitea eban bere jarduna urteetan eta urteetan. Amak sarri esan eutsan lanerako jaiorikoa zala, horrenbaten. Irabazteari egokionez, Damian etxean aita suertatu zan, egitez. Osabearen lanaren ardura osoa bere sorbaldetara heldu jakon epe jakin baten. Osasuntsua zan, oster, eta lanak ez eban inoiz bildurtu.

Aldian aldiko, herriaren aldeko lanetan be sartu gura izan eban bere burua. Abagunea heldu zanean bere kideek eta ezagunek zirikatuta, udalgizon izan zedin eskatu eutsoenean baietz esan eta bere buruaren jabe zala ta, kargu horren nekea eta kezkek beragandu zituan.

Borondate oneko suertatu zan eta, Isasik bere jorana ta zintzotasuna uriaren alde, uriko eta Herri osoko gauzen eta interesen alde eskeini zituan.

— Oraingo ume eta gazte askok, zioak azaldutea errez ez dan

arren, euron denpora honetan lanik-eza ezagutu dabe. Horren ondorenez, alper antzeko bizimodua eta berezko nasaikeria. Errua bestei egoztez ez da gauza gatxa. Gatxa, artez ez dagozan edo dabiltzan gauzak konpontzea izango da. Gazteen eta hain gazte ez diranen nasaikeriatik hondamendia besterik ez jaku etorriko, guztion kaltean. Ni be, gerrate ostekoa naz —gehitu eban Damianek—; horraitino erdi umetatik lana eta lanean nork ipinia izan nebalako, beste bizimodu bat ezagutu dot. Gazteon alde lan egitea, noraezekoa dogu.

Honelakoak esaten zituan hauteskunde unadako egunetan Isasik. Eta jenteak sinestu egiten eutsan. Sinestu, gizon zintzoa izan zalako, langilea, tolesikbakoa. Eta hortik, zinegotzi atara edo egin eben. Urian botorik gehien izan zituan.

Harik gorakoan bere eguneroko eta bizibideko lanari lehen baizen estu eutsirik, zeregin barria bizkarreratu eban. Lantegiko zokondoren baten, edo obran edo erbestean izan ezean, Isasi udaletxeko gelaren baten egongo zan, arazoak ikusten, ikertzen eta erabagi-bidean jarteko idatziak eta paperak beteten. Lan han, lan hor, eskuturrean erlojurik ebanik be, ez eban sarri askotan jakiten.

BALBI bere arazoari deusola dago. Asmoa martxan jarriko bada, jentea zirikatzen, arduradun egiten, jakinguratsu bihurtzen jardutea nahi ta ezkoa dana sinesturik. Moduetan egon be.

Arauen susmoa zabaltzea, sustraien hariak egoki ipintea. Ildoa zein dan jakiteko, zunezák artez jarteari ekin beharra.

Ekintzea bigarren epeko zeregina izango. Bigarren mailako halegina eta saioa. Indar iturriak, asmoaren zioak, asmamen hegoak. Irudime-naren preminea oraingo zabalkundean.

Paperak sailkatzen ditu.

1. fitxea. Herriaren jaurtzabidean aurrerakuntza ukaezinekoak egin diran arren, halako porrot usaina, halako hutsemotea susmatzen da herritar askogan.

Balbik hori irakurri dau ta azkenengo berbea ezabatu eta askoganen orde batzukan hitza ipini dau.

Ezpan artean dinok hurrengook: Hainbat urtetako ezbeharra, agintari ibili ziranen zabarkeria eta eskubide bagako bizimoduaren ondoren, ez izan errez gauzak onera eta egoera jorira bapatean aldatutea.

2. fitxea. Gure Herriak azken aldi honetan programatzaile ugari ezagutu dau. Horraitino batzuen kemena, norbaitzuen adorea eta ekina ezerez antzean geratu ez ete da? Harako urak goruntz ekarzan itsaso sendoa zirudiana, geroago ura galduz galduz, murrizten joan dan errekea erdi idortu bihurtu ez ete da? Nun da sigla ugarien baso iluna?

— Mutilak:... Mutilak!... —dei egin dau, inguruetara begiratzeke Balbik— Hemen dogu gaietarik bat, astiro eta sakon aztertu beharrekoa. Nun zagoze, apostolu barriok?

Beste mahai baten inguru dagozan Manix eta Zarke nagiak ataraten hasi dira.

— Astindu alperreria. Borondatea ez da nahikoa, txo! Lanean hasi behar dogu.

— Hasi, baina hirurok hasi. Zuk zeuk be, batzuetan katusaldea, hau da, nagitasunaren erakutsia emoten dozu ta.

— Emendik gorakoan, esan eta egin. Jasean hasiko gara ta jasean ekingo deutsagu. Guk be, geure liburu zuria eta liburu baltza egingo ditugu.

— Meza zuria eta akermezea ez ditugu nahastatu behar, horraitino.

— Ez. Hori ez. Zera, oharrak be, hemen dagoz. Irakurri egingo deutsuedaz.

— Oharrak.—Asmoaren hedapena lortzeko, gaiak sakonkiro arakatu eta bide aukerakoenak jo ondoren, tresnarik zorrotzenak eta zabaltasun handiena izango dabenak geugandu behar ditugu. Lagunak, komunikabideak, idatziz zein irudiz edo soinuuz, tresnak, makinak, jente burutsuak eta...

— Horrelan amaitzen al da idazki hori?

— Ez ba. Atzeneko berbea zein dan esanbeharririk ez dago, jakin dakizue ta.

— Txakurrari dantzan eragitekoa?

— Horixe berori.

— Txan-po...

— ... txanpana ez al dozu aitatuko!

— Txanpona.

— Dirua.

— Edo zorraldia, kreditua.

— Eta, zeinen abalez?

Alkarri begiratu deutse hiru gazteok. Ixilunea Manixek urratu dau.

— Geldi arazo hau apur baten.

Alboan daukazan lagun bien begiak Manixen arpegira doaz.

— Gabaz erdi lotan buruan erabili ditut asmoa, eraketea, ekintzarako lerro nagusiak... hainbat gauza. Eskemak egiten hasteko egon nazanean, loak hartu nau. Jagi nazanean eta jazten hasi, izekoak dei egin deust, sukaldera joan nadin.

— Manix, egunerako janariak erosteko estu ta larri nabil. Eta ez janaririk merkatuan edo dendan ez dagoalako.

— Zegaitik, ba?

— Diru barik nagoalako.

— Diru barik...?

— Bai. Neukan apurra galdu egin dot edo ostu egin deuste.

— Ostu...?

— Aspaldion lapurrak eta harrapariak ugaritu dirana ez al dakizu?

Noiz jarriko ditue hainbat bidar eskeiniriko ertzainak?

— Hainbat bidar eskeinirikoak, ez. Behin eskeini ditue, eta hemen be, aurtengo udan izango ditugu. Ikusiko dozu.

— Tira, ba. Ganera... aspaldion zuk etxera dakazunagaz hilaren hamazazpira horrenbaten heltzen naz. Gehiagora heltzerik ez dago.

— Zer dinozu?

— Zer dinodan? Egia, besterik ez. Egon. Euria danean, goitik behera euria dator behintzat. Ura. Baina egun lehorrak diranean haizea besterik ez. Beharrekoa da. Egia. Baina haizeagaz bakarrik ezin...

— Ez estutu, izeko. Oraingo prakaestu egoeratik praka zabalagoe-tara aldatuteko eretia helduko jaku.

— Bai. Ez jakin noiz.

— Gitxien uste danean...

— ... erbiak brast sasitza ertzean.

Unada honetan Manixek lanik bakoien hileroko diru txorta murrizta dau laguntasun. Txortea baino be, txortearen hasierea baino ez dana. Subentzino urri horixe be, laster azken epe muturrera helduko, eta orduan, amaitu da hilerokoaren gerizea bera be.

Manixen izekoa, Leo bere izenez, emakume jasekoa izan arren, aldi egokiagoa zanean ez zan ezkontzeaz bapere arduratu. Bere loba Manixen bigarren amatzat etsi eban bere burua, eta horrelan joan jakon urte mordo. Gaixozaina izan zan. Une baten loteriak ikutu eutsan, erloak jo arean be, eta horregaz eta gurasoakandik jasotakoaren onurak generatuz, bizi zelan halan.

Bere loba Manix hazi eta hezi ebala, esaten ekian. Eskola handiak emon gura izan eutsazan baina, mutilak ez eban horretarako zaletasun lar erakusten. Zenbat eta gehiago jakin geroetan dirua hobeto edo ugariago irabazi eukeala izekok behin eta barrero esan arren, mutilak liburuak hurre barik urrinean egokiozan nahiago.

— Egunen baten damutuko jatzu —izekoren oharra.

Idealista sailekotzat eukan Manixek bere burua.

Zerbait egiten hasi behar eta halakoren baten iragarkiak batzen hasi zan, publizidade arazoa izerdi handirik bakoa zalakoan. Hurrengo, liburuak saltzeari ekin eutsan. Lan eskasetik, horraitino, ondoren hazurtsuak besterik ez. Diru mamina eskuetaratzeko aldapa lar.

— Besterik ezean, Manix, emazte diruduna edo hileroko irabaziduna hartu egizu —esan ohi eutsan halako abaguneetan izekok.

— Buztarria?

— Bai, txotxo. Buztarri hori eroangarria izango zeunke. Eta horrelan, zu zeure etxean eta ni neure etxe honetan konponduko naz zelan halan, neure zertxu zimel honegaz. Etorria, motza bada be, etorria da. Ezerbe-eza, horixe da negargarria.

— Ez dakit.

— Ezin zeintekez beti ez jakinean bizi. Oraingo gazte batzuen ez-etarik bat hauxe da. Lanik-eza dagoala, eta lanen bat lortzeko aukerea izanda be, alperreria eta denpora pasa, horixe gogokoago. Lanik ez, irabazteko modurik ez. Ezkondu, zetarako? Ardura barriak hartzeko? Gazteak ez dau ezetariko ardurarik behar. Baina... hori bai. Jantzi, tira! Jan, oster, eta edan... Etxetik kanpora gustorago; bazkariak, afariak, gau-jaiak... etenbako jaialdiak. Gastatu? Jaungoikoa la-

gun. Beti gurasoei eske, zaharragoei eske. Karrozak eta horrelako gangarkeria zatarrak aitatu, destaina eta aintzat ez hartzea eta purrusta-dea ugari. Haragi-jokoan ibilteko gertu, neska nahi mutil. Jolasa handik, nasaikeria bestetik. Zoragarria zuon mundu barria. Norbere izerdiz lurra bustiterik... Hortxe egon gogor!...

— Ixilik egotea hoba izango dot. Halan be, dirutsuek dabe erru osoa.

— Nungo dirutsuek?

— Hemengoek. Eta hegoaldekoek. Eta multi barrabas horreek. Sarri esan dogu aspaldion, eta esango be. Mundu guztia euren sareetan harrapatu gura dabe. Amaraunak euren etxeak bazterrik bazter etxebarruetan edo sasirik sasi kanpoan zabaltzen dituen antzean zabaltzen ditue euren sareak. Gizajoak itota jarten ditue. Estaduen gain euren sare estu eta errukirik bakoak.

— Eta euli gizajoak harrapatu, esan gura deustazu?

— Bai, izeko. Euli gizajoak gu gara. Zelan bestela ba!... Petroleoa zala eta ez zala, mundu guztiari gerriko estuak jarri gura izan deutsoez. Gero eta karuago jarri elementu horren balioa. Azal iluneko gizonak errudun jarri, eta nortzuk ez dira eragile eta konplize mundu egoerea ekonomi arloan estu eta eztanda egin beharrean jarri dabenak? Gazteoi errua, edo destaina ezartea, errez da. Mundu hauxe aurkitu dogu.

— Gerrarik ez zenduan zuk be ezagutu. Orduko gosea, orduko...

— Ordukoek ordukoa, oraingoek oraingoa. Horixe daukagu. Guk ez dogu modu hau atondu. Are gitxiago aukeratu. Egia ez al da?

— Negargurea zertzen deustazu.

— Negar eginda ezer ez dagoana jakin behar zeunke, izeko. Horregaitik, ba...

Eta Manixek, bere aulkitik zutundu eta edari bonbilea hartu eta baso bitara isurteko imintzioa egin dau.

— Izeko Leo, drungadatxu bat?...

Leok buruari eraginez ezetz adierazo deutso.

— Dendara noa, zerbait lortzen dodan.

— Dendariak saltzeko prest dagoz.

— Baita ordaina eskuratzeko be.

Ixilunea. Manixek boteileari barruko ezer kentzeke, atara izan deutsan txorkoa barriri ipinten deutso. Bere tokian geldi geldi laga dau.

— Preminazkorik ez danik ez dot aurrerantzean edango, ez jango, ez jantziko, ez erreko.

— Betiko promesak, katuen amesak.

Manixen bekokia ilundu egin da. Betondo bihurtu.

BALBIK eta Zarkek Manixen arpegiruntz daukez euren begiak.

— Manix, irabaztearen preminea adierazoten deutsu zuri izekoak. Eta hori be, egia da —dino Zarkek.

— Orain arte, Manix, ez dogu guk «liberaturik» gure artean. Zelan? Zetatik? Modatik kanpora dihardugu lanean —dino Balbik.

— Nundik eskuarte gehiago lortu? Idealistek ez dabe egunero sabelik beteko. Are ezago sekula be sakelik, Manix.

— Egia hori be. Baina beste era bateko «liberatuak» dagozana ez ete dakusgu? Bai, itsuak ez baldin bagara.

— Zeintzuk? Zelakoak?

— Autonomia eskasa dala. Konforme. Baina horren inguru eta lehen be ba ziran eremuetan, baina orain gehitu diranetan norbere burua sartzen polito ikasi dabe hemengo askok.

— Jakina! Orainarte horrelako lanoinetan kanpotarrak zerago, ugiariago eta errezago edo, sartzen ziran. Lehenago askarako bedarrak guk eroaten genduzan, eta gero errapetiko esnea, bestek eratsi. Bidezkoa da bedarra eroaten ebenek be, errapean euren zatikina izatea. Historia nahikoa luzea hau be.

— Liberatu horreek, barriok esan gura dot, burukraziko ume barriak dituzue. Agintepide arloko burukraziakoak ainean agintepide zehatzetako ez diran erakundeetan errapea aurkitzeko aukeratzua izan dabenak. Gorengo mailan, eskualde mailan, uri mailan, erakunde berezi eta ikastola mailan. Bai, bai; «bizibeharrak narama» —esan eban behinola «Lizardi»—k. Agur, idealista; agur, ameslari! Sua hurreratu bakotxak bere opilari.

— Eta guk zer egiteko? Lan bai, eta jan ez?

— Horrelakoren bat egin eben hegetamasei eta hogetamazazpigarren urteetan gudari izan ziran askok. Euren biziak ezeren truke ez zirala, eskeini. Batzuk gogoz eta borondate osoz, euren aberriaren aldeko eskeintzarik handiena zala uste izanik; beste batzuk egoereak bultzatuta, hartu ziran erabagiak bete egin behar zirala eta. Orintsuago be izan ditugu, eta ba ditugu, etxeko bake gozoa eta norbere urikoa edo baserrikoa laga eta, idealismo garrak eraginda, arriskuko lanetan sartu izan diranak. Ostera, lan hori, jardute hori ez dau herri osoak ontzat hartu, bide gogorkeriazkotzat etsi daben ezkerok. Hor dago eztabaidea euskal-seme askoren artean. Beraz, idealismo hutsagaz gaur... Harako mendigoizaleen goietako amesak, bihotz eta eskuzabal, eurekoi ez ziranak... Aberrigintzan ziharduela oso osoan sinestuten ebanak...

— Zeretik edo nundik dakizu hainbeste...

— Gurè izekoari entzunaren entzunez. Orain, barriz, mendi tontoretan ez dago sustentua, ibarretan baino; urietan, txiki eta handietan.

Alkarrizketa honen ostean hiru adiskideak banandu diranean, laino arteko lurrin lanbroak ostendu bailitu banandu dira. Gaurko lanaldia matasa bihurtu jake.

— Gure asmoa amesa besterik ez ete da? —itandu deutsa Balbik bere buruari—. Ausaz, askok egiten dabena egitea da erosoena. Hartzen daben neke bakarra, entxuferen bat bilatzeko nekea. Zu noren alde, zeren alde? Emoten dauanaren alde.

LEIHOA erdi edegi egon dalako, auzokoek entzun dabezan berbak izan ei dira.

- Honelan ezin jarraitu ginei.
- Ezeren preminarik al dozu? —izan ei da senarraren erantzuna.
- Urian hau egin, hori egin, eta bestea, egiteko dala. Egin eta egiten, aintzinako lapurrarena. Eta bien bitartean, emaztea lupuak jan dagiala.
- Baina, Polisene, zelan esan zinei horrelakorik? Nirea zurea da. Gauza guztiak bionak dira. Ez al da?
- Bai eta ez.

EZKONDU baino lehen, Isasik adiskide artean eban bere gizartea. Gautxoria izan ez arren, lan ostean bere ibilaldiak egiten ekiana zan. Lan eta barriketak, afari-meriendak be bai.

Osabea be hil jakonean, ama eta amama zaharra eukazan. Honeek egonarri onekoak ziran, manatsuak. Alde horretatik ez eban Damianek egundo esturarik ez agirakarik jasan. Gizona gizona zala, eta emakumeak goizean dendarik denda eguneroko ibiltea burutu ondoren, etxean egotea euren ekandua zala. Emakume senide honeetarik kanpo, Isasik ez eban bere denporan emakume baina senide ez diranen mundua, mundu irakina, mundu ernagarria, sarritan.

Alkate-orde egin ebela pare bat urte zan. Urian, epe laburra izan arren, halako gorakadea eta hobakuntzea igarri igarrian egoala zan esatea. Ikusteko aurrerakuntzak arlo batzuetan. Isasiren sena, gatza eta eskua agiri zirala ekintza batzuetan.

Damian ezkontzen zala urian entzun zanean, ahoko mihinak polito astindu zituen. Gai barria euken jardunerako.

Jentearen gomuteak, hiltan ez dan arren, ilunaldiak izaten ditu. Zerbaitengaitik goralpenak egitea errez dan antzera, jazoerak beste enfoketara be ekarri daroe. Auzoko andra batzuen antenak entzun-egarriz gerta ziran.

Abuzilen eta uriko beste langileen kontrola estuagoa izan behar zalakoan ziharduan. Lanoineko izatea ez da nahikoa, hilaren azkenean diru mordoia etxeratzeke.

Udaleko batzar baten esanak, askoren gomutan geratu ziran.

— Lan izerdi bakoaren irabazia, hau da, neke handirik bage, eta ardura eskasez egindako zereginaren ostean datorren irabazia, ordaintzen dauanak ondo iragazia izan behar litzateke. Darabilguzan diruak —inoan Isasik—, ez dira gureak. Herriarenak dira. Herriari kendu eta kendu egin, eta gero han hor hemen eralgi, zintzoro arduratzen ez diranei zintzo diranen ainean soldatea emotea be, ez da bidezko, ez da zuzen. Mahai baten aurrean edo kalertzean egon egonda ez deust niri inoiz inork dirurik eskuratu. Egia da lanak modu askotakoak dirala, batzuk neketsu, beste batzuk gozatsu, esango neuke. Baina ardurea, haretan edo horretan, uriko diruz ordaintzen diran gizon eta emakume guztiak izan behar dabe. Eta txera ona jenteari: erremuskadarik bage hartu, entzun, jara emon, zerbidu. Gauza zindoa ez dalako, arean be, demokrazia dala ta, batzuk beste batzuen lepotik pepe eginda bizitea.

Aginpidean ez gengoanean honelako zerak guk eta edozeinek esaten genduzana ondo dakizue, korporazino honetako lagunok. Beraz, eskeini izan dana, betetea jagoku. Ez gaitzan beste...

— Besteei laga bakean —dirautso alkateak.

— Hori, hori! —batzanduta egoan jente artetik.

— Urikoak nigaz aspertzen hasi dirala susmaten dodan unean bertan —eta honenbestez amaitzen dot— - Alkate-orde honek udalkargua laga egingo dau. Esan dot.

Entzuleen artean komentariarik izan zan.

— Harako Kikintxuganik harrezkero, honelako alkaterik edo alkate-orderik ez da uri honetan ezagutu.

— Bai; entzute handikoa izan zan. Baina Isasik behin lan bateri eutsi ezkerok, ezin laga. Ez da karguagaitik eta aginpideagaitik ez hortik ixileko laukorik bota barrura egingo dauanagaitik. Lana dau maite, eta konpromisua hartu ezkerok, lan hau ala beste hori, ezin laga Damianek. Horrek etxean jan eta lo, eta jan eta lo be ez beti; edonoiz dago lanpeturik lantegian edo obran edo udaletxean.

Hori dala ta, Damian Isasi ezkontzen zala zabaldu zanean, gizonen artean baino esames latzagoak, gordinagoak sortu zituen uriko emakume jakintsuek eta jakingureek.

— Damian ezkontzen dala...!

— Bai. Isasi ezkontzeko ei da.

— Nogaz?

— Neskatala gazte bategaz.

— Erdi mutilzar egin danean.

— Ez dago berandurik.

— Zetarako?

— Ezkontzeko bai, gero! —gehitu eban jakitunago zan batek.

EGUERDI aurrea zan Dobaran jauna kalean aurkitu nebanean. Ibiltelekuan jente ugari ebilela ta, gu be, han batera bestera ibiltari zer neritxon, itandu eustan.

— Tokian tokiko —erantzun neutsan—. Jentea ibili, ba geu be, ibili.

Eguzki beroa egoan eta arbolapeko ibilerroan egozan jesarlekuetarik baten jesarri ginan. Ikusteko leku aukerakoa, parada ona.

Egon gengozan, baina Dobaranen begi bizkorrak dantzari susmatu nituan. Udazaleen jantzi taiu ezbardinak nabarmen jakozan. Horraitino bere denporako udazaleak urikoakandik errez banatzen ziran arren, bizilagunen eta etorribarrien soinekoak ez euken euren artean alde handirik.

Kosmopolita jokoan sartu ezkerok, jende ondo jantzia, zeharo jantzia, erdi jantzia eta erdi biloiza ikusi eitekena zan.

— Ahaztu edo burutik aldendu baino lehen, zerau esan behar deutsut, Jon —adierazo eustan Dobaranek—. Udaletxean alkateari eta alkate-ordeari berba egin deutset, hango artxiboetako gorabeherak eta,

itanduz. Hauxe da esan behar deutsudana: alkate-ordeak, Isasik konbit egin deustala domekan bazkaritan eurenera joan nadin. Nik i, bakarrik ez joatearren, lagunagaz joan ete neiken itandu, eta baietz erantzun deust. Eta lagun hori... zeu izan, hain zuzen.

— Grazia berezkoa daukazu, Dobaran. Niri ez deust bazkaririk hain errez eskeintzen inork ez inork.

Ohi eban irribarretxua egin eban nire adiskide konbite zabaltzai-leak.

— Begira nago —gehitu eban—. Alderdi zaharra lehenean dan arren, aldakuntzak bistan dagoz, gauzarik ugari aldatu da hemen. Mendiak eta kaleak, kale zaharrak, lehengoak. Barriak be, ugari orain.

— Mendiak be...

— Mendiak be izan dabe aldaketarik. Bideak zabaldu, ugaritu. Etxeak eta etxeñoak bazter askotan, eta lehengoan ikusi genduzan burdibide lehengoak kamino bihurtuta, eta basobideak, pinadietarakoak eta... Ez dago orain lehengo konturik. Adiskide zaharrak be, gitxi asko, aldatu egin dirala esango neuke. Batzuk gaztetuta edo, aurkitu ditut. Beste batzuk, azala lehengo, baina moduren baten arpegi gogor bihurtu dirala. Hogei urte eginbarriak ginan orduan eta, harrezkeroko bizitzeak eta bizibeharrak... Ni hemendik aldegin barik bizi izan banintz, ez jakin zelako arraina izango nintzateken orain. Horraitino, nire antzeko atsoak eta agurak ikusten ditut egunokaz. Ibili ezinik batzuk, okertuta beste batzuk. Burdinazko aulkiburdian neure ezagunak ikusteak, barrua urratzen deust.

— Barrirakuntzak preminazko ditugu.

— Zaharren pixua behar dau munduak, baina udabarri antza be bai. Ni, horretan nago. Hori bai, larregizko zorakeriarik bagako udabarria. Loraketa zoroegiak udazken murrizta ekarri lei eta.

— Filosofu zaukadaz goizeon, Dobaran.

— Biziak erakutsi.

— Baina gazteagoentzat, zaharren musikea, aspergarri.

— Gazteen jokabide arinak be, ez uste emonkor diranik.

— Ba dakit.

— Hogetamazazpian han, iparraldean neure burua aurkitu nebanean, tiroetarik orduan behinean aske geratu nintzala sinestu neban arren, beste modu bateko esturak izango nituala be, iruntsi neban. Mundua zabala zala, baina esturen faltarik izango ez nebala. Ez genduala, hobeto esateko. Hara heldu barritan laguntza apurra lortu genduan. Horraitino bestek emoteko laguntasunagan ezin leiteke luza-roan lorik egin. Ba dakizu zegaitik?

— Zeuk esango dogu.

— Gu geu, txoriak ez garealako. Nun zer jango, nun zer aurkituko ibiltea, gizonarentzat azkena dalako.

— Orain, ostera, hemen dabiltz eskeko barriak edo, ustez, lehengoak baino eskale dotoreagoak diranak. Baina, bai zera, zorriak gehitu dira toki askotan. Ibaietan esan eusten eskoletan eta paguko ikastetxee-

tan be, umEEK buruan zorriak euki dituela azken kurtsoan. Zorriak geure denpoan amaitu zirala ta...

— Orduan gaztelaldeko eskaleak eta eskekoak ziran, eta euskaldun bat edo beste. Orain, international mailakoak.

— Aintzina pestea eta abarra, izurria eta kutsua. Eta hogeigarren mendea amaitutzear dagoanen, gaixotasun barriak. Berbarako, popalarien gaixoa.

DOMEKA eguerdian zain neukan Dobaran Mimentza ostatuan, zeinetarik goizean goiz dei egin eustan, gomutan izan nengian.

Dobaran jakitun egoan Isasi bizi zan kalea eta etxea zein zan. Kale haretan be, beribilak ezker-eskuma egozan.

Espaloiak be, gehienak kotxeen azpian egozan. Kale erditatik ibili behar izan genduan. Atzera eta aurrera begira, kotxeren bat arrapaladan etorri, eta zapaldu ez gengizan.

Uriaren erdi inguruan baino aparterago egoan alkate —ordea bizi zan etxea. Etxe polita. Behetik gora hiru piso besterik ez zituan. Eguzki begitan, etxekoen mesederako.

ATETAKO atea itxita dago. Horraitino, mekanatezaina dauke. Dobaranek hirugarren mailako eta ezkerreko zertxu zapalari sakatu deutso.

Jasokailuaren bitartez, laster izan dogu itaunea.

— Nor da?

— Dobaran jauna eta bere laguna.

Ziirrist entzun dogu, eta ateari bultzezin deutsagu.

Ateta polita begien aurrean daukaguna. Eta argia. Hormak goitik behera atxurdinez jantzita. Lurrean be, harri berbera. Goian dingilizka argimutil beso ugaria.

Dobaran astunago, ni arinago eta beraz, lasterrago, mailetan goruntz hasi gara. Erosoak dira, igoleak neke handi barik gaindu daikezanak.

— Zurubi ona, e?

— Jasokinean ni gustorago —erantzun deust Dobaranek.

Etxerako sarrera atea ertzedegi. Atearen alboan, neskamea gure zain.

— Egunon.

— Halan ekarri.

— Etxeko jaun-andrak?

— Etxekandrea hemen da. Etxeko jauna behingoan helduko.

Berba honeen ostean, hall apainean emakume gaztea gudanantz.

— Ondo etorriak!

— Halan aurkituak! —erantzun deutsagu bat-batean Dobaranek eta biok.

Dobaranek etxekandreari bostekoa eta jarraian zertxubait makurtu eta eskuganean mun egin deutso.

Neskameak Dobaranen txapela eroan dau esegi-kakora.

Nik be, bostekoa emon eta eskugane leunean mun, eskua atzeruntz eroan gura izan dauan arren. Orduan, bigarren muna be egin deusat. Dobaran ez da konturatu. Neskamea bai, nik uste.

Hallean zehar goazala, nire lagunak astirotsu, hormetan esegirik dagozan kuadruei begiratu eta begiratu. Irudioi ganeko begiratua egin deutset nik. Irudi bizia atseginago izan jatalakoan nago. Etxekandreak aretotxura eroan gaitu. Hemen sartuta batera, senar-emazteen kuadrua dago, foto pinturaratua. Isasi agiri da, bare bare, eta alboan emaztea irribarrez.

— Hona hemen alkate-orde jauna, etxeko andra goratsu hori.

— Laster agertuko da bera.

— Honeek amerikanuok dituen txera adiguritsuak —esan deusat Isasiren emazteari, zeozer pozgarri edo zirikaria agertu guran.

Emaztea niri begira jarri da. Berehala agindu deusku:

— Jesarri beitez.

Honetan neskamea jatorku, bandeja zabala eskuan. Dakarzan zerak mahai zapalaren ganean laga ditu. Bitarteko janari iskiak.

Alboan dagon armario biribil baten atea edegi dau.

— Esan begie zein edari gura daben.

— Etxekandreak gura dauana —dino Dobaranek—. Zera, etxe hau zeharo barria da, ezta?

— Bai, ba. Gure gizonak eta, egin eben, orain urte asko ez dala. Egokia da. Eta, uriari zer deritxo berorrek? Hemen egona ei da.

— Egona baino gehiago. Baina, jakina, zuok gazteok ez dozue, zelan izan be! gure irudi bizirik hemen ikusterik izan. Berrogeta zortzi urte nik hemendik aldegin behar izan nebala.

— Egun larrietan, behar bada.

— Holantxe izan be. Horraitino, nire adiskide zaharren bat edo beste ba dot oraindino hemen.

Mahaitxu ganeko puxkak hartu eta mamurtu, horretan dihardugu gizon biok. Etxekandrearen begiak gudan dagoz; horman dagoan erlojuari be egiten deusaz begirakunak. Luzeretxian dagoala susmatzen dot.

Dobaranek Xereza atsegin jakola ordu horretan, esan deusku. Aintzina edari generosuak eta be, esaten ekiezala euskaldunek. Xerez mingotsa nahiz gozoa, baina Xereza. Edariak sasoi baten ez zirala karuak.

— Orduan dana ei zan merke —gehitu eban etxekandreak.

— Dirurik ez egoan eta... Ez ebilen dirurik orduan. Dirupaper makinak geldialdiak izaten zituen. Orduan ogerlekoa, txalaren begia esaten geuntsan, gauza handia zala adierazo guran. Izan be, orain berrotemar urte, ogerleko bat nahikoa zan gure urian bazkari ona egiteko. Guraina jan, guraina edan, eta azkentzat akeita, txola ta

txokorra. Esaera biribil hau esaten ez dakizue gazteok, Jon. Ez deutsut inoiz entzun. Ahaztu egin dozue. Ohiturea kendu da, arrotzu berba horreek.

— Munduaren ibileran jantziak, ekanduak eta berbetak be...

— Bai, joan-etorrian dabiltz.

Guk gaztetan arpegiak garbi, bizarrak ondo moztuta, neskatilakana joatekoan, batez be. Orain... bizardunen moda itzela aurkitu dot hemen. Eta emakumeak, pozik.

Azken hitzok esakeran, Isasiren emazteari begiratu deutso Dobarane-
nek, begiak txikituta.

— Zelan dan. Gure gizonak ez dau inoiz bizarririk laga.

— Modak.

Hori bestela baitakoan esan eta Dobaranek ganba zurigorri bi bere plater txura daroaz.

— Euskaldunak ete dira itsaskiok?

— Batek ba daki.

— Gozoak, ostera.

Etxekandreak neskameari buruagaz zeinu egin deutsa, eta hau joan egin da.

— Batzuetan aukera ona izaten da, eta gaur, atzo, hobeto esateko, zori horixe izan genduan.

Damianen emaztea nire aurrez aurre jesarri da. Ni be ezkira lodiok hartzen joan naz eta ez-ustean emakume horren eskuari ikutu deusat.

— Ai, hau da nire trakeskeria! —oihu txikerra egin dau.

— Neure esku ganokearen traukileria. Parkatu. Azkarregi zertu nik eta...

Dobaranek ez entzun egin dau gure autuki hau, bien bitartean xerezari zurrutada astirotsua egin deutso ta.

Geroago sarri uste izan dot haren trakeskeria berak modutua izan zala. Jakinaren ganean egina. Baina barriketak alde batera, atsegin izan jatan atzamar jote haxe.

Eguraldiaz hasi zan barriketea. Emazteak senarraren luzamentuaz harrituarena egin eban.

Hirugarren ganba mardotxua jaten hasi nazanean, bizarren bat samako zuloan kateatu eta eztulka hasi naz.

— Arrainaren bizar oskila! —urten deust ahotik.

Nizaz arduratu jataz lagun biok.

— Drungadea edan egizu —diraust filosofiaz Dobaranek—, eta joango da barrura bizar hori.

Gaztai-ataltxuz baterik dagoan plater txikerra eskeini deust, adeitsu, etxekandreak.

— Jo hemendik. Honeek ez dauke hazurrik... ez bizarririk.

Barre egin dogu guztiok.

Dobaranen eta nire kopea be, bete egin ditu.

— Bazkaldu baino lehen zerbelduta jarriko nozu, etxekandre agur-
garri —esan deusat.

— Ez deutso ardurarik. Hasierako edarien zerak gero janariak eta azkenean kafesneak zuzentzen ditue.

Honetan, neskamea ikusi dot ateruntz doala. Behingoan atea edegi eta hona hemen gure artean etxeko jauna.

— Luzeretxian gengoan —dirautso soil soil emazteak.

— Betikoa... azken ordukoak. Baina... egunon, jaunok! Ez zaree bidean galdu. Hori ondo!

Bostekoak alkarri estutu, eta Isasi be, jesarri egin da.

— Batzu batzuk jai egunetan egin behar dabe nigaz berba. Aste luzeko egunak euren zereginei jaramon egiteko. Jai eguna besteri denpora apurra kentzeko. Alkate-ordea, barriz, aste eta jai, jai eta aste menpekoen... menpe. Zerbitzua eta buruari uko egitea. Harako generaltxuak irakatsi euskuna. Harek edo haren laguntzaileek. Oraindino be, bizi bizirik dirauenek, gure zoritxarrerako.

— Baina aginpidea, horraitino! —dino Dobaranek.

— Agindutea, ezta eta ogia dala uste dabe batzuk. Nekekide diran kezkek eta mingotsaldiak ugariago dira, ekinaren ekinean.

— Bai, e?

— Ostera!

Autu arinagoetan jardun ostean, bapatean dino Isasik:

— Gura dozuenean, berandu be ba da ta, bazkaldu egingo dogu. Gero, kontzertu ona egongo da tele... Errime gustatzen jataz teleko kontzertuak. Eta ba dakizue zegaitik? Hara ta horra arineketan joan behar ez dalako. Etxeon bertan nasai nasai entzun ginei. Orduaz apurtxu bat arduratu, eta... ederto!

— Zuhurra alkate bigarrenaren ohar hau —dino Dobaranek.

Ingurukoek konpromisozko barretxua egin dogu.

ISASI jagi da eta honen ondorik goaz enparauok.

Alboan dagoan etxakia jantokia da, nahikoa hedatsua hau be. Mahairuntz hurreratu-alean, bakotxari bere jesarlekua jakinerazo deusku Damianek.

— Baserritarkeria izango da, baina ni, etxeko jauna beti neure tokian jesarten naz. Ekanduaren pixua handia da.

Alkate-ordearen eskuman bazkaltiar nagusia, Dobaran jauna jesarri da. Honen jarraian, baina Isasiren aurrezaurre, neure burua. Etxeko jaunaren ezkerraldean, eta nire eskumaldean, haren emaztea. Emazte gaztea. Emazte gaztea dinot, ba, lehen ikusi dogun kuadru haretan senarrak zahartxuago emoten dauan arren, orain begien aurrean senarra bere emaztea baino benetan urtetsuago dala ikusi dakustalako.

Emakume hau ni baino be gazteago da, ziur asko.

Neskameak mahai —hasierako gehiago ekarri deusku. Ondo ikasita dagoala dirudi. Etxekandreak agindurik kasik emoten ez deutso.

— Zeinek ardaoa, zeinek ura? —itandu dau eratsu.

— Bietarik bego —dino Dobaranek—. Barruko harriak urtuteko, ura ona ei da.

Arraina jateari ekin deutsalagu eta berbaroa ixildu egin da. Polisene ogi barik dagoala ikusi nik, eta ixiltasuna eten guran, ogi otzaratxua Isasiren alboan dagoan ezkeror:

— Isasi jauna, emaztea dozu hemen ogi barik.

— A! Parkatu. Berankor ni sarriegi.

Eta otzaratxua eskuetaratu deust.

— Noizbait autortzen dauanean, be —dino eztenka Polisenek.

Une horretan bildur izan naz, etxeko jaunak eupadea egingo ete deustan, inoren etxean besteren emaztegez hainbeste ixileko berba egiten dodalako.

Baina zeharo ixildu gara. Haragiari ekin deutsalagu, eta jaki gozoa dala Dobaranek aitatu ondoren, beste guztiok be, ebagi eta jan jardun dogu.

Noizean behin, alfonbra lodiak dagozan arren, bitarteetan neska-mearen takoi hotsa entzuten dot.

— Isasik emakume bi ditu etxean —esan deutsal erdi belarri ertzera Poliseneri.

Damianek zerbait entzun edo, niri begiratu deust.

— Ezer esan, Uranga jauna?

— Zerau dinot: Arraina gozoa, haragia gozoago.

— A! —ebagi dau Damianek.

— Hori, hori! —gehitu dau Dobaran jaunak.

Polisenek sekulako belaunkadea emon deust bere belaunagaz. Berbaroa barrero hasi danean, nik honi:

— Morse ona. Azpiegiturez egingo dogu berba, besterik ezin danean.

Gero, nire ahotsa jaso eta guztiok entzuteko —eta besteak nahas-tauteko moduan—esan dot:

— Baaai. Sumarunistek lan handiak egin leiez. Azpian be, bizia dago ta. Lurraren barruan eta itsasoaren azpian esan gura dot (Barriketa hutsa da, Poli).

— Itsasganeetan ibili naz —Dobaranek osterakoa—; baina lehorrean, ez mehatz zuloetan, hobeto.

— Hor ibili jakun lehengo baten morroe bat— gehitu dau alkate-ordeak, han bazter baten, urruneko mendian, meatz azterrenak hartu ete dituan eta. Aurrekontu eskasa nahikoa genduala lanean hasteko. Baina presupuesto urriagaz zelan gaur ezer egin?

Autu horri jarraitu deutsoe gizon zaharrago biek.

— Aurrekontu bat onartu baino lehen, benetako burrukak eta atzera aurrerak daukaguz, urtero ganera. Gehiengoan izan, eta gitxiengoak agindu gura gure urian, be.

— Ezetza ta baietza burruka, orduan!

— Amaitu ezina dan oilar auzkea. Ganora handi bakoa sarritan. Eztabaidea da oraingo eskolea, Dobaran. Hor dira dialektika eta abarrak- Gai bakarra bera be, ezin behingoan onartu. Dinamika eta estrategia ugari, baina ardatzari koipea ezartea baino hondarra ezartea

errezago jake. Eta gero, gauzak atzeratu egiten dirala. Atzeratuko ez dira, ba!

— Eztabaidea eta gerrateak! Ez egidazu gomutatu be eragin, Isasi. Amerika Erdi-aldekoan ibili danak ondo dakiz horrelakoak. Eta han, nor ibili da? Dobaran. Eta zelako esturetan ibili? Mutilak!...

Polisene ta ni, alkarren eskuei begira jarri gara ostera be. Arpegiari goruntz egin deusat, «zer?» esanaz lez.

— Pianoa aitatu dozu lehen, Jon. Ikasten hasi nintzan, baina geroago erdi makalik zertu, eta bertan behera...

— Makalik? Zer izan zenduan?

— Zer izan? Medikua al zara?

— Ez. Ez naz medikua. Baina gauza batzuen sakona jakiten pixua naz, zalea naz. Bautista Basterretxe lakoa. Ba dakizu kantu hori?

— Bai, bai. Zera, sakona jakiten... Sumarunistak be aitatu dituzu. Buzo-lanetan ibili ete zara?

Irri gaiztoko begirakunea egin deust. Jarraian, nire lana eta nire bizimodua zein eta zelakoa dan itandu deust. Nungoa nazan, zetan etorri nazan, nun bizi eta nogaz.

— Ez naz basomortuan bizi. Gizartean bizi naz. Hau baino uri handiagoan ibiltzen naz, gehienbat. Ez naz bakarrik bizi, beraz. Teila-pean lo egiten dot. Jan be bai, jakina. Zetan... Ez dakit guzurrik esaten. Atsedean egiten etorri nintzan. Eta ez naz damu...

— Zeren damu ez zara, edo zegaitik ez zara damu?

— Ez naz damu, zeu ezagutu zaitudalako.

— Gorri gorri jarriko naz.

— Ez zara jarriko. Ezkonduta hiru urtera emakumea gorri gorri jarri ezin leitekkelako.

— Eta nahikoa ez bada...

— E? Egon. Atzamarrak askatasunean edo, honelako zerbait ez ete dogu lehen aitatu?

— Zureak bai, zorionez.

— Askatasuna, moduren baten osasunaren antzekoa da. Dogunean, osasunaz ardura handirik ez. Osasuna etetean dagoala susmatzen dogunean, orduan esturak, orduan aieneak!

— Egia.

— E, sekreturik be, erdi aitatu dozu lehen, ezta?

Ixilik geratu jat Poli. Barriri be, belaunean jo nau, mahai azpiko morsez. Irribarreak be, une horretan ihes egin deutso arpegitik.

Berehalakoan, neskameak tarta luzangea mahairatu dauanean, Poli zutundu egin da eta tarta-ebaten hasi.

— Lehen, Dobaran jaunarentzat.

— Ez, ez —dino honek—; lehenen etxeko jaunak behar leuke bere lehentasunaren agiria.

— Gozozale haundi, Dobaran jauna? Bai, ezta? Horretara ezkerro, zati hauxe.

— Bakar bati horrenbestekoa zertu ezkerro...

— Harririk ez egitea, hoba. Harriak hormetarako eta kaleetarako dira onak —generatu dau, berbetsu, alkate— ordeak.

— Metafora zalea da —diraust albotxutik haren emazteak.

Neure platerera begira bainengoan, ez deusat etxekandreari arpegira begiratu. Susmatu dot, ostera, nire eskuei adi dagoana.

— Azkarra zara jaten, zure eskuek diraustenez. Halan be, esku biloizak zureak.

— Biloizak edo guante bakoak, baina eurokaz konpondu izan naz beti. Ez dot uste hain biloizik dagozanik. Azal latza dabe azpian, uletsuak dira ganean.

— Atzamar biloizak esan gura izan dot —diraust etxekandreak, bere buruerea argiroago adierazo nahirik, edo.

Sorbaldak goruntz egin ditut. Orduan, alderago samar dagoan baso ardaoa emon deust, eta edan egin dot. Berak be, ardaoari ezpanakaz ikutu egin deutso.

— Ura, nungoa da, etxeko andrea?

— Bizkaikoa —erantzun deusa honek Dobarani.

— Horretara ezkerro, hori be edan egin beharko dogu.

— Horretarakoxe daukagu aurrean.

— Edateko.

— Jakina.

Azalkerioi laga ta bapatean Isasik eta Dobaranez berbaro zaratsura jo dabe.

Hoba.

Honelan enparauon berbeteak ez deutse interferentziarik egingo.

Neskameak gatz-ozpinak ekarri deuskuz. Eta hor doa.

— Neskatoa modutsua dozu.

— Bai. Atsegina da, zoramena. Hiru urte hemen dagoala. Ezkondu nintzanetik. Zintzoa da. Egokiro dakiz bere egitekoak. Gaztea da, baina aingeru jagola antzekoa dot.

— E? E?

— Bakartadeetan aringarria dot. Gozakia.

«Emakume honek kaixa bete misterio ez ete dau?».

—Bakartadeetan... Ez da barritsua, horraitino.

— A! Hori ez da hain errez jakiten. zalduntxu. Inor ezagutzeko egun bi, ez hamar ez hogeï ez da nahikoa.

— Nire zoriona, beraz —diraust etxekandreari.

— Zer zorion?

— Bestek ni ezagutzea nire gogarako ez dalako.

— Sekretudun gizona al zara? Ba, nik be, sekreturik...

Hori esan dauanean, ezpanak esku-zapiñoagaz igurtzi eta jarraian esku biak mahai ganean ipini dituala ohartu natxako.

Isasik gauza zelebreren bat esan edo ta, Dobaran jaunak barreari utsi ezinik iraun dau tarte baten.

— Agurea eta labea, ahotik berotu.

Esatera zahar honek urten deust eta mahaian dagoan emakume bakarrak irribarre egin dau, eta ezpanartean gehitu, hareek ez baina nik entzuteko moduan:

...Beinke agurak.

— Zera, pianoa jotea gustatzen al jatzu? Eskuen jarrera horrek horixe adierazoten deust. Horraitino... horra nundik nora, zure atzamarrak ez dagoz biloizik. Ezkontz-erastunaz ganera, beste zabalago bat daukazu hortxe. Eta beste esku horretan beste bi gitxienez. Zure senarrak, barriz... begira nago begira...

— ... kamino bide barrira.

— Begira nagoko, eta ezkontz-erastuna besterik ez dauko.

— Urtean erastun eder antzekoa eskeintzen deust.

— Erastuna, urteburuko maitetasun barrikuntza antzera.

Berbok entzunik, bekainak jaso ditu eta alboruntz begiratu, baina ez senarra dagoan aldera, bestera baino, begirakunea nigandik be, urrunduz.

Guk geure barriketatxu sarriro etena ixil-mixilka egiten dogu baina, honako agureok sekulako barbaroan dihardue.

Neskamea heldu jaku eta zuhurtasunez itandu deusku:

— Arraina, zeinek? Haragia, zeinek?

— Biotarik jango dogu gaur, honeek gizon gazteok jatunak dira ta —dirautso Isasik, begiari keinu eginez.

— Je, je... esan dau aho barruan Dobaranek. Isasik basoa bete deutso eta biok egin dabe ardao zurrutadea.

Eta ekin barriro euren autuari. Nik —guk uste dot—, horixe gura.

— Senar agintaria hartu neban eta hor dabil, beti agindu eta agindu. Lan be bai, baina...

— Horreek gauza onak dituzu —dirautsat.

— Ez hainbestean be. Parkatu baina, erdi total-motel ez dogu gehiago barbarik egingo. Zeure izena esan egidazu, gazte horrek.

— Gazteaaa? Hori, lehenago. Ja, ja...

— Gazte, zer esan bakoa. Benetan dirautsut.

— Lagungina zara; begikoa. Mila esker. Izen benetakoa..?

— Ene, ba..! Izen guzurrezkorik erabilten al dozu? Harrituta laga nozu.

— Izen artistikoak be, izaten dira ta. Benetakoa Jon dot. Hauxe nire izena hil arte.

— Zetarako hil honturik aitatu? Bizi egin behar dogu oraindino. Bizi.

Begietara begiratu deust eta dirdiz barria igarri deust. Bizigurako begiak iruditu jataz. Iluna gaintu nahi daben begiak, aurki.

— Bai. Egia hori be. Bizi. Askatasunez bizi...

— Polisene dozu nire izena.

— Polita ganera. Jabearen edukoa.

— Ez nagizu lotsatu, Jon.

Arraina jateari ekin deutsalagu eta barbaroa ixildu egin da. Polisene ogi barik dagoala ikusi nik, eta ixiltasuna eten guran, ogi otzaratxua Isasiren alboan dagoan ezker:

— Isasi jauna, emaztea dozu hemen ogi barik.

— A! Parkatu. Berankor ni sarriegi.

Eta otzaratxua eskuetaratu deust.

— Noizbait autortzen dauanean, be —dino eztenka Polisenek.

Une horretan bildur izan naz, etxeko jaunak eupadea egingo ete deustan, inoren etxean besteren emaztegaz hainbeste ixileko berba egiten dodalako.

Baina zeharo ixildu gara. Haragiari ekin deutsalagu, eta jaki gozoa dala Dobaranek aitatu ondoren, beste guztiok be, ebagi eta jan jardun dogu.

Noizean behin, alfonbra lodiak dagozan arren, bitarteetan neska-mearen takoi hotsa entzuten dot.

— Isasik emakume bi ditu etxean —esan deutsal erdi belarri ertzera Poliseneri.

Damianek zerbait entzun edo, niri begiratu deust.

— Ezer esan, Uranga jauna?

— Zerau dinot: Arraina gozoa, haragia gozoago.

— A! —ebagi dau Damianek.

— Hori, hori! —gehitu dau Dobaran jaunak.

Polisenek sekulako belaunkadea emon deust bere belaunagaz. Barbaroa barriro hasi danean, nik honi:

— Morse ona. Azpiegituraz egingo dogu berba, besterik ezin danean.

Gero, nire ahotsa jaso eta guztiok entzuteko —eta besteak nahas-tauteko moduan—esan dot:

— Baaai. Sumarinistek lan handiak egin leiez. Azpian be, bizia dago ta. Lurraren barruan eta itsasoaren azpian esan gura dot (Barriketa hutsa da, Poli).

— Itsasganeetan ibili naz —Dobaranek osterakoa—; baina lehorrean, ez mehatz zuloetan, hobeto.

— Hor ibili jakun lehengo baten morroe bat— gehitu dau alkateordeak, han bazter baten, urruneko mendian, meatz azterrenak hartu ete dituan eta. Aurrekontu eskasa nahikoa genduala lanean hasteko. Baina presupuesto urriagaz zelan gaur ezer egin?

Autu horri jarraitu deustoe gizon zaharrago biek.

— Aurrekontu bat onartu baino lehen, benetako burrukak eta atzera aurrerak daukaguz, urtero ganera. Gehiengoan izan, eta gitxiengoak agindu gura gure urian, be.

— Ezetza ta baietza burruka, orduan!

— Amaitu ezina dan oilar auzkea. Ganora handi bakoa sarritan. Eztabaidea da oraingo eskolea, Dobaran. Hor dira dialektika eta abarrak- Gai bakarra bera be, ezin behingoan onartu. Dinamika eta estrategia ugari, baina ardatzari koipea ezartea baino hondarra ezartea

errezago jake. Eta gero, gauzak atzeratu egiten dirala. Atzeratuko ez dira, ba!

— Eztabaidea eta gerrateak! Ez egidazu gomutatu be eragin, Isasi. Amerika Erdi-aldekoan ibili danak ondo dakiz horrelakoak. Eta han, nor ibili da? Dobaran. Eta zelako esturetan ibili? Mutilak!...

Polisene ta ni, alkarren eskuei begira jarri gara ostera be. Arpegiari goruntz egin deusat, «zer?» esanaz lez.

— Pianoa aitatu dozu lehen, Jon. Ikasten hasi nintzan, baina geroago erdi makalik zertu, eta bertan behera...

— Makalik? Zer izan zenduan?

— Zer izan? Medikua al zara?

— Ez. Ez naz medikua. Baina gauza batzuen sakona jakiten pixua naz, zalea naz. Bautista Basterretxe lakoa. Ba dakizu kantu hori?

— Bai, bai. Zera, sakona jakiten... Sumarunistak be aitatu dituzu. Buzo-lanetan ibili ete zara?

Irri gaiztoko begirakunea egin deust. Jarraian, nire lana eta nire bizimodua zein eta zelakoa dan itandu deust. Nungoa nazan, zetan etorri nazan, nun bizi eta nogaz.

— Ez naz basomortuan bizi. Gizartean bizi naz. Hau baino uri handiagoan ibiltzen naz, gehienbat. Ez naz bakarrik bizi, beraz. Teila-pean lo egiten dot. Jan be bai, jakina. Zetan... Ez dakit guzurrik esaten. Atsedean egiten etorri nintzan. Eta ez naz damu...

— Zeren damu ez zara, edo zegaitik ez zara damu?

— Ez naz damu, zeu ezagutu zaitudalako.

— Gorri gorri jarriko naz.

— Ez zara jarriko. Ezkonduta hiru urtera emakumea gorri gorri jarri ezin leitekkelako.

— Eta nahikoa ez bada...

— E? Egon. Atzamarrak askatasunean edo, honelako zerbait ez ete dogu lehen aitatu?

— Zureak bai, zorionez..

— Askatasuna, moduren baten osasunaren antzekoa da. Dogunean, osasunaz ardura handirik ez. Osasuna etetean dagoala susmatzen dogunean, orduan esturak, orduan aieneak!

— Egia.

— E, sekreturik be, erdi aitatu dozu lehen, ezta?

Ixilik geratu jat Poli. Barriro be, belaunean jo nau, mahai azpiko morsez. Irribarreak be, une horretan ihes egin deuto arpegitik.

Berehalakoa, neskameak tarta luzangea mahairatu dauanean, Poli zutundu egin da eta tarta-ebaten hasi.

— Lehen, Dobaran jaunarentzat.

— Ez, ez —dino honek—; lehenen etxeko jaunak behar leuke bere lehentasunaren agiria.

— Gozozale haundi, Dobaran jauna? Bai, ezta? Horretara ezkerro, zati hauxe.

— Bakar bati horrenbestekoa zertu ezkerro...

— Hori, hori! —generatu deutso Isasik—; oraingo aldian tartean guztiontzako izan behar dau. Gehiengoari gitxiengoak sekulako erre-muskak, irainak eta sakadak egiten deutzazan ezker, kontu haundiz ibili behar da tarta banaketa horretan.

— Orain...

— Uranga jaunari —agindu dau alkate-ordeak.

Niri emon ondorean, senarrarentzat ebegi dau zatia Polik, eta azkenik, beretzat.

— Inork areago gura baleu... Osterantzean gure neskato zintzoak nahia jan dagiala.

— Hori, hori! —barriro be, Isasik.

Guztiok barre itxurazko purrustadea egin dogu.

Neskame langileak txanpana ekarri deusku. Boteilea zeinek edegi-ko, eta,

— Hori, gaztenak —dino Damianek, atzamarragaz neu izentau bitartean.

Guztien eretxia dala ta, loro bihorrak askatu ditut eta txorkoa ihes egiteko aukeran daukat.

Urten dau eta eskutik ihes egin deust.

— Ez da ezer apurtu —Dobaranek olgetan.

Neskameak lau kopa luze bete ditu, eta bitsa dariola, bakotxak bere kopea eskuratu dogunean, Isasik alkartzeko zeinua egin eta laurok klisk! egite orduan, esan dau:

— Heldu barrion zori onerako!

— Guztion zererako!!... —erantzuna Dobaranek.

Aretoñora bihurtu gara geroago. Isasik orkesta jotaldia ez dau galdu gura. Akeita eta abarrak ekarteko agertu jaku barriro neskame maratza.

Butaka bigunetan jesarri gara laurok. Isasiren alboan dago orain honen emaztea. Biokandik alderatuago Dobaran eta ni.

Jan-edan osteko astuntasuna buruan, nik neuk behintzat. Soinuak laster hasi dira. Philips tramankuluak irudi eta doinua garden damoskuz.

Ingurura begiratu dot, eta Dobaran lo suma gozoan dago. Isasi be, ez dago itzarrik. Honen emazteak aldegin dau.

Horrelan ez dago bakarrik, ez Polisene, ez neskamea. Alkarregaz dagoz. Guk zikinduriko platerak eta tresnak eta abarrak eratzen eta garbitzen, ziur ziur.

BAZKARIA amaitu eta harik ordu bira urten genduan Dobaranek eta biok Isasitarren etxebizitzatik.

Dobaran pozik egoala susmatu neban. Noizean behin —edo sarriago be— betekadea egitea atsegin jakon gizona zalako. Euskaldungoaren alderdi bat dala, esaten ekian. Jatea, jasean, moduz, aukeramenez jatea —eta edatea— kulturgintzako ikuspidea dana, baten baino gehiagoren programan dagoana zala, aitatu eustan. Entzuna ebanez, txarribodak eratzen dituen alderdi politikoek, berbarako. Beste batzuk gizarte

bazkariak egin ohi dituen antzean. «Larrazabal basetxeko txakolina be, ez dogu ahazturik ordukook» —gehitu eustan.

— Horraitino aurten itaune hau idatzita ikusi dogu: «Zenbat edan dozue?»— jakinerazo neutsan Dobarani.

— Hori, lar jakin gura izatea da. Ahaztu baino lehen, hauxe esan behar deustut. Harako ostatuan dagozan hiru emakume hareek barriro be zure preguntea egin deuste. Alper alperrik dabiltz. Ea nire zer zarean, zugaz hainbat bidar ikusi nabela ta. Hori... neure beste jakitea dala erantzun deustet. Eta ez hareek... eta ez zuk... ez dakizue nik beste.

— Aho handia zara, Dobaran.

— Entzun ondo. Ez dinot guzurrik. Nik beste, ez dakizue. Ba... lehenera jota; andra zaharragoak —besteak lobak ditu— zure arpegia, zure begiak...

— Ikusmena makala daukala eta ondo ikusten ez daualakoa ez ete dot entzun?

— Baaa! Andrak guzurtxuak errez zertzen ditue. Begietan malkoak be bai. Aspertu nabe eta azkenengoan, ea ezer gura ete eben, itandu neutsen. Ez, ez, ezer be ez! —erantzun eusten. Eta zuk be, harekandik ezer...

— Ez, ez, nik ez dot emakumerik behar, orain behineon. Neuk dakit zegaitik.

— A! Zuk be, aparteko zerbait dakizu, e? Nik ez dakidana ete da?

— Egunen baten jakingo dozu, ziur asko.

— Bardinean gagoz, horretara ezkerro. Ni gizon askea naz. Ba dakizu.

— Ederto, ba, Dobaran. Hurrengo astean joango naz Ibaietara. Zu be ba dakit hara joateko zagozana, nahiz-eta honuntz osterata batzuk egin. Nik be egingo ditut, uste dot.

— Bai, han alkar ikusiko dogu.

— Zeure istorioen kontaketea ez deustazu oraindino zeharo amaitu. Ameriketako ibilerak, esan nahi dot. Frantziatik aldegin zenduane-tik... harrezkerokoak.

— Artez zagoz. Horraitino, hain luzeak izan eta...

Alkarri bostekoak emon eta hurrengo arte —esanez, banatu ginan Mimentza ostatua dagoan kalean. Zaharragoari bidean lagundutea egokidan.

NIRE adiskide barri Dobaran ezeze, barriagoak ziran Isasitarrak be, buru buruan izan nituan ganeko egunen hasieran.

Isasi gizon atsegina. batetik. Langile betidanikoa, bere lanbideko kezka eta zereginak gorabehera, eta honeek laga barik, idealismoz uriaren alde, gizartearen alde lan eta lan ziharduana. Norbere akatsak eta besteenak ulertzen zituana, baina gauzak hoberatzen, atonduten jarraitu beharra, beti gogoan eukana. Baina...

Emazteak ezer adierazo gura ete dau? Ete deust? Ez da nobelagi-

leen harako emakume zoragarria, xarmanta. Ez, ez da... ganetiko begiradan. Halan be, ordu ta erdi alkarren ondoan egin, eta aspalditik ezagunak —are adiskideak— baiginan begiko izan jat. Pentzudako izan natxako, uste osoko edo. Ez da itsumenekoa. Zerbait berarizkoa dau, erakargarri egiten dauana. Horraitino, ni hara etxera heldubarritan eta mahaian bazkaritan, bazkal-ostean baino txeratsuaگو suertatu jat. Jostaria ete da? Kalakaria, txantxetan diharduana?

Lehenengo lotaldia egin ondoren itzartu nintzanean, berba honeek esan eta bestealdera begira jarri nintzan lo barria hasteko:

— Lilurak ez dira munduaren erabile.

HARIK laugarren egunean, neure maleta biak apurka apurka gertatzen niharduala, hotelera telefonoz hots egin eusten. Goiz erdi ingurua zan.

— Uranga jauna al da?

— Nor zaitut?

— Zera... ez dakit gomutan izango nozun. Poli naz.

— Polisene? Ta, zelan dakizu ni nun...?

— Hotela jakin ezkeru, nahikoa dot. Zuek aldegin ondoren senarrari entzun neutsan konbidau izan genduzan lagun biak ostatu banatan zengozela, Mimentzan zaharra, Ipar hotelean gaztea.

— Bai, bai.

— Eeee... Kanpoan da gaur, eta sopsresea emon gura neuskio. Begitu. Zuk u, ausaz, pintore onen joan-etorrien barri izango dozu. Argiroago esateko, kuadru bat erosi gura neuke. Asmo horretan gagoz aspaldi. Harek neure kontura laga eban.

— Lauki hori erostea, lasterreko preminea ete dozu?

— Ez lagundu gura, beraz?

— Lagundu, bai; baina zetan, senarra daukan andreari?

— Esango deusut. Kanpus ederlan-tegian erakusketea dago. Hantxe alkar ikusiko dogu arratseko zazpi ta erdietan. Aukeratu zeuk han dagozan kuadruetarik. Gero arte.

EZ jakin nik zergaitik, baina bazkal aurretik Oibarri Kanpus eder-erakusketa aretoa zein kaletan dagoan itandu deusat.

— Nire zaletasun eutsiezinekoak inun diran kuadru erakusketak ikusten eroaten nau. Aspaldiko zera dot. Hain zalea nazalako, leitekezan kuadru erosleek nire usaina hartzen dabe, eta sarritan izaten ditut nire inguru, itauneak eginez, eretxiak eskatuz.

Nire berba sakonok entzun, eta urian erakusketak noizean behin izaten dirala esan deust Miren Oibarrek. Ikusle gitxi joan ohi dala. Erosle izan leitekezanak eta ikusguratxu batzuk. Bera ez dala behin baino izan horrelako zeretan.

— Kuadruak gauza politik dira ba, gehienetan behintzat, Oibar.

— Bai, ba dakit. Baina astirik ez, gogorik ez, joerarik ez.

— Zetarakoak dira zure joerak?

— Esku-lana gehien. Ikasteko zaletasunik ez neurri handian. Aukerarik be, ez gero! Oraingo umeeak ditue aukerak; edozetarako, ganera. Zuok, gizona ez, gauza batzuk ikasi bai, jakin... erdi. Baina orduan be, burua erakutsi beharrak eraginda...

— E, gizona ala emakumea da buru erakutsi-zaleago?

— Hori, ikasteke dago.

— Hor dabiltz soziologoak.

— Logo ugari dago orain bazterretan. Oraintsu irakurri dot beste berba bat, arean, podologo. Horixe da berbea! Zuhatzen adarrak moztuteko hainbeste ikasi behar bada...

— Ez dozu hori, baina.

— Ba dakit. Ziria sartu gura izan deusut, eta horra!

— Miren...

— Jon...

ILUNTZEA baino lehen uriko hainbatek nire kuadrusaletasuna eta erismenaren barri jakingo dabela uste dot. Horretarako egin dot bestela baitako zabalkunde txiker hori. Zanak emon, eta bada ezpadan.

Dobaranek ez deust gaur deitu. Hiru andra barrabasak be, ez ditut inun ikusi. Behar be ez.

Horraitino, atzo uste ez neban lana agertu jat gaurko.

Zazpirak ala zazpi ta erdiak aurrean kuadru erakusketara joango naz. Horrelan burua argituko dot. Eta edermena zorrozuko. Ausaz guztia beharrean daukat nire gogo moteldu eta nahastatu hau.

Makalaldi ondoan eta kezka artean be, ausaz, birloratu naiteke. Laukiak ikusi, laukiren bat erosi... Polisenek. Zer?

Hauxe da kalea, hor dago Kanpus erakustokia. Goizetan itxita. Egia. Arratseko lana izango dot. Ibiltaldia egin eta osterara be, uriko ikusgarriak neure begietan barruna sartuko ditut. Armariak dituen etxeak eta, jauregien egitura desbardinak eta, eleiza gotiko eta erromaniakoak eta. Zubiak, kale batzuetan etxeen hormetan dagozan irudiak, arboladiak.

Turismoko «i» gelan argitasuna eskatu dot; liburuska mordera emon deuste, merke samar. «Gure bazterrak, gure uriak.» slogan alaitua. Hango neskatoari gaztelaniaz berba egin behar izan deusat. Ez dot hori uste izan. Uste ustela oraingoan be.

Hurrengo astean lanari ekingo deusat barriro, okerrik edo aldakuntzarik ez bada. Oporrak oraingoan atsedean izan jataz, ez kiroletako jardute, ez horra hara ibilte. Laster, uri handiko zaparradara, egonezina. Han bai iskanbila, esturasuna, arrapaladea, estresa. Ikuskerako agurra egiten hasi orduko, «Agur, gero arte. Berba egingo dogu». Noiz baina? Noiz alkar ikusiko dogu, noiz berba nasaiago, noiz egotaldi barerik?

Uri txikietan —eta hemen be bai—, ez dabe ulertzen gure uri nagusiko esturarik. Hemen, uri baketsu honetan, asaro bizi dira. Aspertu egiten dira sarritan, orduak zelan emon jakin ez dakiela. Ibilten

aspertu, egoten gogaitu. Kartetan egiten dabe askok eta askok. Bazkal aurrean, bazkal ostean. Iluntzean. Afal aurrean. Kultura etxeak daukez, ez jakin hareetako liburuak kristalezkoak ez ete diran. Ba da, hain zuzen eder-erakusketa lekuaren auzo-auzo, liburutegia; arean kristalera bakoia.

Goizean ez dago esturarik dendak eta edatelekuak edegiteko. Zerbaiten preminea izan dot, eta goizean eta gero, bazkal ostean be, itxaron egin behar izan dot, denda behar nebanean ni sartu ahal izateko. Asaro bizi dira. Horraitino, premina handian batzuk. Preminak, ostera, ezkutatu egiten dira. Edertasuna eta dirua, ezin ezkutatu.

«Ondo bizi dana,
ondo bizi bedi»

esan eban bertsolari baketsuak.

Beragaz nago. Munduan pelegriñoak baino ez gara ta, aurrera. Ni, neure bidean. Gomutara oraintxe, amak azkenengoz ikusi ninduanean eta agur egin eustanean: «Agur, seme. Zoaz bakean». Ama, eta horraitino...

LILURA barria? Nork daki! Zegaitik ez, deslai honi?

Zazpirak eta hogei. Hona hemen Kanpus aretoaren aurrean ni. Sartu eta argitasun berezia. Aretoaren lau hormetatik dingilizka lauki mordoak. Txikiagoak, handiagoak, zabalak, estuak, koloretsuak, kolorgak, orraze ziurreko, ertz zorrotzeko, lanbrotsuak?

Bost lagun hormetara begira. Beste bat, mahai txiker baten aurrean jesarrita. Kuadru bat ikusi, hurrengoa... ausart nabil. Lehenengotan, bizkor egin dot inguruko guztien kodaskerea ikustea. Bai. Ikuste laburra hasieran. Nun zer dagoan konturatzeko.

Kuadrurik gehienak lurraldeko dira; bat edo beste, etxe barruetako. Eleiz baten argi motelez altarea. Erretratuak be bai. Hiru lau, janari-edari moetak, zera, bodegoiak. Egileen izenak, zenbakiak.

Itsasoetako margoak eta diztirak, guztia beharrekoak. Egile hasibarrien zeinezkoa dabe, koxkea. Uhin korkotxak, nortasunik bagako olatuak, huskeriazko konposizinoak edo. Hauxe uste izan dot inoiz, arean, norbaitzuek, gauzak euren zerean ikusi eta ikasi barik pintatzen dabela. Abasberuan.

Pinturako bat-bateko horrek alde onen bat izango dau, ausaz; baina alde eskasa. Errena izatea be, leitekena dala uste dot. Mendi alderdi eta basetxeak, hor dihardue askok. Basetxeak maitagarriak dira, baina beti hormarteak, arboladiak, larrak, bidezidorrak...

Horraitino, kuadru aztoraturik ez dago hemen. Arean, soilduak, bakanduak, itxurabakoak. Guztiek dabe irudia eta taiua. Modu erabiliak nahiago, asmaketa sortzeak baino. Bego.

Aretoko lau hormetako kuadruak banan banan begiztatu ondoren, neure eskuturreko erlojuari begiratu deusat. Oharrak egin ditut paper txiker baten, bolalumaz baliaturik. Ikusleak ugaritu egin dira, eta halako

aroa, giro beroago susmatzen dot. Oharrak batzen ditudala batzuk konturatu, eta nire alboan eta jarraian jatortaz batzuk. Barreari ezin eutsirik nago, neuk uste uste bage, komeriante bihurtu nazalako. Hor nabil ni: laukiagana hurreratu, jarraian urrundu, zuzenetara begiztu, zeharretara so egin. Gizon ni baino gazteagoa heldu jat, eta urtero, udazkenean egin nahi izaten dabela pintore eta artista gazteen lanen erakusketea. Poztu egin naz hori entzutean. Ez dira, beraz, kristalezko liburuen zale soilak urian. Ederraren bila be, ba dihardue norbaitzuek. Nire txaloak eurentzat, zuontzat! —esan deusat. Nire alboan dabilzanez, alkarri begiratu eta dinoe:

— Horixe ei da.

— Bai, albistaria, kazetaria.

— Ez, Kritikua. Jakituna, aitua.

— Oooo!

— A! Kritikua...! Horreek pintoreek eurek baino gehiago jakiten dabe. Exposizinoa egin eta pintoreek euren burua estu ikusten dabe, estu eta larri, kritikuek zer esango ete daben.

— Nik behin Ibaietan pintorea ikusi neban berbere kuadruei begira; kritikua eukan aldamenean, eta honek berba eta berba, pintorearen kuadru abastratuekiko hitzaldi luzea egin eutsan. Eta gero, jarraian, kuadrurik kuadru ikusi ta ikusi jardun eben —eta euren ondorik hainbeste lagunek—. Hauxe esango deusut: pintorea, egilea konkortuta egoala bere kuadru bakotxaren aurrean, kritikuak esan-alean berbere laukiei begirik kendu ezinik. «Hau, hau, —txakurrak egiten dau, baina ez da ardura—, hemen dagoan hau...! Honelakorik ez da aspaldian inun ikusi. Honen egikerea, ikuspegia, taiua, koloreen banaketea eta zoragarritasuna zuk, egite orduan, ez zenduan ikusi. Baina orain, ez zaitez zorabiatu; zorabioa emon leio edozeini hemengo edertasunaren dirdai zorrotzak. Hamaika eskoletako maisu kreatzaileek gura izango eben hemen agiri dagoana! Oleo zatia haragia da; espatulearen ikutua, tximistearen lerroa. Hor dagozan begiak farolak dira, eta irribarre hori! Melodiarik gozoena, ez entzuna, ikusia baino.

(Konkortuta nengoana, neu nintzan, alboan, gizon gomutamentsuak guzti hori, buru erdian, liburu baten orrian lez, irarrita, josita eukala uste nebalako).

— Bai, aitua danak, asko daki.

— Jakingo ez dau ba! Berezko sena. Berezko doia.

— Guk geuk ez dakigu ta... Eroste preminarik bagendu, arean be, oraintxe eretia guk jaun honeri itanduteko, eretxia eskatzeko.

Beste hiru lagun sartu dira. Eurokaz Polisene. Begi ertzetik ikusi dot. Mahai ganetik papertxu bana hartu dabe; laukien katalogoa. Hirurok batean dabilzanik ez dirudi.

Lehen niri berba egin deustan gizona Polisenegana hurreratu eta han dabilen gizona —neu, jakina— kritikua dala, eta argitasunik gura izan ezkerro. Alkate-ordearen emaztea dana daki gizon horrek, nunbait, eta txerea egin guran...

— A! Eskerrik asko —dirautso Polik—. Laukia erosi gura neuke, eta gaur begiztatu behintzat, eta jakitunik egote ezkeru, komenentzia ona.

— Jakiteko ereti hobarik, ezin. Gustatu ezkeru, jakina.

Ibilian ibilian nire parera heldu da Poli.

— Ez egidazu eskuan munik egin, Jon —esan deust ixil ixilik.

Harik lasterrean entzun dot barrero, baina doinu sendoagoz Polise-neren ahotsa.

— Arratsaldeon, jauna. Parkatu. Hemen esan deustenez berori kuadru kontuan...

— Bai, ba. Zerbitzeko. Ezer gura, ala?

— Guztiak ikusi gineiz, eta gero, bigarren inguradan aukeratu edo hobeto begiz jo, berorren laguntasunez.

Ate ondoko lerroan hasi dogu geure ibilera artetsua eta astirotsua.

— Bai bikote ikusgarria! —dino atso batek—. Kanpotarrak al dira?

— Gizonezkoa kritiku jakintsua da, eder gauzetan, kritikan ibiltan dana.

— Kritikan? Nun da herri hori?

— Ez da herria. Jakituri kontua da, kritikea. Zelakoak...

— A!... Izango da. Niretzat danak dituzu kuadru ederrak. Horrelako albo dotoreak, tamainu ederrekoak...

Polik eta biok barre egin dogu.

— Munduan ez da lar jakituna zetan izan. Ehun urte barru, danok kaskazur.

— Ez dagizula horrelako arrunkeriarik aitatu, Jon. Entzun egin leigue ta.

— Entzun arren, zer ba?

— Ezer be, ez. Baina ez da ganorea.

Polisenek artez berba egin deust. Zoro daukat arrats honetan neure kaskarra. Horraitino, barruan poz barria daukadala esango neuke. Bai. Pozarren jarri naz era batean. Emakume gaztea alboan sekula euki ez baneu lez, nago. Mosu be egingo neuskio, baina ezin ba!

Brastadan Stendhal jatort gomutara. Lotsati izatean edo. Ez behintzat, ez hain zuzen, jakiturian.

— Ikusi doguz gehienak. Zein eratakoea gura izango leuke berorrek? Basetxe horixe edo. Gure senarrak kanpotar batzukaz bazkaldu ondoren, basetxeen armarriak darabiltz buruan.

— Dobaranek berotuko eutsan txapelpekoa. Izan ginan basetxe baten. Armari eta, eskudo eta... Besteren batera joatekotan be, geratu ginan. Ea... hemen dago bat, eskudo ta guztikoea.

— Beste bat be, ikusi dot nik.

— Zein?

Polik ikusi izan dauan beste basetxea daukagu geure begion aurrean. Basetxe berbera dala egingo neuke. Pintoreak inguru aldatu deutso; eguzkiaren ordua be bai. Ilunabarreratu egin dau. Bai, berbera da basetxea. Iluntzeko hau politago dago, nire aburuz.

— Hauxe izan leiteke, Poli. Eskudoa egokiago marrazkitua dau, nahiz-eta erdimerdi... Guztitara jota, hauxe.

— Zer eskatzen dauan jakin behar dot.
Mahaian dagoanagana doa.

— Zera, kuadru bi horrek bardin samarrak dira, 11 garrena eta 37 garrena. Zegan dira?

— Bata, ehun milla. Bestea ehun ta hogeia.

— Ehun eta hogeia?

— Milak adierazoten ditut.

— Horretara ezker... Erakusketa hau noiz arte zabalik?

— Beste hamar egunean jarraituko.

— Uuuu... hogetamaikararte?

— Horixe.

— Ganeko egunen baten, ea... 37 garren hori, geldi!

— Gura dauanean.

Kanpus aretoan gure inguru ibili diran batzuk aldegin daben arren, lotu diranak adi egon dira traturik amaitzen doguentz.

Zerbait dakianak gauzak arrapaladan erosten ez dituala konturatu dira, nik uste.

ORAINARTE kalean inork begiratu ez deustan arren —harako hiru emakumeak izan ezean—, kaleko hainbatek nigan jarri ditue iluntze honetan euren begiak. Hori, emakumeek batez be. Gizonezkoek, osterara, Poliseneri begiratzten deutsoe. Izan be, dotore jantzita dagoala esango neuke.

— Zalantzarik bage, Polisene, bazkari egunean etxean baino apainago eta... zerago zakustaz.

— Zerago, zer? Eskasago?

— Apainago, esan deutsut.

— Apainago, ausaz, jantziak; baina neu, ni neu?

Nire begietan jarri ditu bere begiak eta txori izutuaren antzean geratu naz.

— Hori... zetan itandu be ez, Poli.

Aurrera ta aurrera goaz kalean zehar.

— Kafesnetxua edan gura bazendu, edo beste ezer, Jon...

— Neuk eskeini behar neutsun hori, baina...

— Zer, baina...?

— Ez naz ausartu. Uri honetan alkate-ordearen emazte... (ba dakit neuk) —agaz... bakarrean...

— Alkate-ordea erbestean dan guztietan kalean, bakarrik ibili behar baneu...

— Eta, nogaz ibiltan zara?

— Nogaz? Ba... neure neskatile adiskideekin; edo andra ezkonduakaz. Zelan dan. Ez beti, osterara.

— Ez beti... horrek zer adirazo gura dau?

— Ba, berbarako, oraintxe berton. Zaldun gazte baten albo alboan

noa. Ba dakizu? Alkate-orde jaunaren emaztea Kanpusen egon dan kritiku jakintsuaren alboan kalean zehar joatea pekatu al da? Eta kritikuari, bere lanaren eta nekearen ordain eskasez kafetxua eskeintzea?

— Mutututa laga nozu. Horraitino, ba dakizu harako «itxurak be, jagon egin behar» dirala.

— Itxurak galtzen gaitue sarri. Sarriegi.

— Poli...! Harritu egiten nozu berbokaz. Ulerkatxa da, edo nire garunak urtuz urtuz doaz.

Alkarri begiratu deusagu. Polik mihin-puntea ahotik atara eta burle egin deust.

— Kafetegi honetara sartuko ete gara, Poli?

— Bai. «Liliaran» entzute oneko kafetegia da.

— Entzute... meheagokorik hemen be, ba ete da, ba?

— Hori, edonun. Umearen sotiltasuna susmatzen dot zukan, Jon. Hogeigarren mendea amaiturren dagoala ez ete dakizu?

Sartu, eta baztarreko mahai baten inguru aukeran egokitu gara. Mahai hori bitarte, baina biok aurrez aurre.

— Uranga, zeure bizitzea jakin gura dot. Zuk... ba dakizu nirea.

— Ez, Polisene. Ez dakit. Arean be ez. Hor dozu senar langilea, hor etxe jasekoa, hor eskuarte, nik uste. Seme-alabarik...

— Ez dogu umerik izan.

— Hiru urte, ez da urte asko. Etorriko jatzuez, zeuon pozgarri.

Mahaiepeko morseari ekin deutso oraingoan be, Damianen emazteak. Honen belaun hazur biek nire biei sakadea egin deutse.

— Belaunik belaun gagoz, Poli.

— Ba dakit. Ez al dozu nahi?

— Ez deustazu minik egiten.

— Eta kalterik?

— Ezta.

Zerbitzaria alboratu jaku.

— Kafesne bi.

— Ondo da, jauna. Berehala.

— Hiru urte... Siberian. Nire istorio argia ta laburra ez dakizunik ez gehiago niri aitatu.

— Ezin sinestu neizu. Siberian...?

— Antzean. Ez sinestu zuk.

— Baina hain gordin, hain... brastadan, zelan diraustazu? Emakume ezkondua zara. Ni nor nazan be, ez dakizu. Behin alkarregaz egon gareala ta... Bai, zeuen etxean bertan. Baina... egon bakarrik; eta ganera zure senarraren eta beste gizon baten aurrean. Eta orain...

— Orain... osotara ez dakizunik, ez niri esan. Zehaztasunak be azalduko deusudaz egunen baten. Orain... zeurea jakiteko gogoia nik. Lehenengo, osotara. Berezkoa, emakume batengan.

— Dobaran hasi jatan bere ibilerak eta bere bizimodua azaltzen. Kontakizun hori luze doa. Ez dakit mutila, gizona ala alarguna ete dan.

— Ameriketako kontuak luzeak izaten dira. Zu izan al zara...?

— Nun?

— Ameriketan.

— Joateko egon nintzan, baina taket! Ez nintzan joan.

— Zu izan al zara...?

— Nun?

— Abedetegian edo frailetegian?

— Egunez inoiz ikusi. Baina han lorik egin, ez.

— Zure atzamarrak zegaitik dagoz hain biloizik?

— Hotz ez diralako.

— Hona, esatekoa!

— Jantzia ipinteko dirurik ez dodalako.

— Guzurra.

Barre mustur errea egin dau. Sineskor ez danarena.

Zerbitzariak guk eskaturiko kafesne biak dakarskuz.

— Edonor ez dago alkate-orde eta etxagintzako jaunaren mailan eta aukeran.

Lanean jarduteak eta alkate-orde izateak, gehiagoko barik, ondatsun iturririk etxera ez dakarrela, esan deust Polisenek. Nekeak eta nahasteak bai. Eta hasarrebidet, batzuetan. Baina zorionaren garrantiarik...

— Edozerk behar dau orain garrantia —dirautsat zirika.

— Txikerrena behintzat... Minimua edo... Dinodan hau ezineko ete? Gizon langilea dala, etxerakoa dala; behar bada, lar... etxerakoa.

— Zein ulerpen dauka lar etxerako horrek?

— Buru gogorra zara, Jon.

Erastunen ugaritasunak be egoera onenaren ezaugarriak ez dirala, gehitu deust. Erregaluak txanbelinak izan arren, azaleko gauzak baino ez dirala. Nire urteak izan eta hain sasoiko mutila bakartadean egotea, bakarrik ibiltea, ezin sinestu dauala. Misterioren bat, sekreturen bat dodala kolkoan, eta berari esan egin behar deustadala.

— Baina, misteriorik banau be, zu atzo ezagutu zaitudan emakumea besterik ez zara. Atzo ezagutu, alkarregaz bazkaldu, eta hurrengo astean ni neu joan egingo naz, joan neure bidean. Eta zu hemen, zeuk oneretxiriko egoeran geratuko zara, zori onaren...

— Zori ona barriketa hutsa da batzuetan. Bai, jakina. Zu ez zara ezkondu —ez dakit zergaitik— eta oraindino han bizi zara, umetako bigarren aldian bizi zara, Tentelagan. Nasai, tentelaren antzean. Ez al dakizu ezkontzen danean beste mundu bat hasten dana? Baietz erantzuten baldin bedeustazu, ez-jakin handia zareala arpegira botatuko deust. Ezkondu eta hortixek hasten da lorabidea, eztizko iretargia ta horren ondoko gogaroa, ala bizimodu grisaren narrasketea.

Damian senar jauna aurrean balego, berba horrelan egingo ez leukela dinotsat Poliseneri.

ZINTZORDATU egin nabe inoren emazte honen berbak. Kanpo

eder esaten dabe, barrukoa mehatzago danean. Bere laztorea ta zerbaiten guraria erdi agertu deustazala niri sakatu ondoren —behar bada guzurtxu itxurabakoa—, horraitino nire gorabeherak, nire barruko bizitzea be, jakin gura dauala, bistan dagoana da. Esan egingo ete deusat? Arinkeriaz jokatu ete dot? Ikusi neban unetik nire barruan tokitxua egiten hasia dodan emakumetxu honek, zetarako dauko zetan jakin nire bizitzea, bizimoduak eta ganeko mirariak?

Halan be, saiatu egin beharko. Gusta egiten jat emakume hau, zoragarria ez dan arren. Ni neu be, banaz ba! Zoragarrien bila ibiltzen gara, eta huts ez ete dabe emoten? Andra ederra, etxean gerra. Gure arbasoek ba ekien, eta horregaitik esaten eben.

— Tratua egin ginei, baina ez gaur, ostera.

— Zein tratu, Jon? Esan egidazu.

— Ez, lehenengo zeuk esango. Hara. Lehenengo ta behin, zetan eroan nozu lehen Kanpus ederlanen barrutira?

— Kuadruak ikusi dagiguzan, eta zeure eritxia jakin dagidan.

Ni kritikua nazanik ez dauala jakin, dinotsat. Ganera, kuadrua erosteko gurari bizirik, gar handirik susmatu ez deusdala adierazo deusat Poliri. Laukirik erosteko garrrik, ez aretoan bertan, ez geroago kalean, ez orain, kafetegian.

— E, Poli, zetarako eroan nozu pintura aretora?

— Egun batzuetan zori txarreko bakartadeak egonezina sortzen deust, eta kalerako atea begiko izaten jat, ez itxita ikustea, nik urten dagidan edegiten danean baino. Ateak eta ateak dagoz.

— Han daukazu neskame jasekoa. Zu ez zara bakarrik egoten.

— Ez da nahikoa. Ha bera be, emakumea da. Emakumok geure artean barriketa luzeak; baina, azkenaren buruan, bestelakoa gura izaten dogu. Zu gizona zara, eta honelako zerak artez jakin behar zeunkez. Umea, aintzina izan zinan. E, zein tratu aitatu dozu lehen? Horraitino, hurrengorako laga gura dozu. Esker baltzekoa zara. Domekan gure etxean sartu zinanean, beste zer bat egin neban neure buruan. Inoiz nire ondora etorri eitekeana zeu ete zinan sinestuten hasi ni, eta horra! Zuzperten hasi jatan ilintia, hauspera barrero. Zaldun atsegina, ulermenekoa zinalakoan, eta...

Gizon guztiak zaldunak ez ete diran, itandu deusadanean, buruagaz ezetz! adierazo deust.

Kafesnea amaitu dau, edan dau.

— Jon, gizonak hainbat eratakoak dira. Emakume-zaleak, emazte-zaleak, emazterik gura ez dabenak, etxetik ihesi dabilzananak, amazu-loak, gizon... hotzak, labur labur esateko. Honeetarikoak ez dira egokienak, santuei munda ibili arren.

Belaunakaz sakada barriak egin deustaz.

— Ai, ene meniskoak! —esan dot, irri gaizto eginez.

— Zer menisko eta idisko! Hotza... prakak aldean erabili arren. Prakak, egia esateko, guztiok darabilguz, baina eretia danean... erantzi egiten dira.

— Bai. Aldatuteko. Edo dutxara sartzeko.

— Zeure burua ezjakin egin dozu orainarte, baina ulertu deustazuna ondo dakit. Horregaitik, oraindik gorakoan argiroago berba egin ginei. Tratua zein dan? Bakotxak bere istorioa narrugorrian jartea.

— Narrugorrian zer?

— Istorioa. Aaaa!

Aaaa esan eta atzamar azkarra, zorrotz eta luz, kasik neure sudurreraino ekarri deust.

— Sikologitsua ete zara? Horraitino, estutu egiten zara, berba sosiguz eta nasai egin beharrean.

— Estutu... Hiru urte, luzeak ez ete dira?

— Oraingo gurasoek urrezko ezteguak noiz egingo dituen barriketant jarduten dabe.

— Urrezko ezteguak! Hoba...! Ezkonduko eta zara inoiz? Neure esperientzi apurra jakinerazo gura neuskizu. Zoriona ez dago zuriz jantzita bazkari ikaragarria egitean. Elizako, juzgaduko eta jatetxeko mundukeriak amaitzen diranean, ordutik gorakoan dator egia, izatearen izatea. Senar emazteak bakarrik, biak bakarrik gelditzen diranean eta ganorarik susmatuten ez danean.

— Ondo bizi zara zu, baina...!

— Ekin errotarriak! Ez dala ota horretako lorea. Dirua da zer bat, eta alkarregaz artez eta jasean atondutea, beste bat.

— Ahalegin egin behar dozu zeure gauzak sakonetik konpontzeko. Hartu zenduan bideari jarraitu. Barrero dirautsut.

— Ez, alperrik da zuri zerok agertu gura izatea. Ikusi dakust.

— Senarrak maite zaitu, ezta?

— Ezin zineist ulertu. Ez dozu esperientziarik. Maite ete nauan? Bere erara. Bere moduko maitakundea. Beste era bateko maitetasunik ba dagoalakoan nago. Edozeinena da. Horraitino, ez guztiena. Aldeak batarik bestera.

DAMIAN bera baino zaharragoa dala diraust haren emazteak. Mutil edadekoa zan eta ezkongarauten eban. Ama urte askoan bizi izan jakon. Amaren babesean hazia. Amazulo hutsa, behar bada.

— Nigazko zer hau konponketea izan zalakoan nago.

Niri hori esan eta negargurea susmatu deustat Poliri. Hurrengo baten azalduko eustala luze zabalago. Beranduegi ete dan arazoa atonduteko, matasea harilduteko. Gaisorik jarriko ete dan bildur da. Sasibidean sartu ete zan zapatu goiz haretako eleizkarian eta epaikarieren aurreko agerpenean.

— Etxeratzeko ordua dot. Beti bardin. Jon... zuk lagundu zineist.

— Etxera joaten? Bai, gura bazendu.

— Etxera ez joaten.

— Poli...!

Ez dot jakin zer esan, zer egin. Neure arloa ez dan horretan sartu ete neinteke? Zergaitik eroan ninduan Dobaranek Isasitarren etxera?

Baina polito daki Polik deritxonean etxetik hanka egiten. Etxean bakarrik, eta kalean be bakarrik, hori ete da eguneroko bakartadea, senarrarekiko?

Jagi da Polisene eta neu be bai. Zerbitzariari ordaindu deusat nik dei eginda guganatu danean. Kaleruntz goaz. Kafetxean lagunak ugaritu dira.

Plaza baten hegalean alkarri agur egitea erabagi dau Polik.

— Jon, noiz arte egongo zara uri honetan?

— Egun asko barik joatekotan nago. Beste pintura erakusketarik ez al dago hemen?

Esangura bikotxeko berba honeek entzutean, irribarrea, baina mingotsa, agertu jako ezpanetan. Irribarre tximurtua, luzatzen ez dana.

— Honelan ezin jarraitu nei. Nire sekretuaren jagola estu egiten zaitut une honetantxe. Ez zatxataz azpizapo bihurtuko.

— Zer, bihurtuko...?

— Saltzaile; traidore.

— Zure aurkako traidore, ez behintzat.

— Benetan?

— Neure berbea.

— Agur, Jon. Hormetan be, begiak egoten dira batzuetan.

— Inork ez deuszu ezer emongo, kendu baino. Lehortu egizuz malko horreek.

— Agur. Ez naz zugaz ahaztuko.

— Hotelean bizi naz.

— Zu bai argia, e?

Polisene urrats azkarrez doa, etxeruntz doa. Atsekabea dauka bihozpean. Harek soilik ete dauka atsekabea bihozpean?

KANPUS pintura erakusketan izan naz. Hainbat kuadru ikusteko, saltzeko. Batzuk ontzat emon leitekez. Nire aburua da hori. Udaro jarten ei ditue erakusketok; egia al da, Miren?

— Bai, aspaldion, udaro. Neguan be bai, inoiz.

— Zaletasuna gehitzeko modua da. Ondo deritxat. Ikusten ez dana, es da sarri jakin be, egiten. Ezta danik be.

— Ikusi... norbait ikusi dabe, alkate-ordearen emazteagaz.

— Nun?

— Hiru lekutan.

Ikusi daben norbait hori neure izenekoa dala, adierazo deust hoteleko arduradunak.

— Urietako jentea begiluzea da. Nor dan, nongoa dan, zer egiten etorri dan, ezkondua ete dan... Dan eta dan. Dana jakin arte, arterik hartu ezinik ibili beharra, be! Han Ibaietan ez dogu horretariko txatxar-kerietarako astirik ez betarik izaten.

— Ibaieta, Ibaieta... ahoa batean esaten dozu beti. Beste uririk ez bailegoan.

— Ibaietara inoiz eroango bazindudaz, pozarren joango ete zinatekez?

— Zetan dan.

— Nire...

— Poliseneri be, ezer esan ete dautsazu?

— Lotsarik ez egidazu galdu.

— Ez deutsut galdu.

— A...! Ba... jakin gura dauanak jakin begi aretora joan nazala. Han egon diran laukiak ikusten eta ikertzen jardun dodala, nire jakiturian sail berarizkoa dodalako. Emakume bat alboratu jat, oharrak egiten nabilela konturatu, eta kontsultea egin guran, lauki bat erostekotan dagozala, eta hau, ta hori, ta bestea.

— Ahuntzaren odolostea!

— Ikusten? Baserritar zuhurra, testulari.

— Ekin beti; baserrikoak bazterrera. Uri handikoak, a! horreek beste inor ez lez jaioten dira. Irakurten dakiela?

— Guzurra be, berbea da. Orain pare bat urte...

— Zer?

— Nagoan ixilik. Urte bat, urte bi... pare bat urte.

— Hemendik pare bat urtera, esan gura dozu? Nik orduan... uuuuu urte izango ditut. Zuk zenbat egingo?

— Oibar!

— Jon!

— Ba... alkate-ordearen emazteak, jakina, eginbeharrak izaten ditu. Bizimodu modernuan politiko, arkitektu, jakitun, albistari, kritiku eta abar, aginpidedunaren emazteagaz barriketan han edo hor ikustea, ez da harritzeko! Egiteko arruntak dira.

— A, horixe. Senarra lanean, udaletxean eta kanpoan geratu barik dabilena izan eta... baaai. Emaztea delegadu lagatea... baaai. Norberak egin ezin dauanean, bisitak bestek egitea... baaai.

— Zu, Oibar, eta Dobaranen barririk? Hau eta ni bakarrik joango ginalakoan, eta harako Landartera zu be etorri zinanean, zer? Ez jat ahaztuten ameriketatiko mutil zaharrek neskatila ederrak begiz jotzen dituela, eta errekadua egin.

— Dobaran zeure bila etorri zan, lehenengoz agertu zanean. Orain, gaita gurea ete daukazu?

— Sarritan gerta ohi da, honen bila etortea, eta bestea eroatea.

— Ba, Dobaranek biok eroan ginduzan. Zer esan gura izan dozu?

— Dobaran jaunaren kontrakorik ezer be ez.

— Eta nire kontrakorik bai?

— Ez. Estimadu zaukadaz, Miren. Hasarratu eragitea gustatzen jat, horraitino. Baina enaren antzekoak gara ta. Etorri eta joan, abiarik politena nun egingo, noz egingo. Zera, hauxe esango deutsut gaur. Ixilean, e?

Niganuntz hurreratu jat Miren eta,

— Belarrira esango deutsut.

Hori esanez batera, mosu egin deusat matraila gurian.

— Noren eskubidea izan dozu?

— Eskubideak ez ditu inork emoten. Hartu egiten dira. Hona politikako gure irakasleak irakasten euskuna. Eskubidea, askatasuna esan gura eban. Eskubidea balitz... zetarako daukazuz begi berde ederrok?

— Jon inoren emazteagaz kafetxera joan dadin. Behin harrapatu nozu, baina hurrengoan mosu bakotxeko belarrondoko hi.

— Baina mosuak...

— Mosurik ez dala izango adierazo gura deusut. Bada ezpadan. Betikoa. Uri handikoa eta baserriko neskatoa. Ez, ez eta ez.

— Hauxe izan da belarrira esateko. Bihar, bai, bihar Dobaran jauna hona bazkaltzera etortea leitekena dala. Azken berbea ez dakit baina.

Irribarre egin dau orduan Miren Oibarrek.

— Bere bizitzako kontuak niri esatekotan dago. Hasi, baina amaitu ezin. Eta nik hurrengo astean hemengo aldia amaituko.

— Eta aldegin?

— Atsedean laburrerako etorri nintzan. Ez ustekoa izan dot Dobaran jaunaren erdi arazo hau. Baina lanak... han, nire bihurrearen begira.

Miren ixilik geratu da. Goitik behera begiratu deust.

— Dobaran jauna, hainbeste urte eta hainbeste egiteko. Udaleko gizonakaz, gazteakaz, etxerik etxe be bai, inoren errekaduak eta mezuak egiten. Mesedea nori egingo. Gizon ontzat daukat.

— Burle edo egin izan deusazu, ba.

— Ezin ginei beti negarrez ibili. Norbaiti ikasi neusan esakera hau, eta neuk be esan egiten dot. Ez da egia, ala?

Afalostean hoteleko te-aretoa joan naz. Kanpo jentea danez —neu ainean—, azaleko barriketak baino ez ditut entzun. Eguraldiazkoak dira auturik gehienak. Uda hasierako aldakortasuna, epeletik berorako joakerea, dendarien krisisa udako jantzi arinak saldu ezinik.

Hoteleko amama guztiz barritsu bihurtzen da iluntzera ezker.

— Udako jantziak —dirautse alboan dituan atso dotoreei— laster behar be, ez. Gorputzak baltzituteko, haizeko bainuak hartzeko, eta igarian ibilteko be, orain, ba dakilt nik, toki apartak dituen. Ez dabe ez botoi bat lotu behar, ez joskuradun soinekorik behar. Amak emon eutsena nahikoa ei dabe. Han, atxartean, itsasondoetan, eta mendi tontorretan, eta bide ertzetan be... Eguzkiak ez dau inoiz gure parajeetan honenbeste hanka biko biloizik ikusi. Guardasolaren herria gareala pentsatuta be...!

Aretotik urteieran Dobarani dei egin deusat urrutizkinez. Eta baietz. Biharamonean bertan. Izar hotelean bazkalduko dogula. Joateko ginan beste basetxe horretara joan izan dala, niri nekerik emoteke.

Oibar nun dagoan jakin gura izan dot.

Adierazo deusoe nire gogoia eta agertu jat.

— Zer, Jon?

- Bihar, ordubiak inguruan Txinpon tabernan egongo naz.
- Eta niri zer deust?
- Jarraian, Dobaran nigaz etorriko da eta hemen bazkalduko dogu.
- A! Hori, besterik da, Ondo deritxat. Gabon.

TXINPONERA heldu nazanean ordu batak joteko dagoz. Kanpoan toldopeko mahai inguru gagoz sekulako jenteteria. Haize epelak urten dau eta ikusgarriak daukaguz, ezer ordaintzeke. Hego haize horrek gonadun bakarrei gonak astinduten deutsez eta biribiltzen, eta jasoten.

Neskatila gazteei ez jake ardura handirik, baina zaharrageek gonei esku biakaz oratuten deutse.

— Hazurrak ikusteko gogorik inork al dau? —dino kafetegi ondoan dagoan agura loteri— saltzaileak. Honeek be, lehen, tira! Baina orain...?

Andra edadekoek eskuak goratu dabez jarraian, eta zarta zarta emongo deutsoela zemai egin.

Han urrunean arboladi baten Dobaran dakust.

Haize zoraldia behingoa amaitu da, eta eguraldi ona geratu da.

Dobaran bakarrik egon da, baina orain gazte piloa dauko bere inguruan. Mutil gazteak. Hemen be, umekondoak haruntz honuntz dabiltz euren bizikleta txikerretan. Txakurrak be, jabe barik. Askatasun eder honetan, kaleko saltzaileek hainbat lekutan euren mahai arinak ipini ditue. Burdinezko lau hanka mehe zutunik, ohol zapala ganean. Jazteko zerak, soineko laburrak, eskuturretako kataiak eta erlojuak, erastunak, idunetarako hazurrezko irudi dingilizkakoak.

Dendari ibilkorrok azal ilunekoak dira. Zeharo baltza dana be, hortxe dago. Irudiak saltzen ditu, lurrezkoak, metalezkoak, katilu antzekoak.

Ume koskorrek baltzari begiratu egiten deutsoe, lehenengo barritan erdi bildur, erdi harrituta. Gero, bigarrenez ikustean nasai... nasai dagoz, eta dabiltz.

Gazteei agur egin deutse eta Dobaran jauna honuntz datorrela dakust. Praka argiak daukoz soinean, alkondara zuri antzekoa eta jersei urdina besoan.

Emakume batzukaz berbëtan geratu da. Ez dira harako hiru «marixak». Gatx erdi!

ALKAR agurtu dogu ta Dobaranek bazkaltzeko gogoia adierazo deustan ezkerro, Izar alderuntz jo dogu biok.

Hoteleko jatelekura gara eta jesarri.

Bere zerak konpontzen hasi dala eta adiskide ta lagun barriak egin dituala, diraust.

Bazkaria dakarskue.

— Txirindulariak dira; zaleak, artezago esateko. Honeek talde

barriak egiten hasi dira. Ba nekian, horretarako urrats batzuk nik be eginak ditut eta. Gazteriaren joerak arduratzen nabe. Gure zerak gure asmo-asmoan amaituko diran arren, gazteriak sendo, zindo ta garbi iraun dagian lan egin beharra dogu. Guztiok. Ez dago hemen politika koloreen bereizketan zetan ibili. Gerrate aurretiko gizarte tratadura jo behar dau gure herriak be. Botoketea danean, hau gurago, bestea nahi ezago; bitartean, alkarregaz lan, alkarregaz lan, alkarregaz jolastu. Honelakoak ziran gura erromeriak, gure ibiltaldiak. Ba dakit alde batzuetan itsasaldeetan be, arraunlari gazteak, erremulari barriak izango dituen. Hori ondo. Bizien hartuemonak ez da hausi behar, ez eten, ez urratu. Jarraipena...

— Jarraipena... zure bizitzako joanarena noiz kontatuko deustazun naukazu. Baina ez dator, hain errez, behintzat.

Bere bizitzako kontuak luzeak eta ezbardinak diranez, idatzita ez daukazala, dirauts Dobaranek. Oharrak zertu behar leukezala, lerro nagusiak batu, eta gero tarteka marteka idatzi, jazoeren azi-orraziak, zer-zelanak eta buru-buztanak.

— Buru-buztanak eta buztan-buruak ez dira zer bera.

— Jakina, Dobaran.

— Frantziara nintzanean, aldean aldekoak besterik ez nebala, esan neutsula uste dot, Jon. Han mahatsak batzen edo egur ebaten lanik izango ete zan, erdi adierazo eskuen. Horraitino geure lekutik ihesiak ginan eta... Inoren errukiz eta eskupekoz bizi ginanak besterik ez gu. Egun larriak han be. Lehenengotan, halan be, amesez beterik gengoan. Gerrea hasi ebenek ez ebela irabaziko eta etxera osasunez —arean be, ez ondasunez—, laster bihurtuko ginala. Aldretan banandu ginduezan. Behin behineko lekua etxe hutsetan izango genduala. Jantziak, soinean geunkazanak, apurtu arte, oinetako zapatak urratu arte, eutsi, eta ekin aurrera. Baina ezeri be, ekin barik. Jateko gogoaren faltaz ez gengoan. Gu jatunak ezeze —zuk, ondo dakizu—, edatunak gara. Jaio ginanetik. Ba dakizu harako zera be: «edatea libre ta pagatzea ahaztu, holan tabernaria ezin aberastu...»

IZEKO Leok bere sartu-urtenak ohi zituan dendetan egin ondoren, etxeratu zanean, transistorrean entzunikoen gehigarri eban egunerokoa irakurri baino lehen, polito eban bere dossierra bete izango, dendetan batu izan zituan albistakaz eta bururatuten zituan esamesakaz, argi aldiko jakinbeharren arloa. Heriotzak, lapurretak, hondamendiak, gura-zako sein —galtzeak, txankameen eta artisten maitakundeak, ezkontzak eta ezkontza usainak.

Horraitino kalean zehar joiala, gizon sasoikoa ikusi eban; atzetik ikusi eban, bizkarralde, sorbaldak eta buruaren atzea, eta norbait gogoratu jakon.

— Ene! Bera dala esango neuke. Baina ez dagidan erraturik sortu. Jakingo dot; honelan balitz, laster jakingo be.

Baratze baratze, gizonezkoaren atzetxutik joan zan, tarte ez luzean. Gehiagoan jarraitzeari ez egoki eretxi, eta bapatean uri barrene-runtz abiatu zan.

— Bera ete da? Ostera, hainbat urte joanda gero, ez nadin arbindu ez azaldu.

Ezagun jakon etxe baten ingururuntz egin eban, han ezer barririk edo ezetariko gorabeherarik igarten edo susmatzen ete eban.

Arean be, mutil gazte batek etxeko ate nagusia margoztuten ziharduan, egurrezko eskilara baten ganean. Honi loturik pintura kankarru zikina eukan, zelan halan zintzilik.

Leok ez eukan errez ixilik egoterik eta zerik hara esan eutsan:

— Kankarru hori jausiko jatzu, eta nonor zikinduko dozu. Lagunik gehien dabilen garaian hor eskilara puntan...

— Ahal danean, andratxua.

— Lasterreko lana ete dozu, ba?

— Bai. ba. Hemengoa kanpotik etorri da, eta nahita bera emen ez bizi, ate ilun honi ez deutso bapere egoki eretxi. Etxe honen jabeetarik bat ei da. Seniderik bakoa, edo. Doba agertu dala entzun deusat amamari etxean.

— Zelako doba? Doba-txakurren bat edo?

Leok bere burua ez jakin egin, baina jakingurea zelanbait asetuta, bere bideari ekin deutso.

— Baaaaina nire begien ziurtasuna!... Bera izan da, bai. Doba hemen badago, Dobaran antzinakoa dot.

Bapateko azkurea eta egonezina sortu jakon Leori gorputz osoan. Ha ikusteko gogoia, haregaz berba egiteko gogoia berpiztu. Putz egiteko, arnasa barria hartzeko zirikadea bailitzan.

Horraitino, Manix etorri jakon gomutara eta kalean ibiltuari laga eta etxera bidean jarri zan.

Alkarregaz hamaika dantza eginiko Dobaran! Gerratea heldu zanean, ostera, gauzak estutu egin ziran. Eta izeko Leok Dobarani honek ez ekian zerbait jakinerazoteko asmoa hartu eban.

Aurreruntz eta azkeneruntz doan filmea, zelanbait atzekoz aurrera bihurtzea preminazko gertatzen. Lortuko ebana hutsa izan eitekean, baina esan barik, entzun barik ez zan arazoa bertan behera amaituko. Ez, gero!

Dobaranek aldegin, Leo urian geratu. Berba gozoko mutila zan. Garai haretan, hogeit urte egin barritan, orduko gonadun gaztetxuak beraganatzen ekian mutila. Euli guztiak gura eben ezitia zan, hurrean.

Hortik hemendik, jakin eban Dobaran ostatuz nun egoan. Hara joan zan. Hain zuzen egun haretan ez ebala ostatuan bazkalduko, jakin erazo ebala. Halan be, esturazko ezer zertzea balitz, Izar hotelean ongo zala.

Erabagi eta egin.

GEROAGO jakin izango nebenez, gauza horren ostean, Izar hote-

Ieko jantokian bazkaltzen gengozala, mahaitik aldegin neban une baten, Miren Oibarrek mezua agertu eutsan Dobarani.

— Bazkal ostean Leok zu ikusteko gogoaa...

— Leo... Leo... Bizi al da? Hor al dago? Bazkaria amaitzen gagoz, eta... datorrela, ezta, Jon?

— Nigaitik...

Han doa Oibar atera agertu izan dan andrearen bila.

Leo ikusiaz batean, kalean egunero ikusten neban emakumeetarik bat zala konturatu nintzan. Izan be, haren buruko uleen orraztukera txukuna nabarmen jatan, agiri agiriko. Pelukeri jabea ete zan sarri uste izaten neban; egunero orrazkera dotorea, apaina, harro harroa batzuetan, apalagoa bestetan.

Hurreratu jakunean Dobaran jagi egin zan; baita ni be.

— Leo... Leo...! Biziak alkar ikusi.

— Ez jatzu ahaztu euskaldunon esan hau.

— Bai zera ahaztu! Jesarri, jesarri, kontuak esan behar doguz eta. Tarta eder bat eskatuko dogu.

— Nigaitik ezer be, Dobaran, jatekorik behintzat, ez. Jan dot. Guk ez dogu orain jateko askorik behar.

LEOK Dobarani aintzinako kontuak gomutara eutsazan. Egurastokiko joan-etorriak, plazako dantzak, erromeriak, iluntzeetako...

— Eta beste gauzatxu batzuk.

— Zeintzuk, zeintzuk? —itandu neutsan Leori.

— Honek ondotxu dakiz, gazte. Bere burua ez jakin egin lei honek. Baina, nik, jasan behar neban neure zera.

Dobaranek tropikoetako beroak burutasunak eta gomutak ahaztuerazo eta makaldu egiten zituala argiztatu gura izan eban. Bai. Gerrate madarikatua sortu, hiru-lau emakume begira zituanean, zeinegaz ezkonduko ete zan...

— Erdi nobiak ba nituan. Urian egoten nintzanean, urikoak ziranak. Kanpoetan be ibiltzen nintzalako, kanpoetan be, nire ondorik ebiltzanak.

— Ala zeu hareen eta gure atzetik?

— Neskato biri egin neutsen ixil-mandatua eta ezetza jaso neban.

Besterik be ba zala, horraitino. Erromeri egunak, erromeri gauak. Egunak lotsea dakarren antzean, iluntzeak eta jarraiko ilunak lotsea apur bat arindu, eta ausardia ugaldtu egiten jakela orduko gazteei.

Leok Dobarani ixilekoren bat agertu gura eutsala susmatu nebanean, akeita edaten te-aretora joango nintzala adierazo neutsen. Behingoan baietz esan eustan amerikanoak. Mahai haretako guztia neure bizkar izango zala, jakinerazo neutsan Oibarri.

Harik ordu bete inguru agertu zan Dobaran te-aretora. Hain zuzen ni handik aldegiteko nengoanean. Leoren ahoz, ahazturiko kontuak eta barriak be, jakin zituala, inostan Dobaran adiskideak.

Leo urte batzuk gazteago izan arren, Dobaranek erromeri gau baten zeharo atzipetu eta...

— Behin bakarrik? —itandù neutsan.

— Hori, ixilpekoaren ixila da. Ez dot jakin. Edo ahaztu egin jatan. Leo eta ni umetxu baten guraso izan geintekizan. Sein hori, nik aldegin ondoren, ez zan jaio. Galdu egin zan. Leok orduan eta orain be bai, parkatu egin deustala diraust. Hementxe geratu bedi ixileko hau, Jon. Entzun? Inortxuk ez dau jakin behar. Uste uste barik, inork ez ekiana adierazo deustut.

— Harrezkero ez al dozu ondorengorik izan?

Nire adiskidea sorbaldak jaso eta urrunera begira jarri zan. Kopa bana edan genduan.

— Dobaran zuk, arean, emakume horregazkoa horrelan ahazturik izan al dozu?

— Ahazturik... ahazturik... Beste kontua bategaz baino gehiagogaz gertatu jatan eta... Beronek esan deustana sinestuten dot, horraitino. Eta zorrean nagoanez, zelan halan nik... Mesedea eskatu deust. Bere loba Manix nire mesedeak ondu legiala. Lana nundik izango ete leukean. Erakunderen baten sartu edo.

— Hori gaur gatxa eta erreza da.

— Zelan da horrelakorik?

— Lehen baino nun sartu gehiago dagoalako, erreza da. Beste aldetik, lekua lortzea ez da hain errez. Jente handia dago lanik barik, eta zuk ondo dakizu. Horregaitik aitatu deustut errez / gatxeko bitasun hori.

KALEAN, gazte batzuek papera eskuetara deuste.

«Erakundeen aro haunditua edo hanpatua sortua zan. Hortik batzuentzat onurea helduko. Beste batzuentzat tristurea, unadako kargu soilak diranean batez be. Erdiko aginpide gurena ataltzearen ondorioak ekarririko kargu ugaltzea. Autonomien loraketeak, Kargu aldakorrak eskuratzea, zeruko mana gozoa. Aldakor gerta arren, egarri eskeragak sortu. Aldakorra aldakor dala ahaztutzeraino. Baina iraunkor diran lanpostuak be ugari sortu behar eta, horreen irrikoa eta gutizia erne zan bazterretan. Bulegoa errapea zala konturatu, eta funtzionari moeta barri barria gure oruberatu. Burokrazi jaioparria, gero ta ugariagoa. Gure anai ameslari ugari, ez da orain gure alboan agiri. «Una naciente burucracia» Politikoeak ba ete ekien? Soziologoek ikasi ete dabe fenomenu hau? Zorioneko izango ginala eta... Baina arerioa ez dago lo. Daitekena da. Horrek dakar gure solora badar txarra, zalge zitala. Eta gu, tentelok, lo...». Emoilea neure aurrean dagoala, nire begiek tximisteak baino bizkorrago egin dabe paperaren goitik beherakoa irakurri.

— Arerioa? Zein? Nungoa?

— Hangoak, bestaldekoak, hemengoak, gitxien uste dana da gure Herriaren arerio. Batzuetan itxurakerian aldeko, baina egitez... Gu?...

kirolzaleak, txirrindulariak eta abar. Jentea itsututa dago. Alkarren artean bideak, lubanak eta zuloak egiten dihardugu. Zubiak beharrago ditugula. Zubiak... besoak... laztanak... Ez irainak, zemaia, hase-reak, gorrotoak, ukabilak.

Berba horreek esan eta joan nahirik paper-emoilea. Nik, ostera, neure buruan ahaztu baga neukana agertu:

— Arraio arraioa! Hona heldu nintzanean, hoteleko gau —mahai-txuan aurkituriko paperean aitutzen zana: «Arerioa ez dago lo. Daitekena da».

— Egongo ez da, ba! Baketsua betiro nasai, egonean. Arerioa beti zelatean, beti itzarrik. Espioiaren arimea ainean. Berbarako, gure euskereari kalte egiteko gert gert beti. Orain be, etorribarriak ezezik, bertokoak be... Horra, Nafarroan... Hona... Bizkaian...

NEURE Opel barruan nago. Esan deustan ordua laster da. Eskuar daukadan errebista irakurriko dot. Inori itxarotea beti be, aspergarria dalako.

Hor dator.

Soineko arinez jantzita. Arpegiz hain zoragarria ez dan arren, emakume gaztea da eta taiu atseginekoa. Horren barruko berbetea barruan sartu jatan, lehenengoz ikusi nebanean bertan. Eskumako besoa jaso eta ikusi nauala adierazo deust.

— Arratsalde on, Jon.

— Baita zeuri be.

Atzeko atea zeharo edegi eta atzeko jesarlekuan dauko bere tokia.

— Asti motxa, ala...

— Iluntzerarteko orduak geureak dira.

Berpiztu dot motorraren indarra. Hasieran lagun batzuk dagoz kale erdian. Turut turut egin deutset. Alboratu dira.

— Noruntz, anderetxu?

— Uritik kanpora. Hemen bero lar dago. Sargoritik aldegin al baginei.

— Egingo.

Hirugarren bidaburuan ibilera urrien daukon bide zabalean zehar aurrera eta aurrera goaz. Lehen ugari izan ditugu bideetako beribilak. Orain mehatzago, banakak dira dabiltzanak.

Galgeari egin deusat. Kotxetik urten dot eta atzeko atea edegi.

— Aurrean hobeto, ezta, Poli?

— Bai, atzekoa bakartadea izan da. Nahikoa dot eguneroko bakar-tadea. Eta...

— Eta, zer?

— ...

— Tamalez, Poli, hauxe izango dogu behar bada alkarregaz egiten dogun ibiltaldia.

— E?

— Neure arazoetara joan behar dot. Neure bizimodura. Han, Ibaietan ditut neure eginbeharrak, kezkak eta ganerakoak.

— Jolasak. Betiko agurra, erdi adierazoten deustazu?

— Bai.

— Ez. Ezina da hori. Bideak dagoz... ibilteko.

Biok aurreko jesarleketan, eta ene Opel zintzoa aurrera. Ezkereskuma arbolateri sarriak daukaguz. Geroago, zelaiak eta motak erdi heze, erdi igar. Arbolapeetan, horraitino, abuztuaren azterren nabarmenik ba da, bedar hori antzekoak.

Txorien kanturik entzutea errez ez dalako —nun dira Bizkaiko txori kantariak, be? —radioari ikutu egin deustat.

— Eten soinu kaskar hori. Eten barriketak! —diraust albokoak.

— Ixiltasuna maiteen ete dozu?

— Iguineko ixiltasunik ez dot gura. Berba egidazu, Jon.

Beribila geratu dot. Goruntz doan basobide garbi zabala ikusi dot. Basobide horretan gora jarri dot nire Opela. Motorra erne erne, eta agur! bide zabalari.

Gorago dagoan pagadia ikustean poztu egin naz.

— Pagoak halako alaitasuna emon deust beti. Eta zuri?

— Niri, Jon, zeuk emon zineist behinola galdu neban poza.

Beribilak atsedean gurea agertu deust. Geratu dot. Ikusgarria inguru hau. Gure eskuak alkarrengana doaz.

— Nun dozuz zeure erastun ditziratsuak eta eskuturreko urrezkoak?

— Etxean laga ditut. Gaur ez dot azaleko ederkaririk agertu beharrik. Zeu zaitut edergarriena.

— Poli...

— Egia sinestu gura ete dozu? Lehenengo ikusi zindudazanetik nire barruan halako txinparte, eta gero ilintia isioturik dot. Hauspean dagoana, baina gertu...

Gure buruak alkarrengana doaz eta ahoz ahoko mosu luzea egin deustsagu alkarri.

— Baina, zuk senarra dozu, eta ni...

— Zuk ez dozu emazterik oraindino.

— Zelan dakizu?

— Hoteleko agirietan datza.

— Nork esan deustsu?

— Neuk jakin. Ze ardura jatzu?

Mosuketa barriaren ostean, ixilunea kotxe barruan.

— Inork ikusten bagaitu, Poli?

— Zagoz ixilik. Bizi egin gura dot. Bizitza barri hori, zeugan aurkitu nei. Horixe gura neuke.

— Ez dakizu nire bizitzako gorabeherarik, barriz. Ba al dakizu seme-alabarik dodanik?

— Emazterik ez badozu, ez jat ardurarik.

— Berandu ezagutu zaitut, Poli.

— Ez da berandurik, zoriaren txoria noizbait inguratzen jakunean. Goazen arbolapera. Zeu lagun zaitudala, hiru urtean gozatu ez dodan udearen ederra neuganatu gura neuke.

Nire beribila hutsik laga dogu.

PAGOAK apain dagoz, zabal, burutsu, garbi goitik beheraino. Bedar erdi igarraren ganean jesarri gara. Alkarren ondoan. Ganeko jersey arina kendu dot. Polisenek berea.

Beso ederrak ditu. Paparrean eskote edegi samarra. Bere aurreari begira nagoala harrapatu nau.

— Lotsabagea —diraust amarrukiro—. Pagoari begira zengozala uste izan dot eta...

— Paga polita da, maitea, baina hotza.

Hurreragotu natxako eta haren bizkarraldean zehar neure ezkerreko besoa luzatuz, oratu deusat, eta neugana dakart. Polik berehalakoan besarkatu nau.

Banandu gara eta lurrean etzun, luze luze.

— Pagoen orriak guri begira harrituta dagoz.

— Begoz une luzean, Jon.

Alkarren alboan etzunda, begiak itxita, erdi berba, erdi ames.

Apur bat alboruntz egin dot eta nire eskumea haren jantzi artetik kolkoan sartu deusat eta bularsagar gazte gogorretan ikutu deusat, eta igurtziak egin.

— Inork ikutu bako bular guriak. Irakurri neban zerbait gomutartzen deustazu. Bai. Gogolek inoana; arean, senarrak emazteari bularrak gozaro edo gogorrigo estututen eta igurzten eutsazanean... Berez, ez da atsegina ez nekatsua, baina maite dan gizonak igurtziak egiten dituanen... Baina, geldi, laztana. Oraindino ez da heldu gure benetako ordua. Zegaitik ez zagoz ezkondata, Jon?

— Osasunaren eta beste zeren gorabeherak.

— Benetan? Ez deustazu guzurrik esaten?

— Guzur atseginak be, ba dira, ostera.

— Bai, hori be bai.

Samurtasunezko maitetasuna sentidu neban eta berotzen hasi jatan grineari garai egin neutsan.

— Orain gagozan baino batuago egon gaitekez.

— Baina, Damianek... hil egingo gindukez.

— Hil gagizala. Orainarteko guztian gose-egarriz hil nau.

Andra ezkonduaren zoritxarra zein izan daiteken itandu deusadanean, «era askotariko zoritxarrak» —erantzun deust. Eta jarraian hau gehitu:

— Senarra, senar balitz...!

— Zer dalakoan zagoz, ba?

— Behin esan neutsula uste dot. Ni, haren urteen ikusian gaztetxu nintzan. Burua berotu eusten, eta ezkondu. Gaurko beste jakin izan banau!

— Zer?

— Umea eskolara lehenengoz doan antzera joana naz ezkontzara. Ez-jakinean.

Urian ondo ikusia dan baten ezkontzeak, ondo ikusia izan ez danarenak aina esames sortu zituan.

Damian mutil zaharrari amak ezkondu egin behar zala adierazo eutsan.

— Seme zintzoa izan zara; esanekoa. Ni bizi nazala ezkontzen ez bazara, behintzat ni hil eta behingoan ezkonduko zara. Zuretzako neskatilea egokia begiz jota daukat.

Semeak neskatilea bera baino zaharragoa zala, erantzun eutsan. «Pepi Loreak hogetamasei urte aintzinetan egin zituan. Emazte barik neure ama emongo leuke horrek...».

Eguneroko jardun luzeak izan zituen ama-semeen artean.

Domeka bateko bazkal aurrean ei zan.

— Zuen kale honetan zehar ni igaro, eta horra! zuei agerraldia egitea otu jat —esan eban Pepik.

— Aurrera, Pepita —Damianen amak—. Adiskideentzako zabalik dago beti etxe hau. Gaur be zereginen batek darabil gure umea, eta hor agertuko da, noizbait.

— Umea... Damiangaitik ete dinozu?

— Jakina, ba! Amarentzat, eta baita aitarentzat be, seme-alabak ume dira beti.

— Honezkero aginak aspaldi bardinduta daukoz, horraitino.

— Bai, baina mutil gaztetzat dauko bere burua. Egia esan, gaztea da, izan be. Eskolan oraindino atzo ibili zala esango neuke. Arduraz beterik dabil ia beti, eta zaharrago dala emoten dauan arren...

— Urteen kontaketea alperreko zeregina da. Bihotza gaztea, eta aurrera.

— Ez da sarritan errez. Zera, Pepi, jesarri zaitetz hemen apur baten.

Seme ezkongaiaren amak eta bisitan agertu zan Pepik autuari hasierea emon eutsoen. Damianen etorkizuna ezin hobea zan; langilea zalako, bizigurakoa zalako, geldi egonez ugertuko ez zalako. Lanik ez egoan lekuan be, lana bilatzeko nagi izaten ez ekialako. Hainbat senargai ei eukazan, ostera, Pepik. Baina Damianen atzetik ebiltzan emakumeak be, ez zirala gitxiago.

— Bai, ziur egon, Pepi.

Goiko eta beheko arazo azterketea egin ebenean, Damian agertu zan etxera. Besapean paperak eta liburuak ekartzan. Domekan be, astia ta abagunea izango, gogo prest egon ezker. Damianek andren batzarrara bertatik amaitu gura izan eban. Ez zan egoki domeka eguerdian atsoek barriketan jardutea, bazkal ordua zanean. Bakotxak bere etxea eukan, domekan bake baketan egoteko.

Damian bere gelan sartu zan, Pepiren ihesi, txerrenaren gonea bailitzan.

- Andrak euren gurasoakaz. Mutilak be bai —esan ei eban.
- Zelan dakizuz horrelako kontuak, Polisene?
- Damianek inoiz azaldu izan deustazalako.

Pepik ez eutsan behingoan laga bere ofensiva setatsuari. Damianek Pepiren gurari lotsabakoak, berekoiak urian bala bala zabalduko zituala zemai egin eutsanetik, Pepi ez zan harrezkero Isasi jaunaren etxeruntz hurreratu be egin.

Eleizako bazkunaren bateko hileroko papertxuak be, handik gorakoan, neskatoren baten bitartez bialtzen zituan Damianen amaren etxera. Damian mapatik be ezabatu egin ei eban, honen pozaren handiz.

BESTE unada bateko ateraldia izan eben Damianen amaren erasoak. Oilanda zaharrak barik, usakume barriak nun eta zelan bilatuko.

Asmo horregaz, bere lagun zan atso jakitun batengana onu eske joan ei zan. Seme bakarra eukanak eukazan elorrioak, kezkek eta burukominak ez zituela, eta ez dituela, ume ugariko gurasoek ez jakiten, ez jasaten. Bat bakarra daukanak, ostera, horrexek ditu katramilak eta lorrinak. Atso adiskide hori kontakatilua zan arren, Damianen amaren azalpenok pentsetan jarri ei eben, onu-emoile barria izango ebana.

Onu-emoileak, buruko lapikoan irakinak egin ondoren, ohar hauxe egin eutsan:

— Damian zure seme horrek edozein emakumeri atsoa esateko ohiturea daukonez, atsoa ez zana behar izango, arean, emaztetzat.

Eta andra biak orduan hasi ziran Damianentzako lagun egokia zein izan eitekean zertu eta zertu. Damianek bere edadekoa be, zahartzat joko ebalako, ziur asko.

— Gero —eta neure zori zirtzil eta doebakorako—, gero jakin izan dot, harek berak inoiz esan ez arren, nire senarrak emakume preminarik ez dauala izan. Emazteren preminarik, ohekideren beharri-zanik, esan gura deusut. Etxea garbi, jatekoa prest, lotarako ohe estua, liburu eta paperentzako tokiak, eta... a! oraintsuko telebisinoa. Damian etxean egoera baketsuan bizi da. Kanpoan aginduteko gogoa, irriki zatar hori, kalerako laga ondoren. Aginpidearen egarri da, nahiz-eta berak ezetz esan. Aulkiaren irritsa, zalekeria. Joera makur honen estalgarria, lanerako garra, grinea. Behargin asperrezina, baina agintearren zale, eskua ta eragina norbere menpe izan gurakoa.

EGUZKIA astirotsu, baina joan joian sartalderuntz udako arrats luze haretan. Zutundu egin ginan. Pagondoari geuntsala, laztan luzean egon ginan; nire besoak haren gerriaren inguru, haren esku leunek nire arpegia igurtzi ta igurtzi.

— Madalen Bustu...

— Ixi, Polisene! Ez horrelakorik aitatu. Jazo danaren errudun zu ez zara ta.

Nire besoetatik askatu neban eta barriro lur ganean jesarri ginan.

Poliren gorontzeko botoi txikiak astiro eta gozatsu lotu nituan eta haren bular politikak estaldu.

— Damianen aukeraketea zelakoa izan zan esateko, ez da berba lar behar. Haren amak egin eban. Egun baten —eguzkia hoba lo egon balitz— Damian eta ni ezkondu. Nire ezjakintasunaren handian! Eztegua nahikoa ospatsua izan zan. Bazkaritan berrogei lagun baino gehiago batu ginan, lehentxuago eleizan baino ugariago. Zortzi egun lehenago edo, Damianek erastun ederra niri, esku-erakutsia zala ta. Gero, beste urte bietan, hau ba dakizu, beste erastun bi emon deustaz eta eskuturreko urrezkoak.

— Gomutak barruan kezagarri eta pozbide izaten dira.

— Ez beti, Jon. Pozbide, ez behintzat. Zurizko jantzita ezkondu nintzan. Nire senarra be, dotore egoan egun haretan. Bezpera gauan ez neban lorik egin. Artega ta urduri, egonezinez, emakumerik gehienak lez. Lotseak eta bildurrak emoten dauan artegatasunez. Oraindino be egin ez dodana, zelan egiten dan jakiteke, eta etorkizuneko bizimodua zelakoa... Gizonezkoak halako bezpera gauan sentitzen dauana, ez dakit nik. Ez dot euren esperientziarik. Inork be ez deust jakinerazo. Zuk zeuk be, ez dozu horren barri, ezkongei zara ta. Horraitino, gizonok... guztiok dakizue zer egin behar dan, zelan egiten...

— Harritu egin nozu. Eta, lehenengo gaua...?

— Egon. Bazkari luzearen ondoren, dantzaldia be izan zan. Orkesta jasekoak ziharduan; ni musika zalea izan, baina orduan belarriak txistu txistuka edo, nituan. Damianek —itxurakeria ez jat atsegin—, hasierako dantza laburra nigaz egin eban. Lehenengoz ni haren besoa, makal makal, sorbalдан nebala. Beste gazte batzuk izan nituan gero eta gero dantzaldi lagun barriak. Batzuk ezkongeiak, txeratsuak, nire senarra baino txeratsuagoak. Ezkondu bik be, nigaz dantzan egin eben. Ez dakit edanda ete egozan, baina... lotsatu egiten naz, argi ta garbi esateko. Gizon gazte ezkondu bi hareek, biek sendo estutu ninduen euren gorputzaren kontra, bakotxak bere gorputzaren kontra, hurrengorik hurrengo. Ni ordurarte, dantzaldi loturik gitxi eginikoa nintzan; txistu eta tanbolinean bai, hainbat bidar. Baina gizon bi hareek... lehenengoak nahikoa, bigarrenak gehiago, nire gorputzean inoiz zertu ez neban halako... ba dakizula uste dot, berotasuna, hezotasuna... igarri neban, susmatu neban.

— Berezkoa.

— Atzerago jota... Nire sasoi egokian, behar dan lako emalegerik ez neban izan. Amak berezia nintzala esaten eustan, baina ez egoala ardurarik, ez zetan larriturik. Mutil koskorra ez zara ta, hau be ba dakizu. Orain, barriz, edozeinek daki. Eskolan be... Bai; hilekoa da gure legea. Urlia eta urlia be, nire antzeko gerta zirala aldi baten, baina geroago, beste edozein ainako, esaten eustan amak sarri. Lotsearen lotsaz, behin, amamari esan neutsan neure ixileko hori. Amak jasean hartzen ninduan; amamak laztankiro, ostera. Amamak barrua osoro nasaitu eustan.

— Amamak, e?

— Bai. Sarri pentsatu izan dot, arean be, norberagandik hurkoenari ez deutzagula jaramonik handiena egiten, ez hurkoenak guri; apur bat urrunagoko danak guri, eta guk hari, barriz... Amamaren berba samur eta apalek asazkaldia emon eusten. Izadia atzeratu eta aurreratu egiten zala noizean behin.

— Ta?

— Senargai ziuorra nebala adierazo eustanean, amaren aurrean sekulako negarrak egin nituan. «Umerik izateko gauza ez banaz, nire senarra haserratu eta astindu egingo nau. Barragarri erabiliko nau medikurik mediku. Jo be, egingo nau, ausaz». Honelako trikimailetan sarturik ibili nintzan.

Edozein ama, alabea ezkon dadin, horrelako gutiziz eta irritsez egoten dala be, sinestu izan dot. Ama izan danak, muga batzuk igaroak ditu; baina neskatoak, ez. Ezkondu, ezkondu... Damian eta Poli, Poli eta Damian: gure amak horixe esaten ekian. Ikasi eban, bai! Biok alkarregaz urteten hasi, baina sarritan ez zan hori jazo. Gizon hori, arazopean beti. Ni, alde batetik, egoera hori eroan erreza suertatzen jatan eta, nasai edo, nengoan. Baina, bestetik, jentearen esames eta zirikadek arpegia gorrituten eusten, lotsakizun nintzan, hona, kalean ez plazan ez zinean ez abarretan ibilten ez ginan bikote tentela ta motela ginalakoan.

Adeitsu agertu izan jatan edonoiz. Edonoiz, alkar ikusteko aukerak izaten genduzanetan. Berba apal egiten eban, baina haren esanak gehienetan laneko gauzak, negozio barriketak, aginpidetako lorrak, adiskideen kontuak. Neskatila adiskideek, euren senargeien kontuak, euren senargeiek eurei esaniko berba gozoak, eta berba hezeak be bai batzuetan, eta ikutuak eta igurtziak aitatzen eustezanean, nik ba, anartean eskola-aurreko neskatoa ete nintzan uste izaten neban. Gero helduko zirala nobio gizontsuaren besarkadak, laztanak... ez nekian. Besondotik be, esateko, ez ginan ibili. Zinera joan biok, eta neure osabeagaz bainengoan, bakartasun baltzean ez baina grisean egoten nintzan. Inoizka, gozokiak eskeintzen eustazan. Eta, batez be, gaueko zinealdia zanean, alboko, aurreko ta atzeko parejak esku-igurtzietan, mosuketan, laztanketan eta atzamar jokoetan ebiltzalakoa susmatzen neban. Ez zan susmo soila; halantxe ibilten ziran eta. Beste gehiagorik ez dakit, inoiz entzun izan deutset baina; jakina, neskatila adiskideei.

— Entzun, dinozu.

— Hara; irakurri be... Mutil adiskide batek —ez nik jakin zelako asmoz—, nobela bat laga eustan, irakurteko; eta aste bete barru, hari bihurtzekotan. Zati bat irakurri neban. Orrialde bitan edo hirutan behin eta barrero halako gauzak azaltzen ziran... lotsarren geratu nintzan. Are gehiago; ikaratu be egin nintzan, han agertzen ziran laztasunak, senarragandiko gogorkeriak eta oinazeak... Liburua itxi eustan lagunak orrialde guztiak eta lerro guztiak irakurteko, agindu eustan; baina erdiraino atsegina zan arren, geroago, osterago... liburua beste erdia,

ez neban nire begien aurrean erabili. Ezkutuan gorde neban eta harik hurrengo astean jabeari bihurtu neutsan. Eta gaur... nobela haretan azaltzen zan joko latza eta odoltsua... ez dakit baina, zugaz hain latz eta mingarri izango ete litzateken ez dot uste.

POLISENEK bere eskuakaz arpegia estaldu deust. Nire begiok ilunpean geratu dira. Ez begiratzeko eskatu deust. Nobelea irakurri ebanean lez, arpegia sutan jarri jakolako.

— Lotsatu egiten naz, Jon, zure aurrean emakume nasai antzekoa bainintzan egon nazalako. Parkatu egidazu. Pekatuaren bildurretan bizi izan naz beti. Zergaitik azaldu zinan, zergaitik agertu zu, Dobaran jaunagaz gure etxera? Erdi hausi dot ezkontzea. Erdi hausi gure etxeko bakea; bake... hondarraren ganean eginiko gaztelua. Nire barruko garbitasunaren oreka eta egoerea kolokan ditut. Egundo ez deustat Damiani saldukeriarik egin. Zeuk daukazu errua. Zergaitik ekarri nozu pagope atsegin honetara?

— Zure osotasunik ez deustut nik urratu.

— A! hori ez. Horratino... zagoz! Gure ezkontzea ez da bete; ez da heldu, ez da burutu, ez da osaro egin. Ezereztu egingo dot, egin nei eta. Epaikariaren aurrean, osagilearen aurrean, abadearen aurrean esan nei, eta erakutsi.

— Baretu zaitetz, Poli. Laztanduta egon bagara, hori edozeinek egiten dau edozein dantzalditan edozein gizonegaz. Ez zaitetz jarri arteak hartu ezinik. Dinozun guztia ulertzen deustut, Polisene. Ai, bazenki...

— Bazenki, zeeer?

— ... ez. Ezer be ez. Burua nahastatu jat. Gaiso ondoko burualdiak izaten ditut.

EZTEGU ondoko ibiltaldia, Poli, eta batez be, gaua...

— Ezkontza-gaua... erakusmenekoa izan zan. Zan dinot, genduan ez esatearren. Joan ginan urian ostatua hotel egokian. Afaldu eta teatrura joan ginan. Ez jat ahaztu inoiz harrezkero antzerki haxe be. Monja bat ebilen han, komentuan sartu-urtenean, munduan be zereginak egiten zitualako. Lehenengotan monja aizta bat izaten eban lagun eta alboko. Geroago, lanegina aurrerago, eta albokoa... ba dakizu zein eban? Gazte eder bat, nebaordea zala ta. Arotza bera, langilea. Komentuko pasiloan izan zan kuadru labur bat. Mutilak, bere arrebaordeari, mosu egin ezezik, monjeari gonak goruntz jaso, eta barruko praka motxak urratu gura izan eutsazan. Eta monjea geldi... Eta monjearen eskuak geldi, nebaorde ausartiari belarrondoko bi emonda, lurrera edo bazterrera bota barik. Bai zera! Egiten hasi zana besterik zan. Arrebaorde harek mutila besarkatu eban, gerritik oratu gura izan eutsan, eta norbait etorrela susmatu ebalako, mutilak ihes egin eban, tximistea

baino azkarrago. Eta monjea han ebilen, lurreratu jakozan galtza motxak ezkutatu guran, estu eta larri. Halako lotsaririk!... Orain, oster, Jon...

— Laga oraingoari. Gau haretakoa jakin nahi neuke.

— Zetarako zertzelada gehiago, azterrena ba dozu ta?

— Ezkontza gauak ze modutakoak diran jakitearren. Bada, guztiak bardinak izango ez diralako.

— Honelako kontuak sarri entzunak ez ete dozuz?

— Baina hori, bakanen artean bakana izan daiteke ta.

— Teatru ilunean, bildurrak jo ninduan eta, Damianen eskuari sendo oratuteko egon nintzan. Argiak biztu zituenean, oster, ni teloiari begira, Damianek komentarioren bat zertu eta ni neu lotsari handiagoz gerta ez nendin. Senarrak, barriz, ez eban berbarik be egin. Gozorik gura neban, itandu eustan. Baietz esan neutsan, adei-legea zala ta. Gizon batzuk ez leukee ezkondu behar.

— Ezta emakume batzuk be. Nasai, Poli, zugaitik ez dinot eta.

— Gure inguruan egozan ikusleek, ikuskizunaz barriketan zihar-duen. Gu, ixilik. Gizon batek honelan inoan:

— Ene alabea, ez deust buruak emon be egin, honelako jakirik zerbiduko euskuenik. Argiak amatatzen dituenaz batean, hemendik aldegingo dogu. Ba dakizu, ba.

Bertatik gomutaratu jatan, harako nobela beroa edo, irakurteko laga eustan mutilak, ezkontza egun bezperan, kalean aurkitu, eta esan eustana:

— Polisene, egun edota hobeto esateko gau apartak jatortzuz. Ez bazenki, azalduko neuskizu; baina harako nobelan, irakurri izango zenduzan, han argiro jarten diran azalpenak, prestamenak, ikutuak, eta jokoak. Horraitino, loratxu zeurea agure batek urratu beharra! Zelan erabagi dozu horrelakorik? Baietza emongo al deutzazu agure okil horri? Okila txoria zana, ba nekian jakin, Jon. Nire lagun lotsabageak nik baino gehiago ekian, horraitino.

ANTZERTI jaia amaitu zanean, udazkeneko gau epela zan eta, hoteleruntz astiro astiro joan ginan. Bidean ginoiazala, gure aurrean egozan etxe handiak zertzuk ziran azaltzen eustazan nire senarrak. Lehenago, auzoko gizon berde batek zera esan eustan; arean be, senarra ezkontza egunean hartzen dala, baina senarra hurrengo goizean zeharo senartua dala. Zelako berbak entzun behar izaten doguzan emakume gazte ezjakinok!

Lo gela apaineratu ginan. Erdi inguruan horman tabike hasierea lako zati motxa egoan; tabikerdi horren alde baten, ohea, eta beste aldean, beste ohea. Logelan bertan, bainutegirako ate estua.

Soinekoak erazten hasi ginan. Gane ganekoak kendu nituanean, Damian alkondara hutsik, bainugelara joan zan, pijama prakak eta jakea besoan zituala.

Harik lasterrean pijamea goien-barren jantzita urten eban. Bainugelea nire kontura neukala esan eustan, astiro ta neke barik nire soinekoak aldatu nengizan. Ni, kombinazino ta guzti nengoan; oherako erropa zuri garbiak eta barriak eskuan hartu eta ni be, bainugelara joan nintzan, gizona lehen joan zan antzean. Larri nengoan, ostera, eta gorputzean estualdia lakoa izan neban. Ez dakit han barruan zenbat denpora emon neban. Kaltzerdi, gerriko, prakamotx, bularretakoak, arean, neukan guztia erantzi, atorra motxa ta fina jantzi, eta esturaz eta ixil ixilik urte neban bainutik.

Lehen biztuta egoan goiko argimutil zabala itzalita egoan. Isiotuta, neure gaumahaiko lanparea egoan soilik. Neure oheruntz joan, erantzi-tako soin ganeko eta barrukoak aulki baten ganean laga, eta... Damian lo zurrustadaka. Neure ohe ganean etzun eta halan behar zalakoan, neure argia amatatu bage nengoan; atorra motxa goruntz jaso, iztarrak biloizik eta han ni, halan behar zalakoan. Harako lehenengo gauan senarraren eskubidea zala ta. Era berean emaztearen eginbearra, gauan bertan lorea eskeintzea.

Hotzitu egingo nintzala konturatu, eta atorra laburra zan ginoan beheruntz luzatu ondoren, izaraz eta mantaz estaldu neban neure gorputza.

Itzarrik egon nintzan, luzaro hatan be. Gero lo ez astuna. Damia-nek zurrungadaka jarraitu ebana, bistan neukan. Zerbaiten imintzioa egiten ete eban uste izan nik, eta begi ertzedegiakaz zelatean egon nintzan.

Baina, ez. Benetako lo nasaian sartu zan. Zabal zabal lo egin eban. Nik, barriz, buruari zelako jirak eta birak. Alde batera, beste aldera. Gero...

Itzartu nintzanean Damian ez egoan bere ohean. Ezta nirean be. Bainugelan egoan, egiten zituan zaratek adierazoten eustenez. Bere zerak egingo zituan, antza. Geroago, bonba hotsa be, entzun neban.

Nik, neurekiko esan be bai:

— Oraintxe izango da ordua, ausaz, senarra biharamonean senarturik gertatu ohi dan ezkerro.

Mantak eta izarea alde batera egin nituan, eta ohe ganean nengoan, bezpera gauan lez, atorra hutsean. Senar neurea pijamarik bage, narru gorrian —harako nobelea neukan bihötz begietan—, helduko jatala uste nebanean, Damian prakak jantzita, alkondarea korbata ta guzti, bizarra mozturik, orraztuta agertu jatan. Begiratu be, oztan egin eustan eta bere ohe albora joan zan.

— Bainua hartu, garbitu eta jantzi zaitezanean, jatsi zaitez jantokira, Poli. Nik, egunerokoa erosi eta jantokian itxarongo deutsut, alkarregaz gosaldtu dagigun.

Alizia ospatsuaren ipuin-herrian gertatu nintzala uste izan neban. Ezkontza gaua eta biharamoneko goizaldea gau eta egun arrunt suertatu jatazan. Aitagaz edo amagaz hotelera joan bainintzan. Alizia barria ete nintzan?

HOR ikusi zinei, Jon, emazte gazte baten ezkontza bizitzako hasiera oinazetik bakoa. Ezinekoa. Lilurazkoa. Guzurra.

Hori ete zan senarra? Taketa al zan nire senarra? Ni, kristalezko ontzian dagoan lora guri ikutu ezinekoa edo, nintzan.

Eta hurrengo egunak eta gauak alkarren antzekoak izan ziran. Lo egitekoak. Txori bakotxa bere adarrean kokatuta. Ez nintzan inoiz itzartu hotzitu nintzalako, mantak jausi izan jatazalako. Gau epelak ziran. Epelegiak.

Guzurtia nazala esan zineist, Jon. Baina, ez. Horraitino, iluntzea hemen da. Joan egin behar dogu.

MOSU luzea alkarri eta nire Opelean sartu ginan. Bideak laster egin genduzan.

— Hain zoragarritzko arrats honen ondoren, Jon, zure joakerea mingots egiten jat.

— Bai; etzīgaramon joango naz. Joan egin behar. Bihurtuko naz.

— Siratsa da, adu baltza da, zu joatea komeni da. Ez, ostera, betiko. Ibaietara joango natxatzu noizean behin. Hoba izango da. Ezkutuago, itxurarako be. Ai, egunen baten buztarri astunegi hau... Eta ez da nire errua. Ondo dakizu. Noizbait aske geratzea lortuko banegu, ordutik aurrera, laztana, gure ezkontza gaua eta gau barriak...

— Polisene...!

— Egia da ta.

URIRA baino lehenagoko errebida luzean Opela geratu eta Poli jatsi eta oinez joan zan urira, eta etxera. Ni, ilunduta gero urira nintzan.

BASETXE haxe ikusi behar genduala eta Dobaranen deñari erantzunez, ni be joan nintzan. Basetxe hori, harek txirrindularien lerroa eratzeko eban asmoaren tresnea izango zan.

Basetxe-torrea be, ba zirudian. Baina aldi berean, errotea be, ba zan. Errekako urez ebilen errotea. Hau dinot, beste behin haizez ebiltzan haize-errota bi ikusten eroan ginduzalako. Eskualdean ditugun bakarretarikoak.

Basetxe-torre hori ikusgarria zan. Teilapeko hegapea, sarritan enaren abia-leku izanikoa...

— Orain, hemen nagoan aldi honetan, ez dot herri baten ez besten enararik ikusi —esan eban Dobaran jaunak—. Enarak eta kurriskarruak; euren hegada arin, luze eta zoragarritz eta euren soinu bedegarrez gure begiak zein belarriak pozez edo mirespenez jarten zituen enarak...!

— Eulirik be, ez dago ta, enarak ez jakuz orain agertzen.

— Tamala da.

— Eta gure mendietan be, orduak ordu egon zein tekez txoririk ikusteke, eta haren doinurik entzuteke.

— Beste alderdi batzuetan ecologi maitaleak hor dabiltz, arean.

— Hemen be, eta noizbait horren barri izan dozu, ba ditugu ecologi

zaleak, baina gehienetan euren jorana eta grina sakona herriketa taiu eta egikera gogorretan eroaten dabe. Ez dinot euren errazoiek indarrrik ez dabenik. Baina gauza bat beste bategaz eta une desegokian hori suertatu dan ginoan, izadimaiteak, benetako ecologi zaleak hotzitu egiten dira.

— Eta ondorenez...

— Herri jenteek eta agintariek haren eskariei belarriak gor jarri eta izadiaren osotasuna, osasuna, geure osasuna bera dana be, arrisku handiagoan ez baina itxitasunean, baldarkerian, hor konponekoan lagaten dabela.

BASETXE horren aurreko horman, ostera, ez egoan armarri harrorik. Marra bakanak egozan, ez jakin inoiz eguzki-erloju izanikoa-renak ete ziran. Zana zala, letrak egozan horman ezarrita, letra baltzak:

Kako gorri
kakotxu,
kalte dagianarentzat
kakoa
urkula bihurtu.

Eta izan be, teilatuko hegapean kako bat eskegita egoan, kako luze, makila sendoa, lodia. Ez genduan igarri zein egurretarikoa zan.

Basetxe-torre hori hutsik egoan. Ostera, leiho guztiak kristalez horniduta, baina itxita. Ate nagusia eta albate bi, beste hainbestean. Ate nagusiaren zurak arrakala handi bi eukazan.

Harlandu ederrezko inguruak bai ateetan bai leiho saihetsetan. Errekaldeko horman karatxa besterik ez zan agiri, zarpiatu baga egoalako. Aurreko hormeak, barriz, igeltsu zuriz eukan arpegia. Nahiz eta, aspaldian zuritua ez izan.

Teilatu zabala etxegoienetik ikusi genduan. Teila guztiak oso osorik. Jabea ez egoan etxean, ez sendirik biziten. Baina bistan egoan noiztik noizera hara joaten zirala eta zerbait konponduten ebela.

Dobaranek jabea nor zan jakin gura izan eban. Han inguruetako baseetxetan galdetu eta jakingo genduala.

— Neure asmorako nahi neuke basetxe-torrea. Bide zabalaren ondoan dago. Txirrindulariek hona sartu eta hemendik urteteko ez dabe ezetariko trabarik izango.

— Baina, Dobaran jauna, txirrindularien zer hori, edo horren barrua, edukina, egitekoa, asmoa... zein ete da?

— Asmoa garatuten hasi aurretik edonork jakingo baleu, mesedegarri barik bestera izango litzateke. Besterakoek lar jakitea galera, eragozpena izango. Bada, arerioa ez dago lo. Gure herriarena da, adierazo gura dodan etsaia.

— Barrero be, «arerioa ez dago lo».

— E?

— Bat al da?

— Bat, gure Jauna Bera da bat, Berak salbatuko gaiozak. Ba al dakizu hori? Gure herri zahar honetan ditugun pitxietariko bat da hau,

jente zehearen literaturan. «Esak» dau txorta izena. Egunen baten kantatuko deutsudaz. Izan be, bat ez, arerioa ez da; arerioak. Ak dira. Ugari dira. Askoak dira. Baina guna, muina berbera. Gure herriarekiko ikusiezina. Gu lurrazalean ez bagengoz, kolko barruan poz edentsua, atsegin zirtzila izango leukee etsai horreek. Ipar eta hegoe ditugunek bai irribarre maltzur errea egingo gure enda zahar hau amaituko balitz! Zuk ez zenduan —zure zoria adinak, bestek ez, emon eutsun—, ez zenduan, dinot, azkenengo etxagerratea deritxoena arnasaz eta nekez eta saminez bizi, ariman eta gorputzean zauriak jasan. Nekemoile eta zaurigile horren hazia ez da igartu. Nekazaria begi erne ez badago, matxingarraztez beteko jako barriro be, bere soloa; solo guztiak beteko jakoz. Bakiobedarraren antzekoa da arerioaren oinatza.

— Eta, dinozun arerio horrek bularra agirian egiten deutso gure endeari burrukea beti?

— A, gizajo handi hori! Ez ba. Batzuetan gogorrez, eta hori be sarri jazo izan da. Indarrez, armaz, diruz, bildurraren bidez gu zapaltzeko ahaleginak ez dira zer barriak. Historia dogu lekuko. Testigu ixila dala uste izan arren, historiako jazoera asko, ezkutatu ta gorde eta aldrabestu gura diran buztan, belarri, azi-orrazi eta zertzeladak, gitxien uste danean agertzen dira. Eta gaur dan egunean, entzun ondo hau, Jon, entzun ondo, arerio hori inoiz baino zuhurrago dabil, adimenez zorrotzago dihardu gure anaitasuna, alkartasuna, alkarrekiko haririk meheena be, eten guran; buruetan nahastea sortu gura deusku, berbetan irainbidea, jardunetan burrukea, asmoan... zatikeria. Aberriaren altaran irudi bat bakarra nahikoa dogu. Eleizeak berak, mendeak mende, irudiz, iruditxuz, imaginaz bete ditu eleizak eta baselizak, altarak, hormak, liburuak; uri baktoxean saindu berezia, amabirgina berezia... mila saindu, mila amabirgina.

— Eta Jauna?

— Jauna herriak hil egin eban. Hil egin gura dau. Ikonoz bazterrak guztiak bete, eta Jaungoikoaren izena, Harenganako ezaguerea, joerea, maitetasuna basamortuko haize erreak zimeldu, igartu, erraustu, hondatu dagiala.

— Horretara ezkerro...

— Lapikoan barruan dagoanak ez daki zegaitik erreko, egosiko, txigortuko ete dan. Kanpoan dagoanak sua ikusten dau, egurra ikusten dau, eta ikatza, eta indar berogarria. Zuok barruan zagoze, itsumendira zoaze. Guk, kanpoan gagozanok arrisku handia ikusten dogu —arerioak darabilen jokoa ikusten dogulako—. Bat da Aberria. Honen altaran ez egizue irudirik multzotu. Ez egizue altara hori ikonoz bete. Arerioak dirautsue bakarrik zagozenez: «Gizon hori... beste hori baino»... «emakume honek beste horrek baino aberrimaitetasun...» Geldi. Geldi. Ez ikono barririk jarri aberriaren altaran. Aretxa izan bedi ikono bakarra. Aretxak iraun izan dau. Gizona hilkorra da; hau ez da berez zeharo negargarri. Gizona aldakorra izatea, gizonaren buruan asmo barriak diralakoan arerioaren hazia erneten baldin bada... gizona on

ustez, liluraldiz, espejismoz «ni naz»-ka hasten bada, arerioak hinotizatu dala ohartzaka... gizona aldakor izatetik aldatura bestelakotzean... arerioaren barreak, arerioaren adimen zorroztasuna garaile atara dala-ko.

— Eta zuk ikusten dozu...

— Ikusi dot. Ikusi egin dot. Hementxe ikusi lehen baino argiroago. Bat da aberria, Jon. Euskalerrian batzarrak ziran nagusi. Jauna jarri behar bada, jarri. Baina kndu behar bada, kendu. Ikonorik ez. Gizonak jaio, gizonak aginpidera heldu, gizonak eretia dala uste danean, batzarrak erabagi dagiana, horixe da gure lege zaharra. Gizonak iragan, aberriak iraun.

DOBARAN zutundu egin da eta leihoruntz doa.

Eta ni haren atzetik.

— Euskaldunak, besterik ezean, mendira edo basora astero joaten dirala orain, dot entzutea.

— Ehuneko bost edo? Beste askok itsasoa ikusi beharra, itsas usaina, itsas arnasea hartu beharra izaten dabe. Batez be, oraingo uri industrisuetan, haize garbiaren faltaz itoko ez badira.

— Herrimina.

— Eta itsasmina.

— Zeruminik?

— Hori be bai, Dobaran.

— Horrelan behar leuke. Munduko aberastasunen atzetik, aginpi-dearen ondorik, gorputzeko gurari guztiak bete guran, atsegina esku barruan estutu nahirik erabili arren, gizonak zerumina, ixilean bada be, eta sinesten ez dauala mundukoei gane ganeko guzurrez, be..., horixe, ederra sakatu nahi izan arren, kolkoan zerumina euki dauko. Osterantzean, hondatuta legoke. Zeuk esango; oker handiak datozanean, kalteak, oinazeak, sendikoen heriotzak eta, jente arruntak, ez eukiak, dirurik bakoak be —hain bihotz barik esaten dogun «zer galdurik ez dabenak»— honeek be geroko zerbaiten igurtzia, barruan zerbaiten ikutua ez balebe, euren buruei azkena opa izango leuskioe. Baina hori, latza da, Uranga. Heriotzea besteri opa deutsagu. Ai! zerumina...

— Dzartada itzela egin deust zure esan horrek. Brast! esaten danak, indar sarkorra dakar. Zerumina...

— Horraitino zeruminak ez dau lurmina zeharo kendu behar, txito baztertu, ezereztu-aginean jarri. Gorputza daukagu, ta gorputzak dituan zer guztiak, batzuk bardinak zelanbait, beste batzuk ez, ar ala eme izan, geureak ditugu, eta berezkoak ditugu.

— Nora zoaz?

— Nora joan? Zerura bidea geurea badogu, lurreko bideetan zehar ibili ondoren izango jaku geure. Aingeruen setsuak arduratzen ditu batzuk, eta gizasemeen eta alabenak, iguina sortzen. Hor be, zelanbaiteko arerioa... gizonak berak sortu dau. Gizona eta emakumea alkarregaz konpontzeko dira.

— Eta... konpontzen ez badira?

— Oker dabiltz. Indarrez egiten dan batasuna... marrut! Bide okerrekoan sartzen danak, ba daki: atzeruntz egin eta bide ziburra, egokia bilatu.

— Inor ete dozu gomutan?

— Ez dakit... Zer, ba?

— Jakituria...

— Jakituria urteek ekarten; baina halan be, edozein ez gogartzen. Gizonak gurago izaten dau munduko ibilaldian iluntasunean bizi. Bestek esaten dauan guztia iruntsi, haizea iruntsi ohi dogun antzean. Basurdearen iroia dala norbaitek esan, eta auzoko gizonaren oinatza lurmen beratxean... horra!

— Ta oinatza behar zan lekuan oinatzik ez bada?

— Oinarrasturik ez daukana, lur birgina da. Ez dau jaberik.

— Horrezkero, jabetasunaz jabetu ez diran jabegeiak be, ba dira.

— Bai, eta geure inguru be, ba ditugu. Uuuuu...

Dobaran jaunak eztl guzurrezkoa egin eban eta esan gura izan eustana, nik anartean, lanbroan ikusi ez nengian edo, gure autuari, une min-minean, ziruriketea zertu. Horixe susmatu neban orduan be, eta orain barrero, hau idazten dihardudanean. Bapatean ixildu egin nintzan arren, nik erdi haginartean:

— Ixileko gauzak, apurka apurka.

— Bai, Jon. Ixilekoa, miretserazoko zaituan ixilekoa esango deusut, ni Ameriketara bihurtu aurretxean.

ALDEGIN aurretik uriko kale bazter guztiak ezagutze asmoz edo, ordurarte joan ez nintzanetara agerraldia egitea otu jatan.

Hareetan zehar nenbilela edatetxe baten kanpoa nabarmen gerta jatan. Inguruan baltz usaina edo sunda grisa susmatu neban.

«Sistorra» eukan izentzat bekokian, dinodan taska harek. Gazteen jokera handia susmatu neban berehala. Ni be gaztetzat egon arren, hareek gaztetxuak nirekiko. Droga giroaren eremua ete zan egon nintzan.

Eguraldi epelaren laguntasunez kanpoko mahai luzeetan hainbat gazte, neska mutilak. Soineko maizez, praka baltz ugari, praka estuak edozeinek. Neskato biak gonamotx narruantzekoak, labur baizen estu. Iztar agirikoak, hazurtsu mamintsuago baino. Mutiko bizartsu, emakume zapazto. Punku taiukoak be bai. Mahai ganeetan botelak, basoak; zakutoak.

«Sistorra»... Barrura nintzan, iluntasunaren ahoan sartu. Argiz ez egoan energi igatze handirik. Gazteak, gazteak... zutunik, jesarrita, erdi etzunda, erdi lo. Edozetara egozan ilunbezuko biztanle hareek. Alkarrren ganean, ez horraitino.

Taberna hori jarri ebana Peruko izan zan. Ostera, jabea makaldu zanetik, ugazaba-uhala alaba biak eskuratu eben; Asun eta Kretzen,

lehenengo emaztearen alabak, euren nebatzako Tobiasen ganetik kuku-
rruku egiten hasirik.

Aita Peruko hilte orduan, paperak eginda egozan eta, ardanetxea
alaba bientzat izango zan. Eta batez be, zaharrena ezkongea zanez,
Kretzen alaba gaztenaren senarrarentzat, Salba Txirtearentzat, egikun-
dean eta jardunean.

Hauxe izan zan, eta ez beste inor, zaharra zarkildu zanean artzia
ebaten ebana. Ez zan tentela inoiz izan, begi edegia baino. Ibiltekoa edo
egotekoa, komeni zana jakingo eban, eta horrelan bere ekina zuzendu-
ko. Atzenari begiratu, zer atarako, ez zelán atarako. Txoria aukeran
daukazunean, bunpa!... Ez gerorako ezer inoiz laga. Txoria barriro ez
etortea, eitekena zala ta.

Tobiasen ama alargunak Perukogaz ezkondu zanean, seme bakarra
eukan. Tobias hain zuzen. Geroago ez eban Tobiasen amak sein baririk
egin.

Perukok umezalea zanaren entzutea eukan, baina lehenengo emaz-
teagandik harako alaba biak izan ebazan. Besterik ez.

Urte luzeetan, Peruko uritik kanpoan bizi izan zan. Bai lehorrean,
bai itsasoetan ibilera ugari eginikoa. Erakusgarri, beso bietan eta
sabelean be, tatuaje bakanak eukazan.

Gizartekoia zan, guztiz lagungina. Taberna hori jarri ebanetik
gerokoan lagunik aspaldikoenak hara joaten jakozan. Eurakaz sekulako
berbaldiak eta hartuemonak izaten zituan.

Iluntzeko jente mordoari abegi ona egin, ardao ta edari abarrieria
eskeini eta emon ondoren, egunaren azkenalderuntz bere lagun zaharra-
kaz barritsu eta barreikarri agertzea egundokoan gustatzen jakon.
Berari aina, bere aldra jatorrari be.

Noizean behin, atzenerarte geratzen ziran agureei ta erdi agureei
umore bikaineko gauetan beren beregi azunberdi ardao ataratea gauza
jakina ta bapere ez harrigarria izan ohi zan.

Peruko abarketagilea izan zan lehenetan.

Aldi bateko erdikaleko zeregin, lanbide eta bizimodua zan abarke-
tak kalean egitea. Eguzkiak nundik jotzen eban, eta Peruko kalearen alde
baten edo bestean jarri ohi zan, bere lan-mahai eta jesarleku biak batean
zan tramankulu egurrezkoan. Izan be, ezker-eskuma eukazan denda bi.
Baten abarketak eta sokak saltzen zituan. Janariak, bestean, baina kalea
bitarte ebela; ez, ostera, lagunentzakoak, abereentzakoak baino.

Peruko geroago, uritik bapatean aldegin baino lehen, hara horra
ibiltzen hasi zan. Goenez, irabazpide hori loba bateri laga, eta urruneta-
runtz joan ete zanekoa izan zan.

Halako baten agertu zanean, ondasunak euki ba eukazala zabaldu
zan, baina dolarretan. Kanpodirua trukean merke samar ebilela eta
apurka ekarriko zituala atzerrian laga zituan txanponak.

Ekarri eban ondasun bistakoa, alaba biak izan ziran.

Asun eta Kertzen aitaren lagun azaldu ziran. Ama, urrunekoa ei
zan; eta hil be, han egin ei zan. Alabok amaren antzeko zirana katuek be

jakin eben, entzunaren entzunez. Edozeinek horixe inoan. Perukok alabok maite maite zituan. Ortozik ibilten ohituak, tabernan be halantxe ibilten hasi ziran.

«Peruko nun dituzu
babazaku zabalak?
abarketarik barik
orain zure alabak».

Edozeinek kantatzen eban unada haretan, urira heldu barri izan ziran unadan. Mutil lobeia Perukok bere alabaren bategaz konponduko ete eban sinesturik egoanean, Peruko berbera andra sasoikoagaz ezkondu zan. Lobeak, aldegin eban.

Gauza bat ez eban inok jakin.

Arean Tobias Perukoren semea zan ala ez. Amaren semea zanik, zera, Perukoren bigarren emaztearen semea zanik ez eban inork inoiz zalantzan jarri.

Tobiasen ama zana eta Perukoren bigarren emaztea harik lasterreen balbeak eroan eban. Hil egin zan.

Zabal ibili zan, Asunek eta Kertzenek ederkatura barik agertu ebela euren poza, amordearen heriotzea zala ta.

Tobias bere arrebakaz sekula ez zan ondo konpondu. Hori, mutil mazala ta borondate onekoa zala.

Alargun baten umea ei zan. Nebaordekoa soilik. Are gehiago; aita alargunak etxeratu eban emakume ezkongaz baten ume borta edo. Aitarik bakoa, amarik bakoa esatea erreza ez zalako.

Perukoren bizia kandela hondakinaren suaren antzera joan zan. Eta eroan eben. Eta emazte bigarrena sartu eben zuloan bertan, sartu. Tobias lehenengo mendebalak eroan eban, inork ez eban jakin nora.

Harrezkero, «Sistorra» horrezazko esamesak eta barriketak ugaldut egin ziran. Sekulakoan ugaldut be. Salba Txirteak Kertzeni abiea azkar berotu, eta berehalakoan senar —emazte bihurtu ziran, tabernan jentea ardoran arrainak lez egoten zan. Baina jente gaztea, edana baino gehiago be, droga-menpetasuna izango ebana. Horretan ziharduan jo ta ke nik lenengoz ikusi nebanean, baina aspaldiko martxea ei zan.

Nik lenengoz ikusi, eta horra nundik nora, hurrengo gau beranduan, hain gau beranduan, egunsentia heldu hurren zan eta, sekulako eztandea entzun genduan urian gengozanok.

Tabernaurrean lehegairan bat edo gehiago jarri, eta «Sistorra» edaritegi ta drogazulo zanari kalte galantak egin.

Ate, leiho, sukalde, erakusmahai... birrinduta geratu ziran. Uriaren beste alde baten, asago egoan beste txurritegi kaskar baten be, beste lehegai bat jarri eben eta triminduta lotu zan.

Gazteek droga kontua izan zala esan eben. Beste kamelloren batek egindako okerreriak ete ziran.

Guraso askok arnasea hartu eban. Aginpideetan egozanek be bai.

Uritik nik aldegin baino lehen Dobaran azkenengoz ikusi nebanean,

ni kontu zale bihurtu nintzala ta, bere jazoerak hurrengo baterako lagata, adiskide bat lagun ebala «Txinpon» kafetegi zehera sarterazo ninduan.

— Uranga adiskidea, idazgarri dan zerbait azalduko deusku honek. Ez daki inork esanda. Beroni jazo jakon.

Eta nire entzumena ta adimena gert gert nituala bieci adierazo baizen laster, hirugarren lagun horrek bere kontakizun egiazkoa hasi eban.

Petrolero baten nenbilen. Aurretiaz ibili be. Ni, ontziko sukalkina nintzan. Dakizuenez, gerratea 1936 garreneko udan hasi zan. Urtebarriko urtarrila zan, eta gure ontzi Camp... Frantziaraino kosterres heldu zan. Rusiatik, petroleoz beterik. Kataluniako lehenengo portu aukerakoan sartzeko ustez. Frantzi mugatik honuntz ba gentozan, ba gentozan... eta egun sentian, haxe izan zan bihotza erdibi eginda geratutea! «Canarias» espainiar gerrako barkuak geldituerazo eta preso hartu ginduzan.

Eta gu aurretik, barku gogor hori atzetik, Ceutaraino. Barku gogor horretako marineru artean, herrikoseme bat ezagutu genduan. Baina ha ixilik, gu ixilago. Gu, petrolero haretako euskaldunok hamaika lagun ginan. Hamaika. Nire anaia bat be, neugaz.

Ceutan kartzelara sartu ginduezan eta hantxe bertan egin euskuen lehenengo epaiketea. Gerrateko epaiketea.

Kartzelan gure jatekoa hiru bat hilabetean, ogia izan genduan. Mesedegileren bat beti egoten da ta, hango kaian Sota ta Aznar baltzuko merkante bat, jakina, egoana jakitea lortu neban. Ontzi horretan nor ebilen gogoan neukan. Bitarteko horri mesede haxe eskatu neutsan eta gizon zintzo harek, egin be bai. Ontzira joan zedila, eta han piloto Urlia ete egoan jakin ondoren, nire izenean, —izena ta ganerakoa jakinerazo neutsazan—, diru apurra eskatu egiola, ogia besterik jaten ez gendualata, kartzelan gengoan hamaika euskaldunok.

Hamar ogerleko lazka zituan, gure onerako. Baina hurrengo berbea haxe izan zan: diru gehiagorik eskatu ez gengiola.

Gure herrikideak laga euskun diru horregaz, hogetamabost sardina zahar erosi nituan. Euskaldun bakotxari hiruna sardina zahar banandu, eta horra gure kapitala amaitu. Geunkazan diruak kendu egin euskuezan eta... putxik gengoan.

Kontsejo de gerra horretan, hasi ta laster fiskalak esan ebanak, mamortuta laga ginduzan; izututa, laudarduan. Fiskalak bere burua be, harrituta agertzen eban; konkortuta egoala, berba baten esateko.

«Beti entzun dogunaz bestera, zer da kontua ta, orain ba dirudi, ba dirudi euskaldunak katoliko ez dirala. Eta zelan ba, edo zegaitik? Kontsejo honetan epaituteko dagozan euskaldunak hamaika gizon dira, petroleroan ebiltzanen artekoak. «Euron zertzeladak eta argitasunak eskatu deutseguz, eta eurotariko batek be, inork be, ez dau sinismen zerik, ez eleiza konturik ez ingurukorik agertu ez azaldu. Ostera, beste guztiek, petrolerokoak baina euskaldun ez diran beste guztiek, gailego,

asturiastar, montañes eta abarrek, batak osabea dauko frailea, besteak anaiea abade, hurrengoak arreba bi monja, haragokoak izekoa abadeneskame... ta euskaldunak ixilik, sinismeneko jenterik ez seniderik aitatu be ez...».

Heriotzarako zigorra emon euskuen guztioi. Guztiz, berrogeta zortzi lagun ginan.

Heriotzarako zigorra «por el delito de alta traición a la patria»... ontzi petrolero baten, Espainiar banderapean ibili ginalako. Geure bizibidean, ibili be. Horixe zan gure pekatu itzela, gure hobena, gure okerra, gure gaiztakeria.

Baina hori geroago jakin genduan.

Paperak firmatu genduzanean inusente gengoan; zer firmatzen genduan ez genkiala firmatu genduan... geure bizia kentzeko bide zan zigorra. Geroago esan euskuen. Geroago irakurri euskuen.

Horraitino, epaiketa barria egin euskuen, eta orduan be, epaia bardina gertatu. Bizia kentzeko gai eta merezigarri ginala.

Lan egitera eroaten ginduezan. Kantera batzuetara, ortozik. Oinpeak zauriz bete jakuzan. Ha zan oinazea! Goizetan zutunik jarteko zelako minak! Eta egun osoan iraun behar.

Baina, heriotza epaira jota, arratsalde baten, ni neu ez nintzan bistan ez entzuten egon, baina laster jakin neban gau haretan bertan hilgo zituenen artean, neure anaiea egoala. Honek ez ekian ezer. Ni, orduan, esturearen esturez, bost minututik bost minutura, han bazter baten txisa ta ganerakoa egiteko ipini euskuen kankarruaren ondora, karburo bidoiaren ondora joan-etorrian ibili nintzan.

Anaia maitea hilgo eustela gau erdian...!

Txisa egiten neban baktoxean, odola zala begitanduten jatan. Ha hilgo eben, eta ni be... biharamonean edo.

Orduak aurrera, eta iluntzea heldu zan. Neguan bizkor beti iluntzea. Halako baten sekulako motorren hotsa, zaratea ta zaparradea... burrun burrun motorrak, automobilak...

Orduan gu, edo ni behintzat, estuago. Agindu gogorragoren bat ete zan.

Zabal izan zan albistea. Heldu zan agintaria almirante bat zala. Eta gure nagusi egiten zan teniente koronelari itaune hauxe egin eutsala:

— Petrolero horretako zenbat euskaldun dagoz hemen?

— Hamaika.

— Ba... hamaiketarik bata be, ez dozue gaur hilgo. Erantzupen osoa neuregan geratu bedi.

— E?

— Entzun dozuna.

Eta gau ikaragarri haretan, gau erdian, geu be hantxe bistan gengoala, gizon piloa hil eben. Bata be ez zan euskalduna.

Ganeko egun baten jakin genduan zioa, heriotza hain ugariren zioa. Hauxe ei zan: han Ceutan, errepublika aldekoen ontziak bonbardeoa egin ebal, eta 80 lagun hil zirala.

Ceutan lehenagotik bizi ziran gure uritiko batzun bitartez, 80 hilte hori, guzurra izan zala jakin genduan. Baina... galena emon behar, zigorra ezarri behar, gorrotoa ta indarra erakutsi behar.

Bonbardeo haretan ez zan Ceutan inor hil.

Hirugarren epaiketea Burgosen egin euskuela, esan izan zan. Geu agirian ez gengozala, jakina, Ceutan zigorpe gengozan ezkerero.

Baina, egon. Hori ez zan horrelan amaitu.

Eta gure kontatzaileak sudurzapia sakeletik atara eta begi samurren hezoa lehortu ebanean, jarraitu eban.

Hango kartzelatik penintsulara eroango ginduezala. Afrika bizirik gengozala lagateko zoria geunkala. Hori gora behera, bildur ginan. Baina ez egoan norarik. Cadizeratzeko, merkante baten sartu ginduezan gu euskaldunok. Merkante horretan be, ba egoan euskaldunik. Ontziaren izena emakume izena, berba biko, berba laburtuak biak. Kapitana geure urikoa. Haren izen abizenak esan neiz.

Cadizerako enbarka ginan, eta merkantea zainduteko, tripulanteez bereiz, falangista batzuk eta soldau batzuk egozan. Barku jagoletarikoak ziran soldau batzuk, bost soldau gailegok harako eskeintzea egin euskuen, sekulako sekretuan: «Euskaldunok, gura badozue fusilak emongo deusueguz. Guztion artean itsasoan ontziaren jabe egin zeintekete. Eta Tanger...».

Hori entzun, eta izerdi larria geunkan gorputz osoan.

Arnasea be, geratu egin jakun.

Zer egin geinkean? Ontziaren jabe egin ondoren, haruntz Tanger alderuntz... Hango ofizial euskaldun bategaz ixilekoak izan genduzan, ba, kapitanak gura presentziarik zertu be, ez eban egin.

Ixilperik estuenean, ofizial euskaldun horrek, piloto horrek, egia hauxe argi ta garbi azaldu euskun: «Barku honek martxa txikia dauko. Ez da gauza abiada handirik hartzeko. Zuok azaldu eta errunboa aldatzen dogula handik hortik konturatuko balira, gure billa etorri edo kostako kainoe luzeakaz hondatu egingo gindukeez».

Zer egingo, zer ez egingo... Arriskuan sartzeko adorea ba genduan, bai; horraitino, zuhur jokatu beharra geunkan.

Ausardia eta bildurra, biak batean gure narruan.

Nasaitu egin genduzan gure barruak; zanak zartatu. Ixil ixilik geratuko ginan. Ez genduan ezer egingo. Ez matxinadarik ez txistik be ez. Lotara joan ginan.

Sekula ez deustat hau inori kontatu. Baina orain, entzule apartoi onura eginez, eta etorkizunak honelako zeren albiste izan dagian...

Rusiatik gentozan itsasaldi haretan hiru mila pezeta ta gehiago neukazan aldean. Danak kendu eustezan. Lehen be, esan dot. Emaztegeia azkenengoz ikusi nebanean be, ba neukazan; baina nok halakorik pentsatuko! Han, astrakan soineko lodiak 500 pezeta inguru balio izaten zituan. Orduan dolarra ta rubloa alkarren antzean ebiltzan; 5,25 pezeta edo. Sinestu be ez egitekoa. Holan ba, kendu eusten dirua, diru handia zan. Ostu eta kitu. Trabesian hile bi ta erdi inguru egiten genduan.

Han Ceutan eta gero Cadizen be, soldauek euren soldatetik, hileroko 30 pezetetik, bako txak pezeta bat banatzen euskuen. Laguntasun hori estimu handikoa suertatu jakun. Gosea arinduteko.

Bai. Gerratearen amaiera be heldu zan, eta 1939 garren urteko uda aldean agertu ginan etxera. Bizirik. Ez zan gitxi.

Handik geroetara, harako Sota ta Aznar baltzuko barkuan egon zan herritarrari, Ceutan hamar ogerleko itxi euskuzanari, bere dirua bihurtu behar jakola ta... Neure emazteari agindu neutsan: «Hamar ogerleko hartu egizuz, eta bihurtu; hemen ei dago ta».

Etxera zanean itandu neutsan andreari:

— Ta? Topatu dozu morroe hori?

— Bai. Zetan ninoiakon esan nik, eta hamar ogerlekoak nik emon eta harek hartu dituanean haxe esan deust: «A! Nik orduan batari ta besteri laga neutsen dirua, guztiek bihurtuko baleuste...!».

Edaspen harrigarria amaitu ebanean, Dobaranek niri:

— Jon, zeeer? Zuok ez dozue honelakorik ez jasan, ez jakin. Egia esan, nik be, arriskuak izan nituan arren, hain egoera esturik, ikaragarri-rik ez neban jasan. Txarto ala ondo, inork harrapatu baino lehen ihes egiteko eretia izan nebalako. Honelako pasadio ugari izan da gure azken gerratean. Gorriok ikusitako jenteari, hil baino lehen, euren jazoeren kontaketak hartu eta idatzi behar leukeez oraingo idazleek. Historia, honen biloiz dogun gure historia horniduko geunke. Eta gure elederra aberastu. Bihar etzi telebistan agertu, pelikulak egin. Gure jentearen oraintsuko epopeia latzaren barri munduko demokrazia lotsagarriek jakin dagien. Merkatuak irabazi behar ditu gure pelikulagintzeak. Orain Europaruntz begira...

— Dobaran zu, gudaria izan zinan, burrukaria, baina honeek itsasgizon soilak ziran, langileak.

— Horixe, ba, Jon! Euren lanean bake bakean ebiltzan gizonak ziran, bai, esku langile hutsak. Behar bada, politikan ezetariko berotasunik ez alderdi jokorik ez ebenak. Baina, petroleoa «beste aldekoentzako» eroielako, kruzada santukoek gertu inori bizia kentzeko. Zenbat horrelako! Eta ganera, euskaldun batzuk, eta herrikide batzuk alkarri laguntzeko prest egon arren, guztiak ez, horraitino! Gerreak dakarren itsukeria, gaiztakeria, eta bildurra bitarteko dala, zuzentasunik-eza, ezagunak be alkar ezagutzen ez baileuen, zakarkiro eta zirtzil antzean portatzeko.

— NIRE bizitzeak ez dauko zer azaldu handirik, Jon. Gurasoak ez nituan eukitsuak. Ezta urrik emon be! Horrelan ba, ni be eskolan ibili nintzan, neskato neure lagunakaz batean.

— Eta geroago, Polisene?

— Josten ikasten hasi nintzan. Bordaten be bai, apurren bat. Ume jagola be ibili nintzan. Unada baten, neskato bi eta mutiko koskorra erabilten nituan kalean, arratsaldetan, umeok garbitu, jantzi eta orraztu ondoren. Adin haretan nire garapenari egokionez, atzera samarra izan

nintzan. Zera, jarraipenerako ditugun alderdiei buruz. Nire kide ziran neskatoek, ordurako ba zituen euren legeak; ba dakizu, hilekoak. Nik beranduago, eta urri. Baina, azalduko deusut. Eta parkatu. Parkatu, zeharo ezkutuko gauzak dirala esaten dabelako. Baina nik ez dot... ez dot bildurra baino izan, honelako gairik inori aitaturteko be. Orain, ez dakit... Zu zaukadaz aurrean, niri entzuteko prest. Aparteko gizona zara niretzat, ez aita, ez osagile, ez abade; zu gizona, ni emakumea. Maite zaitut, Jon, eta maitetasuna... Jaunak eskeintzen deuskula uste dot. Negar gurea jatort... Ez naz zori oneko...

— Baretu zaitetz, Poli. Eten autu hori, gura badozu.

— Zori bakoa ni! Ama izateko gogoa, eta... ezin! Nobelak idazten ditue gero, asmakizunak dirala ta. Ez, ez dira guztiak asmakizunak. Ba... anartean, amak bere barruan eukan kezka hori polito gordeten eban arren, behinola, haren berbetatik, estututen hasi zala susmatu neutsan. Osagilegana eroango ninduala adierazo eustan.

— Ta zu...

— Harengana joan aurreko egunetan nire ikarak, nire izerdi larriak! Lotsea, min egingo eustanaren bildurra. Joan ginan joan, goiz ilun baten. Kontsulta berezia zanez, lagun gitxi egongo zalakoan... Hainbat lagun egoan. Eta ba dakizu emakumeek autua errez hasten dabena. Lehenengotan, guztiok ixil samar. Gerogarrenean, alboan suertatu jakun emakume loditoneak mihina astinduteari emon eutsanean...! Haxe zan etorria, ha berba egin beharra, ha autuen kataia, haxe barriketa etenbakoa, batez be, lehenengo gaixoa edo eriduna medikua-gana barrura sartu zanean.

Andra biribil harek, zer ez ekian! Aspaldikoa zala han kontsultan. Gu, ama ta ni, barriak ginala. Ea zetan ginoiazan, eta zegaitik. Niri arpegira begira jarri eta «izututa zagoz, ez dozu zuk gau bitan lorik egin» —esan eustan, eta goitik beera eta behetik gora nire anatomia ikasi guran edo. Gorri gorri nire matrailak eta belarriak...

Gure kasuaren barri jakin gura eban. Itaune antzekoz barriro be. Honetan, gure onerako, andra argal bat agertu zan, ni baino neska meheagoa lagun ebal. Lodiak heldu barriei oratu eutsen bertatik. Nik amari belarri ertzera:

— Ama, sorginak lodiak be izaten dira?

— Zer, ba?

— Andra titi handi hori sorgina dalako. Dana daki. Berba zikinak esaten ditu.

— Berba zikinak, ba... ba... gauzek euren izenak daukez, eta emakume artean, aparteko lotsarik baga esaten dakiguz.

— Gizonek be, esaten ete ditue horrelako berbak?

— Ai, enetxua! Gizonak horrelakoak esaten hasten diranean, ha-reek gure ondoan... uf! zelakoak esaten dituen bazen...

— Bai ze... lotsatu egiten naz.

— Daukaguzan gauzen izenak esateko, ez da lotsarik zetan... Batez be, erdi ixileko berbetea danean.

— Erdi ixilekoa? Andra odoloste horrek samako zuloan mikrofo-
nua daukala dirudi ta.

Joan zan zori onen baten andra gizena be, barrura. Eta gero, kalera,
nunbait. Apurren bat baretu nintzan. Atsoak emon eustan esturea!

Ostera, barrura sartzaieran, osagileak ez ninduan estutu. Gizon ona
eretxi neutsan. Zeu zinala esango neuke, Jon. Txeratsu, bake emoile
begitandu jatan.

Amari hainbat itaun eta niri bapere egin ez eustanean, moduetan
nasaitu nintzan. Ama, gengoan tokian jesarrita geratu zan. Ni urruna-
go, barrurago eroan ninduan osagile jaunak, zuriz jantziriko gizon
harek.

Horraitino, esturea ta larria bapatean heldu jatazan, soinekoak
erantzi nengizala adierazo eustanean. Mahai estu luze zuriaren ondoan
nengoan. Ganerengoa nagi nagi erantzi neban. Medikua itxarogonean
antza, eta nire nagitasuna susmatu ebalako edo, eskuak zabal eta
goruntz eginez, «tira, tira, ba!» adierazoten eustala igarri neban.

Konbinazioa be ba neukan eta, ha be kendu neban.

— Barrukorik? —itandu neutsan, ezetz esango ete eustan.

— Bai. Dana. Biloizik geratu arte. Ni, gizona naz, baina medikua
naz. Zure medikua orain eta hemen. Txikitan aita zuretzako zana,
horixe naz ni orain. Horixe ta gehiago, jakina. Aitaren aurrean biloizik,
medikuaren aurrean biloizago. Ta zer?

Nik lurrera begira nengoala entzun nituan berba guzti horreek.
Medikua, barriz, paper batzuei begira egoan; ez niri.

Niganatu zanean, bularreko zerrendea kendu neban. Halako lotsa-
rik! Erdi dardara egin neban; besoko haragia laztu jatan.

— Zer... hotzik? Laster...

Aulkitxuan nire oinak ipini eta mahai ganean jesarri nintzan, harek
agindu eustan lez. Nire atzera joan zan eta bizkarrean gomakaz barruko
soinua entzun gura eustan. Arnasa luze ta zabala egiteko, agindu
eustan. Gerri inguruan ikutuak eta igurtziak egin eustazanean, aurrekal-
dera bihurtu eta fon... zelan da?

— Fonendoskopio esan gura dozu?

— Horixe. Aurreko aldetik be, bular barruko soinua entzuten
jardun eban. «Titi politak. Ez zagoz hain argala». Ez jataz egundo
ahaztu honeek berbok.

— Etzun zaitez, polito polito. Goruntz begira.

Belarri atzeetan, matrailpeetan, idunean sakadak eta igurtziak egin
eustazan.

— Ez dago hemen koskor berezirik —esan eustan—. Zabaldu
besoak.

Kaltzarpeak arakatu zituan. Hor be, sakadak eta igurtziak egin
eustazan.

— Uletsua zara, ezta?

— ...

Titietan be, ikutuak.

— Minik?

— Ez.

Nire urdailaren parean eta sabelean hasi zituan igurtzi eta ikutu sendoagoak. Saihets hazurren azprietan atzamarrak sartu eustazan. Hareek sakadak!

— Ea urdaila... Ea gibela...

Zilean be sakadatxuak. Hurrengo, belaunetan. Nire iztar, berna eta orkatilak be, esku sendoz estutu zituan. Zoratuten nengoan, azterketea amaitutzat lagako ebala ta. Bai zera!

— Orain, soinean daukazun zer bakarrori kendu behar dozu.

— Bra...

Buruagaz baietz esan eustan.

Bihotzaren taupadak gero ta bizkorrago ebilkidazala igarten neban. BARRIRO be, nagi nire eskuak prakamotxak erazteko.

— Tira, txiki; bizkorrago!

Etzunda nengoan eta,

— Geldi. Neuk kenduko deutsudaz azkarrago, errezago.

Nire prakamotxak medikuak zart! beherantz, bere esku biakaz.

Han eroan zituan nire bragak iztarretan behera belaunetaraino, eta gero oinen puntaraino. Naruru gorri geratu nintzan. Begiak itxi nituan.

— Iluntasuna egin al jatzu? —itandu eustan gozaro.

Begiak edegi nituan, eta irribarre zimela egin. Gora begira jarri nintzan.

Zilaren alde bietan, istaietan igurtzi barik sakada zakarrak, oldar-tsuak.

— Uletsua zara, bai! —esan ebanean, han urrunean egoan amaren eztula entzun neban. Eztul guzurrezkoa iruditu jatan; medikuak be, han egoala jakin egian, eta nik be, bakarrik ez nengoala.

Medikuak nire iztar bat jaso eta han burdinazko urkulan eskegi eban. Gero, beste iztarra antzera, beste urkulan. Halako lotsaririk! Iztarrak zabalik...

Une haretan oinazerik txikarrenik be ez. Kilikilia, behar bada.

Ezer besterik pentsauten hasi orduko:

— Horra! Amaitu dogu gaurko lana. Eutsi prakamotxak.

Bragak emon eustazanean, eskuan espiluren bat eukala begitandu jatan. Nik, bragak eskuan hartu baizen laster, oldez, berez, arineketan neure zera estaldu neban.

Osagileak irribarre malizirik bakoa egin eta esan:

— Txiki, txiki... Ez-jakinaren esturak eta azaluskeriak!... Bakotxak berak daukona, berea da. Eta ona da. Lotsea be, guztiz gauza ona da. Eta zaindu behar doguna. Baina medikuari edo senarrari gorputza erakusteko, ez da zetan bildur izan.

Hitz nasaigarriok niri entzunerazo bitartean, harek orkatiletatik oratu eta nire iztarrak bigun bigunkiro jatsi eustazan, bata bestearen hurrengo.

— Orain, jesarri. Jantzi bragok, zutundu eta beste soineko guztiak be, jantzi. Osorik zagoz eta osasunez zagoz.

Urrundu zan nigandik. Beste aldeko mahairuntz joan zan, eta idazten hasi. Ni nasai ta ederto jantzi nintzan.

IBAIETARA etorri naz, ostera baten. Hara, urira barriro egun batzuetarako joateko ustez. Dobaran be, hemen dabil. Alkar ikusiko dogu.

Kafetxean sartu nazanean ez dago lagun handirik. Zerbitzariak, guztiak gizonetzkoak, mara mara dabiltz, eratzemahaitik bezeruen mahaietara gauzak eroan, gauzak ekarri.

Jesarri nazanean, nigana heldu danak bibote baltza dauko, ugaria, punta zorrotza. Bera be, baltzerana da, desente ganera.

Zerbitzari baltzerana joan eta gauzakaz bihurtu jatanean iduna gogortuta daukala eretxi deusat. Buruari bira egiteko, gorputza be zirurika egin behar edo. Begiak, ostera, dantzariak ditu. Baltz baltzak honeek be. Lau aldeetaruntz dantzari izateko doea dabenak.

Hamabi ta erdiak nire erlojuan. Itxarotea birtute ona ei da. Nire adiskidearen eskuturrekoa, nagiago izatea; horixe. Eternidadean ez ei dago priesarik. Izan be, zetarako eskuturrera edo hormara beti begira ibili, zenbaki batzuk eta orratz batzuk gure jaun eta jabe baigenduzan?

Kafetxera lagunak sartu dira. Arrapaladan edo. Euren artean ene Dobaran enea. Bata besteari sakaka sartu dirala be, esango neuke. Dei egin deusat Dobarani, eta ikusi nau. Hemen jatort.

Nire zerbitzaria eta beste bat azkar doaz, eta aterik zabalena itxi egin dabe. Gogortu. Alboetako ateak be, estutu edo.

— Manifestazinoa dator honuntz.

— Zerena? —zerbitzariak itaune.

— Zerbaiten aldekoa. Zerbaiten aurkakoa. Kasik egunero ez al dogu jasan behar?

— Aldian aldiko.

— Baina, oraingoa?

— Ecologiaren aldekoa da.

— Nortzuk dira eco horren zale?

— ...

Dobaranek sudurzapia dauko eskuetan, eta bekokia eta iduna igurtziten ditu, izerdia lehortu guran.

— Azken urratsak azkar egin ditut, hor zarataka etozanek harrapatu ez nengien.

— Eco aldekoak ei dira.

— Eco... aldeko, iparreko eta langileriaren eco, arean, oihartzun.

— Hori, langileriaren aldeko beti. Nahiz eta askok, orroelariok, ez lehen ez orain izerdirik bota ez.

Iribarre murrizta egin dau amerikar lagunak.

Jente gehiago sartu da bapatean. Zerbitzari begi baltzak eta beste batek edegita egoan ate bakarra be, sarratu egin dabe.

Barrukoen marmarra gora behera, kalekoen orroak eta deadarrak entzun genduzan.

— Langileen eskubide sakratuak lehenengo...!

— Burgesak sutara!

— Gubernukoek kanpora!

— Eta txakurrak...

— ...be bai (sic) kanpora; be bai txakurrak.

— Viva anarkia...!

— Gora munduko proleta...

— eta...eta...

— ...eta.

— Hori dok eta! —esan dau Dobaranek, ardao zuriari lehenengo zurruta egin ondoren.

Turut hotsak entzun ditugu. Kristalak nunbaiten hausi dirala, ezin ukatu. Hor datoz, hor doaz. Automobil bi tatarrez darabilez agerraldi-koek. Su emon deutse geroago. Su ta gar, Doniane suak uste uste baga, eguerdian.

Sirena zoli eta motelagoen durundia gure belarrietan, mingarri. Beribil berdeetatik polizi gizonak aldraka jatsi dira. Barrast... barrast... keia eta tiro maketsak, potixak ke erionez aidean zehar. Batzuk arineketan hara horra. Orroak urrundu egin dira. Kristal hausteak ugariago.

— Askatasuna, baiiii...

— Tiraniarik, ezzz!

Zerbitzariak esturaz kafetxeko leihoei oholezko azalak generatzen deutsez.

— Bada ezpadan, barrurago joan beitez —esan deusku leihoen hurrean gagozan bezeruoi.

Barruan dagoan jenteak barriketan dihardu.

— Lan bakoak, jakina...

— Lan bakoak be bai, baina lanik gura ez dabenak be, lana eskatzen dabe.

— Gura ez dabena, zeinek daki...?

— Lana eskatzea bidezkoa da.

— Zera be, bidezkoa ez al da? Hau da, dagoana apurtzea, erretea, hondatutea... bidezkoa, noiztik? Guztien kalterako dana...?

— Ez, lorrina ez da...

— A! Hori bakotxak berak daki.

— Berezkoa da.

— Ez hainbestean. Nik trena galdu dot, eta lanera...

— Trena hain errez galdu? Patrikeratik jausi al jatzu?

Jake zuridun zerbitzariak barruan pilatu diranen barriketa sintetiko-koa entzunez, geldi dagoz. Horraitino zerbitzari baltzerana, begi baltza, adi adi dakust, leiho txiki baten zirrikitutik, kalean jazoten danaz artez jabetu guran.

Zarraparrak eta iskanbila gagozan lekutik asagotu diranean, alkarri sakan sartu diran lagunik gehienek, kafetxetik aldegin dabe.

— Aldizkarietatik eta egunerokoetatik jakin izan ditut gauzak. Oraingoan, begien aurrean ikusi dot —esan dau Dobaranek—. Halan be, egiaren egia jakitea...

— Ez dozu hain errez izango —erantzun deusat. Egiaren inguruak zelan halan. Osterantzekoak...

— Ez dinozu guzurrik, Jon. Txosten osoa egin gura izango neuke. Ez dot errez izango. Guk geurea ikusten dogu, baina besteena ez hain errez, ez hain gustora, ez hain asmo garbiz. Entzunik dot gure Herriko gizartelari handi batek hau esan ohi ebal: «Gureen lanak irakurri eta aztertu. Baina beste aldekoen, beste bide batzuetakoena be, irakurri eta aztertu egin behar dituzue. Gizon bakoetak arteza eta okerra beragan daroalako. Nahikoa da manikeismorik, gehiagoko bage».

BEHINTZAT azaleko giro bakea bihurtu jakunean, kafetxean kontu kontari bihurtu jat Dobaran.

Argitasun batzua bila ibili dala Ibaietan egin dituan egun honeetan. Oraingoak ez dira Ameriketatik ekarzan mezu eta barri ta albista jakiteak. Oraingo hau, argitasunak lortu behar hau urian emon eutsen enkargua izan dauala, diraust.

Dobaranek han urian Elisabeteri eta amari agerraldia egin eutse-nean, —andra Fabiri, Elisabeteren amari, argitu deust Dobaranek—; senitarteko batzuen gomutea berpiztu eta hareen barri jakin ahal egian, eskatu eutsan nire lagunari andra Fabik.

Senitarteko izan eben sendi hori zein kaletan eta etxetan bizi izan zan jakin ekiela eta, Elisabeteri jaramon eginez, hain kaletan eta hain etxetan izanbarri dala.

— Etxe horretan bizi diran lagun zaharrenei itandu deutset eta andra Fabik eta Elisabetek esanikoaz, bat datoz.

Behartsu antzeko familia izan zan. Antzeko dinot, eztabadako berbak entzun ditudalako auzokoen artean. Aitak aldi baten hortik hemendik dirua eroaten eban etxera. Ama, irakaslea izan zan. Senarra bizi ebanean eta alargunduta gero, be bai. Andra Adelaida zan haren izena, eta preminaz eta abarrez, haizi eta hezi zituan bere seme alabak.

Hau, guztiek esan deuste; zera, diru ugaritasunik —ezta urrik emon be— egundo be, ezagutu bako sendia izan zala. Horraitino, etxeokoeurek erdi esaten ebenez, aitaren laneko irabaziz bizi zirala; eta amaren eskolako irabaziak, horreek ikuturik be egin barik, zeharo gorde egiten zituela. Aurrezkoa izaten ebela, atzeramardoa. Modu horretan, diru pilotxua zertu ebela. Auzoek hori entzun bai, baina katanarrua nahikoa zimela izango zala, sinesten eben.

Ama alargundu eta handik urteetara zahartzen hasi zanean, orduan hasi ziran kontuak eta esturak be. Hilero etxeratu ohi eban diru ez hain mardoa be, mehetu egingo zan.

Umeak hazita eta berrazita be, ba egozan arren, koko ta inuskak ete ziran zan hurkoben ustea. Amak, eta hori sarri eukan aho-mihinetan, bere umeak eskulanetan eta munduko jente arront eta edozelakoagaz nahastauterik ez eben inoiz gura izan. Hezkuntza fina, moduak be halakoxeak; munduan jente zarpatsu eta trauskila ugari egoalako.

Umeok ezetariko mizkeriarik bage hazita egozan, ase ta beterik inoiz egiteke. Berez halakoak ziralako eta koipe askoko jatekorik gorputzeratzen ez ebelako edo, eurek be ez euken gorputzetan koipe handirik. Ebakuntzaren bat egitea, zoritxarrez gerta izan balitzakioe, zirujanuek mamin eta koipe banaketan ez eukeen asti handirik emongo. Ebakuntzea, alde horretarik, egite laburra izan eitekean.

Ume makal eta kolorgak ziran, neska bi eta mutil bi. Semeei, bieie estudio luzeak emotea izan zan amaren asmoa. Alabak be, eskoladunak izango ziran. Hoba ez, ama irakaslea izanda! Horraitino mutiletarik bat, batxilerra amaitu eta urte haretan hil zan. Gaixo laburra izan eban. Ez jakin zer.

Horrelan, mutil bakarra geratu eta ikastuna gertatu eta lehenengo ilasketa batzuk egin zituan eta jarraian beste erakoak. Ama eta arrebak sinestu ezinik egozan euren Gustabinegaz. Gure Gustabin gora, gure Gustabin behera, kalean eta alboko kaleetan be, mutil horren izen txikarra entzutetsu bihurtu zan. Lotsorrak ziraneko famea eben arren, Gustabok neskato eder bati errekadua egin ei eutsan. Laster errez irabazten hasiko zala, eta hortik hemendik. Neskatoa argitasunak jakin guran, mutila bizi zan eskilaretako auzoakaz be, ezagupidea eta hartuemonan zertzen hasita egoanean, mutila erdi elbarritua geratu zan. Beso bat eta anka bat erdi gogortu egin jakozan. Hainbat denporan etxetik be urten barik egon zan.

Andra Adelaidak gure Jaunari eskeini eutsan etorri jakon elorria. Argiro ikusi eban bere seme Tabin —lehenago Gustabin— etxetik kanpora lanik egiteko gauza izango ez zana. Eta etxean be ez. Aseguru txikar bat egin eutsan eta amari izentatuko eutsen erretiroko dirua, amaren faltan, Tabinentzako izango. Alabentzat, lehen gorderiko diruez baloreak erosi; eta dote antzeko izango eben.

Dote eta aseguru, ama gaixo harek ez eban bere seme-alabetarik bata be ezkondata ikusteko zoririk izan.

Urte pare bat etxean egin eta gerogarrenean Tabin kalera urteten hasi zan. Lehen morroskoa ez ba zan, harrezkero ezain eta moldakatxa izan zan Tabin gizajoa. Lehenengotan behean bizi zan gizonak eroaten eban besondotik. Zerbait sendotu, ostera, eta gero, arrebek etxeko mailetan behera jaisten laguntzen eutsoen arren, kalean bakarrik ibiltea gustatzen jakon. Eta ibili egiten zan.

Gorputza astun eta baldar, baina burua nahikoa argi, batez be gomutea. Entzuten ebana ez jakon ahaztuko. Horrelan dirurik ezagaitik egunerokorik erosten ez eben arren, eguneroko barriak eta albistak, uriko zein urruneko, etxera eroaten eutsezan amari ta arrebei. Eguraldi ona zanean, hutsik barik kalera, eta eguneko gorabeherak jakin. Egural-

di txarra zanean, eta jarraikoa, hurrengo urteieran kontu mordoan lortzen eban bere aldrako berbaldunakandik. Tabin agirian ez egoanean, haregaitik hau, hori ta bestea zitzipitzika jardun arren, aurrean egoanean begiramenez hartzen eban. Panparroikeriak esaten zituanean hainbeste-ko zerik jasan ezin, eta holakoetan adarra jotzen eutsoen.

Arreben aburuz, Tabin liburu lodia zan. Hau zer zan, hori zelan ete zan... hor egoan Tabin. Eguraldi txarra egoanetan, kaleko ta parkeko aldrako lagunak, asperturik egoten ei ziran. Arreben teoriak ziran honeek.

Adiskideen agora edo guzurmendi haretan bere egitekoa eukan. Estudioak egin zituan eta burua bete beterik eukana zan. Jasoten zituan albistak zabaltzko, emisora ona eukan. Berbeta ugarikoa, gaitasuna eban barriketaldi luzeetan jarduteko.

Alaba nagusiak pianoa jotzen be ikasi eban, norabaiteko mugaraino. Ez gauza handirik. Auzoek ekien hori. Izan be, neguko domeketan, arratsaldean, izaten eban bere asteroko jotaldia. Pianista berezia zala be, esaten eban asko aituten ez ebenek. Hauxe esan gura izaten eban: hasieran ez zituala beste pianu jotzaile batzuek jotzen zituen astun ta zoli, beheko ta goiko, edota gora ta beheko auresku luzeak edo eskalak. Ostera, soinu gozoak eta bigunak jotzen zituala. Sonata, polonesak eta horrelakoak izan ziran.

Etxe haretako lau lagunek bakotxak bere aginpidea eukan kalean ibiltetari egokionez. Ama bakarrik ibiltzen zan, Tabin bakarrik ibiltzen zan, eta alaba biak be, bakarrean, inoiz be ez alkarregaz.

— Independentismo garbikoak, e? —zertu neutsan Dobarani, zer-bait esateko eretia zala uste izan nebanean. Mututurik geratuko ete nintzan bildurrak jo ninduan eta. Dobaran hasten zanean gogorra zan, itzela, kontu kontatzen. Baina bere barruko batzuk, ixilik. Horraitino niri neuri promesa egin eustanez, haregaz ondo jarraitzea erabagita nengoan. Bestalde, gizon atsegina zan, eta atsegin jatan. Baina, inoiz-ka...

— Horixe ba! —zertu eustan Dobaraken—. Neu be lauren jokera bakan eta bardin horri ohartu natxakon, hain zuzen be, beti bakarrik dabiltzanek mamutzat daukadazalako; fantasmatzat. Ba... lau gizajo hareek hil ziran —gero esango deusut zehaztasunez— eta horregaitik, auzo izan ziranakaz nasai berba egin ahal izan dot neuk jakitearren, eta Elisabeteri-ta be, zertzelada ugariagoak emon ahal izateko.

Beste zuriko bana eskatu genduan, autua luze joiala ta.

— Ta hauxe da kontua. Hareetariko bakotxak bere mundua eukala. Guztiak ziran ameserrikoak, agiri danez. Ez ziran hemen bizi izatekoak. Eta ama zaharrik hil zan baina, besteek ez ziran zahartzaro atadira be heldu.

— Sendi osoa ezereztu —ganeratu neban.

— Bai, Jon. Nireak be, nire senideak be, nundik nora aldegin dabe. Gure abizena be, amaitu egingo da, gure adarrekoa behintzat. Inguruotan gururik inor be ez! Itzela da, gero!

Hori esan eta Dobaranen begiak busti busti ikusi nituan.

— Horraitino, Dobaran, laurak batean ez doguz zeure edo geure kontaketa honetan hilgo. Zeure kontuak gorde egiten deustazuz, baina dakarstazuzanak, txik jakingarri izaten jataz. Ta egunen baten idatzi egingo ditut.

— A! bizardoa! —esango deusut gura aitak esaten ekian lez—; konke gero zeuk idazteko gura zeunkez nire memoriak, e?

— Esan deusudanaz ez zaitetz harritu. Bapere ez, ganera. Entzun eta entzun egoten diranak, gero beste batzuei kontatzeko ikasten ahalegin egiten dabe. Ez al da egia? Besteek jakin dagien azaltzen dira gauzak eta jazoeretako gorabeherak. Ez al da egia? Lehengo baten han urian, harako petrolerokoaren istorio latza, harek berak gorderik eukana pasadioa zala autortu eban, baina norbaitek jakin behar ebala ta, geroetan be, beste batzuk halako gogorkerietaz jabetu eitezana idaztea be, komeni zala aldarrikatu eban. Ez al da egia?

— Kontxo! Oraintxe esan dok egia! Elisabetek be, bere amaren kontuak jakin gura leukezala ta, amari galde ta galde egiten eutsala —zoratu eragiten deust, Dobaran, gure alaba honek, nire... ez dakit zer... nobelaren baten antzera kontatu gura leukela ta— haren etxean jakin nebanak zuk esanbarri deustazunagaz antzekotasuna dau. Unadetan ni neu be tenteldu egiten naz. Jakin dagizuzan, eta besteek be zure bitartez beste hainbestean jakitun izan daitezana ni kontu esaten ibili, eta gero... kontuz nire ezer idatzi! agiraka egin deusut. Parkatu, Jon. Euskaldunak lehen be, lotsorrek eta atzereak izan gara geure gertaerak, pasadioak eta geuk eginikoak idazteko. Gaztelako erregen sekretarioak geure herriko hainbat gizon izan, hurrengorik hurrengo izan be, ta azkenean, «errementariarenean, zotza burduntzi».

— Batzuetan ume umeak gareana be, uste izaten dot.

— Lar umeak, Jon. Hain umeak, umezarotik urten baizen laster, barriro be umetu egiten garean ezkerro.

— Lastoak laga, eta gari garaoak batu. Ekin ba, Dobaran Tabindarren zerari.

— Sabindarrak esan ete dozu? Zetara dakarzu orain...

— Zuhur belarriak, Dobaran. Tabindarrak esan dot eta.

— Bai ze... Tira ba; ekin degiogun geure harilari. Andra Adelaida hori, urte luzeetan irakasten jarduna izan zan eta, ikasle ezagun ugari bildu eban. Ikasleok, batez be dendari ziranez, salgei eukezan gauzatarik, merkeago saltzen eutsuezan, eta horretara, horra nundik aurrezki modu barria lortzen eban. Amak ikasleen aurrean Don Gustabo tratamantua emoten eutsan bere semeari. Eta parkeko barriketako lagunek be, don Gustabo. Ama zahartu eta etxean lagun bi agintari geratu. Nortzuk? Semea, Tabin, eta alaba zaharrena. Alaba gaztena, besteen menpeko. Ama zaharkitzat etsi eben ainean —nahiz eta kalean doña Adelaida izenez beti aitatu—, alaba gaztena, umetzat euken. Eta ganera, buruko garunak bigundu egin jakozala ta, unada baten alaba txikien hori, osatetxean euki eben.

Ama hil zan. Alaba txikia barriro etxera eben. Tabin be harik lasterrean joan zan mundu honetarik. Izan be, ama hondatu zanetik gorakoan, etxe haretan lehen baino gose handiago. Auzokoen berbak dituzu. Erretolika guzti hau, emen batu dot. Horraitino, Elisabetek-eta han azaldu eustezan gauza batzuk tartekotuko ditut orain.

Bakarrik ibilten zale ziran senitarteko horreek, haunditasun haizea euken beti buruan. Elisabeten ahoz jarraitu nei.

Elisabete behinola Andra Adelaidarenera joan zan. Ez, ez; oker nago. Elisabete barik, haran ama, andra Fabi zan jazoera honetako inor. Etxe haretara heldu, eta

— Ama, Fabi anderatxua dago hemen.

— Sar dadila honaino— ama Adelaidak barrutik.

Fabik bisitea lar luzea izan ez zedin, eskuan eroian erregalua behingoan jarten eban agiri agiri, handik berehalakoan aldegin guran. Lehenengoan egin eban hori, eta hurrengo bisita guztietan be, jokamodu artezeta zala uste izan eban. Alperrik izango zan han priesarik agertzea. Inor ez jaken etxera joaten, eta joianak, hangoen bedeinkazinoa hartu behar eta luzapena egoera aspergarrian.

— Ai, baina zuen ama andra Madalen hain eskuzabal izatetik datoz zuon erregaluok. Jesarri zaitez, kontu luzeak esan behar ditugu ta. Hain eskuzabal izatetik, erregular. Bada... guk geuk inoiz ez inoiz ezeren preminarik izan ez dogulako. Jateko nahiz edateko nahiz jazteko nahiz errediza nahiz liburu nahiz... Zer ez dogu euki eta daukagu geure etxean!

Adelaidaren alabak be orduan euren mututasuna hausten eben. Eta Elisabetek behin eta barriro esanikoak ditut gomutan; arean be, esaldiok beti bardinak edo antz antzekoak izaten ziralako.

— Gaur, lau platereko daukaguz bazkaltzeko—, zaharrenak.

— Gaur lau? Ez —alaba txikarrak—. Boskarrena ahaztu egin ete jatzu?

— Zein? —Fabik ohiturazko itaunez.

— Makilaua —alaba biek batean.

— Entzun, Fabi. Etxean, gurean, inor be ez gara makilau zale —azaldu eutsan alaba zaharrenak—; baina etxeko ohiturea dogu. Lurralde honetan ekandu handiko janaria da ta, lau platereko maneatu arren, boskarrena be, beti. Makilaua, hain zuzen.

Eta alaba txikarrak azalpena zabalagotu.

— Bai, Fabi. Makilaua... egunero gertu, egunero mahaira ekarri, egunero inork be jaramonik egin ez, eta egunero sukaldera, ikuturik egin barik. Katuek ba dakie hori, eta zoriontsu bizi dira. Batek be ez deusku egundo etxetik ihes egin. Hori bai, katuek ok egin ondoren, inoiz inoiz etxerako edo auzoko behartsuei eroaten daki.

— Baina, prestau...

— Prestau... egunero. Jai egunetan izan ezik.

Hori behin eta barriro entzun, eta Fabi gaztetan, eta geroetan Elisabete haren alabea geroagoko agerraldietan, gert gert egoten ziran

atzamar azkarra ahoan sartu eta putz itxurak egiteko, halako guzur mandoa iruntsi gura ez ebela ta.

Harropuzkeriak beste isurkirik be, ba eban. Fabik ixilik egon behar, entzun eta entzun. Ez jakon ahoan eulirik sartuko.

— Gure neba Tabin kalera joan da. Pena galanta izango dau zu hona etorri zareala jakin dagianean; arean, bera hemen ez egona.

— Eguraldi ona izan ezkerro, ha ez da etxean egotekoa. Agudo parkera.

— Izan be, haren aldrakoak lupuak joten ditu Tabin euren artera agertzen ez jakenean.

— Gogait egiten dabe. Alkarri begitu eta arrausika...

— Txarra danean, batzuetan eleizara be joaten da.

— Edo Museora.

— Edo biblioteketara.

— Baina liburuak zelan...? —itandu behinola Fabik.

Erdi ito eben aizta bien artean, berba ta berba.

— Tabin ikusi... eta liburutegi nagusiko lehenengo ofiziala joaten jako albora, eskuarteko zereginak lagata. Gure nebea guztiz ezaguna da edonun.

— Eta haren jakituria.

— Museoko artezkariak agindurik daukotse bere menpekoei. Don Gustabo atean sartzen danaz batera, berari, artezkariari mezu egiteko.

— Halako gizon argirik Museora noizean behin baino agertzen ez dalako.

— Alkate egin gura izan eben.

— Eta beste behin, gobernadore.

— Hemengo Banco de Españako zuzendariak dudarik ebanean, Tabini ordenantzea etxera, paperak ekarteko; gure nebeak ikertu eta korapiloen erabagia argitu egion.

— Edo beribilean eroan don Gustabo, Banku haretaraino.

— Gaisoak jo ez baleu...

— Madrilen edo Parisen edo Londresen egon izango ginan gu.

— Eta orain... —itandu eban Fabik, hainbestean bete ebelako.

— Orain... jente barria dago karguetan.

Eskerrak halakoren baten andra Adelaidak autua eteten ebana.

— Fabitxu... amari boteilatxua eroango deutzazu. Tomatea da, udaro egiten doguna. Urte osorako izaten dogu. Urteetan egiten dogun etxelana da.

— Amak kiloak eta kiloak ekarten ditu.

— Kintalak be bai.

— Bai horixe! Eta sekula galdu ez dan zera dozu, Fabi.

— Boteilak be, ez jakuz inoiz galdu.

— Orain berrogei urteko boteilak dira.

— Txorkoak ez. Txorkoak amak barrizatzen ditu. Ia urtero.

— Barruan azido berezia sartzen deutse amak.

— Botikarioak tomate errezetea urtero eskatzen deutso gure amari.

- Eta duban emoten deutso.
- Urtero, e?
- Bai, ba. Urtero galtzen jako ta.
- Errezetea? —Fabik bildurraren handiz.
- Errezetea. Eta boteilako tomatea be bai.
- Jakin egin behar da.
- Karrerakoek baino gehiago daki gure amak.

Eta Fabi, buruko tximetaraino egoala etxera bihurtzen zanean, bere ama andra Madaleni erretolika osoa berresan behar.

— Amaaa...! Ez naiz inoiz gehiago andra Adelaidarenera joango. Ha da alamena, ha gogaitaldia! Buruko zorabioa egin behar. Beti kalaka, beti ardaila.

— Hareek tradizinokoak ditugu. Begiramena zor deutsezu, senitar-teko urruneko izateaz ganera. Zera, Don Gustabo etxean...

— Ez, ez. Zorionez, ez da Tabin etxean gerta. Amurrua emoten deust hara erregaluakaz joan beharra, han zoroen berbak entzun beharra, handik tomate boteilea ekarri beharra.

— Ea, ba. Gu sarritan esturaz eta hareek... ez ditu olatu barriak itoko.

— Ez, estresak ez ditu erreko. Josueren antzera, eguzkia be, bere bidean geratu egiten dabelako.

Eta... Tabin be hil zan. Fabi joan ei zan, halan beharrez atsekabea agertzen eta gorpua ikusteke kalera urtengo ebalaa sinesturik. Ezta! Tabinen arreba zaharrenak Tabin gorpu egoan gelara eroan eban, eta hantxe egoteko agindu, harik eta hiletetako gizonak atabuta ekarri, gorpua jantzi eta hilkutxa horretan sartu eben arte... Fabi bakarrik, han, etxeko beste inor ez egoanean. Lehenengo Tabin eta bera; geroago gizonak be bai.

Harrezkero ez ziran azaldu etxe haretara ez Fabi, ez Elisabete. Alaba zaharrena be hil zan. Eta gaztena bakarrik lotu zanean, bizi ezinik jasan eben bizitzaldia amaitu jakenean, alaba gaztenak, besteen ondasunak beregandu zituanean, orduan be, begiratu eta begiratu, eta harik laster hil zanean, behartsuei dirua laga eutsen.

— Gitxi euki, eta lar gerta! Guzurrezko ipuina dirudi.

— Baina egia da jazoriko hori, Jon. Ba dira horrelakoak.

IBAIETARA osterea egin ondoren urira bihurtu, eta Izar hotelean nengoala Oibarrek mezua emon eustan afalorduan.

Bisitea geunkala egiteko. Nik be bai? Nik ez neukan Dobaranegaz batean egiteko bisitarik.

Afalostean te-aretorra nintzan eta zerbait eskatu eta edan neban. Arrratsalde haretan Tabindarren jazoerak eta esan bakanak idazteko notak ordenatzen jardun neban. Azken egunetara heltzen ninoian. Laster, lanera; lan hori behin behinekoz nun izango neban ziur ez nenkiala nengoan. Zerbait iradoki eusten nire ugazabek. Dana ez.

Eta urian be...

Urian be, ba nituan eta ez nituan... neure edo erdi neure ziran zerak.

Dobaran barrero nire burura, eta urira emakumeak ezagutzeko etorri nintzala, uka ezineko egia bihurtzeko unera heldu hurren nintzan.

Uria, emakumeen lorategia ete zan. Arean, saiakeraren bat egiteko gaia izango ete neban. Izadia garbi neure inguru izango nebalakoan, izadi soila eta etxea eta ohea egoteko ta atsedean egiteko; Ibaietako buruhauste ta korapiloen ihesi eta osasuna sendatzeko asmoz etorri eta...

Hemen emakume bat ezagutu, eta begiko izan...

Beste batek maite nauala niri adierazo...

Eta Dobaranek, eta beste batzuek hiri-lau bidar aitatu deusten Eisabete, Tabinen senitarte urrunekoa, Tabin erdi...

Arau orokorrezko dan mundu teoriko honetan, bakanak eta bereziak ez dira hain bakan.

Polisenek lehenengo eguna eta gaua azaldu eustazan, eta biharamona. Hiru urteko eremu bizitza, zetarako jakin gura nik?

Emakumeak... bizitzako mitxeletatxuak.

Te-aretoan telebisinoa ikusten aspertu arte egon, eta neure gelaruntz abiatu nintzan. Gora, ta ohera. Bakartade betea, loturarik bakoa, eder da batzuetan. Gure osaba mutil zaharraren doktrinea ei zan.

Gaueko hamabiak ganean ziranean, pasiloan neure eskuturreko erlojuari begira nengoanean, nire atzetik norbait etorrela susmatu neban. Nire urratsak baino azkarragoak harenak. Nigandik hurre goanean bira egin neban, nor ete zan, baina jakingura handirik bage.

Besoan izarak ekarzala, Miren Oibar zan.

— Uranga jauna, izarak aldatzea atzeratu, eta oraintxe dihardugu horretan. Egia esan, ohea eginda egon behar zan baina... izar bat gitxiago dabela eta bila joan naz.

Nire gelako atea edegita egoan. Biok batera sartu ginan. Han ez egoan besterik inor. Ohea erdi ganora barik egoanez, Oibarrek neure aurrean, mantak eta izarak kendu eta aulki ganean laga zituan. Nire koltxoiari harek egin eutsazan astinaldiak eta eraginak!

— Lagun batek lo egin, eta koltxoa honenbeste kiribildu eta tokortu —esan eban begi berde ederrak zituan Mirenek, etxekandrea baillitzan, agiraka antzean edo.

— Inogaz lo egin dodala uste al dozu?

— ...

— Koltxoa da mehe samarra, makala, merkea seguru asko. Nik barriz, batera ta besterakoak azkar egiten eta ohea harrotu barik, kiribildu, ezta?

— ...

— Bakarrik lo egitea, gauzarik ederrena.

— Zelan dakizu?

— A! Soldautzan be, maniobretan, beste bategaz manta berberaren azpian lo egitea gertatu jat.

— ...

— Horregaitik dakit.

Koltxoia astiro bere zerera ipini ebanean, beheko izarea zabaltzen hasi zan.

— Hor alperreria begira egon barik, apur bat lagundu edo... egun osoan lanik egin ez dauanak, egun osoan lan egin dauanari?

Itaune luze samarra zala adierazo neutsan Oibarri. Halan be, ha ohearen alde baten, ni bestean, beheko izarea alboetan sartu eta polito hedaturik laga genduan. Goiko izarea be, zertu genduan. Eta mantea ta ganekoa.

Kendu zituan izarak, lurrean egozanak jaso, beso baten moltzotuta hartu eta nire gelatik behingoan aldegingo ebala Oibarrék nik susmatu.

Gelako ateak edegita zirauan.

— Nik ez zaitut hemendik jaurtiten, e, Miren?

— Eta zuk nun lo egingo zeunke?

— Alfonbra ganean.

— Ez da egia.

— Ez?

— Umeeek ama dagoan ohera sartu gura izaten dabe.

— Eta gizonak...

— Emakumea dagoanera.

— Zelan dakizu?

— Entzunda.

— Beraz, lotara zoaz.

— Zoazana, uritik zoazana zeu ei zara. Atsekaberik?

— Etorrea, pozgarri da gehienbat. Joatea...

— Urrunera ez zoaz, horraitino. Zorrak be izaten dira. Agindua zorra dala esaten dabe ta.

— Agindua...

— Gauren baten zinera eroango ninduzula ez al zenduan...

— Baaai; bai, noski.

— Noskirik ez hemen. Bihar iluntzean aske egongo naz. Bihar eta etzi, zinetxu bi... zorraren erreditu bailirean.

Eskutik oratu neutsan. Bero beroa eukan. Atzeruntz egin harek eta eskua aske geratu jakon.

— Ezin neizu ikuturik be...

— Ez zara inor... nirekiko.

Ate aurrean jarri nintzan, hari handik urtetea galerazoz.

— Bihar... zinera. Hortxe amaitzen da nire zorra,

— Hori... gero...

Alkarri begirada luzea eta ixila, gelako urteierea libre itxi neutsan eta Miren Oibar, besada izarez ba joian. Atzetik joateko imintzioa egiten hasi ni, eta harek esku barrua belarrondoan ipini eta lotara joan nendila adierazo eustan. Tente eta lirain joan zan pasiloan zehar.

Lo gozoa izan neban gau hafetan.

Ohearen txera epela, gozatsua, neure adiskiderik handiena baili-

tzan estimadu neban gau haretan. Gizon batek eta emakume batek hain artez, hain astiro, halako batasunez atunduriko ohean, zegaitik ez dabe senar-emazteek... zegaitik alperrik galtzen ditue bizitzaldiko une mese-degarri eta zorion ekarle diranak?

Maitetasuna ez da haragi hutsa. Haragia ez da maitetasuna, besterik bage.

Zer da maitetasuna, Miren Oibar?

Bazkari handia egin ondoren ete gara zoriontsuago?

Maitea besartean dogunean, ala besartean izan baino lehen?

Eta askatasuna ala maitetasuna, zein ete da ederrago? Zein guragarriago?

DOBARAN jaunak egin eustan eskaria beteteko eguna dot. Bisitea egin behar ei dogu. Zenbakarrena? Ni barik ezin berak egin? Bakarrera-ko detuaren ihesi ete dabil, bakarrik ibiltea, edonoiz be, ongarri ez dalako?

Horraitino...

— Egunon, Jon. Ona izango dala eguna uste dot. Andra Fabi ikusiko dogu. Elisabete ezagutuko dozu. Eta Balbi, arean.

— Elisabete?...

— Bai, Jon. Ames hutsa zalakoan ete zengozan? Elisabete... eta Fabi, jakina.

Bidean ginoiazala, kalean egoan automobil sail eskerga artean, alkateordearen emaztea aitatu eban Dobaranek.

— Ez da emakume... besterik ez lakoa. Ba dira hemen ederragoak, Jon. Oстера... nik...

Ez neutsala ulertzen, adierazo neutsan. Emakume jasekoa, baina... Andra ezkondua, txarto bizi ez dana, eskuartez ondo, senar langilea, arduratsua... etxe egokia, neskame ta guzti, eta abar.

Baietz erantzun eustan.

Guzti horreek gertatzen zirala, baina, senar zaharragoaren ikusian emakume gaztea, begikoa, artean ezkongai egoan neskatilea zirudiana... Ondorengorik be...

— Ezkongai bailitzan, dinozu?

— Bai, horrelako zerbait. Emakume... egin bakoa. Hobeto esan gizon helduaren emazte heldu bakoa.

Dobaranen esanok barruan ziri egin eusten. Artega jarri ninduen. Dobaranen irudipenaz eta ikuspegiak sakonago jabetu beharra izango nebala.

— Ameriketako emakumeak ziur asko zure inguru ibili diranak hainbat izanik, harrigarria da zuk, oraindino be, berezitasuna idorotea. Haren bila ete zabiltz?

— Poliseneren bila? —esan eustan arbin, esturaz—. Ez, ez, ez.

— Susmoren bat ete dozun, oharkizun hori zerk eragin ete deutsun, gogo analisi hori nundik edo zetatik darabiltzun...

— Ordu ezegokian atara dot autu hau. Laga egiozu arazo horri.

Laga, Uranga. Eta orain nogana goazan labur zurrian azalduko deusut. Andra Fabigana joateko mezua, han Colombian geratu zan batek emona dot. Aintzina joan zan haruntz eta ez da harrezkero hona bihurtu. Euskaldun asko da horrelakorik. Urrunera joan, eta betiko. Nik, neure zori onerako, ostera hau egiteko eretia izan dot, eta ezin laga. Pozarren nabil hemen. Ba, holakoetan, datorrenari han ezagunek mezu, errekadu eta goraintziak eurrez emoten deusoez. Senide, senitarteko, adiskide haundi. Eta gaurko hau be, horixe da. Ez noa ni lehenengoz andra Fabinera. Zu, bai. Andra Fabi urteek menperatu dabe. Egunerik egunera jausiago aurkitu izan dot.

Etxeko atea neskatile batek edegi euskun. Etxe iluna zirudian, egoeraz, leiho txikiz edo.

— Ni, Dobaran barriro be, Kandido Landaberen emaztea ta seme-alabak ikusi guran.

Areto txiker batera eroan ginduzan neskatile harek.

Han erdi ilunetan egoan andra Fabi. Alboan...

— Ama, hona hemen ostera be Dobaran jauna, Boniren izenean beste batzuetan be, etorri jakuna.

— E? —erdi intziri, erdi negar egin eban Fabik—. Boni... bizi al da?

— Ba dakizu bizi dana, ama. Lehengoan be etorri jakun eta...

— Orain lagunagaz nator, halan... Jon dau honek izena. Jon, hauxe dozu Elisabete. Hori ama dana, entzun dozu. Eta nebea?

— E...! E...! intziri egin eban barriro Fabik.

— Baretu zaitetz, ama. Senide zaharren izena entzuteak halako zera egiten deusio barruan gure amari. Osaba Boni... gomutan izaten dogu izen hori.

Amari igurtzi leunak egin ostean Elisabete niganatu eta bostekoa emon geuntsan alkarri. Eskuak askatu eta begira ta begira egon jatan Eli. Neuk be, begiratu neutsan; eta biok ixilik.

— Nun bizi da... Boni? —amak itaunea.

— Ba dakizu, ama. Ameriketako Colombian. Ba dakizuz haren kontuak. Jesarri zaitetze, jesarri.

— Ai, baina barriro entzun gura nik.

— Andra Fabi, Bonik urteak ditu eta osasunez makal ha bera be. Haren esaerak! Ez dauko ahazturik ezer be, esango neuke. Hemengo gauzak, gure Herria, hemengook. Anai Kandido hil zala, baina Fabi, Fabi... Eta seme-alabak, Balbi eta Elisabete, arpegiz ezagutzen ez dituan arren.

Fabik une haretan arpegia eskuakaz estaldu eban. Gero buruko uleak orraztu guran edo, eskuak goruntz jasoten zituan, baina jarraian beheruntz, eta arpegia estaldu.

Atzamarren zirrikituetatik niri begira egoala susmatu neban. Amak ezezik alabeak be, bere begiak sarri zituan niganuntz. Ezezaguna nintzan eta...

— Haren bizimodua ez da txarra orain. Lanak erdi laga zituan.

Harek be, nire antzean, mila modutako zereginak, gaur hau, bihar ori; atzo han, hurrengoan bestean... Ameriketako beharmodu aldakorretan.

Berbok esan eta Dobaranek eskuan eroan eban maletaxua edegi eban. Han eta hor, hainbat lekutan errekadua egiteko euki, baina azkenean be, berandutxuago izan arren, ekartsoezan gauzak hantxe agertuko eta emongo.

Fabirentzat Boni beraren argazkia, marko ta guztikoa. Mutilarentzat, dolar mordotxua. Elirentzat be dirua, baina eskuturrean ipinteko urrezko erlojua eta dirdiz egiten eban erastun ederra.

— Hau, hasierea besterik ez da. Eli, amak ez dau ondo zertuko, baina jakin egizue ondasunak be lagako deutsuezala. Batu ditu; eta polito.

Fabik Boniren erretratua eskuetan hartu eta negarrari emon eutsan, benetan emon be. Elisabetek sorbaldak jasoten zituan eta eskuak zabaltzen.

— Gomuta zaharren eragina! —esan neban, arean mozoloaren antzera ixilik egon nintzan honek.

— Bai, Jon. —erantzun eustan murriz Dobanarek.

Berba murriz horrek zart egin eustan barruan. Nire gomutako lurra saratu eustazan. Harrotu. Jorratu.

Fabiri malkoak alabeak lehortu, eta gero, bareago, Boni bere koinatuaren irudiari begira ikusten neban.

— Oraintsukoa baino lehenagokoa da irudi hori —argitu eban nire lagunak—. Eta, nun ipiniko dozue? Hau jakin ezkeru, noanean esango neuskio, eta Boni, pozago, arean be.

— Kandidorenaren alboan edo —zertu eban amak—. Anaiak ziran, txikitari beti alkarregaz; eta orain be...

Elisabetek ez eban eretxi bardina. Halan be, esku —erakutsiek atsegina emon eutsoelako, eta oharkabe jarri, lekuari buruz eztabadan hasteko gogorik ez eban azaldu. Erdiko bidea hautatu eban; orduan han ez egoan Balbik erabagi egiala osabearen kuadru barria nun ezarri.

Une haretan Elisabetek eukan laurkia bere eskuetan. Dobaranek irudiari eta han gengozan beste hiruroi begirakune luzeak. Amak Elisabeteri eta niri txandaka begiratzen euskun. Bapatean negarrez hasi zan osteria be.

— Ama koitadua! Ezer be ezak bigunduten dau. Aita baizen sarri dau aho-mihinean osaba Boni—, esan eban Elik.

— Egoera jauskorra, minbera, antza —esan neutsan belarrira Dobarani—. Gomuta zaharren batzuk andra Fabik.

— Bai, ama Fabik —Dobaranen erantzun urria.

— Osaba Boni, gure amaren esatez, gizon atsegina, txeratsua, ondo hazia. Gure eskerrona agertuko deutsazu hara heldu eta ikusten dozun unean berean—, agertu eban Elik.

Ez genduan etxe haretan egotea luzatu. Alkarri agurrak egin eta hurrengorarte esanez urten genduan Dobaranek eta nik.

Nire ez-jakinean kalean iruzkin egin neutsan nire lagunari, eta

senitarteko ez diranen artean alkarren antzekoak gerta ohi dirala. Zineko artisten antza guretar edozeinek, ustez, izan ohi dauan antzera.

— Oraintxe erdi ulertzen dot, Dobaran, harako «hiru marixen» ni ezagutu gurea edo. Elisabeteren arpegia ezagunarena egin jat eta... Irudien batetortea, halabeharrez, adurronez.

BIZIMODUA betiko antzean doa alkateordearen etxean.

Etxe horretako senar-emazteen barri unerik unera dot. Horraitino...

— Kotxea zaharkilduten hasi jat eta barria erosteko asmoak jo nau. Birritako aldiz marka bereko beribila izan dot baina, oraingoan aldatu edo. Entzun ete dozu, Poli?

— Hori etxeko jaunak erabagi lei, beste arazoen antzean.

— Ingurukoen aburua jakitea gustatzen jat, eta horregaitik nire galdera hau. Hor... ba dabiltz ibili hainbat Renault, Seat, Simca, Dodge,

— ...

— Kolorez urdin argi samarra dan kotxea edo... Horrelakoren bat ba dago urian. Kotxe arina ei da. Grisa edo.

— ...

— Zer deritxazu, Poli? Opelen bat ikusi izango zenduan.

— Mila markatakoak dabiltz orain edonun.

— Bai, baina Opel grisa.

— Gura dozuna.

— Ez dakizu, beraz, horrelako kotxerik..

— Ez dakit.

— Ez jakin, e? Ba nik gogoratu neizu kotxe ibilaldiren bat. Hori, gitxienez.

— Zuk ez dozu Opelik euki, nik dakidanez.

— Ez, nik ez. Baina beste norbaitek, bai.

— Salgei dagoz, eta edozeinek erosi leiz. Ezer esan gura deustazu, etxeko jauna?

— Ene! Niri neure izenez berba egiten ez al dakizu?

— Jakin dot. Baina, behar bada, alperrik.

— Ez deustut ulertzen.

— Neuk be ez zure berbeta ilunik. Iluntasunik nahikoa ez ete dogu izan orainarte? Kanean ezin ibili ete naiteke? Zein Opel aitatu dozu?

— Ibaietako mutil horren Opel gris taiukoa.

— Argi berba egizu eta alkarri ulertu gineio. Baina ezer esan gura badeustazu, esan egidazu.

Isasi jauna zeharo harrituta geratu da. Emaztearen horrelako berbeta modurik ez dau ezagutu. Munduak dakarzan aldapenak?

Neskamea dator pasiloan zehar kantari eta senar-emazteek alkarri begiratu deutse. Poliren arpegian irribarrerik ez.

Damianek jantokitik aldegin, eta bere langelara doa. Harik lasterreen, idazteko makinatxuaren zaratea. Mahaiko tresnak batzen diharduan artean, neskameak Poliri begiradak.

— Akeitik edango al dau jaunak?

— Ez dakit. Galdetu berari.

Berba lehorrok aditu ondoren, neskameak giro bakanaren susmoa hartu dau. Poli jesarlektik jagi eta leihoruntz doa, kalera begira jarteko. Neskameak bere kanta barria brastea urratu dau; abestiaren doinua eten egin da. Poli leiho aldetik barruruntz bihurtu danean, besaulki zabal bigunean jesarri da.

Etxekandrea begiak itxita dago, lo itxuran. Ez jakin lo egiteko asmorik dauan, ala inogaz berbarik egiteko gogorik ez. Burutasun hau izan dau neskatoak.

Jarraian, makinan idazten diharduanagana joan eta.

— Kaferik gura al dau, jauna?

Ez deutso jaramonik egin. Makinaz idazteari ekin deutso. Guzti hau Polisenek adierazo deust arratsalde erdian. Senarra lanera joan ondoren.

ARTEAN urian nengoan goiz baten Ibaietako nire abogaduari deitu nik telefonoz eta neukan arazorik larriena zetan zan. Edozelan be, harik hiru egunera agerraldia egingo neutsala uri handian.

Jagi, garbitu eta gosaldu. Goizetan hotelean ibili ohi zan emakume edadekoak emon eustan gosaria. Kaleratu eta korreo-etxera joan nintzan bidaiaria banandu orduko nitzat ezer ete egoan. Banaketak eginik zituen eta hotelerako ziran gutunak eta abarren artean begiratu, eta ezer be ez egoala nitzat.

Dobarangana joan nintzan. Bere arazoak —orduan ilunak nitzat— azalduten hasi jatan. Arean, txirrindularien egitasmoa, ekintzak eta abar. Orduan ez nengoan neure sen betean haren asmoak ulertu ahal izateko. Diru kontuan eragozpenen batzuk izan zituala, atzerritarra izan eta dirua zabaldu eta eraldi be, itxuran egiten ebala ta. Norbaiten salaketaren baten susmoz ebilen.

Baina gizartean loturak, lotura barriak eratzeko premia bizia egoala. Askatasuna gauza ederra zala, erantzun neutsan. Askatasuna, ostera, ez dala eguzkiaren antzera egunero goitik behera etorten. Orea legamitu eta laban erre ohi dan antzera, askatasuna eguneroko lanez lortzeko ezezik eukiteko, iraunean moldatzeko be, eguneroko ahalegiaren premia zala, jakinerazo eustan.

— Askatasunik emotea ez jako inori atsegin. Baina zaharrek askatasunaren alde lehen jokatu eben antzean, orain gazteek horretan jardun behar dabe. Gazteak alkarganatzea, asmo baten gazteek lan egiteko gert jartea, aspaldiko nire guraria dot, Jon. Bestela atzeratu gogorrak izango gara. Etorkizunerako landara barriak, mendu samurrak eratu behar guk.

Eztabaida bizkor honen ostean, Dobaranen izate osoaz anartean sakon jabetu ez nintzala orduantxe ni konturatu.

Hainbat bidar bere istorioa kontaktzen hasi izan jatala barrero be gomuterazo neutsan.

Eta ondorenez...

— Lehenengo hilabeteetan zelan halan irautea jasan ondoren, Ameriketaruntz joateko asmoak eta aukerak ziran gure buruetako asmo behinak. Gurari goiztarrak orduan, hurrengo urtean loratuko ziran. Aldi baten eskale antzean be, ibili ginan. Baina geure artean... of! panparro-keria ba genduan. Lurraldeën jabe ginala, etxauntzakoen antzekoak, bakotxak bere armarriak, tituluak eta abarrak genduzala, harako markesak, kondeak, baroiak eta... jantxakurrak nahaste-borraste nabarrean eratuten genduzan, ames hutsetako erretoliketan.

Eta horra! Halakoren baten ni be soltatu nintzan urez harandira joateko.

Goian zerua, behean itsasoa. Egundo helduko ez ginala be sinestuten hasi nintzan, eta Elkano ta lagunak bururatu jatazan. Guk, barriz, motorra eta makinak geunkazan, eta beraz gorputzeko lan nekatsu gogorrik ez. Jatorduetan tripada eta betealdi lar ez baina, osasunez jo genduan Hegoe Ameriketara. Paperak konpondu arte, Maracaibon egon ginan geldi. Gero hara horra banandu beharra izan genduan. Egun latzak, edozetara be. Esaera zaharrak, atzerrian lurra garratz... Jakina, kontu handiz hasi ginan gure bizimodua atonduten.

IZAR hotelean bazkaritan nire buruak biribilketa ugari izan dau. Ikuspegi lar goizean goizetik. Kaskarrean amaraunek euren sare finez nire garunak beteten hasi ete diran.

Miren Oibar, ostera, pozarren dabilela susmatu dot. Nigandik hain hurrean dagoan gazte honen burua eta nirea alkarrengandik urrun dagozala esango neuke. Halan be, gaur, ordu jakinean, inoiz baino luzeagoa izango da alkarregaz emongo dogun unea. Berbea berbea dala, eta zorra, zorra. Ba dira beste era bateko zorrak be. Zuritzeko modu egokirik gerta ez arren. Buztartuen zorra be, hor dago; edo egon behar izango leuke.

Mirenegaz atseginez joango naz zinera. Zelan ez ba, begiko jatan emakume txairoa izanik? Halan be, nahiago izango neukean Polisene-gaz aldi luze gozoan egon. Barregarria edo negargarria, baina ezina dot, dogu, oraingoz. Guzur antzeko benetak.

Bihar azkena, egun bakarra Poliri agur egiteko. Hara joango naz, uri handira, neure arazoetara, neure katibura. Nahiz eta katibuen aurka beti ibili, batetik urten, hurrengoan sartu. Poliren korapiloa latza da, estuegia da, arean. Gizon horren osasuna... Ezkontzea ezereztuteko biderik ba dau; bai, ba dau. Horixe egin behar izango dau. Zoratu baino lehen. Eta nik...

— Jon, gomutan izango dozu gero... iluntzean...

— Bai, Miren. Zorra, zor.

Bazkaria gozoagoa edo, gaur. Neskatila horrek hobe atondu ete deust ezarian?

Idazten dihardudanari berrikustaldia egin deustat mahaian bazkal-tzen dihardudan bitartean. Gai nagusiak... emakumeak. Horreen ihe-

sian ibilteko zirkin egin, eta bai zera! titidunak ugaritu nire inguruan. Han, hemen; hemen han baino...

— Lehenengoa seiretan da; goizetxu. Bigarrena, zortziretan. Hamarretan, kalean. Afarien hasierea, hamar ta erdiak arte. Bostetatik gora franku daukat, Jon.

— E? Ezer esan ete daustazu, O...

— Oibar.

— Hori zeu zara.

— Bai, ba. Izena nahastatu ez dagizun.

— Zera, Oibar, zazpirak aldean, eta handik gorakoan, «Liliaran»-en egongo naz... zure begira.

— Ondo da. Baina beste batzuen begira, ez, gero!

Arratsalde beranduan kafesnea edan dogu «Liliaran» edaritegian eta zineruntz joan gara.

— Zine artekoa hemen luze samarra da. Nun, atzean?

— Bai. Atzean begiak erosoago.

Atze samarreko lerroan jesarri gara. Zinealdia laster hasi da. Ahazturik neukan giroan nago; emakume ederra alboan, usain berezia daukan gonaduna. Ardi deslariaren antzean ibili nazan honek zinerako lagun begikoa. Joandako aldien gomuta samurra.

Lagun guztiak guri begira dagozala begitandu jat. Guzurra da. Ikusleak nasai dagoz. Mirenek alde guztietara begiratzen dau. Pozez dagoala sinesten dot.

Hasierearen iragarpena. Argiak moteltzen moteltzen, doinua jasoten. Italiar mintza da. Zakarrerria han hor; zirrikari uneoro. Barragarriak ikusleei barre karkaixak eraso.

— Jon, gustatzen jatzu?

— ... bai. Soinua be, ondo joten dabe.

— Lapur soinuariak dira, horretara ezkerro.

— Miren...

— Zer?

— Ixi, orain.

Atsedendian autua eten jat. Buruan argitasunik ez, esango neuskiona modu egokiz argitzeko. Larri aurkitzen nauala esan deust. Beragaz egoteko bapere gogorik ez ete dodan be, aitatu deust Mirenek.

— Egun arreak, grisak, nabarrak, ilunkarak batzuetan, Oibar; eta gaur, horretariko bat.

— Inoiz jakin ahal izango dot zure bitasun hau?

— Egunen baten ulertuko deustazu. Orain, ez jat errez, ez azaldu-tea, ez erabagitea.

— Ea harako kuadru erakusketan lagun izan zenduanaz, zetan zara?

— Zetan? Ha bera, ba dakizu, lotuta dago.

— Eta zu?

— Ni... bakarrik bizi naz, txoria baizen aske. Oibar, pelikulea zelan amaituko dan ba ete...

— Orain arte ikusi dodanez, ba dot susmoa. Hori, hor aurrean dabilen hori, baztertua izango da.

—Ez dot uste.

— Bai, ikusiko dozu.

Izan be, harek esan dauan antzera jazo da atzenaldian.

— Neskatila argia, e? —esan deusat erdi barre, erdi gogo onez.

— Argia... Han mahaiganean dagoan kuaderno lodian, zer idazten dozu?

— Neure burutasunak, ipuinak, pasadioak. Zegaitik?

— Ez, han azalaren ondoan paper zuri estu baten izen batzuk ikusi...

— Eta irakurri zuk, ezta? Ausarta zara.

— Ez naz ausarta, Jon. Ba, horrelakoa banintz...

— Ez; egia da. Gurbila zara, begiramenekoa. Baina... —eta hau, irribarreka zertu deusat— izenak ikusi eta irakurri ez... emakume batek? Tira, tira! Esan egidazuz izenok.

— Arinkeria parkatzen al deustazu?

— Bai.

— Izenak... Lehenengoa irakurgatxa da. Idatzia dago baina tipp-ex bitartez ezabatua. Gero... Miren, eta taketartean (O.). Hurrengo, haren azpian, Isene. Nik hau itanduko, Pol aurretik jarri ezker? Ikusten? Eta beherago, tinta bestelakoz Isabete. Hasieran El jarri ezker? A! Dobarani entzun neutsan lehenagokoa Elisabetenean egon zala. Edo egongo zineela. Ez dakit.

— Bai. Dobaranek sendi horrentzako mezua ekarri dau.

— Elisabete ezagutzen dot. Hori ete da Isabete hori? Zelako zeure antzerea harek! Nik barriz, Lizen antzeko begiak ete ditudan... Lotsatu egiten naz.

— Begi ederrak daukazuz, Miren. Begiak... eta beste zer asko. Zure antzekoa zana Institutuan ezagutu neban. Baina aldendu jatan uri handi haretan. Zu ikusi, eta haxe ikusten dot. Eta egia esan, ez deustazu zuk hari zorrik ezetan. Antzerak, antzerak... Emakumeen berba joakoak. Noren antza dauko? Telebisinoan banago eta emakumak alboan, betiro horrelako itauneak.

— Ba... ez naz ni bakarra. Agertu zinanean esan eben. Ene! harako... Baina, ez! Begien kolorea ez da bardina. Eta barrero lehenera banoa? Liburu hori...

— Idazteko ohiturea hartu dot. Ibiltaldi ugari egiten dot. Esan deustenez, laster —eta hau, ixilekoa, zeuri bakarrik, e, Miren! —urrutera joango naz. Urte beterako. Pijamen eta kimonoen herrira. Handik bihurtzerakoan... Neska! Neuk aina jakingo dozu. Ixildu nadin.

— Zein atsegin zatxatazan, Jon, horrelan gozaro eta joranez berba egiten deustazunean! Nik ba dakit zure barruan misterioaren bat, edo gehiago, edo gehiago arean... dagoana. Horregatik idazten dozu. Esan ezin, eta idatzi. Neuk be, zerbait azalduko neuskizu, baina neure sekretotxua da. Da, ez. Zan. Hona, niri lehenengo maitetasun agerpena

egin eustana, mutil ona izan zan; baina lar lotsorra. Alkar ikusten genduan eta ez zan niri lau berba jarraian esateko gauza. Nire izena ikasi eta alkar ikustean, «Miren» esan, eta papertxua emoten eustan. Papertxuan berba gozoak eta nik al dakit! Hiztegian batzen zituan berbak zirala uste dot, nire alabantzak egin beharrez. Zazpi paper edo emon eustazanean, «Ez al dakizu berbetan?» —itandu neutsan. Orduan harek bihotzaren parera eskua eroan eta bihotzari sakadak egin eutsazan; agnus dei edo... Agur, txo! —esan neutsan eta geroago ez dot ikusi; nire begien bistatik aldendu zan.

BIDE-ZORROAK gertatu ditut. Azken eguna gaur uri honetan. Joateko gogoia dot; hemen geratzeko gogoia be bai, are biziagoa, behar bada. Bihar, ziur ziur ez baina, haruntz.

«To be or not to be».

Barriro be, kakoa nire barruan. Giroa naretu nahi. Eta ez da errez. Lotura larregi mundu kaxkar honetan.

Jazoera bakanak nire inguruan.

Baina, joan egin behar, eta joan egingo naz.

Dobaran be, ba doa. Ibaietara laster. Ameriketara, gerotxuago. Zorra dauko nirekiko. Nik, zuritu dot, doi doi, Miren Oibarregaz neukan zor txikerra. Zor hori sortu nebanean uritik aldegin izan banau, Miren niganago izango neban. Geroago, Dobaranek Poli erakutsi. Eta orain, harako «hiru marixek» iragarri eusten Elisabete.

Baraua hausi eta telefonorako deia. Dobaran izango da.

— Bai, neu naz Uranga.

— Poli naz.

— Esan, umezurtz horrek.

— Bakarrik nago. Azkenengo eztabaida garratza... ba...

— Bai, ba dakit. Esan zeustan.

— Ez neban sinestuko baina... Mutil bat ikusi dabe neskatilea eder bategaz zinean. Jon, zelan hori orain?

— Konpromiso gordina. Berbea emonda neukan. Zu ezagutu baino lehen. Hoteleko arduradun hartzailea da. Behin bakarrik. Gura izan banau... zenbat bidar ez joango? Zinera joan eta etxera.

— Zu beste era bateko traidore, Jon... zelan...?

— Poli, ez nago inori lotzeko... zu zaukadazan bitartean. Zuk zeure dramea dozu. Nik... neure arazoak, korapiloak. Ez nago jolasetan ibilteko.

— Ez dakit... ez dakit zer egin.

— Paperak egiten hasi behar izango dozu. Zoaz zeure legegizona-gana. Hemen ez badozu, uri handian egingo.

— Berba egin behar dogu. Zeu ta neu... Gaur, bostetan «Txinpon»-en. Gero pagadi...

— Bostetan Txinp... gero pagadi.

Eten egin dau telefonaldia. Ausaz, lasterregi. Ausaz, etxera edo albora norbait hurreratu jakolako, neskamea ala senarra.

Agur eguneko bezpera honetan pixu handia daroat gure alkar-ikuste honetara. Suaren ganeko jokoan jarraituko? Horraitino, emakume honek, bere berbetatik, nigan laga eban lilura osoa, ilusino betea.

Inor kontsola gura dot, eta neure burua be bai.

Ez dago atzerarik egiterik.

Jatetxe baten bazkaldu dot, hotelera bihurtzeke. Poli ikusi gura dot, eta ez beste inor. Barruko burrukea, odolik isurten ez dauana ez da bigunagoa; arean, ankerragoa. Ez da nire errua. Etortekoak etorten jakuz.

Berba egin behar dot, luze eta argiro Poligaz. Hemen dogun nahaste-borrastea ikaragarria da. Harek ez daki zatia baino. Berea. Nundik joko? Zer egingo? Munduan kasu bardinik ugari dago orain. Gero eta gehiago. Ohiturak nasaitu egin direala? Grinak askeagotu, lotsea astronauta bihurtu eta hegan joan? Ala eroapena murriztu begiak argitzen hastean...?

Seirak laster dira. Neure Opel hau, norbaitek behin eta barriro aitatu dauan Opel honen barruan neure maitetasun barria izango dot. Maitetasuna eta grinea, grinarik bagako maitetasuna adiskidetasun soila besterik ez daitekelako ete?

Ez dau izan. Izan al dot?

Neure Opel... txapeldun izango, benetan be?

GUZUR handia izan da nire bizitzea, Jon. Senardun bai, eta senarrik ez. Haragikoia ete nazan, lizunberea? Ez, Jon. Berezkoa besterik ez neban uste izan... ezkontuteari uko egin ez neutsanean. Mahaian alkarregaz. Gaez, ohe bi, lo zabala, askatua, loturarik bakoa. Mariaren alaba betirakoa! Edonorengan honelan izan balitz...! Zuk oraindino honelakorik ez dakizu, eta ez jatzu errez niri ulertzea. Biziera hau urratu, eten, eta barria hasi gura neuke. Zeugaz, Jon.

— Baina...

— Ez bainarik. Borondatearen argia eta sua makaltzen hasi eta itxungitzeko arriskuan dagoanean, beste bide bat, beste borondate bat behar dau emakumeak; eta gizonak. Bai biribila niri emoten, ez ete zara ausartzen? Ez nagizu laga, hartu nagizu! Ezkontzea ezereztu eta hutsik geratzean, zoratu egingo jat. Ai! Jon... Hauxe sinesturik nengoan eta zu, zinera, ilunetara, neskatila bategaz. Jakin dakit, ganera, neskatila hori ederra dana. Ni baino ederragoa. Ez zara tentela, Jon, eta behar be ez. Horraitino, neutzat gura zindudazan. Hainbat egunetan han hotelean zu haregaz... egunero behar bada, mailadian, iragangoan, gelan...

— Ixi, Polisene! Ez dan gauzarik esateko, ez dozu eskubiderik. Harek eta nik ez dogu...

— O! Maite dozu. Ezin ukatu zineist. Arean, harek be zeu. Baina nik aina...

Negarrari emon eutsan. Negar samina, atsekabetsua. Burua makurtu eta eskuakaz estaldurik egon zan. Malkoen eriona nabarmena zan.

Buruan egiten neutsazan igurtzi leun luzeak. Emakumeak malkoen preminea sarritan.

— Polisene, baretu zaitez. Zeure atsekabea ez egizu oinaze latz bihurtu. Osasunik-eza da larriena.

— Zuk ihes egin deutsun nobiarik izan al dozu? Nire senarraren eduko emaztea izan bazendu... orduan zuk ulertuko. Baina mutil ezkongeak... Txoriak buruan, eta neskak alboan.

— Arren, Poli. Ez-jakinaren berbak dira zureok.

— Ez jakinarenak? Nire drama lehor hotz honen barri ez al dakit? Hara, Jon, zehatzago berba egingo deutsut. Gure ezkontzea ezereztuteko lanak hasi dagizala esan deusat nire abogaduari. Eta honek adierazo nire guraria Damian nire senarrari. Lehenengotan goiak eta beheak hausi eta apurtu behar zituala uste izan dot. Ez dot egundo hain beroturik ikusi. Nire ames zorook urratu dagidazala, esan deust. Usurbilera eroango nauala. Nire errezoiak ustelak dirala. Auzi hori jagongo dauan legegizon zentzunezkorik ez dodala aurkituko. Inon diranak esan deustaz!... Oinarri bako zioak ditudala, ondo bizi nazala, ni neu ezkondu aurrean baino hobeto bizi nazala, neskamea etxean beti, nik zereginik ez, eskuartekoa beti txintxinean, etenik barik, gure uriko señoiarik zerenaren antzean edo, bizi izan nazala. Ta ganera... mundu guztiak jakingo zituala gure gauzak; bere gizon izatea zalantzan jartea zala; edozeinek aintzat hartzen dauan gizon langilea emazteak bakarrik ezereztu gura dauala; erdi monja izan nintzan hau, zelako berotasunak, zelako argoseak heldu jatazan... Halakorik! Horren hurrengo, barre zatarra egin eban. Eta esan: «Bai, ba; baaai! Mutil gaztea agertu herrira, gaztea ta dotorea... eta zoritxarraren hasierarako, geure etxera sartu, ganora barik sartu, eta zeuri gustatu, Polisene, zeuri gustatu... eta ganerakorik pentsatu be ez dot egin gura. Opelean barruan bi, bidean zehar bi, mendi aldean bi... Bat bitan bana... Bi baten batz... Ene, ene!»

— Damian! —eten neutsan etorria—; azken esan hori proba egin behar izango deustazu. Bestela zirtzila izango zara. Zuk aitatu dozuna, nik bestera proba neizu. Hemen naukazu; biloizik jarriko naz; aztertu egidazu nire gorputz hau; aztertu tokirik kutunena, minbereena... ea osorik dagoan. Ez dozu aztertuko, sekula gauza izan ez zara ta. Ba, jakin egizu: oso osorik nago. Gaur berton medikuagana joango gara. Neu ikusi nagiala, lehenengo. Eta gero, zeu hurrengo.

Damian artean zutunik egoana, butaka bigunaren sakonean sakondu jatan. Buruari oratu eta burua eta eskuak belauen ganean eukazan, hain makurtuta geratu zan eta.

Leihoruntz joan nintzan. Biok ixilik.

— Nire izen ona, behar ez dan bidetik galduko dozu—, esan eustan erdi ixilean geroago. Nire kargua...

— Zori oneko kargua! Karguak hartzeko dira, eta lagateko be bai—erantzun neutsan—. Laga, bete ondoren. Eta bete ez dan kargua be, laga. Berezkoa da. Argi dago arazoa. Medikuagana, ala ez?

Jantzi eta kalera joan nintzan. Nire atzetik ete etorren, baina ez.

Kaleetan ibili nintzan, eta adoretu egin nintzan. Ez zan afaltzen Damian agertu. Ez dakit noiz lotaratu zan. Adoretu nintzan arren, geroago, zineko lagun bi horreen kontua jakin neban. Orain... zeure burua zeharo zurikatu egizu, Jon! Bai. Behin betirako.

IBAIETAN nengoan. Maleta ta guzti etxeratuta. Neure lantokiko gauzetaz barriro eta zeharo jabetu guran. Etxeko buruhausteak be, iraun zirauan. Beste alde batetik, munduan aingeruak baino salatariak —zelatariak diralako, noski —ugariago ebiltzala sinesturik nengoan. Ausaz, egoki izango. Horraitino, daukagun askatasuna, darabilgun aukerarena mugatua da. Larran sasiak aina, legeak sortu dira gizartean. Gizonak sortu ditu. Legegileek beti dihardue legeginen. Lagun hurkoaren askatasuna zaintzeko legeak.

Bildurak sortzen dituan legeak. Gizona bildurra da. Eta gizona bildur da, beti bildur. Inogaz ikusi dagien bildur; bakarrik egoteko bildur, hotzaren bildur, beroaren bildur, gaisoaren bildur...

Arerioaren bildur.

Edonor da arerio, edonor etsai. Eta...

Dobaranek berba egin deust telefonoz. Barri ez atsegina hauxe be. Damian Isasi esturaz eta arbin heldu jakola Ibaietara. Sekula ez dauala halako artegatasunez ezagutu Isasi.

Gauzak okertu egin jakozala. Alde batetik eta bestetik. Herri karguari eusten eutsala, baina bere betiko edo aspaldiko bizibideko lanean eragozpenak sortu. Etxean eukan bakea be, urratu egin dala. Eta ez bere eraginez. Gizon gazte baten etorrerea... Txerrena ez ei dagoala lo inoiz be.

— Txerrena arerioa ez al da? —erantzun deustat filosofiazko bidera sartu guran bainengoan.

— ... bai! Oraingoan, ostera, arerioa ez da harako asmoaren arerioa. Ulertzen deustazu.

— Bai, ondo be. Zera, autua eten deustut.

— Horra ba! Bizibideko lanetarik baten, Damianek norbait partxun dauala, sozio dauala, kamioiak daukoz. Zeharo ordaindu bakoak, hain zuzen. Ordaintze mugea heldu, epea bete eta eskuarterik ez. Abalen premina gorria. Eta hortik jo, edota kreditu barriaren preminea. Nik horretarako modurik, neurez edo bitartekotasunez, izango ete neukean. Buruhauste barriak, Jon.

ETXEAN daukadan neskameak nire lantokira telefonoz dei egin deust. Arean be, Urliaren emazteak etxera dei egin dauala, eta lantokiko zenbakia jakinerazo deustala. Jakin dagidan, horretarakoxe inostala.

— Urliaren... esan dozu?

— Berba ziur horixe adierazo deust. Ur-li-a.

Urli esatea fulano esatea da ta...

Horraitino duda mudak laster uxatu dira. Lanbroa ifarraizeak garbitu deust.

- Uranga jauna al da?
- Bi, neu naz.
- Ba... ni... Poli.
- Nun zagoz?
- Zeu zagozan urion; Ibaietan. Gero bazkaldu...
- Nun zagoz, alde zaharrean ala barrian?
- Zaharrean.

Haren zain nun eta noiz egongo nazan adierazo deusat. Puntu jakinean hara ta hona nabilenean horra nun dakustan Polisene. Gaztea-go eretxi deusat, gazte dan arren. Ez deusat lorakeriarik agertu.

Ostatura gareanean, zer bazkalduko dauan, eta hori huskeria dala diraust. Senarrari estualdia leporatu jakola, adierazo deust lehenengo ta bat. Hori apur bat atzerapide izango ete jakon, buruhausteetan dabilela. Baina beste zer hori...

— Gure ezkontza arazoari baketan izteko eskatu deust. Oraingoz, behintzat. Nik, ezetz. Hauxe, horraitino; konponbiderik eskeintzen ez deustazunez, Damian —esan deusat— nik i... Egia dinotzut, Damian. Ama izan gura neuke. Esan egidazu zeure egia. Ziur asko, ez da zure errua. Legea dago, baina bete ez dana; ezerezean lagateko bidea dan legea be, hor dago. Ezereztuteko jardunetan eta paperetan hasteko prest nago. Inork ez dau jakin behar; inork ez dau jakingo. Ixilean joango dira azi-orraziak. Horixe esan deusat Damiani. Burua makurtu dau, eta ixilik geratu da. Orain... Jon... nik ez neuke gura izango gero, askatuta, ni han gure urian bizi. Mingarria, baina beste biderik, beste joerarik ez dot ikusten... zeuganako joerea baino. Guztiok gara bihotz zabalak; baina guztiok geurekoiak, egoistak. Egia ez al da? Jon... zukan itxaro ete nei? Zure jokabidea...

— Ai, emazte orainarte zori bakoa! Gitxien uste dozuna entzun behar deustazu, eta aurretiaz adierazoten deusut, alditxarrak jo ez zagizan, larritu ez zaitez.

Alde guztietara begiratu neban astiro astiro. Jenteak bazkaltzen ziharduan nasai, barbaroa zaratatsu, plateren eta kristalen klinak, noizean behin.

Polisene arpegira begira jarri jatan, nik zer esango, berak zer entzungo. Haren ezkerreko eskuari oratu neutsan, haren eskuaren ganean neurea zabal eta zapaltzaile jarten neutsala.

— Ezkondua nazana Jaunaren aurrean dirautsut.

Esku biak jaso gura izan zituan, baina haren eskumea be, mahai ganean, neurearen azpian neukan. Lau eskuak josita lez egozan.

— Jon!...

— Ixi, Poli! Zeure antzeko ezkondua naz. Nigaz ezkondu zanak eta nik... ezer be ez. Sinestu ezineko emazte hotza egokitu jatan, eta etxetik bialdu neban. Urte bete ezkondu nintzala. Urte erdi, bakarrrik bizi nazana.

— Ezin dot berbarik egin, Jon.

— Ez da harritzeko. Baretu zaitez. Jan dagigun, jatea ta edatea be,

preminazko ditugulako. Zuk inoiz, baietz uste dot, ez al dozu irakurri harako arima bikiak, arima bikotxak gertatzen dirala sarri askotan edo, gizasemeen artean? Harako zori —oneko ala txarreko— harako eguerdian Dobaranek zuenera eroan ninduanean, berpertatik susma neban; zure egoerea. Eta ulertu, zeharo ulertu. Zelan ulertuko ez neban lehenengotarik argi hauxe izanik: «Hau nire Geminis ete da?».

— Ai, Jon, zegaitik lehenago ez niri azaldu...

— Egun bakotxak eta ordu bakotxak dauko bere dordoa. Bai, zure ta nire kidetasuna, agirian neukan; baina zuk eta nik, orduan, ez geunkan kutuntasunik. Izan ez dodan arrebea baizinan zertu zindudazan, egoki ez zenduan egoeran zengozana edo. Aldi berean, emakume gaztea zinan —eta zara, zer dinot nik!— eta neure egoerea be halakoa izan, eta ba dakizu. Alde batetik Kixote eta bestetik Don Juan... Barruan daroaguz aingerua ta txerrena.

— Horregaitik Jon, zure portaera lardatsa, aldakorra. Hasieratik argiro berba egingo bagendu...

— Nik be, hor dihardut ezkontzea ezereztuteko paperak atondu ten. Hor jabilt abogadua atzera-aurreretan.

— Eta ez dozu arrebarik izan...

— ... ez anaiarik.

Bazkalostean kafeteria baten egon ginan. Polisene zuri zuri eginda geratu zan arren, —halako agerpena egin neutsanean harritzekoa be ez zan eta— edatetxean biok bare eta nare gengozan. Alkar ezagutzen ez eben senitartekoak alkar ezagutu baigenduan. Halakorik! Berlingo hormesitik aldendubariak baiginan.

Nire bizitzako gorabeherak jakitea atsegin izango jakola, inoiz baino areago, adierazo eustan Polisenek. Eta nik esan.

Emaztea kanpotikoa zan. Dantzaketetan ezagutu neban. Adiskideen artean apostua eratu zan, ni haregaz ezkondu baietz, ezkondu ezetz. Polita zala-ta nengoan. Dantzaldi baten. Hoba arrats haretan prozesinoren batera joan izan banintz. Eta ezkondu nintzan. Ez neban apostua galdu. Ustez. Gizonok beranduegi ikusten ditugu geure hutsegi-teak. Hiru mutil adiskidek aldi berean hasi genduzan geure zerok. Hareek laster laga, nik jarraitu. Negu bakar haretan izan genduzan ezkongei hartu-emonak eta ibilerak. Ez lar. Kafetxera, zinera, pelototokira, futbolera, alkarregaz sarri samar joan ginan. Gauetan, erretiru ona. Hori hainbat bidar esaten eustan. Etxean tokirik onena, behin ordu bat ezkeru.

— Argazkirik ba dozu? Emaztearenik, esan gura deusut, Jon.

— Hor, sendiko liburuan. Eta etxean... beste bat. Zetarako beste-rik? Ez dot haren irudirik begien aurrean gura.

Uda-antza hartu aroak, eta hondartzara joaten zalea nintzala adierazo neutsan behin. Behin? Hainbat bidar. Apirileko goiz eder baten urrutizkinez nik hari:

— Bizkor jagi zaitetz eta ondartzarako jantziak soineratu. Hego haize indar bakoa, zoragarria. Gure azalak eguzkiaren igurtzi gozoa

hartu dagian eta baltzeran taiua zertzen hasi gaitazan. Hamaiketan zeuk dakizun kafetxe aurrean egongo naz, neure beribila lagun dodala. Gero arte! Erne ibili.

Erne ibili... Hamaikak jo eben. Eta hamabiak. Hasarre, hotsegin neutsan barriren barri telefonoz. Ez egoala etxean. Arratsaldean behin-goagaitik parkatu egiten neutsala, esan neutsan. Ondartzarako jantzi motxik ez eukala, eta horregaitik izan zala. Nik, kankailu honek, sinestu. Hondartzea ezeze, dantzalekua be gero ta gitxiago gustatzen jakola susmatu neban. Baina bakotxak bere joerak dituanez, ba, aurrera mutilak. Kaska gogorra izateak sarritan onik ez. Lagunen esanak ziran: «emakume gatxa da hori; ez zara zu horregaz ezkontzeko gauza izango». Eta orduan eta setatsuago ni. Ezkondu ginan. Orain urte bete. Sei hilabete jasan nituan...

— Hiru urte nik, Jon.

— Egia esan behar da ta... Ni be, ez naz ibili bako mutila. Lehen ziran zozo zuriak; orain ez dago halako zozorik. Orain... zozo baltzak gara guztiok. Damian eta holakoren bat izan ezik. Eta parkatu, Poli.

Eta jakin, kontuak zelakoak izaten diran. Lehenengoz neure ixil mandatua egin, eta ez diraust ba, belu nenbilela? Aurreragokorik ba eبالa. Eta ostera be, gartsuago ni! Egia ei zan. Baina harek ospa egin, eta ni, eztia ez zan eztitzan hegoak atxiki geratu. Neskatilea geldi samarra zan; gero ta geldi egoten zaleago. Hain geldi-zale, ze!... Behin ikutuka hasi nintxakonean, sekulako errespez harek niri: «Edo geldi, edo hanka!». Aita alarguna gaixotu eta erabagiren bat hartu behar nebala, eta ezkondu autua atara neban. Harrituaren plantak eta pariztak egin eustazan. Ostera, harik laster, baietz. Atzera aurrerak egin genduzan, eta aita barik geratu nintzan arren, ezkondu. Ezkontza aurreko asteetan eta egunetan, lehenago be bai baina, garatzetako albistak, ondasunen arloak, boltsako gorak eta beherak, diru kontuak, etxeak, soinekoak, jentearen gurari eta modak, beti ta beti horrelako autuak haren ahoan. Maite kontuak, berba berotxuagoak eta, ikutuak eta —ezta egia, Polisene?—, horrelakorik inoiz be ez. Ez dakit nik harek izpirituko artezkaririk ete eban, ala ez eban.

— Nobelea edastuten deustazula eta ni pozik entzuten nagotzula esango neuke, Jon.

— Norbere kanbarioa izaten da. Besterena pasadio ta nobelatxu. Ba, aldi haretan barritsua... emakume ha. Ez deust haren izenik ahotik urteten. Emakume zintzoa, gorputza soinekoz ondo estalduta beti; harako Erromako vestala zirudian eta ni, harro edo. Ezkontza eguna, hoba ez gomutatu.

— Eta gaua... Geminis?

Irribarre zabala egin neban Poli umore onez jarri zala nik ohar-tzean.

— Ezkontza osteko gauak ez dauko zer kontatu handirik. Zureki-koaz Geminis gaua izan zala esatea nahikoa litzateke ta. Eztegua izan ondoren, iluntzean neure beribilean beste uri handi batera joan ginan.

Bidean, erdi lo joian nire... saihetsa. Saihetsa ez dakit, baina hazurra bai, izan dot. Erdi lo joian, larritu egiten zala ta. Heldu ginan, eta hain zuzen be, harek aukeratu eta eskabidea eginiko hotelera ginan. Agentzian berak zertua, esan gura dot. Hoteleko mutilak gelea erakutsi euskun eta giltza laga. Gela ederra zan, zabala, ohe bikoa.

Jantokira joan ginan eta afaldu genduan. Harek ez eban gauza handirik urdaileratu. Bazkarian bete zala eta... A! Ezteguan ez genduan dantzaldirik izan. Harek ezetz esan, eta kitu.

Afalostean, hotelean sekulako ixiltasuna, biok geure gelara. Sikologoen esanak be ikasten hasita gengoan eta, andra ezkonbarriari lehenengo gauan... esturarik barik, laga, itxaron, astia emon behar jakola, ea harek berak berba erdia, gorputzeko apurkako erantzialdiak eginez guraria, gogoia agertzearen hasierea, susmoa... Ba dirala senarrari «erantzi, biloiztu nagizu» esaten deutsoen emazteak be. Sikologoen esanak, guk ikasi beharrekoak.

Giro baketsu eta maitatsu hori sor zedin, bitartean, azken egunetan hartu nituan kartak irakurten hasi nintzan. Irakurten baina, egia esan behar da, irrikiten, emaztearen gorputza —neure be, ba zana, eta egundo hondartzan ez beste inun jantzi arinez ikusi ez nebana— ikusteko; eskuan neukan karteari begira eta aldabatera han neure aurrean emakumeak bere soinekoak erazteko eukan —guztiok daukatzue— modu berezia, jasa, grazia. Grazia jazten, grazia erazten, grazia berarizkoa, nunbait be, ezkontza gauean senar... senar...

Nire begiok ez eben emakumeak gau hain senailauan izan behar leukean graziarik ikusi, ez susmatu. Ba dakizu, Poli, harek zer egin eustan? Abrigoa eta zapatak ez, baina beste guztiak soinean zituala ohera sartu zan. Azalpena?

— Jon! —esan eustan ohe barruan egoanean—; kalefazinorik oraindino biztu ez dabela eta, ni hotz naz eta... Zuk irakurteko gogoia dozu eta... Gabon! ondo lo egin.

Ez eustan galdetu.. —eko gogorik ete neukanik.

Dinodanaren lekuko, neure burua eta haren lau maletak. Laurak zeharo lotuta. Bainu-gelan ez egoan haren jantzirik, ez armario sakoan, ez aulki ganean. Abrigoa butaka ganean, zapatak alfonbra ondoan.

— Sinistuten, Poli? Zuk bai, zuk errez. Zure esperientzia... Geminisena dalako.

— Eta hurrengo gauetan?

— Entzun izango dozu erderazko harako «idem de lienzo». Ba... horixe. Biharamonean... legearen egunetara heldu zala; arrisku handikoa zala; bildur zala; ez ekiala...

Joan ginan bestean bihurtu ginan etxera. Bainua be harek... bainu-gelan ez ginan inoiz be biok batera gertatu. Ez ekiala, ez ekiala... zelan jakingo eban harek niri aurrerapiderik ez baina, atzerapide guztiak jarten eustazan bitartean?

Ezin sinestu izaten dot sei hilabete luzean itxaron nebana. Garai haretan amagana bialdu neban. Monjak monjategian.

POLISENE trenean bihurtzeko asmoz egon zan, baina berandu egin jakun. Horretara ezkerro, urira beribilean neuk eroango nebala iradoki neutsan.

Entzun barritan ezetzean egoan. Ez zala itxurea, esames barriak sortuko zirala, gauzak eten arte loturik zirauela...

— Merkatu ondoan lagako zaitut. Han inguru haretan argia baino iluntasuna ugariago. Hantxe jatsiko zara, eta tiki taka zeure etxera joango. Zeuen... etxera. Etxea Isasirena dala, handik egotzi zaitekezala... A! orain ba dakizu nik neure etxea dodana, zori onez; eta etxe horretako ateak zuretzat edegita egongo dirana. Ez egongo litzatekezana, egongo dirala; argiago, dagozala. Berandu egin jaku, bai; baina lehenengo aukeran ikusi egingo dozu nire... «kabi urratua».

Bidean geure autuari ekin geuntsan. Iluntze haretan neu nintzan kontu kontari jardun behar ebana. Polisenek bere hainbat gorabehera lehenago azaldu eustazanez, nik be, neureak agertzeko gogo bizia nebalako.

Bazkaritan Polik hartu eban izuaren, ikarearen ondoren, berba egokia aurkitzea izan genduan pozkario. Geminis... hiztegieta irarria egoten dan lagun biren irudia. Han, biloizik; gu anartean, alkarren aurrean beti jantzita.

— Ezteguondokoan gauak jai, eguneko orduak aspergarri izan jatazan, Poli. Zortzigarren egunean sukarrez egoala esan eustan. Legearen ostean izan ohi ebala. Medikuaen bila ninoiala adierazo neutsan eta kalera urten neban. Gau haretan ez nintzan hotelera bihurtu. Bai, hurrengo goiz beranduan, eta medikurik bage, jakina. Gogor hartu neban. Maletak egin eta arratsaldean etxera joango ginala; zemai hori egin neutsan. Estutu egin zan, eta hauxe erantzun: «Hamabost egunetik gora egingo genduzala, esan neutsen gurasoei. Zer esango leukee, Jon? «Nire asmoa horixe izan zala, baina... emakume... ezagun bategaz hotelean bizi izateko afanik ez nebala», arpegira bota neutsan. Negarrez hasi zan. Nik, gogorrago orduan. Bere senarra ete nintzan; senarrari eskeintzeko ezer ez ete eukan; gau haretan, amak emon eutsan jantziz —eta gehiturikoz— soilik ikusi behar izango nebala. Negar handiagoak!... Lurrean etzun zan. Biloiztu, ez.

Negarrak ixildu ebazanean, gure ezkontzea platonikoa izango zala uste izan ebala, autortu eustan. Ez ete ekian senarragaz lo egin behar izango ebanik, itandu nik, eta harek:

— Emazte bildurtuazko begirapena izango zenduala sinestu eta...

Biharamonean sikiatraren batengana eroango nebala. Aren erre-guak!... Gau haretan ohean sartzeko egoanean kamisoi luzea brastadan jaso neutsan. Jantzen baltza eukala soinean iruditu jatan, sabelpea estalduta, sabela eta bularraldea be bai. Hondartzara joateko euki ez eban jantzen dalakoa, senarragaz ohera joateko eukan. Ez da sinistaga-

rri. Ez eukan harek prakamotxik; ez nik modurik zuri medikuak kendu eutsuzan eran kentzeko. Ez dakit nigaz ezkondu zan harek zilik daukan ez beste z... Parkatu, Poli, nire gordin berbeta.

Itsumustuan etxeratu ginan. Harek gela baten lo, nik bestean, horrelan bizi izan naz sei hilabetean. Eta ez dot bertsorik egiteko gogorik.

Hamargarren eguna edo izango zan beraz, eztegu ibilaldiko epea eten eta etxeratu ginana. Aitagina ta amaginarreba jakitun jarri nituan; hau da, emaztearen erruz, esaniko eguna baino askozaz lehenago bihurtu ginala. Gure ezkontzea anartean osotu barik egoala. Etorri eitezala arrapaladan gurera, euren alaba osoaren enkantuak ikustera, nik neuk ikusterik lortu ez nebala ta. Ez ziran agertu. Ez dira sekula agertu. Telefonoz hasi ziran behin azalpenak niri emon guran. Sei hilabete, eta esan deusut lehen, etxera bialdu neban. Eta paperak hasi, ezkontzea ezereztuteko paperak egiten hasi. Urte bete ezkondu nintzala. Hiru, zu egin zinala... Geminis.

Munduko egunak eta gauak, udak eta neguak, gozatu baino jasan beharrak ditugunak sarriegi, Polisene.

Eta geure artean, honelako lorrinak. Batzuetan ixilekoak, beste batzuetan agirikoak. Umorerik ez, umerik ez. Gizarteak huts handiak, failu itzelak ez al ditu, Polisene?

Baina...

Iribarrerik ez bada, irribarrea galtzen bada, gizartea da galtzaile. Seinik ez badator, gure Herria atsoagurez bateko da. Gure endea eta zurien endea, amaitu egingo da. Maitasuna behar dogu; irribarrea behar dogu; seinak egin behar doguz. Seinak, Polisene. «Gehitu eta ugald»...

BIDEAN geldi unea izan genduan. Jagolak geldierazo eta nortasuneko agiriak eskatu euskuezan. Armaz baterik egozan jagolak. Bildurra barriro be, euskalerrietan, bideetan, urien sarreretan. Gu be gazteak ginan eta, astiro guri begira.

Poliseneri beste nire pasadio bat edatsi neutsan. Ezkonduta gero, etxean, nire emazteagaz izan neban azkenengo gogorraldia, amagana bialdu orduko.

Behin baten, adiskideok aldran afaria egin behar genduala, emaztea eukanak etxean lagata. Gizonezkoak soilik batu ginan. Jan-edana moduz egin genduan. Eta gero etxera, berandutxuago. Berandutxuago eta bestetan baino beroago.

Emaztearen gelara sartzea buruak emon —eta gogoak— eta sartu nintzan. Ixilik gura neban, ezustean harrapatu eta harek ukorik ez egin eta... gure izotz-egoerea aldatzen ete zan.

Nik bultzatuta nunbait, aulki bizkar luzea jausi eta zaparradea egin eban. Aulki arraioa, saltzaile zitala!

— Lapurrak, lapurrak! —deadarka jagi zan nire emaztea ohetik.

— Neu naz —esan neutsan gozaro.

— Gau osoan bildurrez; bakarrik nago, ta orain hau! Zer gura dozu?

— Zeu. Zelan zagoz bakarrik?

Emazteak gelatik arrapaladan urten eta pasiloan zehar joiala: «Neskameak ama gaixorik, eta joan egin da... Txarto...».

— Baina zu nora zoaz, bainutegi nagusira?

Atzetik joan natxakon. Neure gelara sartu zan, eta atearen tranga-txua ezarri eban. Soinekoak erazten hasi nintzan. Izerditan nengoan. Aldatu be, egin gura neban. Neure slip hutsean nengoala gure neskamea etorren pasiloan zehar, kaletik nunbait. Nik neure gelako ata jo ta jo.

— Jauna, zer jazoten da? Nor dago hor barruan?

— Bestea.

— A!

— Zeu zaitut testigu.

— Bai.

— Emaztea izatea al da hori? —urten eustan, berotasunean.

— Ez.

— Zuen ama zelan dago?

— Txarto.

Eta neskameak ganeko soineko lodia kendu, lurrera bota eta neuganatu, besarkatu egin ninduan. Estu besarkatu be, Haren bular handi bigunen ikutua nabarmen sentitzeraino neure bular biloiztuan.

— Txutxi! —esan neutsan samurkiro—. Bildurtuta zatoz ama txarto ikusita. Beratu zaitez, eta adoretu, hur dogun heriotzearen aurrean.

Gure gorputzak banandu genduzan. Nire slipari begira begira sumatu neban. Zerbait egoan nabari.

— Ugazaba honelan biloizik ikusteak be, bultz eragin deutsu. Bainutegian inoiz ikusi izango ninduzun, baina...

— Alde horretatik... osaba eta neba ugari izan ditut etxean.

Prakak eta alkondarea jantzi nituan.

—Goazen sukaldera, Txutxi! Afaldu al dozu?

— Ama guztiz txarto dago, eta ez afari ez...

— Kafesnea eta...

— Bai, jauna, eskerrik asko. Oraintxe berotuko dot. Parkatu begist berorregaz egin dodana. Ez dakit zelako barruko eraginez edo zorotasunez egin dodan.

— Ba... gaztetxua zara oraindino. Ez uste horrelakorik jazo ez danik. Neuri jazo jatan behin.

— Zelan, jauna?

— Antzeko egoerea, orduan be. Izekorenera joan nintzan txarto egoala ta. Han egon eta egon, esturea heldu jatan eta irolera joan nintzan. Nik ohartzaka atea zabalik laga, eta behekoak erantzita nituanean izeko gaztena arrapaladan sartu, ni zutundu eta gerritik oratu eustan. Izekoak azken arnasea egin eta izututa gaztea gazteagana... zertu niri... Banandu ginanean, ha, ni halan ikusiaz, gorri gorri... Gaurko antzean. Heriotzearen bildurrak jentea laztanka jarten dauala-

ko, edozelako egoeran. Hamaika andra alargun gaztek laztandu nabe estu estu, senarraren gorpua alboan izanik!

— Orain, zoaz lotara, Txutxi —esan neutsan.

— Berorren gelea barrutik itxita dago ta, nun...

— Ohe trukea egingo dogu gau honetan. Ha nire ohera sartu da; ni haren ohean sartuko. Egoki al deritxazu ezkonduen egoera honi?

— Ez, jauna, inundik inora be.

— Horretara ezkerro, ta lehen be aitatu deusut, egunen baten testigu izango zatxataz. Ezereztutea eskatuko dot eta.

Gau haretan, Poli, gau haretan hasi nintzan nik gordeta neukana neskameari agertzen. Kolkoan ixilik neukana, nik uste. Horraitino, harek, berak aspaldian susmoa ebana, toles bage, berezkotasunez agertu eustan. Harrituta egoala. Ordurarte otseintzan egon zan inungo etxetan ez ebalala gurea lako kasurik ezagutu.

— Horra ba!

— Erruki dot, jauna. Nik ezer...

— Zuk, gaua da ta, ahal bazinei, egin lo. Nahikoa atsekabe dozu ama txarto egoteaz. Gabon, ba!

Emaztearen gelea ikusteko aukerea izan neban. Izatez, beti neban aukerarik ha bera kalean izaten zanean. Baina ez sartzea erabagi behinola, eta gau horretakoa jokaera guztiz bestelakoa izan zan.

Haren ohea zeharo agertu neban, ganeko aldea esan nahi dot. Goiko eta beheko izaren artean ez egoan ezer. Aulki baten ganean etxeko bata iluna eta jersei bat. Aulki apalagoan prakamotx luze samarra, ia belaunetarainokoa izan eitekeana; beste bat, apur bat motxagoa ta estuagoa, baina hau be, luzea. Biok, ostera, garbi garbi. Horretara ezkerro, harek soinean beste bi bai, gitxienez.

— Aho handia zara, gero, Jon! Inork ez dau lau...

— Harek baietz, jokatuko neuskizu. Estugune hobeto zainduagorik...! Armarioa arakatu neban ta halako ereduak idoro nituan, lau neurritako bragak. Frantsesadan emakumeek erabilten zituen garbitasun-kaltza narruzkorik, bilatu arren, ez neutsan idoro. Neure pijamarik ez neukan eta, haren kamisoi berde bat jantzi neban; burutik behera sartu eta espiluan begira egon nintzan. Orkatilateraino heltzen jatan!...

BEGIAK edegi ditudanean, nagoan tokiaz harritu egin naz.

Ez dot gomutan ohera nazanik; eta ohean nago. Hormak eta atepak zuri zuriak dira. Niri bizkarra emonez norbait dago. Norbait hau be, zurizko jantzita. Burutik beherako soinekora daukala uste dot. Dana ixilean.

Arean, nik eztula egin dodanean, niri begira jarteko lez, zirkin egin dau.

— Gabon —esan dot.

— Gabon —erantzun deust.

— Nun nago? Nor zara?... Emakumea zara, zu be.

- Hementxe zagoz. Zu, zeu zara; eta ni, neu naz.
- Neu naz, neu naz, neu naz, Jauna...
- Ez hemen zoro zoro kantari hasi.
- Zegaitik?
- Kanturako lekua ez dalako. Uxela balitz! Zelan zagoz?
- Ez dakit. Burua tontor eta astun. Besoak be bai. Oinak, ez dakit.

Zegaitik nago hemen?

- Zuk... Opela daukazu, ezta?
- ... bai. Opela aitatu hemen be?
- Dartadakoa izan dozu, jo-aldia. Bideko hormea jo dau zure Opelak. Uritik joan zinoiazala. Gau lehenean izan da hori. Beribilean zeu bakarrik zinoiazan. Hurrean izan da eta hona ekarri zaitue.

— Hausi urraturik?

— Oraindino ez dakigu. Min handirik?

— Bai eta ez. Zera... ni hemen Izar hotelean egon naz unada baten. Buruagaz baietz diraust. Begiakaz, ba dakiala adierazo deust. Beste lagun bi, zurizko jantzita honeek be, agertu dira. Gizonezko bi. Honeen aurrean, emakumeak zeharo biloiztu nau. Burutik hasi eta oinetaraino hor ikutu, hemen sakadak egin, igurtzi zakarrak... Itandu eta itandu.

— Minik?

— Hor ez... Ai, ai, ai! Hor bai... Hor be bai. Hor, ez.

Lehenengo ikerketak nire kaskarrean egin deustez. Geroago idun, sorbalda, bizkar, bular... Nire saiheitsazurretan kitarrea jotzen ibili ete diran, esango neuke. Gerri ingurua, sabela, iztarrak, besoak, hausiatararik ete dan. Oinak, orkatilak, eskuak, atzamarrak.

— Kanpo zauririk ez dago. Ahoa edegi, mesedez!

Aho barrua ikusi deuste, eta gaixozainari itandu ea odolik... Emakume hau beste aldera begira egon da eta ez dakit berbaz edo zeinuz zer erantzun deutsen.

Nire ohe burpilduna —ta neu barruan— beste leku batera eroan dabe. X izpien tramankulua hurreratu deuste. Hor dabiltz ikusmiran. Nire gorputza bira batera, bira bestera darabile. Minez nago, baina ez hilteko minez. Ezta, ezta...

Hirurak ixilean barriketan. Zaharrenak diraust:

— Takarrekoa sarri, galgarria ohi da. Adu ona izan dozu. Lau-bost egunez ohean geldi egon, gero hona barriro etorri... Ez dogu uste ekarri behar izango zaitugunik. Bitartean guretarikoren batek agerraldiak egingo deutsuz.

Esparadrapo luzeak ipini deustez. Batez be, saiheits inguruetan. Beste gauzaren batzuk be, egin deustez. Lo gurea jatort bapatean. Barrukoak jazten lagundu deust gaixozain maratzak. Gernua ikertu degisten, kristalezko untxia laga deust eta joan dira guztiak. Lehenengotan ezin txisik egin; baina geroago zarra-zarra. Aguro bihurtu da gaixozaina eta egin dodana ikusteko astirik ez deust emon; eskutik kendu eta eroan daroa txisontzi kristalezkoa.

Edateko zerbait ekarri deust. Ura da, besterik ez. Txakolinik gozoena aina estimatu dot.

... Itzartu egin naz. Izerdi manatan. Lehen baino nekatsuago nago. Hazurrak euren zeretatik aldatuak edo, bailegozan. Eguna argitu da. Gernuaren eskabidea barriro eta ba daroa.

Harik lasterrean kafesnea dakarte. Une horretan lagun bi gehiago jatortaz nagoan ohe aldera. Hoteleko amama zaharra eta Miren Oibar. Amama larri antzean; Mirenek irribarre gozoa ezpanetan, dirdiz leuna bere begi berde ederretan. Amamak ez daki ezer, gau baten zinera joatea ezer baldin bada.

Dakidana azaldu deutset. Arean be, gaixozainak esan deustana, gau erdian edo. Ezkerronez natxagoke. Gaixozainagaz berba egin ondoren, niri agur egitean:

— Izar hotelean han jagotzu itxaroten... zeure ohea.

Une horretan emakume osagileagaz batean Polisene.

— Bost emakume ditut hemen —esan dot entzungo ez deustelakoan—. Bedeinkatua, Jon, hainbeste gonadunen artean.

Bertatik, gaixozainak burlezar eginez:

— Oraindino ez da hau hilgo.

Bost emakumeek barreiritxuak egin ditue. Amama eta Miren joan diranean emakume osagileak begiak ikusi deustaz, ahoa, odolaren tintina neurtu, berorratza galtzarpean jarri.

Poliseneri sarreran erakutsi dauan arpegi larria aldatu egin jako. Bare dakusat, poza barriro beragandu jakola sinestu dot. Osagileari eta gaixozainari berba egin, eta begiramenez eta txeratsu, diraust:

— Ikarea makala hartu dodana! Baina, tira! Orain... Neskamea daukat hor zain, eta laster arte. Ba dakit Izar...

— Hori esan deust. Gaur han lo egingo dot. Eta bihar...

Geroago, eguerdi inguruan, beste mediku biek barriro ikertu nabe; eta anbulantzian Izar hotelera eroana izan naz.

Bazkari arin arina, jana baino edana ugariago. Atsedena nagusi. Amama eta Oibar, jakina, ikusliar izañ ditut, barriro. Bazkari ekarle, osteria, gelaria, neskato gaztea.

Lo suma ostein, ai! Ba dakit gorputzeko hazur guztiak nun ditudan. Guztiak minbera. Haundituta daukat gorputza toki askotan. Baltzunak ugaritu dira, irailean orbelak lez.

Halan be, arriskua urrun dodala dirudi eta, eroapenaren eske nago. Iluntzean sukarra gehitu ete jatan... Garai horretan heldu jat osagile bat. Eskuturrean haren eskua, zelan nagoan itandu deust. Edonun minbera nik hari esatean, irribarre eginda, bihar arte! eta joan da. Afaritan, gelaria eta Oibar. Honek, bestearen ixilik, «gauetako ibilera bakanak» esan, irri gaizto egin eta gabon! Dana dago zaratarik barik.

Nire ohe ganean etzun etzun iretargi zuria.

— IRETARGI zuri hori, arpegi bikoia zara.

— Ja, ja, ja!... Zuk ezin, baina, niri arpegi bata baino ikusi.

— Bikoa; nire emaztea lakoa. Ezkonbarrientzako ta... eztizko iretargi aldi esaten dabe.

— Baaai... eztizkoa... ezkonbarriek eurek horretarako modurik badabe. Zelan jardun, zelan jardun... horixe jakin...

— Niretzat iretargi mingotsa izan zara.

— Oraintsu ezkondu al zara?

— Orain urte bete.

— Ene, ene! Ordurik hona hamahiruren bat iretargi izan dituzu. Eta bata be ez eztizkorik? Bakana. Berez, lehenengoa izan ohi, eztizko jatorra. Egun lanik bageak, gau gozatsuak. Baina, hamahiru mingots?

— Ez dirautsut guzurrik.

— Bai, gizona. Ondo da.

— A, iretargi! zu, aintzinakoa zara ta, harako paradisuari bizi izan ziran gizon prakabako harek eta emakume gonabako harek, ba ete euken sabelaren erdi erdian zilik?

— Zaharra naz, eta zizki-mizkiak ahaztu egiten jataz. Horraitino, prakabakok ba eban zila, sabelean baina zuk esan dozun baino barrene-rago, beherago. Luzatu eta laburtu egiten jakona. Eta haren azpian be, dantzariak.

— Berez gorabehera horreek?

— Bo...!

— Eta sagarraren zer hori?

— Ba.. sagarren bat ostendu egin zala dirudi. Norbaitek ostu edo, gorde edo, egin ete ebanaren susmoa.

— Zeinek? Lagun bi baino ez ziran eta...?

— Txer be, han ebilen.

— Txer... txer... txerren ete zan?

— Bai; baina hasieran hizkerea berba motxetakoa zan solilik. Txer esan... eta edozeinek aituten eban.

— Edozeinek...? Ja, ja, ja, ja! Beraz, sagar hori ezkutatu...

— Gizonaren buruko ulea eta okotzean beherako bizarra luzeak ziran. Prakabakori belaunetaraino heltzen jakozan. Beste bizarrik be, ba eban.

— Eta gonabakoren buruko uleak?

— Gizonarenak baino are luzeagoak; orkatiletarainokoak. Eta beste ule batzuk be bai, ganera. Prakabako, behinola, sagarraren galde hasi ei zan. «Nun da edo nork dauko...?» Baina sagarra ez zan inongo bazterrean agertzen. Prakabakok susmoa izan eban, sagarra gonabakok bere ule-basoan ostendurik ete eukan. Eta ziri ta biri hasi jakon, idunetik hasi eta beheruntz beheruntz aztamuka, eskuakaz eta atzamarrakaz hor ikutu, han sakatu, hemen igurtzi. Prakabakoren eskuak eta atzamarrak zazkarrak izan, antza; ba, ikutu eta sakatu eta abar gero ta beherago, eta gonabako estutu; eta halako baten deadar egin eutsan: «Hi, astako! atzazkol gogor eta zorrotzakaz ez haz gehiago nire zeretari aztamuka latzean ibiliko. Ez al dok atzazal bako atzamarrik? Prakabako orduan gomutatu atzazal bako zera eukana, eta bila ta bila, artean jakina

ez zan intzarrakalea... zilaren muturragaz idoro... eta horixe dozu sagarraren kontu ezereza.

— Ez hain ezereza, Iretargi.

— Egia, hori be. Dana dala, orduan asmatu eben eztizko iretargi jolasaldi hori, lehenengo jokaldia gauez egin ebelako.

— Eta hareen hizkerea zein zan edo zelakoa zan?

— Hor lehen esan deutsudazan berbak, ez ziran berba ebagiak, ahozkatuak. Ez. Keinadaz eta pariztaz, oraingo mimo dalakoan baino. Esaterako, harik gorakoan, prakabakok «A-a-a» esaten ebanean, ba ekian gonabakok besteak zer gura eban. Eta «E-e» —erantzuten eutsan. Eta orduan hasi ziran hiztegia idazten. «A-a-a» = sagarra. «E-e» = emen.

— Baina orain «E-e» hori ez da beti...

— Bo! Orain kulturatzen okotzeraino sartuta zuok... Prakak, gonak, prakamotxak, atepak, serrailak, kandauak, zer ez dozue asmatu! Lehen ez zan horrelan, berez berez baino...

Begiok edegi eta iretargiaren lekuan eguzkiaren goizeko errearen erion epel dirdaitsua. Sagarra... murdi!

LANEAN nengoala urrutizkinez niretzako errekadu esturazkoa.

Auzoko neskato bat noiz hilgo egoala. Ni beragana joan nendila eskatzen ebala.

— Gau osoan zure galde: noiz etorriko jat Jon?

Umetatik ezagutzen ninduan. Bera umea, ni gaztetxua. Umetatik nire belaunetan gora, nire bizkarrean, sorbaldetan ibiltzen zan Amaiatxu.

— Biziena dau, gaixoak. Odolean zehar gorputz guztira hedatu jako. Atzenetan dago. Zatoz, arren. Hil baino lehen zugaz ezkondu gura leukela...

Amaiatxu, hamabost urte betetzear.

Albistearen mingotsa! Atsekabe barria ekarstan barri gazigarratza.

— Baina, Amaiatxuk jakin daki ni ezkondata nagoana.

— Bai, ba daki. Baina emaztea zugaz etxean bizi ez dana be, norbaiti entzun deutsa ta... aske zagozala uste dau. «Jon-egaz ezkondu, eta gero hil»... zenbat bidar esan ez ete dauan! Haren grinea ta uzia! Aitaz aparte, zeu izan zareala berak maiteen izan dauan gizona.

Idazterakoan benetako saminak edonork gordetzen ei ditu, eta besteren gairik mintsuenak agertu.

Amaiatxu! Begi haundi urdin-zuriduna. Azal argiko neskatoa. Buruko uleak apain eta naro, sorbaldetan eta bizkarrean behera, batzuek bular politen ganean zabal zabal. Maite ninduala!... Haren berba gozo, samur, atseginak. Neskato xalo, begikoa. Amaia sorgintxua!

Lana bertan behera laga neban eta hareenera joan nintzan. Lilura itzela eukalako, ezin hari ezetzik esan. Hari guzur iragankorra esateko ez neban zalantzarik ez kezkarik izango.

Arnasea astun nekatsua; amak eta izekok esan eutsenean ni hara

ninoiala harek eskatu eta jesarrita ikusi neban, ahal eban moduan jesarrita egoan. Lehenengotan ez ninduan ezagutu. Negarra begian; gelatik aldegin neban, begietaratu jatazan malkoak lehortzeko.

Esan eutsen esan, eta barriro sartu nintzan haren gelara. Orduan konturatu zan, eta une goren horretan sarri askotan gaixoei etorten jaken argitasuna hari be heldu jakola esan beharko.

— Jon, Jontxu! Heldu zatxataz. Ba nekian nik, nigaz ezkontzeko prest egongo zinana. Ondo ez nagoana konturatu naz. Ea egia dan itandu dot, eta baietz esan deuste. Ezin gehiagorik nik itxaron. Jon. Bakartadea izaten ei da hiltean. Baina bakartade hori zelanbait arinduteko bidea zu izango zara. Zure igurtziak, zure laztanak, beti ohi zenduzanak. Amesa laster... beteko... da. Biderako laguna... zure bihotza izango dot.

Ixildu egin zan, nekearen nekez. Jauskera handia igarten jakon.

— ... bai. Neugaz ezkontzen zara une honetan, Jon. Ba nekian. Zuk maite nozu eta emaztetzat hartzen nozu? Bai. Baietz entzun deusut. Eta nik senartzat hartzen zaitut. Biok alkar maite, biok senar-emazte. Bai... ezkondu gara. Bai. Laztandu... nagizu. Mosu egidazu; ez, ez, bekokian... ez. Ahoan. Ez izan ezeren bildur. Maitetasuna... heriotzea baino sendoago...

Esku bi nireak, esku bi harenak alkaturik, estututa. Ezpanetan mosu egin neutsan. Harek irribarre makala.

Atzeruntz joian, alboruntz... guztiok prest Amaiatxuri oratuteko.

Zimurtu ziran haren ezpanak. Zimeldu nik hari egin neutsan mosua.

— Zori... on... Ikusi... ikusi... hor dator Jauna, nire bila... neugaz,

Jon...

Haren burutxua makurtu egin zan, deslai, indarrrik bage. Ez eban gehiago barbarik egin.

Arnasarik be ez.

Amaia sorgintxu hori, nekeak amaitu jatzuzan.

Agur!

NIRE Opelean ninoiala, uste uste bako osteran haretan uste bako danbadea hartu eta harrezkero Dobaran jauna lehenengoz ikusi nebanean, egundoko besarkadea egin eustan Ibaietako kale baten.

Nire ezbeharraren barri behingoan jakin ebala, baina egun hareetan atzerriruntz joan beharra izan ebala.

Dobaranen begietan pozezko ditzirea susmatu neban, ni halan makilarik ez beste ezer barik bizkor ikusi ninduean.

Lehen eukazan arazo eta buruhausteei lor barriak ganeratzea suertatu jakola adierazo eustan. Erretereri arazoak, aduanako gorabeherak, azpizaporen baten jokorik ete ebilen bere kaltez. Paperak artez ete eukazan, euskalerrietan hara horra susmatu ebela... Demokrazian egon, baina lehengo barruko esteetan lehengo zizariak edo, bizio iraunkorrek edo.

Damianek zituan kredito bi be, aitatu eustazan: epea betetzear eta

garatzak mehealdiak jasan eta ezin euren garaian aukeran erantzun. Dobaranek, berbere dirurik ez eukala inori lagateko moduan, une haretan behintzat. Ezta nik be, erantzun neutsan. Ezagutu ebanetik, Damian aldaturik edo ikusten ebala. Lanetan be, gero ta neke handia-goa; karguaren pixua herrizaletasunez soilik jasaten ebala. Eta etxean be...

Senar-emazteen artean lehenagoko egoereak aldakuntzaren bat izan ete dauan, eta abar. Dobaran ez-jakinean ebilela, edota ekiana zurikatzen ebilela be, uste izan neban.

— Polisene, bizimodu horrezaz aspertu ete dan be, erdi adierazo eustala esango neuke. Ez dabe umerik izan. Poli umezale dala. Ez dakit.

— ...

— E... Jon; zugaz zaletu ez ete dan be... Buruan horrelako zerbait dot, haren berbetatik.

— Egiaren inguru zabiltz, Dobaran. Eta egia esango deutsut. Emazteak eta Isasik hausita dauke lehen eben azaleko egoera baketsua. Polik «nahikoa da» argi ta garbi esan izan deutso bere senarrari. Jazoera nekatsuak, baina mundu honetan falta ez diranak. Azaleko egoera baketsua esan deutsut, hartu-emon sakonagorik... ulertzen, Dobaran?

Ixil geratu zan Dobaran une laburrean. Buruari astiro eraginez, gehitu eustan:

— Ulertzen dot. Ez dot orainarte nire kaskarrean horrelakorik erabili; baina bai, daitekena da. Eta zu ezagutu zaituanean, bide edegia harek ikusi edo...

— Ez hain edegia. Hor dago bigarren untzea! Harek ezkontzea ezereztuteko ingirak egin gura ditu, eta hasi ez bada, laster edo orain bertan hasi daiteke.

— Zuk u, bide ez hain edegia esan dozu. Gatx izango dauala ezereztutea lortzea?

— Poli nigaz... bai! Gurari horren erakutsia emon deust. Baina, elorrioa eta lorra ba dot, nik neuk be.

— Zuk?

— Bai. Neuk.

Eta nire ezkontza egoerearen zer nagusiak jakinerazo neutsazan.

— Baina zer jazoten da orain, gure artean be honelako erabagi latzak, garratzak hartzeko, hain lerakor, hain irristakor bihurtuteko?

Ixil geratu ginan.

— Krisia, krisia.. zetan ez dogu krisi...

Ez eban Dobaranek bere esaldia amaitu.

— Dobaran, bakartadea norbere gogoz edo amesez edo inoiz halaberrak eraginda be lagatea erabagi ostean, gero be, zetan edo haretan, —eta zetan edo haretan hori ez da huskeria, Dobaran, hau ondo dakizu— bakartade behar leukeana bakartade berezi bihurtzen badin bada... Eta horra! Nik be, hasi ditut paperketa horreek. Mingotsa izan da nire esperientzia; mingotsa Polirena.

— Ez gaitzean, Jon, guztiok batean negarrez hasi.

Pixu handia kendu nebala, esan neutsan nire lagunari. Atsekabe aldian norbaiti koitea jotea berezkoa zala esanez ara be, bareagotu ninduan Dobaraneke.

— Alkarrengandik gero ta hurrerago gagoz, Jon.

— ...

Ez eustan ezer gehitu, ez neutsan ezer itandu.

Aste bete inguruan uri handi batetik bestera ibili nintzan, nik lan egiten neban Etxeak han hor zituan adarretxeak ikusten, aztertzen. Lasterrean atzerri urrunera joan behar izango nebala teknika barriak ikasteko eta gure lantegietan ezarri ahal izateko. Atzerri urrunekora, jaio nintzan eta bizi nintzan lur maitetik asago. Lur honetan bizi dan Herria unada baten bertan behera edo, lagaten nebala.

«BAINA arerioa, eusko-kukua, Asmoaren susmoan dabil. Ez gure onerako, gure kalterako baino. Euskalduna euskaldun jaio dalako, errudun al da? Gizona norbere biziaren jabe ez baldin bada —bizi hori ehun urte baino lehen galdu egingo dau eta—, are ezago inungo gizonen biziaren jabe. Herri bat beste Herriren biziaren jabe, ezin. Kalte ustezko hori edozelako zemaiez etorri leigu, indarrez, gosez, lurrak erretez, urak edentzez, haize kirastutez, azpijokoz, zimarkunkeriz. Iraun. Arerioaren aurrean adorea. Indartsuena be, bildur izaten da batzuetan. Asmoari iraun. Eta Herriari».

— EZKONTZEA alkarrekiko zera da. Horixe adierazo eusten. Senar-emazteek alkarrekiko zorrak izango. Eskeinka egon nintxatzun lehenengo gauan, lehenengo egunsentian, eta hurrengoetan. Ez zatxataz inoiz be, bila etorri, eske etorri.

— Galduaren berbetea darabilzu, Poli. Zer egin deutsu Uranga... horrek? Bai, ni baino gazteago da. Itxurak... Emakumeen zorakeria. Beti Valentinoren baten zain. Garramurea zuzpertz deutsu zure haragi baketsuan. Pekatu bideruntz saka egin deutsu.

— Zer da pekatua? Emaztearen mintza urratzeko...

— Ixilik, infernuko deabru kume hori...! Zu ez zara lehena. Aldatu egin da zure barrua.

— Zetarako ezkondu... zinan?

— Arren, kargurik dodan artean ez egizu haizatu kalean gure arteko...

— Ze kargu ta kargu ondo! Puntu berari ekiten beti. Etxean eta auzoan bakea zetik onena. Baina bakea... alde bietatik helduko; osterantzean alperreko bakea, zuzentasunik ez bada. Grinarik bagakoa, taket igarra. Aingeruek ez ei dauke narrurik. Guk bai.

— Galdumendien galdumendia! Zegaitik ez deustazu...

— Zazpi urteko umea ete zara?

— Emakumea berbea da. Emakume ez bazina...

— Ez daukazu bizarrik.

Atea brastadan itxi eta Damian etxetik joan zan.

— Ez dau Judasen antzean bere burua... Geldi hor!

IBAIETAN gagozala alkar ikusi dogu Dobaranek eta biok.

— Jon, ez dakit inoiz gehiago Euskalerriratuko nazan. Nire guraria lehenbailehen hona betiko etortea izango litzateke. Neure dodan aberri-
ra bihurtzea. Maite ditut herriak, neurea maiteen. Bigarren aberria
semeen herria izan ohi da.

— Eta zuk ondorengorik ez.

— Laga orain arlo horri. Agindu neutsun eta agindua bete behar
dot.

— Albista zaharrak, jazoriko zaharrak...

— Zuretzat barri-barria dana esango deutsut. Gizon baten historia,
oraindino amaitu ez dan historia.

— Batena.

— Batena; gero, birena eta are gehiagorena izango dana. Baina
hementxe afaldu ginei, artez baderitxazu.

Urezandi joan zala barriren barri, beste euskaldun askoren antzera,
unada haretan bildurrezko ihesak erakarrikiko joatea. Pasadio mordoa
agertu arren, berea ez zana agertu beharra. Han, Ameriketako hainbat
Estadutan ibili, hainbat euskaldun be, ezagutu. Gizonen esturak mila
modutakoak izan.

— Beste euskaldun askoren artean, bat ezagutu neban, Jon. Alkar
sarri ikusi, eta ezagunetik adiskide mailara heldu. Bere sentimentua
erakutsi eustan; harrezkero, kezkak eta ardurak. Bihotza zati bikoa
ebala; zati bat han, bestea hemen. Gizon langilea, txeratsua; begi
bizkorrak, arpegi irriberea. Lagungina haren begiradea.

— Zeu be lagungina zara.

— Beti ez gara bardinak. Odola barrizatzen jakun antzean, as-
moak, bihozkadak be... Ez jatzu zuri inoiz horrelakorik jazo? Bai, ziur
asko. Gure guramena, beti erne. Asmamena be, urduri batzuetan. Eta
irudimena, zoro zoro sarri. Gomutea, barriz, zuloz beterik zahartzarora
heltzean. Halan be, aintzinakoa eskuan; oraingoa kakoan.

— Hori da etorria!

— Ai, hori balitz! Behar bada, ekarria baino ez da. Gizon horrek
be, nire antzera, eragozpenak eta lorrak han, heldu barritan. Gero,
polito ekin eta polito dago eskuartez.

— Harek ez onuntz etorri gura?

— Arean, gura ta ezin.

— Seniderik...

— Munduko gertaeretan bat bakarra jazo jakon eta...

— Seniderik ez al dau orain hemen?

— Itxain, Jon. Gizon horrek, emazterik izan ez ta be, ondorengorik
ba dau.

— Haren zoria! Nik ez dot solorik-ezik izan, baina ez dot landara-
rik lortu.

Barazkiz maneaturiko jatekoa dakarskue afari hasierakotzat.

— Ekin degiodan gizon horren istorioari.

— Luzea al da?

- Bere neurria behar dau. Istorio hutsa ez dalako.
- Eta hotza?
- Ez hain zuzen be. Beroa esango neuke. Harek eta emakume hatek hasi...
- Eta hirugarrenik? Vodevilen bat edo?
- Ez, hirugarrena biren batzetik etorriko zan. Hortxe dago untzea.
- Lehenengoaren azterrena, eta bigarrenarena hor dira.
- Eta hirugarrenarena, Dobaran?
- Lehena, hirugarrena, eta bigarrena, honelantxe nire bilaketak eta...
- Saltoka, beraz?
- Bai. Bat, bi, hiru, baina nik bat, bi, hiru... ez.
- Adarra joten zabiltz.
- Ez, lehenengo nasai afaldu. Gero, egia osoa agertu. Harengandik eta besteengana itsasoa bitarte. Ni be, hemendik haruntz joango naz. Ba dakizu. Zereginik gehienak bete uste ditut. Hauxe, ausaz, azkenetarikoa. Ez, azkena. Ixilekoa da. Nik, ba dakit. Zuk, ez. Beste norbaitek be ez. Edo norbaitzuek. Zer batzuk paper bitartez egiten diran arren, esatea, berbaz esatea aparteko indarra daukan modua da gizonon artean.
- Berbaz esateak daukan grazia.
- Bai, ahotik belarrira. Sarritan, bihotzetik bihotzera. Horra ba! Mahai-azkenetan gagoz eta istorioaren atzena be ez da urrun.
- Barriketa luzea... hutsa adierazoteko.
- Ez uste, Jon. Saiheska ta zeharka ibili nazan arren, mugara noiz helduko gagoz. Kafea edango dogu, eta txol bat edo beste.
- Zera gogoratzen deustazu, Dobaran; antzerkia agertzen haste orduan, kopatxua ona izaten zala barrua berotzeko.
- Horixe berberori, Jon. Hurrenez hurren joateko, nor nor dan azalduko. Lehenengoa, argitu dogunez, Ameriketara dago. Nire adinekoa edo, baina dana dala agurea, ezta? Bigarrena han urian dago. Ez dau handik inoiz aldegin. Hirugarrena be, uri haretan ibilia da, oraintsu behintzat.
- Dobaran ixildu egin da eta kafe txikarea ahoruntz daroa.
- Moka gozoa!
- Urruneruntz begira dago. Loak hartuko ete dauan nago. Begiak itxiko ete dituan.
- Zuretzat argi egongo da, baina ez dot ezertxu be ulertzen.
- Egia; ez da harritzeko, Jon... Uranga.
- Ez jatzu ahaztu nire abizena.
- Zure abizena... beste bat izan eitekean.
- E?
- Txikitako gauza batzuk gogoan izango dituzu. Baina hasiera-koak, ezin. Gurasoak...
- Joan ziran. Onak izan ziran. Ama lehenengo, aita geroago... Joan ziran.

— Zure aita eta ama, oraindino bizi dira. Aita, itsasoz harandi; ama, uri haretan. Zuk Elisabete ezagutzen dozu.

— Ja, ja, ja! Ni baino gazteago dala, zelan...?

— Ama, ez. Arrebea, bai.

— Elisabete, Elisabete... berba hori bai nik sarri entzun urian, batagandik eta bestegandik. Eta zu be, eta... diraustasun ama be, eta Eli bera be, niri begira eta... Nahastau egin gura ete nozu, Dobaran? Eta aita? Zure asmakizunak ez ete dira?

— Aita... Elisabeteren eta Balbiren aita, Kandido izan zan.

— Eta nirea, zuk asmatu dozunez?

— Ez, asmatu, ez. Zure aita... Boni da.

— Eta andra Fabi, horretara ezkerro, ama al dot? Berak ba al daki? Eta Elisabetek eta Balbik?

— Fabik ba daki seina egin ebana. Eli... horren susmoan dabil aspaldion. Andra Fabik ondo sekretuan dauko... ixileko hori. Urian be, ahaztu zan edo, aintzinako kontu hori.

— Sinestu degizudan, zertzelada guztiak esan behar izango deustazuz.

— Ez nozu guzurtitzat etsiko?

— Ez deusut guzurrik inoiz... Zelan, zelan izan zan...?

— Kandido eta Fabi ezkondu ziran euren garaian. Harik lasterrean Kandido, barkuetako maiordomua zan eta, ostera luzerako ontziratu zan. Asteak eta hilak iragan, eta ez ontziaren ez ontzikoen barririk ez. Urrunetara joan zirala eta, jentea luzeretzian. Agertu behar dana agertu egiten, eta Fabiren ama, ama guztien antzean, zerbaitegaz konturatu, eta susmoa susmo, bere alaba aspaldi ezkonduari ixil-mixilka esan eutsan:

— Ene alabea, begiotan lanbroa ez badot, azurbarritan zagozala esango neuskizu. Ez dot uste neure irudikizun hutsa danik. Nogaz ibili zara iztarpeka?

— Ni?...?

— Ez egidazu ukatu begion aurrean dodana. Kanean bestek sumatu ez arren, nik egin dot.

Eta amak bere alaba Fabiri, biloizik geratu zan arte, soinean zituan jantzi guztiak erantzierazo eutsazan. ta ikutuak egin goienik-barren.

— Ez ezetzik esan, Fabi. Norena dozu sein hau?

— Ba... neure senarrarena.

— Guzuzur biribila. Baina... ezin izan. Hamar hilabete izango dira Kandidok etxetik aldegin eutsula, eta zu... bost edo sei hilabetegarrenean zagoz. Egia ez al da? Nogaz...

— Ez dakit nik ba. Atzeratu edo.

— Bai, e? Suangilen antzera lau-bost hilabetean lo egon ete da zure erraietan gizonaren hazia? Ut, ut, ut! Horrelakorik ez da egundo be entzun.

Ta Fabi, ixilik bai ixilik. Horraitino, harik egun gitxira, uritik norbaitek aldegin eban, inori agurrik egiteke. Boni izan zan aldegin

ebana. Arrapaladan amak eta aitak Fabi uritik erbestera eroan eben. Gaixorik egoala, eta haizeak hartzen. Horixe izan zan auzoko eta uriko guztientzako egia ofiziala. Unada baten uritik urrun bizi izan zan Fabi.

BONIK nundik eta zelan jakin zituan zure gorabeherak? Esango deusdaz, Jon. Harik geroetan Bonik han euskaldun baten hotelean, beste lagun askoren artean, gaixozain bat, emakumea ezagutu eban. Haregaz ezagupidea egin eta barriketan barriketan, Bonik behinola aitatu ei eutsan, munduan aita bako umeak be ba ziralara, eta emakume harek ezetz. Harira jota, Boni berak be, han bizi izan zan urian norbait —ez ei eutsan esan bere ezkonarrebea zanik— seindun laga ebala. Emakume gazte eta polita zana.

— Zelan eritxon emakume hari?

— Horixe be, ba da gaita gurca izatea! Zetarako haren izena... Fabi zan, Fabi.

— Fabi?... Berbera, orduan. Emakume polita, begi politagoak, argiak, biziak. Geure klinikan sein egin eban. Mutikotxua, amaren antzekoa. Aitita-amamak esturaz ibili ziran. Fabi artean klinikan, eta seinu kendu eta eroan egin eben. Nora? Ez neban orduan jakin. Harik geroetan, urte bi ta erdi edo izango zan, gure medikuak, —ha eta ni izan ginan emagintzako laguntzaile— adierazo eustan; «Gomutan al dozu orain urte bi ta erdi, hemen mutiko bat jaio eta blist blaut ama erditubarriari kendu eta eroan euskuena? Bai, emakumea, Fabi zan haren izena. Ba, zuk ez jakin baina nik bai; basetxe baten hazi eben eta oraintsu, nire adiskide handi diran Urangatarrak umerik ez eta umea nahi, neuk zertu nituan. Eta gaur, mutiko hori semetzakotu egin dabe, eta Jon Uranga da».

Bonik, ereti hori ez galdu, eta gaixozain harengandik mediku horren izen abizenak eta klinikea zeintzuk ziran jakitea lortu eban. Eta bere asmoak beteteko ingirak egiten jardun eban. Ba ekian bere anai Kandido hil zana, ba ekian honen seme —alabak Balbi eta Elisabete zirana, eta amagaz urian bizi zirana. Zertzeladok behin baino sarriago esaten eustazan. Honuntz etorteko nintzala adierazo neutsanean, orduan emon eustan azterren garbia zuri buruz. Medikua nor zan eta nun lan egiten eban. Hauxe be, harrigarri izango jatzu. Medikua horrek beste batzuk be bai, baina seme bat Samuel izenekoa dau.

— Samu... Samuel? Eta honek...

— Horrek ba daki; beti jakin dau, moduren baten esateko, zure joan-etorria.

— Samu... Jakin, eta egundo aitatu be ez harek niri.

— Gai minberak ixilik gordetea, arima finen doe bikaina da. Hortik jo neban nik zugana. Samuel bitarteko.

— Hagaitik haren karta labur eta erdi misteriotsuko, harako «Do-barani lagundu egiozu». Ez jatzu damutuko, edo...

— Orain, zeuk eta neuk ikusi ditugu Elisabete eta... ama.

— Elisabetek...

— Zure antz handiagorik!

Halan be, istorio dardagarria ezin nik hain errez sinestu. Begien aurrean neban, horraitino, ingurukoen halako batasuna.

— Urrutizkinera noa —dirautsat brastadan Dobarani.

— Zer egingo dozu?

— Samueli deitu.

— Ederto. Datorrela, ahal ba dau.

Etxean egoan. Dobaran lagun nebala afaltzen gengozala, hain jatetxetan. Berehala etorrela.

Eta berehala etorri da. Samu agertu eta bertatik dirautso Dobaranek:

— Samuel, guzti guztia esan deusat.

Egundoko besarkadea egin eustan Samu laguntzarrak. Notarioa zala neritxon. Testamentu ezagunaren barrukoaren fedemoile nebala.

— Adiskide haundi baino be gehiago izan zatxataz, Samu Samuel.

— Bai, zadorlari. Zadorra ostenduta daukana.

Gau haretan urrunerako trenean joan behar zala, eta une labur baizen sentimentuz betearen ondoren, Samuk han laga gu, eta aldegin eban.

AZALA edo narrua aldatzen daben patarien antzerako moduan nengoala uste izan neban une haretan. Neu lehengoa izan arren, inguruak nirekiko aldatua zirudian. Aita eta ama ezagutu nituala uste izan, neureak zirala sinestu, eta goizetik gauera, gizon baten edo biren berbetatik... urlia ta sandia nire sortzaile. Harrezkero jakin dodanez, ez naz bakarra gerta kasu bardinean. Arean be, Uranga —edo dana dalakoa— izan beti, eta geroetan...

Ni gaztea, Dobaran zaharrago, eztabaida adiskidetsuan baina bizian sartu ginan. Andra Fabigana bapatean joateko oldarra sentidu neban barruan; baina, aldi berean, nire denporan ama izan ez nebanari «ama» esan behar, eta barruko burrukea.

Dobaranen aburuz ni amagana itsumustuan joatea, Fabi hain jausia, hauskorra, samurberea egoala guk jakinik...

Adimeneko argia eta bihotzeko eragina nituen ekatx ekarle. Bene-tako aita eta ama bizirik, eta zeharo bananduta. Lehen eta orain. Beti. Beti, harako izkepotean izan ezik. «Bi izanik, haragian bat izango», liburu santuetako berbak. Horraitino, hareen batasuna beste inork onetsi bagea izan eta, hortik esturea, okerra, porrota. Izen ona dilindan jarri eutselarik.

— Jon, zure barruan dabilen sentimentu uriolaren zartakadak entzuten deusudazala esango neuskizu —ganeratu eustan Dobaranek—. Behar bada, ez deusut albista edo barri zahar hau duin zan egokitasunez, biguntasunez jakinerazo. Behar bada, emakumearen jakituriak gizonaren aurrean bere titiak biloizik jarri barik, barestuten dan ehunez estaldu ohi dituan antzean, erdi-ikusgarri ipini behar izango nik zuri. Baina, dorpe edo trakets, esan deusut eta, ausaz...

— Ez, Dobaran jauna, zuk ez deustazu ezetariko irainik ez egokitasun— ezik agertu. Bestera, horraitino; eskerrona zor deustut. Are gehiago, hemendik gorakoan zu be... gure senidetasurean sartzen ete zarean, baiezuko neuke.

Azkenen buruan, ama benetakoa nik ikusteko ereti egokia helduko zala uste izan genduan. Eta barriro Boni eta ni izan zituan Dobaranek bere arduren ardatz. Ni ezagutu baizen laster karteia idatzi eutsala Boniri, nizaz orduan ekiana adierazoz. Bonik bere koinatearen seme-alabentzat emoiak, esku-erakutsiak emon eutsazana, ba nekiala, hain zuzen be, testigu eroan ninduan eta; testigu errubako.

— Beinke errubako, eta inusente eroan ninduzun —esan neutsan Dobarani, saihtesean kilikili eginez.

Honen barreak une haretan! Barriro be arteak hartu eta baretu ginanean zan hori.

Nitzako dirua eukala, Bonik bere seme bakarrari berezko maitetasunez eskeini eta emon gura eutsana. Kandidoren seme-alabentzat be bai —amaren aldetik nire anai-arrebak—, baina nitzat gehiago. Nun, eta Bank of America dalakoan egozala mordo nagusia —nitzakoa—, eta txikerragoa, —besteentzakoa—. Eta agindu antzekoa; hiruron artean geure ama Fabiri lagundu behar izango geuntsala.

Ostera be, minbera jarri nintzan. Harako amak nigaz egin ebana egin beharra!

Dobaranek gogor hartu ninduan; halan be, haren berba ederrak ez ditut inoiz ahaztu.

— Gure egunotan, Jon, ume ugari sortzen da. Eta sortu ondoren, jaio baino lehen, amaren sabelean inungo errurik bage dagozan seinak, amak berak eta ernaltzaileak gura izan ez dituelako, umekei baino ez dirala destainez esanez, edota aurretiaz eta ziurtasunik bage mamu, itxurabako, bidutzi zatarrak izango dirala eta ez-opagarriztat etsirik... hiltzen dituen sein errubakoak, zeinbat ete diran hogeigarren mende honen azkenetaruntzean? Eta zu ez, Jon, zu ez zinduzan amak barruan zeunkazanean ez zapaldu, ez erre, ez odolustu. Eta ezta jaio zinanean ito be. Gurasoen eragin garratzez, ha bera artean erdibarra egoanean haren menpetik indarrez kendu eta eroana izan zinan. Eta gero halako txatxarkeriaz, lotsabide izan eitekeala ta, zure azterrena zeharo ilundu amari. Geroetan, begiakaz ez ikusi, gomutatik be ihesi.

— AMA, zelan zagoz? Beherakadea izan ei dozu, baina hobeto zagoz, ezta? Halan be, harako sekretoren bat hilobira eroan gura izango ete zeunke? Zegaitik, ama? Egia esateak, kalterik al dakar?

— Egia esaten ahalegin egin dot beti. Ez ete dozu sinestuten?

— Baina esan ez dozun egia, noiz esango niri?

— Zeren susmoan zabiltz? Nasai nasai hiltzen ezin laga ete zineist? Honen larria dodan uneon be, errukirik ez zuk?

— Larriezago gerta dakizun, arindu gura deustut. Ez autortuko? Ama begiak hertsi ditu eta arnasea hartu gura dau.

— Une honetan, ama, zeu, neu eta Jaungoikoa, zeinentzat ezetari-ko ezkuturik ez dagoan.

— Eli... ama nozu. Ez egidazu itaun gehiagorik egin.

— Bat bakarra, ama. Aita...

— Aita... Kandido izan zana ondo dakizu.

— Eta Boni?...

Ixilune ikaragarria amaren logelan.

— Zu, Eli, hirugarrena izan zara, nire umeetarik hirug...

— Eta bat hil, ala...? Balbi zenbakarrena?

Amak begiak edegi ditu. Adorea hartu gura dauala dirudi.

— Nire bigarren sein.

— Eta, beraz, lehenengoa, zein?

— Mutikoa izan zan.

— Eta nun? Nora?

— Hauxe da larria, Eli!

— Amatxu, berbatxu bi besterik ez. Eta gero, atsedean; lo gozoa.

— Jon, ene mutikotxua, nun zagoz? Aita... Boni izan zan.

— Osaba Boni...?

Amak buruagaz baietz adierazo deutso bere alaba Eliri. Irribarre samurra sortu da amaren ahoan. Elisabetek ez daki nun dagoan be; susmoa ebana argitu dan arren, o! zein dan gorbizgarri eta minbera hain egia galanta bizi osoan ez jakin izana!

— Aita urrunean, Boni eta ni...

— Ixi, ama! Egin lo. Jon etorriko da ta...

— Baaai? Hau poza...!

Bere biziko ixilekoa azaleratu ondoren, ama zeharo baretu da.

BARRIREN barri hotsegin deust urrutizkinez Dobaranek.

— Jon zaitut?

— Berbera.

— Ama txarto dago. Elisabetek adierazo deust. Autortu deutso azkenean be.

— Zer?

— Bere lehenengo sein Jon mutikotxua izan zala. Aita, Boni. Bere Jon nun ete dan galdezka hasi da. Goazen.

Bihotza erdibi egingo jatala uste dot. Ama ba joat, inoiz be laztandu ez dodan ama neurea.

Opel zintzoak garoaz Dobaren eta ni.

Ibaietatik urira ez dot sekula honen bizkor egin.

BALBI nire anaieak etxera sarreran besarkatu nau. Dana daki.

— Ta?

— Albetan luzatuz. Zatoze ixil ixilik. Dobaran jauna, milesker.

Nire arrebea jatort besoetara. Biok negarrez.

— Jon!

— Elis...!

Biok arnasea bete ezinik. Malkoak lehortu, eta amaren logelara.

— A... ma... —dirautso ixil eta gozo Elisabetek.

— Zer... laztan hori?

— Jon dator.

— Ba nekian... Bete zan etorteko. Ai, hau nekea!...

— Etorri da. Mosu egingo deutsu.

Amagana joan naz. Mosu egin deutsat bekokian, matrailetan, ahoan. Mun egin deutsat eskuetan.

— Jon, belauniko jarri zaitez. Holantxe.

Belauniko jarri gara hiru nebarrebok.

— Jon... ba zakustaz. Berbera... begi zein politak! Begi argienak zeuk. Arpegiz hirurok... antzerakoak. Baina begi argienak... neure lehenengo seinak...

Ixilunea.

Ixilune luzea amaren eztarriko zirri-zorroak eteten dau soilik.

— Ba doa, ba joaku —dino Elisabetek, negarrari eutsi ezinik.

— AMA izango naz, Jon —esan deust Polisenek, amaren hileta ostean.

Harrituta geratu naz.

— Ama?

— Bai. Damianen ama izango naz oraindik gorakoan. Perlesiak jota daukat. Ez dau etxetik urteten. Ez jakin noiz arte horrelan. Ona izan zatxataz, Jon. Eskerrik asko. Ez egizu emaztea laga. Damututa dago. Neuk dakit. Belukorra da; bai, berandukoa. Zeuganatuko jatzu. Eta ondorengoak izango dituzue. Bai. Zeure begira dago; zeure gura. Ondo izan. Agur... Jon...



BAINA gauetan mendiak ixilik dagoz. Ibarrak ixilago. Uri haundirik bagako ibarrak.

Antzinatik lurren jabe dan Herriaren izpiritua ibili dabil, itzali ezinik basorik baso, larrarik larra, solorik solo, basetxerik basetxe. Haize zabalean nahiz aterpean, etxean nahiz gizartean, kalean nahiz espetxean... ibili dabil; eta ibiliko be.

Ausaz, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi zatitan zatituriko izpiritua, zazpi ahaleginen ereduari jarrai.

Baina bat bakarraren inguru; ahalegin neketsuetan, baina bat bakarraren guran.


Basojaunak eta maitagarriak gau-minean batzen dira, urtean lau bidar. Eta euskoak ume-min izan behar dirala, dinoe. Iraupena jarraipenak dakarrelako.

Eta laminek ibai eta errekek garbitzen dihardue, eta iturriak gardenagotzen. Izpirituak ur garbia behar daualako.

Eta ibaiek zubiak eskatzen dituelako.

Eta izpirituak, hodei guztien azpitik eta sasi guztien ganetik, katairik bagako askatasuna eta zuzentasunaren laban erretako ogia eskatzen daualako. Bakearen ogi zuria.

Baina gauetan, dana ixilik...



Irribarrea galtzen danean
gizartea da galtzaile;
begiek euken ditzira ona
gero, graziarik bage.

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 12.656/87

Gaia.

Tokia.

